

# GLOBALIZAZIOA ETA INGURUMENA. EUSKAL BEGIRADA BAT

Iñaki Barcena Hinojal (koord.)

Udako Euskal **Unibertsitatea**  
Bilbo, 2003

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Iñaki Barcena Hinojal

ISBN: 84-8438-046-7

Lege-gordailua: BI-3195-03

Inprimategia: RGM, Bilbo

Azalaren diseinua: MARRA, Bilbo

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Leire Calle eta Jose Ramon Etxebarria

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: [argitalpenak@ueu.org](mailto:argitalpenak@ueu.org)

[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

*Globalizazio hitza da seguraski azken urteetan  
txartoen erabilia, gutxien definitua eta litekeena  
gutxien ulertua, lainotsuena eta politikoki  
eraginkorra, dudarik gabe datozen urteetan ere*

*Ulrich Beck*

*Liburu hau nasmen horretatik alde egiteko bere  
indarrak eman dituzten guztiei dedikatu nahi diegu*



## Aurkibidea

<i>Sarrera gisa: Globalizazioa eta ingurumena, Euskal Herritik begiratuak, Iñaki Barcena. . . . .</i>	9
<i>Ingurumenaren erronkak, globalizazioaren garaia, Juan Lopez Uralde . . . . .</i>	11
<i>Johannesburgoko irakaspenak: ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunerako erronka global eta tokikoak, Iñaki Barcena. . . . .</i>	15
<i>Globalizazioaren aurkako dinamikak: Seattletik Cancunera, Porto Alegren zehar, Paul Nicholson-i elkarrizketa. . . . .</i>	33
<i>Globalizazio neoliberalaren gezurrezko determinismoa, Zesar Martinez . . . . .</i>	43
<i>Globalizazioaren zoko ilunak: garapen-bideen hesiak nekazaritzan, Efren Areskurrinaga . . . . .</i>	61
<i>Liluraren alde, liluraren kontra, Aitor Zuberogoitia . . . . .</i>	85
<i>Globalizazioa eta nazio-arazoa: Euskal Herriko globalizazioaren arkako mugimenduaren diskurtsoa. “Hemen eta munduan”, Linda Parenti eta Iñaki Barcena . . . . .</i>	97
<i>Naturaren kontserbazioa eta ingurumena. Urdaibai: izadia, baserria eta gizakia jasangarritasunaren kabian, Xabier Arana. . . . .</i>	115
<i>Klimaren eta lurraren gaineko gogoeta-uholdeak oinarri, Iñaki Antiguiedad . . . . .</i>	125
<i>Garraioko azpiegiturak eta dinamikak jasangarritasunaren ikuspuntutik, Helena Franco . . . . .</i>	141

<i>Ingurumenaren informazioa Euskal Telebistan</i> , Joana Mendiburu . . . . .	171
<i>Zornotza Bizirik: Ez Gure Etxe Globalaren Baratzeko Lokalean</i> , Josu Larrinaga	179
<i>Energia, merkatua, jasangarritasuna: ardura globalei bertoko erantzunak</i> , Iñaki Barcena . . . . .	217

# **Sarrera gisa: Globalizazioa eta ingurumena, Euskal Herritik begiratuak.**

Iñaki Barcena, *EHU-Zientzia Politikoa*

Globalizazioaren garaian bizi gara, dudarik gabe. Bakarrik ohartu behar dugu egunero hitz hori zenbat aldiz entzutzen dugun edo azken urteotan izenburu horrekin zenbat liburu argitaratzen diren.

Dinamika ekonomikoak eta garapen teknologikoak planetaren distantziak txikitu egin dituzte, eta dirua, mezuak, pertsonak eta merkantziak, azelerazio berri batez, mundu osoari bueltaka dabilta. Horrek gure baitan eta gure eguneroko bizitzan egoera berriak ezartzen dizkigu, horregatik globalizazioa ez da fenomeno baketsu eta adostu bat, gatazkatsua baizik. Unibertsalismoaren bidetik munduaren arazoak konponduko direlakoan, batzuek kosmopolitismo berriaren aurrean jarrera positiboa agertzen dute, baina beste batzuek ozenki altxatzen dituzte ahots kritikoak globalizazio ekonomiko neoliberalaren aurka.

Ez dugu ezer berririk asmatu nahi hasierako baieztapen horrekin, baina aspaldidanik pentsatzen dugu tokian tokiko errealitateak eta nazioarteko dinamikak ezin direla bereizi eta horregatik otu zitzaigun globalizazioaren fenomenoari Euskal Herriko perspektiba lokaletik begiratu bat ematea.

Egitura horretan eta ingurumenaren ardatza abiapuntu nagusizat harturik, ekimen kolektibo hau martxan jartzerakoan, gehien axola zaiguna, globalizazioak gurera ekarritako egoera berriak aztertzea izan da; horretarako, gure inguruan geratutako aldaketei eta azterketei ekin diegu, idazlan-sorta hau batuz.

Eskuartearen daukazun liburua, beraz, talde-proiektu baten emaitza duzu; oinarrian 2002. urteko otsailean “Hermes eta Gaia III: Komunikazioa eta ingurumen-politikak globalizazioaren garaian”<sup>1</sup> izenburuarekin egin genuen ikastaro unibertsitarioaren eskolen bilduma, gehitutako artikulu interesgarri batzuekin.

---

1. Aurreko bi edizio horien bildumak *Inguruak* aldizkariak argitaratu zituen 24. eta 31. ale berezietan.

Diseinua egiterakoan pentsatzen genuen moduan, globalizazioa oso fenomeno asotarikoa da, eta bere barruan hartzen dituen hainbat eduki aztertzea oso interesgarria zen euskal perspektiba batetik, bertoko begi eta burumuinak erabiliz, baina nola ez, mundu osoan gertatzen ari diren aldaketekin lotuz.

Neoliberalismoak edo globalizazioak, munduko kapitalismoak edo globalitarismoak, nahi dugun moduan deitua, egoera berriak finkatu ditu gizakien artean eta gizartea eta naturaren arteko harremanetan. Guk azken horiei batez ere begiratu bat eman nahi izan diegu eta zuri dagokizu asmatu dugun edo ez esatea. Ongi etorri gurera!!



# Ingurumenaren erronkak, globalizazioaren garaia

Juan Lopez Uralde, *Greenpeaceko zuzendaria\**

Globalki pentsatu eta tokian ekin? 70eko hamarkadatik hona horixe izan da pentsamendu ekologistaren paradigma: endekatze globalaren kontzientzia ekintza lokaletan zehaztu behar zen. Ekintza txiki asko mundua aldatzeko emankorrak izan beharko ziren; baina, XXI. mendean sarturik, paradigma horren mugak ikusgarriak dira: Gero eta tokian tokiko jarduera gehiago milaka kilometrora hartzen diren erabakien menpe daude.

Adibidez, zarama birziklatzeko komunitate batek egiten duen ahalegina, zuzenean kalteturik izaten da, ontziei buruzko Europar Batasunean hartzen diren erabakiengatik edota Mundu Merkataritza Erakundeagatik (MME).

Horregatik, globalizazio ekonomikoaren garaian, ekintza lokala beharrezkotzat jo behar dugu, baina ezinbestean elkarloturik joan behar du une honetan munduaren ibilbidea markatzen duten nazioarteko instituzioak aldatzeko lanarekin.

Pentsa dezagun gaur egungo garaian, Iraken aurkako gerraren arriskua nabarmen dugunean, —giza eta ingurumen-hondamendiaz gain— petrolioaren prezioetan eta Kiotoko Protokoloaren gainean zalantzarik gabeko ondorio sendoak izango dituen eta abar. Nahikoa alda ekintza lokalekin edo tokian tokiko jarduerarekin eragina izatea maila globalean? Baina nola da posible eraginkorrak izatea esparru globalean? Bi galdera horiei erantzuten saiatuko naiz.

## **INGURUMENENKO ARAZO NAGUSIAK XXI. MENDEAREN HASIERAN**

1968. urtean, Rachel Carson iparramerikar biologoak *Silent Spring* (Udaberri isila) idazlana argitaratu zuen, non pestiziden kalteak biziaren baitan salatzen zituen. Hori ekologismo modernoaren jaiotzat hartu zen. Bi urte geroago, 1970ean, Lurraren lehengo eguna antolatu zen Ameriketako Estatu Batuetan, eta hortxe koka daiteke erakunde ekologista nagusien jaiotza.

---

\* Hauxe da, Juantxu Lopez Uraldek “Hermes eta Gaia III: Komunikazioa eta ingurumen-politikak globalizazioaren garaian” ikastaroan emandako hasierako hitzaldiaren transkripzioa.

Hogeita hamar urteko ingurumen-borrokaldirak ezagutuz gero, hainbat arazo ez direla konpondu, eta, gainera, larritzen ari direla ikusten da. Hona hemen adibide batzuk: Aldaketa klimatikoaren lehenengo zantzuak ari gara ikusten eta Kiotoko Protokoloa da tresna bakarra arazoari eusteko. Dena den, alderdi guztiek onartzen dute lehenengo aurrerapausoa baino ez dela. Hala eta guztiz ere, Ameriketako Estatu Batuetako gobernuak ez ditu gelditzen tresna hori oztotatzeko saioak.

Biodibertsitatearen galerak kezkarriak dira. Bakar-bakarrik geratzen ari gara. Baso pristinoen desagertapenarekin eta itsasoaren murriztapenarekin espezieen galera handitzen doa. Gizakiok 100.000 substantzia kimiko sintetiko baino gehiago sartu ditugu ekosistemetan. Neurri handi batean, ez dakigu osasunean sor ditzaketan eragozpenak zein diren. Haietako asko urte askotarako egongo dira gurekin. Mehatxu nuklearrak iraun egiten du eta zabaltzen doa. Txernobileko triskantzak ez du zentralen eta arma atomikoen zabalkundea gelditu.

### **ZERTAN OKERTU GARA?**

Ongi dakigu gero eta jende gehiago arduratuta dabilela ingurumen-egoerarekin. Gero eta talde aktibo gehiago ikusten dugu. Gobernu eta enpresariak ingurumen-sailak sortu dituzte. Jardunaldi, bilerak, kongresu eta hitzaldi gehiago dago, bai eta Nazioarteko goi-bilerak ere. Testuinguru horretan, zergatik ez doaz aurrera arazoak irtenbideak? Zergatik goaz txarrera? Gertatzen ari dena ongi ulertzeko fokua urrundu behar dugu. Panorama globalari begiratu eta ohartzen gara estatuak gero eta ahulagoak direla, beren ingurumenerako aginpideak, hau da ongi komun batena, aldezteara alde batera utzi dute, baina korporazio multinazionalak batu eta gero eta indartsuagoak dira. Aldi berean, politika multilateralak boikoteatzen dira eta alde bateko aginpidez ordezkatzen dira.

Azkenean, joko-arauak kontrol demokratikotik urrun dauden instituzioek ezartzen dituzte eta horiek merkataritza libre eta hazkunde ekonomikoa balio gorenez aurrejartzen dituzte. Erakundeak hauek dira:

- **MUNDU-MERKATARITZA ERAKUNDEA (MME)**. Instituzio honek zer datorren bat merkataritza askearekin eta zer ez ezartzen du. Bere botere koaktiboa oso handia da eta zigorrak jartzeko ahalmena dauka.
- **NAZIOARTEKO DIRU-FUNTSA (NDF)**. Munduko herrialdeei diru-laguntzak ematen dizkie, haien politika ekonomikoen arabera, ez badituzte neurri neoliberalak jartzen.
- **MUNDUKO BANKUA (MB)**. Ingurumenerako oso kaltegarriak diren inbertsioak eta proiektuak kudeatzen ditu. Testuinguru horretan, ingurumen-politikak beste lehentasunezko interesen atzetik geratzen dira.

Pentsa tokian eta globalki, eta ekin tokian eta globalki ere bai. Nire ikuspuntutik, fronte bietan egin behar da lan.

- a. Foro globaletan. Hor, naturaren suntsipena eta pobreziaaren aurkako neurriak lehentasunezko gaiak dira. Gure proposamenak hauexek dira: Haste-ko, ingurumenaren gobernua hobetu. Nazioarteko ingurumeneko akordioien kudeaketak batua izan behar du, herrialdeen aurkako zigor-ahalmena edukiz. Ingurumen-politikek merkataritza librearenak baino garrantzitsuagoak izan behar dute. Nazioarteko instituzio finantzieroen erreforma, benetako garapen jasangarria babestu arte. Hirugarrenez, multilateralismoaren defentsa, Ameriketako Estatu Batuen aldebatetikotasunaren aurka.
- b. Foro lokal, erregional eta nazionaletan ingurumen-politika aktiboak mar-txan jarri. Horretarako abiapuntuak hauexek lirateke: Rioko Akordioak praktikan jarri, ekintza politikoak indartu ekonomizismoaren aurrean eta ingurumen politikak lehenengo mailan jarri. Nire ikuspuntutik, bi arlo horietako lan-konbinazioak soilik ekar lezake norabidearen aldaketa, eta maldan beherako joera suntsitzailea gelditu.

### ***PRESTIGE-REN INGURUKO OHAR BATZUK***

Prestige petroliontzia-aren istripuak erakusten digu, gaurko petrolioaren garraioa globalizazioaren emaitza dela. Petrolio-enpresa transnasionalek, garraioaren kostuak gutxitzeko, neurri arriskutsu hauek hartu zituzten: itsas flota berezkoak desagertu zituzten; konbenentziazko ikur-ontziak erabiltzen dituzte normalean; ontzi bakoitzaren atzean, nahaste-borraste legal edo mafioso bat dago; horrela, erantzukizuna oso eskasa da.

Kutsatzen duenak ordain dezala dio Europako leloak; baina azkenean, Prestigeren kasuan ikusten ari garen bezala, jendeak garbitzen du eta jendeak ordaintzen du, eta ez da izan behar dena. Zer egin behar dugu hau aldatzeko? Esan dugun moduan, foru internazionaletan eta nazionaletan lan egin behar da. Gaur egun, Nazioarteko Itsas Erakundea (*Organización Marítima Internacional* delakoa) petrolio-enpresen eskuetan dago. Horregatik estatu batzuek, gure ustez Europakoak, noski, hortik irten beharko zuten benetako aldaketak lortzeko. Hortik aurrera, Europan, neurri politikoak hartu behar dira: Erantzukizun mugagabe erregimen berria adostu; kras-ko bakarreko petroliontziak guztiz kanporatu; konbenentziazko ikurra deritzona ere aldatu.

Neurri horiek hartuz gero, erregimen global berria eraikitzeko, instituzio politikoek dute eginkizuna. Nazioarteko Itsas Erakundearen barruan edo kanpoan hori guztia ez baldin bada aldatzen, are gutxiago tokian eta globalki eta ekin tokian eta globalki, horixe baita benetako aldaketak lortzeko bide bakarra.

Gaur egun, Nazioarteko Itsas Erakundearen (NIE) erantzukizun-erregimen bat dago, eta, horren arabera, erantzukizun nagusia armadorearena da; bestalde, funts bat dago, petrolio-enpresen funtsa. Arazoa da armadoreen erantzukizunean muga maximoa dagoela eta hori oso txikia dela. Prestigeren kasuan, 13 milioi eurokoa da, eta gero, enpresen funtsak ere badu muga bat: 180 milioi euro. Gure ustez, egoera hori aldatu beharra dago, erantzukizun mugagabea ezarritik, horrela, gauzak asko hobetuko lirateke. Esate baterako, Erikaren kasuan, kostu guztiak mila milioi eurokoak izan ziren eta kostu horiek barne ez da kontuan hartzen boluntarioen lana.

Modu horretan, istripuen parte handiena, hau da, kostu gehienak, estatuek ordaindu behar dituzte eta enpresa batzuek, petrolioaren arlokoak, dirua egiten dute garraio-modu hauekin; baina, kalteak egiten badituzte, estatuek edo jendeak ordaindu egin behar du, eta horri guztiz aldatu beharra dago. Zein da arazoa? Egitea posiblea da. Posiblea da, adibidez AEBetan, han legislazioak erregimen mugagabe bat ezartzen du, baina Europan gauzak ez dira hain errazak. Estatu batzuk, Grezian kasu, oso lotuta dago armadoreekin; Ingalaterran, Nazioarteko Itsas Erakundeak du egoitza eta Holandak ez du arriskuan jarri nahi Rotterdameko portuaren indarra, Europako indartsuena da eta. Ikusten dugunez, alde batetik badaude interes konkretu batzuk gauzak ez aldatzeko, eta beste alde batetik, NIE guztiz kontrolatuta dago petroliontzien enpresen aldetik, eta oso zaila da erakunde barruan gauzak aldatzea. Horregatik gure proposamena da estatu batzuek NIEtik irtetea eta erregimen berria ezartzea; horrela zerbait egin liteke, bestela erakundeen barruan ez da ezer aldatuko.

Horrelako gauzak iraganetik datoz. Argi dago AEBetan gauzak aldatu egin direla, Exxon Valdezeko esperientzia txarragatik. Kasu horretan, enpresa oso indartsua zen, eta Erikako kasuan ere bai, Total-Finarekin. Horiek dirua jarriko zutela esan zuten; baina, Exxonen kasuan, 4000 milioi dolar ordaindu behar izan zuten Estatu Batuetako Tribunal Gorenaren aginduz eta oraindik ez dute ordaindu, errekursoekin jarraitzen baitute. Prestigeren kasuan, zer gertatzen da? Itsasontziaren jabeak ontzi bakarreko enpresa bat ziren, eta beren erantzukizuna aseguru bera eta kito.

Erantzukizun-erregimena oso garrantzitsua da. Zergatik? Aseguru-enpresek erantzukizun mugagabearen kontra joan behar baldin badute, segurtasunaren kontua seriooki hartuko dutelako, bestela orain arte izan den moduan oso merke ateratzen zaizkie istripuak, eta horregatik jarraitzen dute ontzi hauek itsasoetan zehar.

# **Johannesburgoko irakaspenak: ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunerako erronka global eta tokikoak**

Iñaki Barcena, *EHU-Zientzia Politikoa*

## ***1. SARRERA***

2002ko abuztuaren 24tik irailaren 4ra Hegoafrikako Johannesburgo hiritzarra bost kontinenteetatik etorritako milaka pertsonen bilgune izan zen Nazio Batuek deitutako Garapen Jasangarriari buruzko Lurraren Goi-bilera egiteko.

Han eztabaidatutakoaren harian, idazki honen bitartez zenbait hausnarketa eta datu aurkeztu nahiko genituzke; XXI. mende honetan gure eginbehar ditugun ingurumen-nahiz gizarte erronka horiei aurre egiten lagunduko digutenak, hain zuzen ere.

Nazioarteko bilgune hori ez zen lehenengoa izan. 1972tik, 2 zenbakian amaitu diren urteetan, Nazio Batuek nazioarteko biltzar nagusi bat deitu izan dute, ingurumen-krisiak Lurrean eragin dituen kalteak ekiditearren. Hori dela eta, hasiera batean bilera eta goi-bilera guztien aipamena egingo dugu, haien egoera politikoak zein diren jakiteko, baita gai nagusiak, lorpenak eta bilakaerak ere; ondoren, ingurumen- eta gizarte-euskarritasunerako prozesuaren baitan, nazioarteko ekitaldi horien lorpenak eta ondorioak aztertzeari ekingo diogu.

## ***2. STOCKHOLM, NAIROBI ETA RIO DE JANEIROKO BILTZARREI BEGIRADA***

Historiaz berba egiteko, 50 urteren tarte behar zela esaten zigun eduki dudan irakaslerik estimatuenak. Zuhurrak izan gaitezen, bada. 30 urte baino ez dira igaro 1972an Stockholmen (Suedia), *Gizakia eta Biosferaren* biltzarrean NBEk krisialdi ekologikoaren gaineko lehenengo nazioarteko alarma-deia eman zuenetik. Hantxe erabilia izan zen dermioa *ekogarapena*, ura, aire eta lurrean sortutako kutsadura eta baliabide naturalak xahutzen dituen garapen-eredu horren aurkako antidoto

legez. Oso denbora laburrean, eta nola ez, Henri Kissinger AEBetako enbaxadorearen aginduz, Nazio Batuen idazkietatik dermio hori ezabatu egin zen<sup>1</sup>.

Bitxia da nola munduaren bestaldean garaiko sobietarrek harro-harro zioten bazeuzkatela “gizarte kapitalistei atxikituriko gaitz ekologikoak” ekiditzeko tresnak, alderdia eta estatu sozialista, alegia. Nork esango luke gauza bera Txernobil, Araleko Itsasoa, edo Triangelu Beltzaren, Polonia, Txekoslovakia eta lehengo Alemaniako Errepublika Demokratikoaren arteko gune industrial kutsatuaz, edo bestelako tragedia ekologikoak estali ezinez gero. Dena den, Stockholmeko alde positiboa ingurumen-krisiaren nazioarteko eztabaida diplomatikoaren hasiera izatean datza, hazkundearen mugaz mundu osoari ohartaraziz, Meadows eta Mesarovic ikertzaileek Erromako Klubaren txostenak argitaratzen zituzten sasoi berean.

Hamarraldi bat geroago, Nairobiko (Kenia) biltzarrean, Stockholmen sortutako NBERen Ingurumenerako Programa sendotu zen eta estreinako aldiz ekologia eta garapenaren gaiak lotu ziren. Urte berean, eta ez kasualitatez, Brandt Txostena argitara eman zen; bertan, Nazio Batuen enkarguz, Ipar eta Hegoaren arteko harremanak aztertu ziren, eta herri garatuek Hegoaldeko hemisferioko herri txiroei egiten diegun harrapaketa iraunkorraren salaketa egin zen. Nairobiko prozesuan, saio eta ahalegin bereziak egin ziren garapena eta ekologiaren perspektibak batera aztertzeke, bata eta bestearen kezkak, idazleak, elkarteak edota mugimenduak bide desberdinetik ibili baitziren (Sutcliffe, 1995). Hogei urte geroago, gauzak ez dira asko aldatu, oraindik ere, nire aburuz, arlo kontrajarriak agertzen direlako, Johannesburgon ikusi zen legez.

Ordurako *garapen jasangarriaren* dermioa kalean zebilen eta IUCNk (Nazioarteko Batzarra Naturaren Babeserako), World Wildlife Fund-ek eta NBERen Ingurumenerako Programak beren “Kontserbazioarako Mundu Estrategia”-n (1980) horrela definitu zuten garapen jasangarria: “bizi-kalitatea hobetzen duena ekosistemen mugen barnean”.

Ingurumen eta Garapenerako Mundu Biltzarrak 1987an egindako *Brundtland Txostenaren* argitalpenarekin (Nuestro Futuro Común, Alianza, 1988), kontserbazionismo eta garapenaren aldeko indarrak bateratu ziren *garapen jasangarria*<sup>2</sup> formulapean, eta geroztik lelo hori unibertsala bihurtu zen. Txosten horretan, pobrezia, planetaren lehendabiziko arazo ekologikotzat hartzen da eta saihesteko gaurko

---

1. Ikus, “Sobre el uso y el contenido del término sostenible” in Naredo, J. M. (1996): *Humanidad y naturaleza*. Documentación social, **102**, Madril.

2. Euskaldun orok oso gustokoa duten filologiaren uretan sartu gura barik, euskaraz “sostengarria” da gehien gustatzen zaidan adjetiboa, entzun ditudan beste guztien artean, hots, sostengarria, eramangarria, eutsigarria, iraunkorra, orekatua, mantengarria, iraunarazgarria,... jatorrizko ingelezko/latinezko (sustainable - sus tenere) dermiotik gertuen ikusten baitut. Barka nazatela “adituek” nire atrebentzia. (Hala ere, batasun eta estandarizazioaren izenean, testu honetan “jasangarria” erabili dugu, zuzentzaileen iritzari amore emanez).

belaunaldi eta etorkizuneko arteko konpromisoa onartu beharra dagoela dio, erreserba naturalak ez agortzeko.

Brundtland Txostena argitaratu eta bost urte igaro ondoren, Rio de Janeiron nazioarteko diplomaziak zein herri-mugimendu berriek eragindako bilkura ekologikorik handiena egin zen. Lurraren Goi-bileran, NBEren batzar batean inoiz egon den gobernarien kopuru altuena bildu zen Lurraren Gutuna, Agenda XXI eta Klima, Biodibertistatea eta Basoen Iraupenerako akordioak sinatzeko.

Maurice Strong kanadarrak Stockholmeko eta Rioko biltzarren presidentek zioenez, Brasilgo batzarrean Brundtland Txostenaren proposamenak praktikara pasarazi behar ziren. Une politikoa ezin aproposagoa zen. Sozialismo endekatuaren gainbeherak nazioartean gerra hotzati harago joatea posible egiten zuen, eta Ekialde-Mendebaldeko lehiaren desagertzea “pakearen dibidendoa” martxan jartzeko aukera ematen zuen, askoren ustez. Gaur, aldiz, irudikeria eta ameskeria dakuskigu.

Dena den, Brasileran lau puntu kardinaletik joandako gizarte-mugimenduak eta -elkarteak, Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) deituak, Forum Globalean batzartu ziren Riótik 60 kilometrora, haien akordio eta berezko programak aurrera ateratzeko ( ikus Global Forum di Rio, ISEDI, 1993).

Izan ere, G. Bush, oraingo AEBen presidentearen aita, izar mediatiko-politiko bihurtu zen mundu osoari “american way of life” delakoa negoziatzeko ez zegoela prest gogorarazi zionean, bertara hiritarren bizi-maila babesteko joan zela baieztatu. Agian horrexegatik ez zituen Biodibertistatea eta Klimaren konbentzioak sinatu. Beharbada, semeak arrazoi berberengatik ez du Kiotoko Protokoloa izenpetu nahi, sostengarritasuna muga nazionaletan hasi eta bukatuko balitz bezala.

Azken batean, Rio de Janeiroko biltzarra ekologia eta ekonomiaren arteko ezkontza izan zen; Iparraldeko eta Hegoaldeko gobernuen arteko aliantza, lehenengo horiek aldaketa klimatikoari galga jartzeko, eta bigarrenak biodibertistatea ziurtatzeko. Alde bietan onartuz sostengatu behar zena ez zirela ekosistemak, *garapena* baizik, hori Barneko Produktu Gordinaren (BPG) edo industrialaren hazkundeaz ulerturik, zoritxarrez.

### **3. RIO DE JANEIROKO EMAITZA**

Rioko biltzarren garrantzia, besteak beste, eta ondorioztaturiko etekin politikoak alde batera utzirik, munduko gobernuen konpromisotzat, Agenda 21 deritzon programan, Hitzarmen garrantzitsu bitan (biodibertistatea eta klima-aldaketak) eta NBEtan Garapen Jasangarrirako Kontseilu berriaren eskutik lortutako gobernu kanpoko aktoreen onarpenean datza. Hori bai, Kontseilu horrek ez du gaitasun exekutiborik, ezta ahalmen arautzailerik ere; are gehiago, ez du aurrekonturik

aurreikusi; baina talde *nagusien* bilgune izan da, eta, bertan, enpresek, sindikatuek, nekazariak, ekologistek eta indijenek iritziak plazaratzeko aukera izan dute garapen jasangarriari buruzko gaitan; urteen joan-etorrian eta NBen babespean.

Rio de Janeiron gobernuak bultzatutako XXI. Agendak, 800 orrialdeko eta 40 kapituluaren dokumentu *mamut* bat, XXI. menderako ekintza-plana markatzen zuen, helmugak eta jarduerak adieraziz, bai eta lanerako lerroak eta aurrera ateratzeko baldintza instituzionalak ere (ikus P. McCully & M. McCoy, 1993: 29 ). Kofi Annan berak onartu berri duenez “Plangintza ona zen, baina bere aplikazioa makala izan da”, ([www.un.org/spanish/conferences/wssd](http://www.un.org/spanish/conferences/wssd)).

XXI. Agenda edo Programa estatuen arteko akordio libre eta borondatezkoan oinarritzen da, eta, horrela, 1994ko Uruguako Errondaren akordioak (MME) zituen 26.000 orrialdeen aurrean indargabe geratu zen. Azken horrek XXI. Agendaren proposamenak ezeztatzeaz gain, bete ezean gobernuen aurkako neurriak hartzeko mekanismoak ezartzen zituen. Hor dago kokka!! (The Jo’burg Memo, 2002:58).

Agian XXI. Agenda berak bere baitan bekatuaren zati bat zeraman, bere 2. kapituluaren (3. art.) gomendatzen baitzuen: “la promoción del desarrollo sostenible a través de la liberalización y de hacer comercio y medio ambiente mutuamente coadyuvantes” eta geroago gobernuari eskatzen die: “tomen en cuenta los resultados de la Ronda de Uruguay y promuevan un abierto, no discriminatorio, equitativo y multilateral sistema de comercio (9. art.)”.

Gobernu eta nazioartearen XXI. Agendaren *ahaztura*, batez ere, borondate politiko eta ekonomikoaren gabeziagatik azaltzen da, programa aurrera ateratzeko urtero (1993-2000) 600.000 milioi dolarren transferentziak ezinbestekoak baitziren.

Non dago Rion sinatutako promesa, *garapen-bidean* dauden herriei 0,7arekin laguntzeko? H. French, World Watch Institutuko ikerlariak erakutsi duenez, Rioz geroztik nazioarteko laguntza ez zuen gorantz egin, guztiz kontrakoa 1992ko 58.300 milioi dolarretik (BPGren 0,35%a) 2000. urtean 53.100 milioira (0,22%) jaitsi zen (H. French, 2002).

Ipar Amerikako ikerlari berak Rioko Lurraren Goi-bileraren ostean idatzi zuen (H. French, 1993:57) 5000 milioi dolarren aurrekontuarekin Global Environmental Facility delakoa XXI. Agenda finantziatzeko instituzio bakarra zela, Munduko Bankuaren dependentsian. Baina nahikoa ikusten ez zuen diru-kopuru hori ez da guztiz gastatu, inolaz ere ez.

Horrek NBEk sortutako nazioarteko ingurumen-intituzioen ahulezia adierazten digu. Garapen Jasangarrirako Kontseilua, XXI. Agendaren jarraikortasunerako taldea, gobernu eta beste eragile instituzional eta sozial batzuen eztabaidak eta iri-



tziak elkargurutzatzeko gunea izan da, baina ahalmen ejekutibo edo erabagarririk gabe.

Azpiko instituzionalizazio ekologiko honen aurrean, Johannesburgoko Goi-bileran, batzuek Nazioarteko Ingurumen Erakundea eraikitzea proposatzen dute, Nazioarteko Lan Erakundea edo Mundu Osasun Erakundearen parekoa, Bretton Woods-eko (Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa eta Mundu Merkataritzaren Erakundea) instituzioen boterea neutraliza dezan, eta, bide batez, Energia Berriztagarrien Nazioarteko Agentzia eta Nazioarteko Ingurumen Korte Iraunkorra sortzea ere bai, 500 nazioarteko ingurumen-akordioak errespetatu daitezkeen (The Jo'burg Memo, 2002:65).

Hamarkada honetan, zeozer positiboa ere egon da, nola ez. Planeta osoan dauden 200 estatu ingurutik, 18 gobernu estatal baino ez dira ausartu XXI. Agenda nazionalak edo Jasangarritasunarako Planak idaztera. Baina hori bai, 113 herrialdeetako 6.416 udal edo eskualde txikietan ekimen eta agenda lokalak martxan jarri dira, Rio de Janeiroko XXI. Agendaren 28. artikuluari jarraikiz.

XXI. Tokiko Agendak, desberdintasun eta aldaera guztiekin, parte-hartze demokratikoaren esperientzia interesgarri bat dira, ingurumen-arazoak eta gizartearen arazo ekonomikoak uztartu eta batera aztertzeko. ICLEI-k NBeren 2. txostenean, udalerrien %73an parte-hartze sozialerako kontseiluak daudela dio, %59an XXI. Tokiko Agendak udalaren sistema administratiboan barneratuta daude; uraren kudeaketa, bitarteko ekonomikoen falta eta gobernu zentralen laguntza eza ohiko akatsak dira munduko eskualde guztietan eta edozein eratako egoera ekonomikotatik (ICLEI, 2002).

Brasilen ere Bio-Dibertsitateari buruzko Hitzarmena 180 herrik baino gehiagok sinatu zuten, eta 1993. urteaz geroztik indarrean dago; hala ere, aipatzekoa da AEBek sinatu ez izana. Biodibertsitate gunerik handiena biltzen duten hego-hemisferioko herrialdeei zuzenduriko akordio horrek lurralde eta espezie horien gaineko estatu-subiranotasuna bermatzen du.

Rio de Janeiroko Goi-bileratik gaur egun arte sei biltzar egin dira, Brasilen lortutako akordioei eduki zehatza ematearren. Azkenak, La Hayan egindakoa 2002ko apirilean, lau gai garrantzitsu izan zituen hizpide: biodibertsitatearen %80 bere baitan hartzen duen baso primarioaren ustiaketa jasagarria, beste sistemetan ez-ohiko espezie berriak sartzearren prebentzioa eta gutxitzea, baliabide genetikoaren erabilerearen ondoriozko etekinen banaketa eta zuraren legez kanpoko inportazioa, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, 1992. urteaz geroztik izandako aurrerapenak nabariak izan badira ere, oraindik bada zer eginik. Brasilek, Kanadak eta Malaysiak, esaterako, baso primarioetan ekintza-programa boikoteatu egin zuten. Beste adibide bat Espainiar Estatua da, zeinak Europako lurreko espezie guztien %50 gordetzen duelako harro sentitzen den, 1998an egindako "Biodibertsitatearako Estrategia Nazionala" ez du oraindik onartu, ezta 12 plan sektorialak idatzi ere; beraz,

hainbestetan aipaturiko biodibertsitate-aberastasuna zainduko duen ingurumen-legeriarik ez dagoenez, nekazaritzan, energian, basoetan, garraioan nahiz planifikazio hidrologikoan, espainiar gobernuak lehentasuna ematen die Hidrologia, Energia eta Azpiegituretako plan antiekologikoei.

Iparraldeko herrialdeetako akordioari dagokionez, hau da, Aldaketa Klimatikoari buruzko Hitzarmenari dagokionez, 170 herrialdek sinatu dute, eta helburua 2000. urterako berotegi-efektua sorrarazitako gas-emisioak (Berotegi Gasak, BG) 1990. urtekoen mailan mantentzea da. (BGak CO<sub>2</sub> da, batez ere, baina baita CH<sub>4</sub>, N<sub>2</sub>O, HCF, CFC eta SF<sub>6</sub> ere).

1992an *Internacional Panel for Climate Change*g eskainitako aurreko lana bere gain hartuz, gobernuak urtero bildu izan dira (Buenos Aires, Berlin, Bonn, La Haya, Marrakex...) 1997ko abenduan Kyotoko Protokolo ospetsua lortu arte; bertan, 2008-2012 epean, 1990ean isuritakoaren kopurua %5 murrizteko ardurua hartu zuten. Europar Batasunak, erantzukizun gehien duenetakoa, kuota %8 murrizteko konpromisoa hartu zuen, nahiz eta kide batzuek 1990eko balioen gaintik mantendu ahal izan duten, %15ean mantendu ere, Espainiako kasuan esaterako. 2001. urtean Espainiak muga hori gainditu egin zuen 1990 urteari dagokionez, %33, hain zuzen. 2002. urtean, %38ra igo ziren eta ez da inondik ikusten nondik etor litezke behera joateko baldintzak.

Akordio horrek AEBetan eta petrolio nahiz energia multinazionaletan ondoeza publiko gehien sorrarazi duen arren, arlo ekologistak ere gogor kritikatu du Kyotoko Akordioa; izan ere, *garapen garbiaren mekanismoetan* oinarritutako emisioen salerosketari logika *maltzurra* deritzote. Logika honek BG gehien sortu duten estatu industrialak isurketak burutzeko eskubidedun aurreikusten ditu eta nolabait astmosfera pribatizatu egiten du. (Larry Lohmann, 2001).

Gauzak horrela, Johannesburgeko Goi-bilerari, Brasilgoa eta 10 urte geroagoa, Rio + 10 deitu zioten; askoren iritziz, Ingurumenerako europar komisarioa den Margot Wallström-en iritziz, hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea heldu zen (WSSD, Challenges and Partnerships, 2002:146).

#### **4. JO'BURGERAKO BIDEA**

Lurreko bigarren goi-bilera, Johannesburgon izan zena, mundu osoak egin beharreko *garapen jasangarriari* buruzko proposamen berrien negoziazioa egiteko eta Rio ondoko balantzeak ateratzeko bilgunetzat planteiatu zen nazioarteko prentsaren aurrean. Johannesburgoko biltzarraren prestaketarako eztabaida-prozesua nazioarteko egoera larri eta gatazkatsu baten baitan eman zen, eta barrenera begira, ingurumenari buruzko aurreko bilera eta goi-bileretan erabilitako beste lan-metodo batzuekin.

Biltzarra Afrikan izan zen, kontinente ahaztua, eta duda barik pobrezia eta garapena izan ziren ardatz nagusiak. Ez dago txarto egokitasuna ingurumen-jasangarritasunari atxikitzea; baina gogora dezagun joan den hamarkada ekologiarako gatza izan bazen ere, garapenerako askoz txarragoa izan zela, Afrikan batez ere. Ez gaude pobreziaz hitzegitearen kontra, baina noiz hitz egingo dugu aberastasunaz zein zarrastelkeriaz eta marginazioaren arteko alde hazkorraz?

Gai horietan Iparra eta Hegoaren kategoriak engainagarriak izan daitezke, *zonbiak* Ulrich Beck dioenez. Hegoafrikan dakusagu Hegoaldeko eliteak arazoaren zati direla, eta hazkunde ekonomikoak ez duela errenta eta mozkinen birbanaketa ekartzen, ez Iparrean eta ez Hegoan. Horregatik, birbanaketa baino aproposago deritzogu, besteak beste, ura, lurra eta airea baliabide komuneren jabetza eta pribatizazio-murrizteari nola ekingo diogun hitz egiten hasiko bagina. Txiroak ez dira ekosistemen hondamendien erantzuleak, baizik eta ingurumen-krisien paganoak, batez ere Hegoaldeko megahiritan, baina baita Iparrean ere.

Prozesu horren arrisku handienetako bat da Hegoari eramatea mendebaldeko eredu industrial obsoletoa. Gezur biribila da, Nazio Batuen Garapen Jasangarri-rako Kontseiluaren hizkera erabiliz, *stakeholder* (akzionista) multipleen arteko eztabaida, alegia gobernuak, enpresa transnazionalak, sindikatuak, indigenak, Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) berdintasunez jokatzeko dutenik esatea. Jo'burgon bildu ziren 30.000 mila pertsonen artean, batzuen eta besteen boterea oso desberdina zen, eta bitartekoak eta baliabideak ere bai. Bestalde, Aarhusko Biltzarren informazio-, parte-hartze- eta judizializazio-eskubideak planeta osora zabaltzea goi-bileraren horren aurrerapen galanta zatekeen.

*Global Deal* edo NBek berriz proposatutako Iparra eta Hegoaren arteko kontratuak berriro Rioko errakuntzak errepikatu zituen, non adibidez enpresa multinazionalak ingurumen-krisialdiaren gaineko erantzukizun-aipeak ekidin eta baztertu zituzten, M. Strongeren laguntzaz. Iparra ondo doala eta Hegoa txarto, negoziazioa gobernuen artekoa dela herrien artean izan beharrean edo pobreek dirua behar dutela ekonomia globalaren egitura-aldaketan ordez planteatzeak, atzera buelta, porrota ekarriko du. Txiroak boterea ez izateagatik dira txiroak, ez dirua ez izateagatik. Iparra sostengaezina bada bere produkzio- eta kontsumo-ereduagatik da, eta Hegoa aldiz bere miseria gorriagatik; lehengoak bere ingurune-aztarnak gutxitu beharko lituzke, eta bigarrenak bere biztanleen bizitza duinerako baldintzak ziurtatu. Kanpo-zorra kitatu zor kolonial eta ekologikoaren truke Johannesburgoko urrats galanta zatekeen, baina gai hori eta arestian aipatutako modukoak ez ziren Jo'burgoko Goi-bileraren gai-zerrendan (The Jo'burg Memo, 2002:65).

## 5. JOHANNESBURGOKO IRAKASPENAK

2002ko abuztuaren amaieratik irailaren hasierara, Johannesburgoko (Hegoafrika) Garapen Jasangarriaren Goi-bileran gertatutakoa ulertzeko giltzarri dugu nazioarteko egoera politiko berezia. Hau da, nazioarteko ekitaldi hori egin zeneko egoera politikoa, mundu-mailan jazotako areagotze militarrek zuzendu zuen, etsai *terrorista* berriari aurre egiteko, desagertzeaz dagoen lehengo hamarkadetako bloke komunistaren lekua hartu duen etsaia, hain zuzen ere.

Ez gaude, dagoeneko, gerra hotzean, 1972an bezalaxe, Stockholmen Lurraren muga ekologikoei buruz hitz egiten zenean; ezta 1992an ere, Rio de Janeiron, Sobietar Batasunaren desagertzeak batzuentzat historiaren amaiera zekarrenean, eta besteentzat berriz, armen lehia zorrotzak eskatzen zituen baliabideak gizartearen beharretara egokitzeko aukera eskaintzen zuenean. G. Bush aitak ez zuela inondik ere bere herrialdeko produkzio- eta kontsumo-ereduak konprometituko esan zuen, eta ez zituen ez Biodibertsitate Ituna ezta Aldaketa Klimatikoari buruzkoa ere sinatu. Hamar urte geroago, haren semea, Bush gaztea, Johannesburgora joan ere ez zen egin, eta bere ordezkariak behar bezalako data, konpromiso eta finantziazioa izango lituzkeen giza ingurumenerako Ekintza Plana abian jartzeko zailtasunak baino ez zituzten jarri. Biltzarrean bertan, Colin Powellek jasotako parte-hartzaileen aldeko protesta eta haserrea goi-bilera horretan gertatutakoaren erakusgarri argiena izan zen.

### 5.1. Munduak salgai darrai

Mundu guztiak Brasilgo aurreko hamarkadako akordioak eta Agenda 21 berpizteko une garrantzitsutzat hartu zuen Rio+10 Goi-bilera. Hala ere, izan dira Doha+10 izenekoaz hitz egiten zutenak ere, *Vía Campesinak* esate baterako, eta beharbada arrazoi osoz.

2001eko azaroan, 1995ean Marrakexen sortutako Komertziorako Mundu Erakundea Dohan bildu zen, Seattlen (2000) jasotako ezusteko porrota gainditu eta indarrak eta planak berreskuratzeko asmotan. Bretton Woods erakundearen 50. urteurrena izan zenean, *50 urte, aski da* kanpainak<sup>3</sup> izugarriko arrakasta izan zuen eta Munduko Bankuaren, Nazioarteko Diru Funtsaren eta GATTaren (orain MME) kontrako kritikak areagotu zituen, eta Seattlen mundua astindu zuen mobilizazioa gertatu zen. (Roma, P. 2002). Giza mugimendu ugari MMEren bilera ekidin zuten eta ordezkoei kalea itxi zieten. Ekintza horiek zabaldu egin ziren eta biltzeko leku bereziak bilatu behar izan zituzten.

Gauzak horrela, eta globalizazio neoliberalaren kontrako mobilizazioak eta kanpainak gero eta ugariagoak izanik, geroxeago Monterreyk (Mexiko) —Garape-

---

3. Ikus Zenbaiten artean (1995): *50 años bastan. El libro del Foro Alternativo- Las otras voces del Planeta*, Talasa, Madril.

nerako laguntzarako Nazioarteko Biltzarra— eta Johannesburgok bezalaxe, Dohak munduko potentzia ekonomikoen jazarpena ekarri zuen, konpainia transnazionalak buru; bertan, gizadiaren beharrian sozialak eta ingurumenezkoak gutxietsi ziren, merkataritza- interesen mesederako.

Askoren ustez, atzerazineko urratsa Marrakexen 1995eko urtarrilean gertatu zen, GATTa Munduko-Merkataritza Erakunde bihurtzearekin, hots, gobernuak komertzio askearen beharriari eta mugarik gabeko mundu-merkatuaren sorrerari lehentasuna eman zieten.

Riok legeria ondasun orokorraren alde jartzeko estatuen aginte zuzena aldarrikatu bazuen ere, Marrakexek mugikortasun komertzial askearen aldeko estatuen botere arautzailea ahuldu zuen. Horren ondorioz, amaitu berri den hamar-kada kapital eta merkantzien mugikortasun aserako mundu-merkatu bat sortzeko ahalegin itzelarekin amaitu zen; ez, ostera, pertsonen mugikortasunerako, azken hori eskaria eta eskaintzaren arabera arautzen baita. Horrexegatik diogu munduak *salgai* darraia. Johannesburgon ikusi zen bezala, garrantzitsuena ez da edateko ura eta saneamendua munduko leku pobretara heltzea, baizik eta zerbitzuok enpresa pribatuek kudeatzea. Berebizikoa ez da eguzki-energia herrialde txiroetara heltzea, baizik eta elektrizitate-enpresa publikoek energia-hornitzaile pribatuei lekua uztea. Haien ustez, gosetea eta pobretasuna baztertzeko modu bakarra merkatu berriak sortzea da.

## **5.2. Nazio Batuak... ala Negozioak Batzeko Nazioak**

Bigarrenik, Nazio Batuek izandako protagonismoa aztertu beharko genuke. Haien funtzionamendu-sistema zaharkituak, Bigarren Gerrate Mundialaren emaitzei egokitua, ez ditu 60 urteotan gertatutako aldaketa demografiko eta politikoak bere gain hartu, eta jokaera antidemokratiko eta desorekatua mantentzen du oraindik. Hori guztia gutxi izango balitz, gaur egungo idazkari nagusia den Kofi Annanen joera berria multinazionalen NBetako ateak zabaltzea da, munduko herrialde aberastek beren gain nahi ez dituzten gastuei aurre egin diezaieten.

Aurretik Rio de Janeiron Garapen Jasangarrirako Komertzio Mundu Kontseiluak (WBCSD, ingelesez) krisi ekologikoren gaineko enpresen erantzukizun eta kritika oro baztertzeko lortu zuen; orain, Johannesburgorako prestaketa-lanetan, hitzarmen boluntario modu berri bat bultzatu du, Tipo II, eta ohiko Tipo I akordioetatik bereizten ditu, gobernuak behartzen zituzten ohiko gobernuarteko akordioetatik, hain zuzen ere. Industria, gobernuak eta ingurumenaren aldeko zenbait GKEen arteko 54 hitzarmen boluntarioak, *Business Action for Sustainable Development* (www.basd-action.net) bultzatuak, NBek proposaturiko *Global Compact*aren aurrean negoziogileen erantzun interesatua izan dira (Balanya eta bestek, 2000). Hau da, giza talde boluntario berria konpainia handiek gobernuari eta talde ekologistek egindako eskaintza ekonomikoetan oinarriturikoa da, garapen

jasangarriaren gainean haien interesa azaltzearen, eta horrela akzionisten nahiz talde esanguratsuen aurrean izan duten bakartzetik atera (GKE ingurumenezko, sindikalistak, nekazariak, indijanak, zientzialariak eta emakumezkoak), azken horien enpresen kontrolerako eta erantzukizunerako NBetan konbentzioa deitzeko asmoa zapuztuz (Corporate Europe Observatory, 2002).

Prestaketa-unean GKEek ahalegin handiak egin arren, 77 Taldea eta Txinaren laguntzaz, gailendu egin dira 3 potentzia ekonomiko handiak (AEB, EB eta Japonia) Lurreko herrialde gehienetako aurrean. Hiru handiek diotenez, enpresa transnazionalen erantzukizunak zehazteko eta kontrolatzeko, nahikoa da OCDEtik *berez* sortutako ildotik jarraitzea. Berriro ere, politikak ezinezkoa du jarduera ekonomikoak menperatzea eta kontrolatzea. Johannesburgon argi geratu zenez, MMEa ez da, inola ere, NBen esanetara umilduko.

Argitu beharra dugu EBren posizioak MME eta Dohari dagokionez<sup>4</sup>, Batzordearen Presidentea den Romano Prodik (El País, 02-VII-21) nahiz Europa Batzordeko Ingurumeneko Margot Wallström komisarioak aipatu zuten zutenez ([www.europa.eu.int/rapid/start/cgi](http://www.europa.eu.int/rapid/start/cgi)), Bushen gobernuak mantendu dituen oso antzekoak izan direla. Argiro eta guztiok ongi ulertzeko esanda, EB muga komertzial guztiak zabaltzearen aldekoa da, armen salerosketetan izan ezik, eta AEBak merkatuen zabaltzearen aldekoa dira, baina armen bidez, P. Nicholsonen (EHNE-*Vía Campesina*) salatu berri duenez.

### 5.3. *Foro sasialternatiboak*

Egoera horretan, ekainean Balin egin zen IV. prestaketa-bilkuran aurreikusita zegoen Johannesburgoko Goi-bileraren aurreko egoeran, hain zuzen ere, NBen aurrekarien eta proposamenen aurrean munduko gizartearen erantzuna oso desberdina eta kontrajarria izatea. Argiro azaltzearen, arriskutsua bada ere, esan deza-kegu prozesuan parte hartutako erakunde zibil askoren ustez dikotomia argi zegoela: etorkizun globala NBek edota MMEak gobernatuko zuten. Beste hainbat iritziz, NBk berak eta ordezkio politiko esanguratsuenak elite ekonomikoak inposaturiko irizpide komertzial eta finantzieroen aldeko apustua egin zuten eta goi-bilerak ezinbestean porrot egingo zuten.

Gauzak horrela, Johannesburgon alde aurretik prestaturiko sorgin-batzen baten lekuko izan ginen. Espero zen foro alternatiborik ez genuen ikusi ere egin; goi-bileraren dinamika ofizialarekiko jarrera kritikoak azaltzen zituzten taldeek eta erakundeek NASRECetik, politikoki eta ekonomikoki NBei eta Hegoafrikako gobernuari lotuta egon den idazkaritzak antolatutako gizarte zibilaren forotik, hau

---

4. "Mundu Merkataritza Erakundea merkataritza-sistema ireki eta ez-baztertzaille baten adierazpena da eta garapen jasangarria Marrakexeko Akordia hasierako klausulan sartuta dago". Communication from the Commission to the Council and European Parliament: "Ten years after Rio. Preparing for the WSSD in 2002" Brusela, 6/2/2001 COM (2001)53 final.

kanpo bilatu behar izan zuten haien espazioa. Disidentziak kokapen alternatiboak bilatu behar izan ditu bildu ahal izateko, esaterako, unibertsitatea edo alde batera utzitako Shareworld zinema-estudioak, besteak beste. Alexandrako ghettotik Sandtoneko egoitza ofizialerako iragarritako ibilaldia egin baino egun bat lehenago, gutxienez hiru deialdi izan ziren, horietariko bat legez kanpoko, prentsaren iritziz. Hurrengo egunean, bi ibilaldi egin zirela irakurri eta entzun zitezkeen (El País, 2002ko irailaren 1a), bat baino egin ez zenean, Lurrik Gabeko Mugimenduak eta Hegoafrikako mugimendu sozial ugariak deitua, INDABA buru. Beste ibilaldi bat, sasiofiziala, ANC eta COSATUk deitua, ez zen Alexandrako estadiotik irten ere egin, 3000 lagun bildu ez zituelako, nahiz eta Hegoafrikako hainbat ministro eta nazioarteko buruzagik ere beren presentzia iragarri. Jendeak nahiago izan zuen hurbileko liderren berotasuna. Aste osoan egindako bilerak eta negoziazioak ez ziren nahikoak izan irizpideak betearazteko: batzuek pentsatu zuten NB markoa zela, eta Hegoafrikako gobernuak aliatu garrantzitsua; bestek, berriz, ekintzen aldekoak ziren eta NBetako nahiz Pretoriako gobernuak kapitalaren aldeko apustua egin zutela aldarrikatzen zuten, eta ez “Lurreko zigortuen” aldekoa. Beraz, ezinezkoa izan zen akordioa lortzea.

#### **5.4. Gobernu ezkertiarra, politika eskuindarra**

Aitzinean esandakoa kontuan hartuz, Johannesburgon NBez gain Hegoafrikako gobernuak izandako jarrerak eragin handia izan zuen, politika eskuindarra egiten zuen gobernu ezkertiarra, kritikoen esanetan. Hitz horiek baieztatu egin zituzten Lurrik Gabeko Mugimenduko kideek, baita Pribatizazioaren kontrako Forumak eta Sowetoko Elektrizitate Krisirako Komiteak ere. Munduko Bankuaren irizpideekin bat eginik, 1994tik gaur egun arte, ANCKo gobernuak nekazaritza-lurraren %1 baino ez du birbanandu, salerosketetan oinarrituz betiere. Hala ere, nekazaritza-lurren %80 biztanleen %1 baino gutxiagoren eskuetan jarraitzen du (Landles People Movement, 2002).

Thabo Mbekiren gobernuak, alderdi komunistako zortzi kiderekin, NEPADen aitzindari eta babesle nagusia da (Afrikar Garapenerako Partzuergo berria); Afrikako garapenerako proiektua da, Afrikar gobernu zenbaitek babestua eta Hegoafrikako gizarte-talde zabal batek gaitzetsia, uraren, elektrizitatearen, garraioaren eta telekomunikazioen zerbitzuen pribatizazioa bultzatzen duelako, baita kanpo-zorren ordainketa, eta nazioarteko merkatuen eta inbertsioen liberalizazio zabalagoa ere. Halaber, ESKOM enpresa paraestatalak hornikuntza elektrikoaren pribatizazio-proposamenak Swazilandia, Uganda, Namibia, Mozambique eta Lesothon urtegitzarren eraikuntzarekin eta egitasmo nuklear berrietan daukan parte-hartzearekin konbinatzen ditu (Patric Bond, 2002).

Johannesburgoko Goi-bilerara joandako internazionalista askoren animoa zapuztu zen, errepresio-politika eta gobernuaren diskurtsoaren eta ekintzen arteko aldea ikusirik. Zaila izan zen *gobernu-adiskidea* esamoldea erabiltzea erakunde

sindikalen moduan, goi-bileraren bezperan milaka pertsona lekuz aldatu zituenarekin, asentamenduei lur horiek saldu ostean, legez kanpoko izan zirenean eta, ondoren, protesta-ekintzak erreprimitu eta *lurrik gabeko* 76 kide atxilotu zituenarekin.

Hegoafrikako erregimenaren politikaren beste adibide bat zortzi kilometroan giza mugimenduen ibilaldiak jasan zuen hesi poliziala eta militarra izan zen, milaka manifestarientzat irteerarik gabeko kalea diseinatuz, alboan Soweton eta beste hainbat townshipetan aurreko urteetan apartheidaren kontrako protestak erreprimitzeko erabiliak izan ziren metraileta eta tanketa berberak erabiliz.

### **5.5. Pentsatu eta ekin, tokian eta globalki!**

Johannesburgoko ikasbide autokritiko garrantzitsuenetako batez jardungo dugu, zeinak ekologismoaren ideia nagusi batekin zerikusia duen. Lekuan-lekuan eta globala oso hestuki lotuta daude, eta dinamika sozioekonomiko orokorrak erabat zatika ezin daitezkeen tokian-tokiko errealitatean dute oinarri, autonomoki funtzionatzen ez dutelako. Ekimen internazionalista eta ekologista berpiztea lehen-tasuna dugu. Tokian-tokian aurkitu ahal ditugun ingurumen-arazoen zioak berberak dira hemen eta Hegoafrikan; hori dela eta, nazioarteko elkarlana funtsezkoa da dinamika neoliberaleri aurre egiteko.

Egia da giza ingurumenaren arazoetan indar politiko eta mediatiko handia duten nazioarteko erakunde eta sare garrantzitsuak daudela. Esan ere esan dezakegu internazionalismo ekologiko arras desberdinak daudela, goi-bilerak iraun zuen aste eta erdian ikusi ahal izan genuenez. Greenpeacek, esaterako, bi agerraldi nagusi aukeratu zituen. Alde batetik, 12 kide Hegoafrikako zentral nuklear bakarrean sartu ziren Koebergen, Caboko Hiritik 20 km-ra; bertan, herrialde txiroentzako energia berriztagarrien gaineko akordio sendoa eskatu eta energia nuklearraren erabilerearen salaketa egin zuten. Aktibistei hainbat urtetako espetxe-zigorra dakartzan delitu larriak leporatu zizkieten.

Ondoren, Greenpeaceko nazioarteko delegaritzako nagusia den Remi Parmentierrek prentsaurreko bateratua egin zuen bere *etsai* handia den Bjorn Stigson-ekin, Garapen Jasangarrirako Munduko Komertzio Kontseiluko presidentearekin, hain zuzen ere (WCBSD). Bertan, biek ere aldaketa klimatikoaren aurrean gobernuak erantzukizuna har dezaten eskatu zuten.

Europar berdeak (Europar Batasun Askea), Heinrich Böll Fundazioaren eskutik, NASRECeko Foro Zibil Globalean hitzaldi eta eztabaidarik onenak antolatatu zituen erakunde politikoa izan zen, nire ustez. Politikari, zientzialari eta bost kontinenteetako aktibistez osaturiko programa (boellforum@boell.org.za, www.worldsummit2002.org) ezinbesteko bisita izan zen, bi aste haietan. Haien ahalegina hezkuntza, eztabaida eta hain beharrezkoak ditugun proposamen politikoetara zuzenduta egon zen. Ezbairik gabe, hainbat hizkuntzatara itzulitako



*Jo'burg Memo. Fairness in a Fragile World* txostena oso dokumentu baliotsua da, gizarte eta ingurumenaren aldetik mundu jasangarri baterantz jotzeko analisi zorrotzak, kritikak, erreferentzia interesgarriak eta proposamenak eskaintzen dituen lan kolektiboa.

*Via Campesina* bezalako bestelako nazioarteko sareek, eztabaidez gain, kale-protestaren aldeko apustua egin zuten, *establishment* politiko eta korporatiboen aurrean. 20 herrialdeetatik etorritako 40 ordezkariak, zentzu batean, hegoafrikako giza mugimenduen nazioarteko bermea izan dira, eta Alexandratik Sandtonerako ibilaldi arrakastatsuak zerikusi handia izan zuen konpromiso internazionalista-rekin. Diskurtso globala erabili zuten, baina lekuan-lekuko errealitateak ahantzi barik. Haien pentsamolde eta praktikatik badugu zer ikasia.

### 5.6. *Goi-bilerak zertarako?*

Emaitzak ikusita, askok galdera hori egiten diote beren buruari. Zertarako antolatzen dira horrelako goi-bilerak? Bat-bateko erantzuna izan daiteke gobernuak, nazioarteko erakundeak eta enpresak beti daudela prest hurbiltzen diren milaka ordezkarien lepotik negozioa egiteko, kasu honetan aurreikusitako 65.000 horien erdiak baino etorri ez baziren ere.

Johannesburgoko Goi-bileraren ostean, Espainiar Estatuko Ingurumen Ministeritzak baieztatzen zuen “Garapen Jasangarrirako Mundu Goi-bileraren helburua, planetaren ingurumenaren degradazioa eta pobrezia geldiarazteko egutegi eta neurri zehatzak aurreikusten zituen Ekintza Plana onestea izan zela; azken finean, garapen jasangarria lortzeko neurriak hartzea”. Ondoren hauxe esan zuen: “Ekintza Plana eta Aldarrikapen Politikoa ez dira binkulagarritzat joko, nahiz eta negoziazioen sakontasunak argi utzi agiriek balio politiko nahikoa dutela. Izan ere, oniritzitako dokumentuek balio moral handia dute, horrelako akordioek aurrekariak izan daitezkeelako eta aurrerantzean nazioarteko erakunde askotan eragin handia izan dezakeen *lege leun* bihur daitezkeen politikak sendotu ditzaketelako” (Ambienta, 2002ko urria). Hobe ezer ez esatea.

Aztertutako gaiak berrikusiz gero, ikus dezakegu energia berriztagarrien proposamenak, goi-bileraren gairik garrantzitsuena, ezerezean geratu direla, petrolio-ekoizle handien borondate ezagatik. 2015. urtean, energia berriztagarriak %15 izateko proposamena alde batera utzi zen, eta orain tokian-tokiko eta borondatezko akordioak baino ez daude. Ur-arazoetan eta saneamenduan AEBek erabakia onartzera behartu zituzten, eta bertan 2015. urterako edateko ura eta saneamendurik gabe bizi diren pertsonen kopurua erdira murriztea aurreikusten da (gaur egun, 1.100 milioi pertsona eta 2.400 milioi pertsona, hurrenez hurren, NBen esanetan). Helburu hori lortzeko, urtean 20.000 milioi euro erabili beharko dira, eta ekologiston susmoa da, diru-kopuru hori zerbitzu horiek pribatizatuz lortu nahiko dutela. Pobrezia dagokionez, elkartasun-funtsa sortzeko borondatezko formulak 2015.

urterako egunean euro bat baino gutxiagorekin bizi diren pertsonen kopurua erdira murrizteko proposamenari balioa kentzen dio. Biodibertsitatearen Zinpea agertu zenetik 11 urte pasatu direnean, Johannesburgoan erabaki zena 2010. urterako “biodibertsitatearen galera modu esanguratsu batean murriztea” izan da. Arrantzarako erreserbekin gertatzen denaren antzekoa da, eta erreserba horiek “ahal den neurriraino” berreskuratu beharko genituzke. Epe eta aurrekontuetan nolabaiteko lotura edota konpromisoa dakartzaten akordioak sinatzen ez dituzten gobernuen borondatearen arabera da guztia. Agian, hori dela eta, baikorrenek edota pragmatikoenek, Japonia, Txina, Kanada eta Errusiaren sinadurekin Kyotoko Protokoloa 2004an indarrean egongo dela gogoratu dute. Beste batzuek, ordea, Johannesburgoko Goi-bilera nazioarteko prozesu diplomatiko luze baten geldiene bat baino ez zela izan pentsatzen dugu, non botere ekonomikoek gizarte zibilaren eskakizunak geldiarazten jarraitzen dituzten.

## **6. ONDORIOAK: GARAPEN JASANGARRIARI BURUZKO DISKURTSOA**

Johannesburgo oso nazioarteko bilgune garrantzitsua izan zen, orain 30 urte sortutako giza ingurumen krisiari aurre egiten saiatzeko. Riotik aurrera oso perspektiba onak zabaldu ziren eta mundu guztia hasi zen *garapen jasangarriaren* leloa erabiltzen. Ia inork ez du bere erabilpena ukatzen (J. Riechmann, 1995) eta horrela, dozenaka definizio irakurri ditugu. Hainbat ahots eta eragilek kontzeptu bera erabiltzen dutenez, ingurumen-literaturan normalean hiru diskurtso kontrajarriak topatzen ditugu.

Lehendabizikoan, garapena eta hazkunde ekonomikoa parekatzen dira eta horrela opil produktiboa handituz soilik konpondu ahalgo ditugu arazo ekologikoak. Kapital gehiagorekin bakarrik lor daiteke ingurumena sendatzea. Zabal dezagun negozioa eta merkatuaren *esku ikusezinak* konponbidea ekarriko digu. Neoliberalismoaren diskurtso zaharra. (Ikus E. García, 1999:14-25)

Bigarren tokian, modernizazio ekologikoa eta ekonomia berdearen diskurtsoak ditugu. Garapen jasangarrirako proposamen honetatik ingurumen-kostuak barneratzea aldarrikatzen da, ingurumenaren defentsa ongi kolektibo gisa eta ingurumen zergak triskantza ekologikoak geldiarazi eta ekidin ahal izateko. Eragin-kortasuna eta teknologia berriei irtenbide sozialak eta ekonomikoak hurreratuko dira. Hori da sozialdemokrazia berdearen hitz-jarioa.

Hirugarren lekuan, eraginkortasunaz gain aski dela ere eskatzen dutenak aurkitzen ditugu. Egituren eta gizarte-harremanen ekologizazio ez-dekoratiboa eskatzen dutenak. Ikusmolde horretakoek produkzio- eta kontsumo-ereduen aldatetarako, justizia sozialarekin laguntzaz, egokitasuna zein demokrazia parte-hartzailearen tresna politikoak proposatzen dituzte. (I. Barcena, 2001).

Bestalde, Wolfgang Sachs alemaniar pentsalariari jarraituz, hiru begirada edo perspektiba alternatiboak ditugu garapen jasangarriaren interpretazioaren arabera,

espazio-mugak eta denbora-mugak nola ulertzen eta ekologia eta justizia nola uztartzen diren arabera.

Lehenengo prespektibaren arabera, ingurumena hazkunde ekonomikoaren pizgarri edo propultsio-indartzat hartzen da, hazkundera irtenbidearen parte izanik, eta ez arazoarena. Ekonomia industrialerako modernizazio ekologikoa da bidea, eta ekoeraginkortasuna merkatuaren lehiakortasunerako neurria. Horrela, mundu hau herrialde defizitarioen (Hegoa) eta emakorren (Iparra) artean banatzen da, eta azken horien helburua lehenengoek kapital aski ez izateagatik, teknologia zaharkitutik, adituen eskasietatik eta hazkunde ekonomiko txarretik atera behar dituzte.

Bigarren begirada batek Lurra objektu politikotzat eta zientifikotzat jotzen du. Haren arloa biosferaren ikerketa da, eta jasangarritasuna erronka bat kudeaketa (*management*) globalerako. Ez da Hegoaldean bakarrik ekin behar, baizik eta planeta osoan. Horretarako, bateratze politiko mundiala bilatzen da, nazioarteko araudiak, informazio-sistema globalak, alde askotariko itunak eta zenbait eratako “kontseilu mundialak” Marshall Plan berri baterako.

Hirugarrez, garapen jasangarria tokian tokiko bizitzari loturik ikusten dutenak ditugu. Horrela, *garapenkeria* litzateke gaixotasuna eta ingurumen-degradazioaren eragile nagusia, eta justizia soziala lehentasunezko osagarri bat Iparra zein Hegoan asetu beharreko beharrianak eztabaidatzean.

Iparrak daukan planetaren baliabideen menderatze oligarkikoaren aurka altxatzeak, bitartekoaz baino gehiago, helburuaz eztabaidatzea dakar. Eraginkortasunaz aritzeak ez du inolako zentzurik, ez baitira aski izatea eta egokitasuna kontuan hartzen (W. Sachs, 1997).

Ez dugu zertan errepikatu *hazkunde sostengatuaren* diskurto neoliberala izan dela azken 10 urte hauetan pautak markatu duena, eta Johannesburgoko Goi-bileran ere bai, baina han kontraesanak eta desberdintasunak gori-gorian agertu ziren eta hori eskertzekoa da.

Hantxe, garapen jasangarriaren inguruan dauden modu desberdinak kontrastatu egin ziren, eta gizarte zibilaren foroaren azken dokumentuan esaten zenez: Jasangarritasuna hiru hanka edo zutabeen gainean oinarritzen bada, bata soziala, bestea ekonomikoa eta hirugarrena ekologikoa, han bildutako gizarte-mugimenduek haxe gehitu nahi izan diote: Arlo sozialean, egokitasuna eta giza eskubieen errespetua; arlo ekonomikoan, merkataritza duina, birbanaketa justua, enpresen kontrola, zorraren kitapena eta baliabide naturaleen pribatizazio eza; eta azkenik, arlo politiko-ekologikoan, parte-hartzea, gardentasuna, subiranotasuna eta ingurumen-segurtasuna<sup>5</sup>.

---

5. “A sustainable world is possible” The Global People’s Forum Civil Society Declaration. Johannesburgo, 2002ko abuztuaren 23tik irailaren 4ra.

**BIBLIOGRAFIA**

- Balanya, B. *et al* (2000): *EUROPEInc. Regional and Global Restructuring and The Rise of Corporate Power*, Pluto Press, Londres.
- Barcena, I. (2001): “De qué hablamos cuando hablamos de desarrollo sostenible” in Zenbaiten artean. *Hacia un desarrollo rural sostenible*, ECOS/Asoc. Cambalache, Cantabria.
- Bond, P. (2002): “Behind and against NEPAD” *Global Fire*, WSSD secretariat, Johannesburgo, abuztuaren 22an.
- Comisión Mundial para el Desarrollo y el Medio Ambiente. (1988): *Nuestro futuro común*, Alianza, Madril.
- European Commission (2002): “Ten years after Rio. Preparing for the WSSD in 2002”, *Communication from the Commission to the Council and European Parliament*, Brusela, **6/2/2001 COM (2001)53 final**.
- Corporate Europe Observatory. (2002): “*Countdown to Rio +10. “Sustainable development and the Public-Private pantomime”*”, ([www.corporateeurope.org](http://www.corporateeurope.org)).
- French, H. (1993): *Después de la conferencia de Rio. El futuro del control medioambiental*, Libros de la Catarata/Bakeaz, Madril.
- , (2002): “Reshaping Global Governance”, *The State of the World Report*, New York.
- García, E. (1999): *El trampolín faustico. Ciencia, mito y poder en el desarrollo sostenible*, Eds.Tilde, Valentzia.
- Global Forum di Rio (1993): *La Carta della Terra . Il manifesto dell’ ambientalismo planetario*, ISEDI, Torino.
- Landless Peoples Movement. “*Joint the march of the Landless*”, Johannesburgo, 2002ko abuztuaren 31n.
- Lohmann, L. (2001): “Democracy or Carbonocracy. Intellectual Corruption and the Future of the Climate Debate”, *The Corner House’s Briefings*, **24**.
- McCully, P. & McCoy, M. (1993): *The Road from Rio. An NGO Action Guide to Environment and Development*, International Books/Wise, Utrecht.
- Ministerio Español de Medio Ambiente (2002): “Cumbre de Johannesburgo: Un paso más hacia el desarrollo sostenible”, *Ambienta*, **15**.
- Naredo, J. M. (1996) “Sobre el uso y el contenido del término sostenible” in Zenbaiten artean. “Humanidad y naturaleza” *Documentación Social*, **102**, Madril.
- Prodi, R. “Johannesburgo una operación global”, *El Pais*, 2002ko abuztuaren 21ean.
- Riechmann, J. (1995) “Desarrollo sostenible: la lucha por la interpretación.” in Zenbaiten artean. *De la economía a la ecología*, Trotta-Fundación 1º de mayo, Madril.
- Roma, P. (2002): *Jaque a la globalización. Cómo crean su red los nuevos movimientos sociales y alternativos*, Random House Mondadori, Bartzelona.

- Sachs, W. (1997) “Sustainable Development” in Redclift & Woodgate (eds) *The International Handbook of Environmental Sociology*, Edward Elgar, Cheltenham, Britainia Handia.
- Sutcliffe, B. (1995): “Desarrollo frente a ecología”, *Ecología Política*, **9**, Icaria-Fuhem, Bartzelona.
- Tamames, R. (1974): *Ecología y Desarrollo. La polémica sobre los límites del crecimiento*, Alianza, Madril.
- Wallström, M (2002) “ From words to deeds” in *Johannesburg Summit, 2002. Challenges and Partnerships*, WSSD, Nazio Batuen Erakundea.
- Zenbaiten artean. (1995): *50 años bastan. El libro del Foro Alternativo -Las otras voces del planeta*, Talasa, Madril.
- , (2002): *The Jo'burg Memo. Fairness in a Fragile World Memorandum for the World Summit on Sustainable Development*, Heinrich Böll Foundation, Berlín. ([www.joburgmemo.org](http://www.joburgmemo.org))

### **INTERNETEKO HELBIDE INTERESGARRIAK**

[boellforum@boell.org.za](mailto:boellforum@boell.org.za)  
<http://cornerhouse.icaap.org>  
[www.europa.eu.int/rapid/start/cgi](http://www.europa.eu.int/rapid/start/cgi)  
[www.basd-action.net](http://www.basd-action.net)  
[www.corporateeurope.org](http://www.corporateeurope.org)  
[www.iclei.org/ local agenda 21 survey](http://www.iclei.org/local_agenda_21_survey)  
[www.un.org/spanish/conferences/wssd.](http://www.un.org/spanish/conferences/wssd)  
[www.worldsummit2002.org](http://www.worldsummit2002.org)



# Globalizazioaren aurkako dinamikak: Seattletik Cancunera, Porto Alegren zehar

Paul Nicholsoni (EHNE-*Vía Campesina*) elkarrizketa<sup>1</sup>

*Vía Campesina* Lemoan sortu zen eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartearen egoiztatik mundura zabaldu zuen bere lehen mezua. Hori ez zen txiripaz gertatu, baizik eta euskal nekazarien prestakuntza eta ikusmira internazionalistagatik. Hamarkada bat pasatu da eta nekazarien mugimendu hori bost kontinenteetara hedatu da, bere mezu eta kanpainekin. Transgenikoak zein Europako Nekazaritza Politikaren aurrean, Yasir Arafat eta Palestinako herriaren defentsan edota saltoki handiak eta multinazionalen jokamoldeak salatzen globalizazioaren garaiko oso subjektu politiko-sozial eraginkorra bihurtu da. Ordezkaritza bat, Paul Nicholson hain zuzen ere, gure artean bizi da eta Euskal Herriko sindikalgintza berriaren aktibista ezaguna dugu.

**Iñaki Barcena:** Seattle (1999) ez zen ezerezetik sortu, Seattlen sinbolikoki, globalizazio neoliberalaren aurkako mugimendua ernatu zen; Ipar Amerikako hiri horretan oso garaipen ikur edo sinbolo garrantzitsua eman zen, baina hori nola lortu zen? Orain munduko jendea, hainbat jatorritako jendea, langileak, nekazariak, ekologistak, feministak eta abar bildu egiten dira, baina mugimendu hori nondik dator? Zein dira mugimenduaren lehenengo arrastoak?

**Paul Nicholson:** Seattleren aurretik ez zen bilerarik egon, Seattlen neoliberalismoaren eragin gogor bat sortu zen. Neoliberalismoak zuzenean maila lokalean daukan eragina izugarria da, eta erreakzio politiko bat sortzen da, berez. Azalpena edo itzulpena honelako mobilizazioetan argitzen da. Hori geure bat-etortzetik hasten da, bat-etortze lokaletik, ez da mundu osoan edo mundu-mailan hasten den mugimendu bat, oso gai konkrituak dituen mugimendua da; nekazaritzako gaietan, basoko kontuak, itsasoko gaiak edo ingurumeneko gaietan finkatzen da.

Beraz, une honetan, indigenen edo baserriarren gaiak eta emakumeen gaiak gidaritzat daukatela esango nuke, eta hor ikusten da mugimendua maila lokalean hasten dela eta gauza zehatzetan oinarritzen dela, ez da amalgama heterogeneo bat.

---

1. Elkarrizketa hau Porto Alegreko Mundu Foro eta Cancuneko MMERen batzarraren artean egin zen, 2003 urtean, eta egilea Iñaki Barcena izan zen.

Orain beste etapa batean gaude: mankomunitatearen proposamen bateratu bat lortu nahi dugu. Adibidez, *Via Campesinak* elikadura-subiranotasunaren kontzeptu konkretu bat plazaratu du neoliberalismoaren aurrean; gauza bera egin dute beste mugimendu batzuek ere; adibidez, emakumeen mugimendua munduan zehar indarra hartzen ari den mugimendua da eta ez dauka estruktura burokratikorik, estruktura horizontal batean oinarritzen baita. Izatez mugimendu lokalak dira eta gaiak ere oso lokalak dira, baina borroka global batean azaltzen dira; hori mugimendu internazionalista da, eta horizontalki antolatzen da, prekaritate handi batekin. Horixe da bere makaltasun nagusia eta bere indar nagusia.

**I. B. :** Ezkertiar batzuek mesfidantzaz dakusate eredu hori. Batetik, mugimendu horrek daukan indarra nolabait kontu mediatiko bat dela esaten dute, noizbehinkako mobilizazio eta batzar handiekin; baina, bestetik, antolakuntza oso apala eta eraginik gabekoa dela diote.

**P. N. :** Lehenengo eta behin esan behar da, mugimendu antineoliberalak dela, mugimendu berria eta ezaugarri berriekin. Beste indar-oreka bat sortu da, eta eragile sozial berri bat ere bai, kultura-politika berri baten barruan. Gizarte-mugimendu hau, alde batetik, oso mugimendu plurala da, askotarikoa, ideologikoki ere bai, eta beste eredu politiko bat eraikitzen ari gara. Gaur egun daukagun eredu politiko oso eskasa eta baliogabea da, eta eredu berria mantentzeko, aniztasuna eta pluraltasuna izatea beharrezkoa da; horretarako, beste urrats bat edo beste dinamika bat edota beste metodologia bat aplikatzea komeni zaio. Metodologia hori metodologia zabala da, nahi duenak eta ahal duenak hartzen du parte, azken erabakia jakin barik, urratsez urrats eta indarra lortzen. Mugimendu horren aberastasuna aniztasunean eta pluraltasunean datza, eta, hori mantentzeko, errespetuzko dinamika eta funtzionamendu asanblearioa eskatzen du.

**I. B. :** Horrek esan nahi du alderdi politikoekin tirabirak daudela. Europako edota Asiako alderdi politikoei ulertu egin al dituzte mugimendu honek ekartzen dituen berritasunak? Onartu egiten al dituzte?

**P. N. :** Ez dakit onartu dituzten edo ez, baina ikusi bai; une honetan, bakoitzak bere estrategia, bere eginbehar eta bere arlo propioa dauzka. Mugimendu berri hau ez da alderdien aurkakoa, baina oso jarrera kritikoa dauka alderdi tradizionalen ikus-moldeekin. Jakina, geure artean zenbait alderditako militanteak eta aktibistak daude, eta beste asko alderdiekin inongo loturarik ez dutenak.

Historikoki, azken 150 urteotan, mugimendu ezkertiarra ideologikoki alderdi politikoei lotuta egon da, hori ez da gauza berria; baina gaur daukagun agertokia gurea da, gizarteko mugimenduak gara protagonistak geure esparruan. Esate baterako, foro soziala gure esparrua da, edozein motatako alderdiak eta interesak parte hartuko dute, baina hori gurea da.



**I. B. :** Eta zuk uste duzu Porto Alegreko eredia eta iazko Florentziako adibidea ikusirik edota datorren urtean Indian egingo dena, nolabait, foro sozialak modu egonkor batean emango direla? Hau da, foroak ugaltzen joango direla, bai kontinentalak bai mundu-mailakoak eta bai lokalak?

**P. N. :** Ez dakit, foro sozialak azkeneko lau urtean oso zeregin garrantzitsua izan du, hurrengo lau urtean, zelako garrantzia izango duen ez dakit; baina orain, espazio sozialak artikulatu eta landu behar dira. Indian zer gertatuko den? Gu izatez eurozentrikoak gara, ez asiarrak. Une honetan, munduan hirutik bi pertsona asiarrak dira, eta Asian dauden mugimendu sozialak oso indartsuak dira; gainera, oso radikalak eta oso antineoliberalak. Gu hemendik ez gara ezertaz ohartzen, guk daukagun prepotentzia nazkagarria da, oso eurozentrikoa baita.

**I. B. :** Uste duzu hori hemengo gizarte-mugimenduen, ezkerraren edo alternatiboen arazo bat dela?

**P. N. :** Adibide bat jarriko dizut. Indian 700 milioi baserritar daude, baina hori ez da kontuan hartzen eta hori isla bat da; datorren urtean Munbain (Bonbai) egingo den foro soziala ez da egingo Porto Alegreko eran, baina normala da. Munbain egongo gara eta haien erara egingo da, guretzat kulturalki oso gatzat izango da ulertzeko, baina oso garrantzitsua da gure presentzia han. Gu ez bagoaz Munbaira, hori bai izango dela haustura global garrantzitsua.

**I. B. :** Goazen nazioarteko politika neoliberalen kontuak aztertzeraz. Lehendabizi, haien arazo bat: Seattlen (1999) ezin izan zuten proposamenak adostea lortu eta Mundu Merkataritza Erakundearen (MME) batzarra bertan bera utzi behar izan zuten mugimenduaren presioaz. Gero, Pragara joan ziren, emaitza gutxi eta manifestari askorekin, beraz, gotorleku bat bilatu zuten eta Dohara joan ziren, hor bai adostu egin zituztela gai batzuk. Gero, Johannesburgora joan ziren, herrialde nagusien arteko akordioak nolabait inposatzera, eta orain gerra izan eta gero, Cancunera joan dira gauza gehiago adostera. Egin iezaguzu pasabide horren interpretazio bat.

**P. N. :** Irakeko gerra gerra globala izan da, izatez gerra militarra da, baina gerra ekonomikoa ere bai. Iraken gerra hasita zegoen astean, Genevan liberalizazioaren aldeko negoziazioak egon ziren eta porrot egin zuten. Nire ustez, orain gertatzen ari dena oso larria da, inperialismo-mota berri bat sortu da, AEBek inposatu nahi duten eredu ekonomiko berri batekin. Adibide konkretuak: orain dela gutxi AEBek epaiketa egin zion Europar Batasunari, transgenikoen kontuan, Europar Batasunak daukan moratoria kendu nahi dutelako. Hori adibide argia da, zelan AEBek gura duten, merkataritzaren bidez, gure bizitza osoa kontrolpean eduki. Ez bakarrik baliabide naturalak, kolonialismo ekonomiko berria inposatu nahi dute. Testuinguru horretan, Cancuneko negoziazioetan sartuko garela esango nuke. Cancunera joan baino lehenago porrota egon daiteke, AEBek mundu osoari esaten badiote ez doazela MMEaren dinamikan negoziatzera eta nazioarteko erakundeen gainetik egingo dutela edota akordio batera heldu nahi dutela dena liberalizatzeke.

Liberalizazio horren barruan, hiru arlo nagusi dauzkagu: zerbitzu publikoak, inbertsioak eta nekazaritza.

Nekazaritza-arloa oso larria da, zeren azken finean, lau enpresa baitira, lau multinazional produktiotik kontsumora bide osoa kontrolatzen dutenak. Horren adibide argia NESTLE dugu; multinazional horrek, kafea, kakaoa, esnea, ura, arlo kimikoa (Bayerrekin egindako aliantzaren bidez), merkataritzan saltzaile-moduan ere bere marka propioa dauka, gauza horiek guztiak kontrolatzen ditu.

Beraz, egoera honetan, elikadura tresna estrategiko bat da, politikoki munduko biztanleria kontrolatzeko eta horrek ematen dizkien mozkinak eskuratzeko; hori guztia multinazionalak kontrolatzen dute. Horregatik guk daukagun borroka gogorra ez da bakarrik MMEaren kontra edo Cancunen hartu ahal diren erabakien kontra, gure borroka multinazionalen jokabide monopolistikoaren kontra doa ere bai.

**I. B. :** Zuek elikaduraren subiranotasuna aldarrikatzen duzunean, zer esan nahi duzue? Zein da horren atzean dagoen helburua?

**P. N. :** Guk esaten dugu herrien eta herritarren eskubidea dela elikadura eta nekazaritzako politika babestea, eta ez bakarrik merkataritza. Une honetan, neoliberalen globalizazioan hori ezin da izan. Herri batek ezin ditu bere elikadura, kontsumo-ereduak eta abar babestu.

Gero pribatizazioen proiektua ere badago, baserritarrak ezin dira lurretik, uretik eta hazietatik kanpo utzi. Guk esaten dugu, mundu osoko baserritarrek eskubideak eduki behar dituztela, lurra, ura eta haziak eskuratzeko; azken finean, munduan elikadura ekoizten duena baserritarra da, eta ez eredu globala, hau da, esportazioetan elikaduraren %10a bakarrik mugitzen da.

McDonalsek ez dio munduari jaten ematen, negoziazioetan garrantzi handia daukate bai, baina munduari jaten ematen diotenak baserritar txikiak dira eta eredu jasangarri bati lehentasuna eman behar zaio, jasangarritasun sozial eta ekologikoari. Bigarren kontua prezioa da. Une honetan, mundu osoan baserritarrak kobratzen duena kostuen azpitik dago, eta hori ez da ekonomikoki jasangarria, ez sozialki, ez eta ekologikoki ere.

Ez da jasangarria sistema ekonomiko bat, non elikadura guztiak inguru guztietan kostuen azpitik dauden; horretarako, inposatu duten *dumping*-sistema neoliberalaren kateak apurto egin behar dira eta ahalmena eman behar zaio gizarteari eta nazioei beren elikadura politika babesteko.

Hirugarrenez, herritarren eskubidea dago zer jaten dugun definitzeko, nork ekoizten duen eta zelan ekoizten duten. Globalizazio neoliberalak agertoki multinazional bat sortu nahi du, non guztiek lana nahi duten tokian egin ahal duten, baldintza barik, baldintza politikorik gabe eta gizarte-baldintzarik gabe.

Hori apurtu egin behar da, herritar moduan eskubidea daukagu jakiteko zer jaten dugun eta nor ematen duen, zelan eta zer. Baserritar-langileen eskubidea aldeztu behar dugu edo lan-baldintzak eta prezioak negoziatzeko ahalmena; zeren une honetan, baldintza sozialak eta ekonomikoak multinazionalak ezartzen baitituzte, lur gabeko baserritarrak eta baserritar-langileak ez daukate aukerarik. Hori da gure ustez elikadura subiranotasuna, herritarren kontzeptu bat da, ez da bakarrik kontzeptu soberanista edo nazionala, herritarren eskubidea da, batez ere.

**I. B. :** Beste alde batetik, ematen du 150 urte pasatu direla ezkerak eta marxismoak esaten zutenetik langileria industrialak beste modu batera antolatu behar zela, eta gizarte-mugimenduen aldetik badirudi orain *Vía Campesina* dela adibidea. Badirudi nolabait eredu produktibista eta langileria berak subjektu moduan ez direla gauza izan zapalkuntza-egoera aldatzeko, eta, aldiz, beste eragile batzuk datozela: indigenak, nekazariak, emakumeak edo beste talde batzuk, ekologistak, elkertasun internazionalistak, antimilitaristak eta abar, beste perspektiba batetik, subjektu berri bat eraikitzen. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu langile-sindikatuak, hor daudela, Porto Alegren ikusi dugunez. Zein da mugimendu berriaren eta sindikatuen arteko lotura?

**P. N. :** Munduan %55 baserritarrak gara, beraz, neoliberalismoak gudan daukan eragina oso gogorra da; baina kontuan izan behar dugu ere gu asko garela, eta oraintxe borrokatzeko eta antolatzeko daukagun ahalmena handia dela. Gauzak ezin dira orokortu, baserritarren artean badaude neoliberalismoa aldeztzen duten sindikatuak eta hori langile sindikatu batzuetan ere gertatzen da, hau da, eredu neoliberalaren alde daudela.

Langile-sindikatuaren aldetik, sindikatu berriak ere ikusten ari dira analisi berriei, baita dinamismo eta borroka berriei ere, neure ustez, ez da dena negatiboa. Egia da gaur egungo sindikatu nagusiak edo konfederalak burokratikoak eta bertikalak direla, eta hain astunak non, azkenean, neoliberalismoaren laguntzaile bihurtzen diren.

**I. B. :** Sindikalizazioa askotarikoa da munduan zehar. Sindikalismo korporatiboaz gain eta nekazaritza-sindikatu eta -mugimenduaz gain, 2003ko Porto Alegreko Foro Sozialean, adibidez, CGIL italiarra ikusi dugu diskurtso berri batekin. Badirudi Europako langileen sindikatuetatik aldaketak datozela, hurbiltzen ari direla globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduaren diskurtsora. Nola ikusten duzu hurbilketa-prozesu hori?

**P. N. :** Nire ustez langileen sindikatuak herentzia historiko batetik datoz, baina baita hipoteka historiko batekin ere. Oso egitura handiak daukate eta burokrazia handia ere bai. Eta batera sindikatuek testuinguru ekonomiko berri batean egin behar dute borroka eta ezin dute langileen defentsa soilik egin, eskasia-testuinguru batean mugitzen baitira. Batzuk CGIL Italian edo CUT Brasilen ari dira ikusten egoera berri hori eta beste analisi bat egin behar dute. Euskal Herrian

sindikalgintza berriak horrelako analisiak egiten ditu, baina badaukagu ere ELA, ehun urteko sindikatua, globalizazioaren aurreko estrategia batzuk barneratzen ari dena eta apurka-apurka mugitzen dabilena. Arazo kulturala da, ez bakarrik politikari eta teknologiar buruzkoa. Gaur egungo gizartean sindikatuen zeregina ez da soilik langileen aurrean, baizik eta klase sozial oso baten aurrean, eta horrek eskatzen du beste erantzun eta beste metodologia askoz dinamikoagoa.

**I. B. :** Joan den eguneko *Berria* egunkarian, Pablo Sastre idazleak esan zuen klase politikoa, eta nik gehituko nuke klase sindikala ere, aurrerapenaren ideia-rekin, hau da, hazkunderen ideiarekin, oso lotuta daudela. Hori da, azken ehun urtean marxismotik eta batez ere sozialdemokraziatik egin den proposamena. Pastel produktiboa handitu behar dela, eta gero modu egoki batean banatu. Europar sozialdemokrazia interes berezia jarri du globalizazioaren aurreko mugimenduan eta aliantzak bilatzen ditu, Porto Alegren ikusi dugun legez. Badakigu sozialdemokrazia oso fenomeno poliedriko eta askotarikoa dela, eta zaila dela brasildarrak, espainiarrak eta suediarrek zaku berean sartzea, baina zuk nola balioesten dituzu harreman berri hauek?

**P. N. :** Sozialdemokraziak ez dio aurre egiten gaurko problematikari. Kontua ez da aberastasunaren banaketa Europan edo Ipar Amerikan, baizik eta mundu osoan, eta horrek beste politika bat eskatzen du. Ez bakarrik bertoko politika gestionatu, baizik eta beste politika orokorrago bat eduki. Gauza bat da sozialdemokraziaren estrategia eta beste bat alderdiak eta burokraziak. Bakoitzak bere jarrera du. Une honetan, iritzi publikoa botere garrantzitsu bihurtu da eta alderdi sozialdemokraten aurretik doa. Esate baterako, agian PSOE krisi *terminal* batean dago. Ez bakarrik epe luzera PPri begira, ez da nahikoa daukagun egoera gestionatzea baizik eta beste eskenatoki politiko bat sortzea, eta horretarako nik ez dut ikusten PSOE gai denik horrelako desfazioak gainditzeko. Alderdi sozialdemokraten deslegitimazio-prozesu bat ikusten ari gara, eta betiko eskuina eta eskuina berriak oldartzen ari dira, sozialdemokraziaren ahultasunaren ondorioz.

**I. B. :** Transgenikoen gaia jorratuz, badirudi gaur egungo gizartean agertzen diren baldintza eta kezka berriei erantzuteko gauza ez direla egitura eta alderdi politiko tradizionalak. Zuek esaten duzuen moduan, elikagai transgenikoak ez dira garrantzitsuak bakarrik ekartzen dituzten ezaugarri edo kausa politikoengatik, baizik eta eredu berri bat ezartzen dutelako. Azal dezakezu zergatik ematen diozuen transgenikoei hainbeste garrantzi?

**P. N. :** Transgenikoek teknologia berri bat ekartzen dute eta teknologia horrekin elikaduraren kate osoa kontrolatu ahal da. Ez bakarrik produkzioa, kontrolatzen du agrotransformazioa, agrokimikoak, merkataritza eta kontsumoa. Ez ditu soilik mugatzen produkzioaren eskubideak, baizik eta kontsumoa eta osasuna ere bai. Orduan politikoki zentrala da, zeren borroka honen amaieraren arabera definituko baita nekazaritza- eta kontsumo-eredua ere bai, kontsumo-katea eta banatzaileen

lerroak barne. Une honetan, munduan lau enpresa nagusi daude, elikaduraren kate osoa menperatzen dutenak: Ura, lurra, biodibertsitatea, hau da haziak, agrotoxikoak, agrotransformadorak, eta merkataritza eta banaketa-enpresa horien eskuetan daude. Eta azken batean, elikadura munduko problema nagusia da. Esate baterako, Iraken gerraren ostean arduradun-moduan elikadura-aditu bat jarri dute, multinazionalen ordezkari bat. Energia eta lehengaiak ere giltza dira. Gure ustez garrantziko gai bat da, ez bakarrik kontrol ekonomikoa eta jabetasuna, baizik eta zientifikoek diotenez, gertatzen den kutsadura genetikoagatik. Teknologia totalitaria da, ezin da mantendu nekazaritza eta elikadura konbentzionala, transgenikorik gabekoa eta batera transgenikoak, bi bideak ezin dira batera egon, horrexegatik da totalitaria.

Azken baten, transgenikoek dibertsitatea apurtzen dute, ez bakarrik biodibertsitatea, prozesu homogenitzailea dakarte, bai kultura-arloan eta elikadura-tradizioetan. Gizarterako gai potoloa da; baina politikoki ere bai, eta hori ikusten da alde bietan. AEBek nahi dute MMEaren markoan Europar Batasuna zigortu, horrek moratoria bat mantentzen duelako *de facto*. Baina orain zigortu nahi dute ere EB etiketaren beharraren alde dagoelako. Gu ez gaude ados, etiketatu horrek elementu transgenikoen ehuneko bata inguru (%0,9) onartzen duelako. Baina AEBek hori ere ez dute onartzen, hau da, kontsumitzaileek edo nekazariak jakitea zer ari garen lantzen eta zer ari garen jaten. Eta hori gure ustez, oinarrizko eskubidea da. Hori galtzen badugu, gero etorriko dira nanoteknologiak eta abar; dinamika batean sartzen ari gara, non teknologia eta zientzia ez dauden gizartearen zerbitzura, baizik eta etekin eta interes partikularren zerbitzura.

**I. B. :** Badakigu Espainia dela EBko estatu bakarra, non laborantza transgenikoak egiten diren. Irakeko gerraren ostean, Jeremy Rifkinnek esan zuen nekazaritza eta elikaduraren gaiak oso funtsezkoak direla Bushen inperioa mantentzeko, eta Aznarrekiko aliantzak ere gai horretan estrategikoak direla, ezta?

**P. N. :** Espainia da estatu bakarra EBan arto transgenikoaren laborantzak egiten dituen eta European transgenikoak gehien aldeztzen dituen estatua da. Transgenikoen ikerketekin ez dago kontrolik. Gure eskubidea da jakitea frogatik horiek non ari diren egiten eta Espainian ez dago informazio publikorik. Seguru gaude ikerketak ari direla gertatzen kontrol publikorik gabe.

Jose Bovéren organizazioak *Confederation Paysanne* hasi zenean gai honen inguruan mobilizazioak prestatzen, ez zen gai ezaguna edo ardua handikoa, eta hasi ginenean egunez, ekintza zuzen eta arrazoituak, laborantza transgenikoak apurtuz, eztabaida publikoa piztu zen eta oso dimentsio zabala eduki zuen. Hori ez da nekazarien kontua bakarrik, hori gizarte osoaren gaia da. Gure ustez, ekintza horiekin lortu da European dagoen ardua azaltzea, egun %80ak dio ez duela nahi ez jan, ezta nekazaritzan transgenikorik sartzea ere. Hori aktibisten garaipen handia izan da. Aliantza zabalak egin dira iritzi publikoa irabazteko eta horrek beste

bide bat dela adierazten du, zeren Europako politikari askok nahiko lukete transgenikoak martxan jartzea, baina ez dira ausartzen iritzi publikoa oso kontra dagoelako.

**I. B. :** Irakeko gerraren aurka ere oso iritzi publiko sendoa sortu zen, eta hori laguntza izan zen EBeko estatuen parte bat gerraren kontra egoteko. Nola azalduko zenuke zuk globalitarismoaren aurkako mugimenduak ateratako “gerra global iraunkorra” dermioa, eta, bestalde, nola ikusten duzu EBko jarrera gerra ondoren?

**P. N. :** Lehen azaldu dudan moduan, “gerra globalaren” adibiderik onena da nola aldi berean Iraken gerra ematen zen eta Genevan merkatuen liberalizazioa negoziatzen ari zen MMEan. Bi agertoki dauzkagu, bata gerra militarra, eta hori ez da soilik Iraken, Afrikan, Kolonbian, Palestinan ere ikusten baitugu gerra ekonomikoa beste agertoki bat dela. Bushek Palestinan egin zuen lehenengo eskaintza (*Road Map*) espazio ekonomiko librea zabaltzea izan zen. Joan den martxoan, Genevan ez ziren akordio batera heldu. Eta oraintxe hiru prozesu ari dira negoziatzen (zerbitzuak, inbertsioak eta nekazaritza) eta hemendik aurrera hirurak eramango dira batera, eta bata eta bestea trukatu egingo dituzte. Europar Batasuna kasu honetan da traktore nagusia, akordio multilateralak aldeztuz. Bushek mundua kontrolatu nahi du indar militarren bidez, eta ez akordio multilateralekin. AEBak unilateralak dira. Aldiz EBk dena sakrifikatu ahal du inbertsioen arloan akordio bat lortzeko. AEBen norgehiagokan eta interes ekonomiko eta finantzarioak aurrera ateratzeko, dena liberalizatuko lukete. Eta lasterketa horretan, EB AEBen aurretik doa. Horregatik europarrak garen heinean, gure konpromisoa oso handia da hori azalarazteko, eta horregatik G-8ren batzarrak, Evianen, garrantzi handia dauka gure agendan.

Europar Batasuna erabiltzen duen leloa hauxe da: “Dena liberalizatu behar da, armak izan ezik” eta Estatu Batuek erantzuten diote “Dena liberalizatu, baina armekin”. Biek dauzkate helburu berdinak, baina bide edo tresna desberdinekin. Horregatik esaten dugu “gerra global iraunkorra”. Eta neoliberalagoa da Europa, zeren AEBek ez baitute behar ez MMERik, ez ezer ez, haien legea militarki ezartzen dute.

**I. B. :** Europar gabiltzala eta Euskal Herrira etorritz, askotan eztabaidatzen dugu zein diren neoliberalismoaren zutabe edo agente nagusiak hemen eta zein diren mahairatu behar diren gaiak eta estrategiak. Adibidez, transgenikoen gaia da nagusienetarikoa bat edota saltoki handiak eta azpiegiturak. Energia-alorrean defizitarioak izan gara eta bat-batean esportaziorako produkzioa edukiko dugu, Abiadura Handiko Trena eta guztiz. Zein dira zure ustez lehentasunezko gaiak?

**P. N. :** Guk kontraesan historiko bat daukagu: beti esportazioari begira egon garela. Gure ekonomia, gure burgesia, beti egon da kanpora begira eta hori barneratu egin dugu eta gure gizarteak ere hori ulertzen du. Baina beste alde bate-tik ere badauzkagu neoliberalismoaren eraginak. Gure identitatea, gure hizkuntza, gure bizimodu herritarrak zalantzan daude, zeren Aznarren estrategia berdina baita, ez da desberdina. Horren ondorioa da Euskal Herrian badagoela erresistentzia bat,

intuitiboa nahi baduzu, gure kultura eta identitatea babesteko. Eta horrek neoliberalismoaren aurrean zer gertatzen den ulertzeko eta beste kritika bat egiteko tresna batzuk ematen dizkigu. Azpiegituretan, energian, nekazaritzan eta abarretan oso erronka handiak ditugu, eta eredu kontsumoan ere bai. Eroski, adibidez, enpresa neoliberal da. Nahiz eta kooperatiba-forma izan eta bertokoa izan, produkzio- eta kontsumo-ereduengatik guztiz neoliberal da. Eta atal asko daukagu lantzeko, adibidez, kontsumo-eredua. Euskal Herrian herri txiki asko daukagu, eta ez da ulertzen horrelako dependentzia banatzaile handiekin. Gure kultura politikoa eta mikroekonomikoa erabili behar ditugu. Transgenikoak ere beste gai bat dira. “Transgenikorik gabeko Euskal Herria” egin dezakegun helburu bat da. Nafarroan eta Iparraldean laborantza transgeniko gutxi batzuk daude, baina baserritarrak ere aurka daude. Gauza gara Euskal Herrian, nekazaritza konbentzionala mantentzeko eta bide batez transgenikoei bidea oztopatzeko. Eta horrek eskatzen du iritzi publiko dinamiko eta kritiko bat. Gizarte-mugimenduek ulertu behar dute txoko asko daukagula borrokatzeko eta norberaren txokotik kanpo badaudela gauzak egiteko. Alde horretatik, Foro Sozialaren helburu bat hauxe da: taldeen arteko elkar ezagutza eta elkarrekin jardutea eta aldarrikapenak zabaltzea.

**I. B. :** Zein dira esaldi ekologista famatu hark esaten zuena (*globalki pentsatu eta tokian tokikoa eragin*) konbinatzeko irizpideak edo bideak? Izan ere, gaur egun, globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduak mundu globalean eta maila lokalean pentsatu eta jardun behar duela kontuan izaniak, nola uztartzen dira bi betebeharrak horiek? Zelan eramaten da eginbehar hori Euskal Herrian?

**P. N. :** Gerra-kanpaina Euskal Herrian ez da ondo eraman, ez dira lotu ikuspuntu internazionala edo globala eta bertakoa, ez da ulertu borroka ez dela bakarrik Irakeko gerragatik, gerra global bat dela. Orain hori hemen argi dagoela ikusten ari gara, Aznarren estrategia Euskal Herrian eta Iraken. Bushek daukan estrategia berdina da. Biak dira bat, eta ahalmen analitiko bat eduki behar dugu ulertzeko zer gertatzen den. Euskal Herrian edo Euskal Autonomia Erkidegoan badaukagu ahalmen bat beste espazio batzuk lortzeko, bai Diputazioetatik, udaletxetik eta Eusko Jaurlaritzatik, gutxienez gure ekonomia lokalerako, geure nekazaritza lokala eta geure elikadura lokalerako defentsa bat; baina hori ez da betetzen, Bruselatik dena eginda datorrela izeneko aitzakiarekin. Guk badakigu ahalmena dagoela eta gizartean sentsibilitatea dagoela, horretarako ere bai.





# **Globalizazio neoliberalaren gezurrezko determinismoa**

## **Ideologia desarrollista eta historiaren metanarrazio eboluzionistak pentsamendu soziologikoan**

Zesar Martinez, *EHU-Soziologia*

2002ko «Euskal Gizartearen Egoera» Saria<sup>1</sup>

### ***I. AURRERAPEN ETA DIFERENTZIAZIOAREN KRITIKA***

Pentsamendu eboluzionistak aldaketa sozialari buruz egiten duen teoriari, modernizazioaren edo, zehatzago, diferentziazioaren teoria deitu izan zaio eztabaida teoriko-akademikoetan. Teoria horrek ezartzen du, gizarte-sistema guztien bilakaera historikoan, badagoela gizartearen azpisistemak (politiko, ekonomiko, kulturalak...) gero eta gehiago diferentziatzeko eta konplexuagoak bihurtzeko joera. Diferentziazio funtzionalerako joera horrek modernizaziorako edota aurrerapenerako joera bihurtzen dute; hau da, gizartearen bilakaerak beti jotzen du gehiago modernizatzera eta hobetzera modu geldiezinean, etengabekoan eta nahitaezkoan. Gizarte guztien bilakaerak, lehenago edo geroago, ezinbestean betetzen duen historiaren burdinazko lege antzeko bat aldeztzen dute: gizarte-sistemak berezko joera lineala du garapenaren edo aurrerapenaren norabidean.

Ideologia desarrollista horrek izugarrizko hedapena du gaur egun; alabaina, gizartearen martxa edo bilakaera modu lineal horretaz irudikatzea etenik ez duen prozesu automatikoa eta aurretik determinatua baieztatzea da. Azken batean, balizko eboluzio natural baten arabera, aurrerapen geldiezinaren fede idilikoa elikatzea da. Planteamendu klasikoetatik (Spencer-en organizismoa, Durkheim-en lanaren banaketa edo Parsons-en diferentziazioa) gaur egun arte, berformulazio asko egin badira ere (Smelser eta Eisenstadt-en egintza kolektiboa, Bellah-en azterketa kulturalak, Alexander eta neofuntzionalismoa), diferentziazioaren teoriari egin zaizkion kritika askok zutik dira. Kritika horietako batzuk honako hauek dira: behar

---

1. Artikulu hau «Euskal Gizartearen Egoera» Sariaren irabazlea izan den Doktorego-tesiaren parte da.


besteko argitasunarekin ez azaltzea diferentziatio-prozesuaren kausak, ezta ondorioak ere; hau da, zer dela eta abiatu zen diferentziatioaren prozesua? Zergatik balioetsi behar dira positiboki diferentziatioaren ondorioak? Bestaldetik, aktoreek prozesuan duten zeregina ere ez dago batere argi; ba al daude diferentziatio helburu duten eragileek —beren interesengatik edo beren balioengatik— ala prozesuak agente inkontzienteen bitartez funtzionatzen al du? Diferentziatioaren teoriak, gainera, ez du definitzen denbora historikoaren dimentsioa; horrela, prozesuan egon daitezkeen atzerapausoak geldialdi moduan interpretatzen dira, zalantzan jarri barik prozesuaren joera nagusia. Azkenik, beste kritika interesgarri batek eurozentrisismoari edo amerikanozentrisismoari erreparatzen dio; teoria eboluzionista horrek, agerian edo ezkutuan, mendebaldeko modernitatearen eredu instituzionala eta kulturala aurreratua eta hobereena balitz bezala aurkezten du, beste herrialde guztiek lortu behar duten helmuga.

Gizarte-aldaketaren garapenkeriaren teoria horri egin zaizkion kritika horiek guztiak kontuan hartu beharrekoak badira ere, kritikarik sakonena postmodernismoak nabarmendu dituen modernismoaren aurreste faltsuak dira: gizarte modernoan, subjektu arrazionalak zientifikoki bereganatu dezakeela giza historiaren hari unibertsala. Izan ere, Ilustrazioaren *subjektu arrazional* hori, unibertsala izan beharrean, oso partikularra suertatu da: gizona, heldua, zuria, mendebaldekoa, burgesa...<sup>2</sup>. Eta gizarte modernoaren etengabeko *aurrerapen arrazionala* ere, unibertsala izan beharrean partikularra suertatu da, arrazionaltasun-mota baten etengabeko hedapena: arrazionaltasun utilitaristarena, instrumentala eta egoista. Horrela, etnozentrismoaren kritikari jarraituz, testuinguru batean garapen sozialaren inguruan historikoki eraiki den irudikapen kulturala dena (mendebaldeko iraultza modernoa eta postmodernoa) giza eboluzioaren giltzarri unibertsal gisa hartzeak mendebaldekoen harropuzkeria kulturala besterik ez du adierazten.

Izan ere, hazkunde ekonomikoan eta produktiboan oinarritzen den garapena, dakartzan aurrerapen zientifiko-teknologikoagatik eta konfortagatik, etengabeko aurrerapen geldiezintzat hartzeak determinismo teleologikora eramaten gaitu, giza historiaren motorra etengabeko hobekuntza ziurtatzen duten balizko indar kosmikoen esku balego. Probidentziak ziurtatuko balira, merkatuaren indarretan eta *laissez-fairean* konfiantza jarritz gero, gizartearen eboluzio naturalak ageriko helmuga idiliko batera helduko lirateke. John Dewey-k aurreratu zuen bezala, historiaren metanarrazio horiek aktore-sareek daukaten erantzukizun historikoa onartzea oztopatzen dute, eta borondate horrek soilik ziurta dezake gizakien arteko elkarbizitza duina<sup>3</sup>.

2. García Selgas, F. J. (1999): *Política y Sociedad* aldizkariaren 30. zenbakiaren aurkezpenean.

3. Joas, H. (1990): "The democratization of differentiation: on the creativity of collective action". *Rethinking Progress. Movements, forces and ideas at the end of the 20th century*. J. C. Alexander, Piotr Sztompka (arg.). Unwin Hyman. Boston, 184-85.



Gauzak horrela, postmodernitatearen inguruko eztabaidek ekarri duten aurrerapenaren ideien krisiak edo, zehazki esanda, akademiako pentsamendu eboluzionistaren krisia, krisialdi berria ez bada ere<sup>4</sup>, aukera berriak zabaltzen ditu teoretikoki jendartearen eta aldaketa soziala beste modu batera lotzeko; aurrerapenaren sinismena gaintzeak (gizartearen berezko aurrerapena) soilik ekar baitezake etorkizuna irekia, kontingentea, ez-jarraitua eta geure gaurko *praxiarekin* lotuta ikustea<sup>5</sup>. Hans Joas-ek azpimarratzen duen bezala, postmodernitatearen eztabaidak ireki duen krisia, erabateko erlatibismoa eta eszeptizismoa gaintuz gero, aukera berria da berreskuratzeko giza artekotatzen edo jendartearen sormen potentziala. Horretarako, gaintu beharrekoa da gizartearen irakurketa kosifikatzailea zein aldaketa sozialaren irakurketa determinista; baina baita giza egintzaren eta intenzionalitatearen ikuspegi aktibista eta boluntarista ere.

Horrela, aktore-sareen *praxiak* duen dimentsio sortzailea modu sakonean kontzeptualizatuz, gaintu ahal izango dugu giza egintzaren kontzeptzio utilitarista zein normatibista. Era berean, abiapuntu egokia izango dugu giza artekotatzen aldaketa historikoa determinismo eboluzionistatik askatzeko; hau da, aktore kolektiboen eraketa aztertuz sortu ahal izango dugu funtzionalista izango ez den teoria makroa, giza egintzaren boluntarismoa edo gizarte-sistemaren berezko mekanismoak onartu barik praxiaren sormenean oinarrituko dena. Bourdieu, Castoriadis edo Touraine-k aurrerapauso interesgarriak egin dituzte norabide horretan:

4. Joasek, XIX. gizalditik gaur egun arte eboluzionismo deterministaren kontra egon diren ahots kritikoak gogoarazten dizkigu. *Ibidem*, (182. orr.)

5. *Ibidem* (185. orr.).

*praxia* —sozioestruturalki kokatuta dagoen *praxia*— gure jokaeren, ohituren eta instituzioen etengabeko berrantolaketa gisa kontzeptualizatuz, instituzio sozialen bilakaera ez da nahitaezko eboluzio saihestezina, baizik eta etengabeko biziberritze kontingentea. Joas-en ustez, aipaturiko teoria makroa garatu ahal izateko diferentziazioaren prozesua ukatu ordez, zerbait erreal eta baliagarri modura onartu beharra dago —munduan hegemonikoki hedatzen ari den mendebaldeko irudikapen kulturala eta gizarte-garapen eredu gisa, erantsiko genuke guk—, betiere bere logika metasoziala eta determinista errefusatu, *praxi* kolektiboarekin duen lotura aztertze.

Ikus ditzagun, hortaz, jendartearen sormenean oinarrituriko ikuspegi aztertzaile makroa edukitzeko, Castoriadis-ek eta Touraine-k proposatzen dizkiguten planteamenduak. Jendartearen bilakaera historikoa aztertze, Castoriadis-ek edozein logika metasozialen determinismoa ukatzen du (Kant-en naturaren Probidentzia, Hegel-en espirituaren dialektika, Marx-en indar produktiboaren garapena, Modernitatearen aurrerapen arrazionala...); historiaren metanarrazio horien oinarrian mendebaldeko greziar zibilizazioaren ontologia hautematen du. Metafisika klasiko horrek izateari ematen dio lehentasuna, bilakaera bigarren mailan utziz. Horrela, badena izan daitekeena baino lehenago jarriz, indarrean dagoena lehenesten da; objektiboa eta neurgarria dena jartzen da errealitatearen lehenengo planoan, horren sorrera eta bilakaera posibleak ezkutatu. Era berean, *giza artekotasuna gizarte* bihurtzen da, ordenamendu arrazionala, koherentea eta aurreikusteko modukoa. Zentzu horretan, nolabaiteko determinazioaren logika nagusitzen da mendebaldeko pentsamenduan; logika horri, Castoriadis-ek logika magmatikoa kontrajartzen dio, egokiagoa jotzen baitu jendartearen azterketarako.

Horrela, esperientzia eta mundua ulertu ahal izateko, jendarteak duen irudikatze ahalmen magmatikoak errealitatearen eta bizitzaren interpretazioak sortzen ditu. Irudikapen sinboliko horiek (erlijioan, ekonomian, politikan edo artean zehazturik), jendarteak bizi dituen denbora eta espazioa definitzen dituzte, bizimoduari zentzua eta testuingurua emateko. Errealitatearen eta bizitzaren hautemate egonkorra definitzen dute zenbait erreferente sinbolikoren arabera; balio-, arau- eta signifikazio-sistema baten arabera. Signifikazio-sistema horrek lapiko kulturalaren hondo ontologikoa eta hondo axiologikoa osatzen ditu, bizitza indibiduala eta bizitza kolektiboa gidatzen dituzten ziurtasunak eta sinesmenak.

Irudikapen sinbolikoen sistema horiek seinaleak, markak edo orientabideak definitzen dituzte, munduaren eta bizitzaren ulermena orientatzeko: bizitzaren hegaldia ziurgabea noraeza existentziala saihesteko jendarteak sortzen dituen lur hartzeko pistaren argiak dira<sup>6</sup>. Zentzu horretan, garai eta testuinguru zehatz batean, indarrean dauden sinesmen eta bizimoduaren adierazpena dira; legeak, ikur politikoak, lanerako irizpideak eta abar irudikapen sinbolikoen hizkuntza bidezko mate-

---

6. Sánchez Capdequí, C. (1999): "El pensamiento social de Cornelius Castoriadis", *Inguruak*, **23**, 171.

rializazioak dira. Hain zuzen ere, errepresentazio- eta egintza-marcoak definitzeko giza artekota-sunak duen sormenaren materializazioa:

“Elementu kognitiboek, normatiboek, erritualezkoek eta politikoezkoen ordenamendu baten proiektu arrazionala, harmonikoa, koherentea eta aurreikusteko modukoa laguntzen dute, baina gizartearen (ordenaren) pertzepzio horren oinarria jario eta bilakaera sinbolikoa da; jario horren emankortasunaren ondorio edo kristalizazio tenporala da, eta bere etengabeko dinamismotik ondorioztatzen dugu denbora kronologikoan duen izaera iragankorra eta iheskorra”<sup>7</sup>.

Horrela proiektatzen da historian jendartearen sormen potentziala, eta inongo lege metasozialen esku (arrazionaltasunaren autokontzientzia, proletarioen askapena, gizarte teknifikatura ailegatzea...) ez dauden ordenamenduak produzitzen ditu. Hau da, giza artekotasunaren instituzionalizazio objektiboaren oinarrian giza artekotasunaren sormen sinbolikoa dago.

Horrek adierazten digu, lehenengo eta behin, instituzionalizazioaren izaera asmatua eta ez-naturala; eta, bigarrenik, giza artekotasunak historikoki kristalatu duen antolaketa politikoa edo ekonomikoa, adibidez, berformulagarria eta aldagarria dela. Horrela, lege historikoen, jainkoen edo patuaren emaitza gisa antzematen ez diren neurrian, elkarbizitzarako sortutako antolaketa horien perbertsioak eta kontingentziak giza artekotasunaren *praxiak* dituen (nahigabeko) ondorio gisa antzeman daitezke<sup>8</sup>.

Gauzak horrela, Castoriadisek oso norabide interesgarrian garatzen du oinarritzko planteamendu hori. Izan ere, bere ustez, gizartea giza artekotasunaren magma dinamikoa da, etengabeko tentsioan dagoena joera hauen artean: arrazionaltasunarena eta irudimenarena. Giza artekotasunaren magma dinamikoak produzitzen dituen ordenamenduetan beti dago bi elementu horien arteko nolabaiteko tentsioa. Arrazionaltasunak gidatzen ditu irudikapen idealen formalizazioa eta instituzionalizazioa, baita bere berformulazio kritikoa ere; irudimenak gidatzen du errealtatearen berrinterpretazioa, balioak eta idealak gauzatzeko, eta baita esperientziaren jariatutasunean sortzen diren hutsune ontologikoak *betetzeko* ere. Eratuta dagoenaren eta eratzeke dagoenaren arteko tentsio hori da giza artekotasunaren bizitasuna eta aldaketa historikoa hobekien karakterizatzen dituen. Zeren giza artekotasun errealean beti baitago giza artekotasun ideal bat.

Castoriadisaren ekarpen bereizgarriena litzateke, zentzu horretan, honako hau: bi polo horien arteko tentsioan —arrazionaltasuna eta irudimena—, batak bestea menperatzen badu, horrek fundamentalismoaren arriskuan jartzen gaitu. Ordenamenduaren petrifikazio sasiarrazionalak kolektibitatearen autoeraketaren kontzientzia ezabatzen du; eta, horren ondorioz, teknokrazia burokratikoaren automatismoak irudimena eta sormena menperatzen ditu. Irudimenaren erabateko nagusitasunak,

7. Ibidem (158. or.).

8. Ibidem (177. or.).

aldiz, dogma erlijioso, ekonomiko edo politikoaren doktrinamen-dua ezartzen du eta autokritikaren ahalmen arrazionala ezabatzen du.

Joera historiko horiek nagusitzen direnean, oztopaturik geratzen da jendartearen autonomia. Horixe da, hain zuzen ere, Castoriadis-en beste funtsezko kontzeptu bat: jendartearen autonomia. Kontzeptu horrekin erreparatu egiten dio, jendarteak idealak sortzeko eta idealak arrazionalki bideratzeko duen ahalmenari; ahalmen autokritikoa eta autokonstzientea, hau da, sortutako horretan duen protagonismoa onartuz, alienazioa saihestu egiten duena. Hots, sortutakoa, beste indar batzuen esku (arbasoak, jainkoa, natura, patua, aurrerapena...) dagoen materializaziotzat hartzen ez duen giza autonomia<sup>9</sup>.

Castoriadis-en planteamenduan, giza artekotasanak aktibitate politikoan egiten du (edo egin dezake) sortutako instituzioen berrikusketa kritikoa eta arduratsua. Jarduera politikoak, proiektu soziala gidatzen duten elementu sinbolikoen autokontzientzia eta eztabaida kolektiboa egiten du. Castoriadis-en ustez, horrek konprometitu egiten ditu giza artekotasanaren kide guztiak; autoprodukzioaren kontzientziak eta kontingentziak, lege, arau eta instituzio sozialen kontrol kritikora eraman behar baitu. Izan ere, elkarbizitza idealaren *praxiak*, beste edozein giza produktorekin gertatzen den legez, nahigabeko eta etengabeko zailtasunak, akatsak eta hutsuneak sortzen ditu. Jarduera politikoak da jendarteak duen praktika, autoazterketa kritikoa, arduratsua eta zuzentzailea egiteko; jendarteak praktika politikoan hautematen ditu instituzio sozialak bere egintzaren emaitza gisa eta, horren ondorioz, hautematen du ere lege guztien kontingentzia eta aldagarritasuna. Jarduera politikoak, beraz, jendartearen protagonismoa eta ardura bultzatu behar du:

Giza unibertsoa guztiz egituratuta egongo balitz, kanpoko indar baten eraginez edo praktika espontaneoren eraginez; hau da, giza legeak Jainkoak, Naturak edo Historiaren legeak ezarrita egongo balira, ez legoke pentsamendu politikorako inongo lekurik, ez legoke praktika politikorako esparru emankorrik; absurdoa litzateke lege sozialen egokitasunaz galdetzea<sup>10</sup>.

Izan ere, jarduera politiko autoreflexiborako itxiera hori hautematen du Castoriadis-ek, gaur egungo gizartean. Arrazionaltasuna eta autonomia indibiduala baieztatzen duen bitartean, ez du ahalbideratzen eztabaida eta partaidetza zuzena; eta dagoenarekiko konformismo akritikoa bultzatzen du. Autoreak, kontuan hartu beharreko bereizgarritasuna ikusten du modernitatean, beste garai historikoen aldean; gure garai historikoak, irudikapen eta signifkazio-sistema bakarrean (balio-, arau- eta orientabide-sistema bakar batean) oinarritu beharrean, bi irudikapen-sistema ditu oinarri; batetik, autonomia indibiduala eta kolektiboaren etengabeko bilaketa, eta bestetik, sistema kapitalistaren signifkazio-sistema utilitarista. Autonomiaren bilaketa antzinako Grezian ditu sustraiak, eta eklipse luze bat

9. Ibidem (175. or.)

10. Ibidem (177. or.)


iragan ostean, sasoi modernoetan berpiztu zen XI. gizalditik aurrera: Mendebaldeko Europan komuna independenteak ezartzearen aldeko mugimendu iraultzaile eta demokratikoan, geroago Amerikako eta Frantziako Iraultzan, XIX. eta XX. gizaldietan egin ziren iraultzetan eta langileen zein emakumeen mugimenduan, gazteen eta ikasleen mugimenduan zein gutxiengo kulturalen eta nazionalen mugimenduan ere bai. Bigarren imaginarioan, imaginario kapitalistan, signifikazio zentralak ez dira autonomia, askatasuna edo justizia, baizik eta arrazionaltasun mota baten mugarik gabeko hedapena. Gizakien lana, produkzioa eta kontsumoa kontrolatuz, naturaren eta gizartearen erabateko menperaketa utilitarista. Castoriadis-en ustez, balio-, arau- eta orientabide-sistema bi horiek batak bestea kutsatu zuten etenik gabe XIX. eta XX. gizaldietan, baina irudikapen ontologiko eta axiologiko antagonistak dira. Gaur egun, aldiz, berezitasun bat dauka: autonomiaren signifikazio-sistemak atzera egin du, eta signifikazio kapitalistak hedatu egin du bere eragina. Ekonomia kapitalistak, erdigunean ezarrita eta elkarbizitzaren alderdi guztien oinarria bihurturik, dirua, etekina eta elementu materialak bihurtu ditu bitziza sozialaren balio nagusiak. Horrela, kontsumismoak bultzatzen duen bizimoduaren pribatizazioa, eta alderdi politiko zein sindikatuekiko dagoen mesfidantza, konformismoa eta apatia politikoa hedatzen ari dira; eta, horren ondorioz, giza artekotasunaren autonomia indargabe dago.

Alain Touraine-k, Castoriadis-en zenbait planteamenduari jarraituz, gizarte industrialetatik gizarte postindustrialetara gaur egungo trantsizioan, elementu definitzaile nagusi bat ikusten du: giza artekotasunak bere burua eragiteko daukan ahalmen hazkorra.

Planifikazioa eta kontrola areagotzen den neurrian, giza artekotasunak bere elkarregintzaren emaitza gisa hautematen du bere burua. Historizitatea da Touraine-ek erabiltzen duen kontzeptua autoprodukzio edo autoeraketa hori izendatzeko, eta modu honetara definitzen du:

Giza artekotasunak, eredu kulturalak oinarritzat hartuta eta mugimendu zein gatazka sozialen bidez, bere praxia eraikitzeke duen ahalmena.

Bere ustez, giza artekotasunaren edozein arlo —ekonomikoa, teknologikoa, zientifikoa edo kulturala— bitartekaritza politikoaren menpe dago; horrexegatik, konplexutasunerako eta diferentziaziorako joera bera gatazka politiko bihurtu da. Horrela, Joasek proposatzen duen moduan, diferentziazioa demokratizatu beharra dago; ezkortasun sistemikoan edo dialektikoan erori barik, eztabaidagai dela onartu beharra dago. Izan ere, ez da eztabaidarik onartzen ez duen historiaren lege saihestezina, baizik eta irakurketa, balioespen eta zenbait aukera dituen auzia. Hau da, indarrean dagoen gizartearen aldaketa-joera giza *praxian* hezurmamitzen delako, giza praxia aplikatu ahal zaio modu erreflexiboan.



## 2. **SUBJEKTUAREN DESZENTRALIZAZIOA ETA PRAXIAREN ZENTRALITATEA**

Giza egintzaren eta gizarte-egituren arteko loturaren teorizazioa, gai nagusietariko bat izan da pentsamendu soziologikoaren historian. Egintza/egitura edo subjektu/objektu dikotomiak gainditzeko ahaleginak, 80ko eta 90eko hamarkadetan egin ziren hainbat saio teoriko gidatu ditu, baina azken urteetan ahalegin horiek ur sakonagoetan murgildu behar izan ziren. Izan ere, 90eko hamarkadan gizarte industrializatuetan nabarmentzen ari ziren eraldaketek modernitatearen krisia eta postmodernitatearen eztabaida ekarri zuten. Errealitate postindustrialak berak, zein errealitate sozial horretaz egin ziren irakurketa postmodernoeak, eztabaidan jarri zituzten ordura arte eztabaidea ziren Ilustrazioaren zutabeak eta zientziaren aurreste epistemologiko batzuk: arrazionaltasun unibertsalaren existentzia, subjektu arrazionalaren zentralitatea eta historiaren metanarrazio orokorrak posible izatea. Lehenago azpimarratu dugun moduan, hiru aurreste horiek elkarloturik agertzen dira aurrerapenaren ideian: gizarte modernoaren etengabeko hobekuntza lineala<sup>11</sup>.

Gauzak horrela, beharrezkoa den eraldaketa epistemologikoa egin ahal izateko kategoria eta kontzeptu berrien bilaketa inoiz baino urgentiagoa da, eta eraldaketa horren erdigunean *subjektuaren deseraikuntza* eta *deszentralizazioa* jartzen

11. García Selgas, F. (2000): "La reflexividad y el supuesto sujeto", *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*, Madril, CIS, 373-408.



da. Horrek ahalegin berriak ekarri ditu agente sozialaren teorizazioan; guri dagokigunez, arreta berezia jarri dugu, gizabanako arrazionalaren zein normatiboaren zentralitatea errefusatuz, *praxiaren* zentralitatea —elementu sozialen prozesu sortzaile gisa— proposatzen duten ekarpen teorikoetan<sup>12</sup>.

Pentsamendu sozialean, subjektu modernoak izan da erdigunean egon den elementua eta, horrekin batera, gizarte-sistema edo egitura. Horrela, ikuspegi teoriko batzuen arabera, subjektua heteronoma da, gizartearen instituzioek eta egiturek determinatzen dute (normatiboki funtzionalismo eta pentsamendu sistemikoan; materialki marxismoan). Beste ikuspegi batzuen arabera, subjektua eragile autonomoa da (arrazionala eta instrumentala, indibidualismo metodologikoan; intenziaduna eta interpretatzailea ikuspegi konstruktibistetan). Azkenaldian esan bezala, aldiz, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute *subjektuaren deszentralizazioa*; hau da, subjektua, modu autonomoan edo modu heteronomoan kontzeptualizatuturik, azterketa sozialaren erdigunetik kendu eta, subjektu/objektu ikuspegitik urrunduz, subjektuaren deseraikuntza egin. Horrela, azterketa sozialaren erdigunean kokatu beharrekoa ingurune eta sare esanguratsuen eraketa da —historikoki eta soziokulturalki kokatuak—. Subjektua aktore-sare moduan agertzen zaigu<sup>13</sup>; eragile sozialaren beste eredu edo ideia leunago bat proposatzen da, atzean uzten duena subjektu kontzientziadunaren determinismoa zein holismo sistemikoarena.

Hortaz, gaur egungo pentsamendu soziologikoaren ustez, eragile soziala eraikuntza bat da, aldi berean determinatua eta determinatzailea; eta, era berean, gizartearen instituzioak eta egiturak eraikuntza soziohistorikoak dira, aldi berean baldintzaileak eta baldintzatuak. Eragile sozialak kokatuta daude aldakorrak diren kokapen sozialetan, errepikakorrak eta erreflexiboak diren praktikak biziberrituz. Praktika horiek dira, hain zuzen ere, errealitatearen eragile determinatzaile nagusiak; eragileek beraiek, eragileen arteko elkarrekintzak eta gizartearen instituzioak eratzen baitituzte. Horrela, azterketa sozialaren erdigunean kokatu beharrekoa eragileen *praxi sozialak* dira; betiere, eragileen ahalmen sortzailea zein gizarte-egituren determinazioa jasotzen duten *praxi sozialak*.

Planteamendu epistemologiko eta analitiko horretatik, gizartearen eraketa eta gizabanakoaren eraketa prozesu berdinen emaitzak dira. Sozialitatean edo giza artekotasunean, gizabanakoaren nortasuna eratzen da; eta, aldi berean, harreman sozialetan gauzatzen diren praktiken bidez, gizartea eratzen da instituzionalizazio-eta desinstituzionalizazio-prozesuen emaitza gisa. Planteamendu horrek sekulako lurrikara dakarkigu pentsamendu soziologikoan, aldatu egiten baitu funtsezko kategoria askoren esanahia: gizabanakoaren izaera, giza artekotasuna (elkarbizitza),

12. Ibidem.

13. Latour, Callon eta Dona Haraway dira, besteak beste, norabide horretan proposamen ausartak eta berritzaileak egin dituzten autore batzuk.

gizarteratze-prozesua eta abar<sup>14</sup>. Izan ere, gizarteratze-prozesua paragrafoaren hasieran aipaturiko eraketa bikoitzaren prozesua litzateke: oinarri positibista duen subjektu/objektu dikotomia gaindituz, subjektu-subjektu ereduak garatzeko tenorean gaude; harreman eta *praxi* kokatuetan (eta horren ondorioz, mugatuetan) etengabe-ko autoeraketan dauden subjektu-sareak<sup>15</sup>. Gizartea ez da kanpoaldea gizabana-koentzat, ez da sistema edo egitura, eratuta dagoena etengabe ari baita biziberritzen praktika zehatzetan; eta, aldi berean, praktika horietan geure nortasuna eratzen ari da. Pertsona, beraz, ez da gizabanakoa, giza artekotasuna baizik; gizartea ez da sistema, giza artekotasuna baizik.

Beste era batera esanda, geure bizitza elkarbizitza da, bestela ez gara bizi. Eta gizartearen bizitza elkarbizitza da, bestela ez da bizi. Geure eguneroko harremanak eta *praxiak* horren adierazpen enpirikoa dira, ezusteko adierazpen hautemanezina. Hautemanezina gizarte modernoaren kulturaren subjektu/objektu edo egintza/egitura dikotomiek hautemanezina bihurtu digutelako. Gizarte-ordenamenduaren reifikazioa eta naturalizazioa —bere izaera sortua eta kontingentea ez hautematea—, giza artekotasunaren berezko ezaugarri unibertsaltzat hartu izan da, baina azkenaldian geure kategoria modernoan mugapen gisa hartzen ari da. Sanchez de la Yncera azpimarratzen duen bezala, oso garrantzitsua da bereiztea sozialitatea (giza artekotasuna edo eguneroko elkarbizitza) eta sozialitate horretaz dugun bizipena eta pertzepzioa: garen horretaz dugun pertzeptzioa eta garen horrek duen adierazpen praktikoa; hau da, zein neurritan garatzen dugun geure eguneroko harreman eta *praxiek* duten ahalmen sortzailea, elkarbizitza autoeratua, erreflexiboa eta libreka bideratzeko:

Sozialitatea izaki gisa dugun eraketaren gakoa da, izaki interpretatzaile gisa dugun eraketaren gakoa da, geure bizitza modulatzeko dugun izakiok. Transitatzen ditugun testuinguru intersubjektiboetan, bizitza interpretatzen eta gidatzen dugu —modu sortzailean— zirriborraturik aurkitzen dugun munduaren irudiaren arabera. Testuinguru intersubjektibo interpretatzaile horiek, beraz, transitatzen ditugu eta aldi berean eratzen ditugu<sup>16</sup>.

Horrela, modernitatearen pentsamendu soziologikoak bereganatutako dikotomia mugatzaileak eta sinplifikatzaileak gaindituz; malgutasun, jarioetasun eta prozesu-izaera duten kategoria eta kontzeptuak behar ditugu, giza egintza eta gizartearen —giza artekotasunaren— azterketarako. Gizabanakoaren egintza ez da *Egoaren* intentzioa, giza egintza des-*Egotizatu* behar dugu eta bere testuinguru soziokulturalen kokatu (testuinguru hornitzailea eta mugatzailea) ez badugu bolun-

---

14. “Sozialitatearen eraketa eta pertsonalitatearen eraketa elkarren artekoak dira. Bi alde dituen eraketa horri deitu beharko genioke, zentzu soziologikoan, *gizarteratzea*” Sánchez de la Yncera, I. “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema)”. Ramos, R.; García Selgas F. (arg.) (1999): *Globalización, riesgo, reflexividad: tres temas de la teoría social contemporánea*, CIS, Madrid, 431.

15. Ibidem (420-421. orr.)

16. Ibidem (429. or.)

tarismo sinplifikatzailean erori nahi<sup>17</sup>. *Praxi* soziala, errealitatean gauzatzen den egintza, ez da gizabanako edo giza talde baten emaitza guztiahalduna, baizik eta kokapen soziokultural zehatza duen aktore-sare baten emaitza idiosinkratikoa.

Beste alde batetik, gizartea giza artekotasuna da, gizartea ez da autonomo eta erabat nahitaezkoa den sistema edo egitura finkoa, baizik eta aktore-sareen eguneroko *praxi* kolektiboetan biziberritzen den elkarbizitzaren antolamendua. Gizarteratze-prozesua testuinguru soziokultural batean, gizakiak bizi duen moldaketa nahitaezkoa eta pasibo gisa kontzeptualitzeak ukatu egiten du gizaki bakoitzak bere harreman- eta praxi-sareen joko sozialean egiten duen edota egin dezakeen ekarpen berezkoa eta ezohikoa (praktikatugabea). Ukatu egiten ditu *praxiak* bultzatzen duen etengabeko bermoldaketa eta *praxiaren* erreflexibitateak duen ahalmen eraldatzailea<sup>18</sup>.

Horrela, gizarteratzearen irudi pasiboak elkarbizitzaren reifikazioa eta gizarte-ordenaren naturalizazioa bultzatzen du; izaera magmatikoa eta multitentsioduna ukatuz. Gaur egungo gizartearen martxa, etengabeko diferentziazio, globalizazio eta konplexutasun estrukturalaren bidetik, geldiezina balitz bezala irudikatzen du. Hortik dator, Ynceraren hitzetan, egituran edo “sistema autopoietikoetan” jartzen den fede azaltzailea; bere ustez, “esklaboaren mentalitatea” zabaltzen duen ikuspegi da, eta mesede egiten dio emantzipazioari baino alienazioari eta ezintasunari<sup>19</sup>; lurperatu egiten baitu, geure eguneroko *praxi* kolektiboan, garen giza artekotasunaren esanahian sakontzeko aukera. Beste era batera esanda, ezkutatu egiten ditu pertsonala eta sozialaren artean dagoen elkarren eraketa erreflexiboki autodeterminatzeko dauden aukerak.

### 3. *PRAXI SOZIALA ETA GIZA AGENTZIAREN AHALMEN ERALDATZAILEA*

Giza egintza eta gizartearen egiturak oso harreman dialektiko estua daukate. Bata bestearengandik urrun eta lotura gabe ikusi beharrean, gizabanakoen aktibitate errealean, *praxi sozialean*, biak batera agertzen zaizkigu. Gure azterketan, histori-koki, kulturalki eta sozialki kokaturiko *praxi* erreala hartuko dugu abiapuntu, *praxi*

---

17. Ibidem (426. or.).

18. “Buru sortzaileak salbuespena diren aparteko pertsonekin erlazionatzen ditugu, jakintsu eta jenioekin. Baina gizaki oro, bere erara, bakoitzak toki desberdin batetik esperimentatzen du bizitza eta, horren ondorioz, bere esperientziak ideietan formulatu eta besteei pasatzerik badu, badauka besteei eman diezaiekeen zerbait. Mundura datorren gizaki bakoitza hasiera berri bat da; eta unibertsoak hartzen du berarengan abiapuntu freskoa eta, maila txikian bada ere, egiten saiatzen da beste inork oraindik egin ez duen zerbait” John Dewey (1988) “Construction and Criticism”, *Later Works* 5 (1929/1930) Southern Illinois University Press, Carbondale, 1988 (207 or.). Sanchez de la Yncera aipatua Ibidem. (445 or.).

19. Ibidem (433)

sozialak ematen baitu eguneroko elkarrekintza errutinarioa eta gizartearen dimensio estrukturalaren artean dagoen lotura.

Horrela, onartu egiten dugu gizarte-egitura eta instituzio sozialek —ezartzen dituzten arau, baliabide eta harremanen bidez— gizabanakoen elkarrekintza erreala baldintzatzen dutela, zentzu hornitzailean zein mugatzailean. Elkarrekintza sozialerako behar den oinarritzko jakintza eta zentzutasun praktikoa hornitzen diete, modu arautuan eta kokapen sozial zehatz batean, horrek dakarren mugapen guztiekin.

Era berean, onartu beharrekoa da gizabanakoen egintza eta elkarrekintzak —produzitzen eta erreproduzitzen dituen errepresentazio, eskema eta jokabideen bidez— etengabe biziberritzen dituela gizartearen instituzioak eta egiturak. Giza egintza, beraz, intentzionala eta sortzailea da, gizarte-egiturekiko autonomia izateko joera du; baina ez da guztiahalduna eta mugarik gabekoa. Bere aukerak eta apustu sortzaileak egiten ditu, denbora eta espazio zehatz batek definitzen dituen egoeren barne; horregatik, *praxi* errealean azaltzen da egiturazko baldintzak eta egintza intentzionalaren arteko dialektika. Errealitate enpirikoan, beraz, maila indibiduala egitura sozialen mailarekin uztartzen da, *praxiaren* prozesuan gizabanakoa- ren egintzak eta gizartearen egiturak elkar eragiten dute. Sztompka-k baieztatzen duenez, errealitatean gertatzen diren gauzak beti dira egitura eta eragileen bat-egitearen ondorioa, ez dago egiturarik gabeko eragilerik, ezta eragilerik gabeko egiturarik ere; baina, aldi berean, egiturak ez dira agortzen eragileen *praxian* eta eragileen *praxia* ez da agortzen egituren barne.

Hortaz, giza egintzak zein gizarte-egiturak izaera bikoitza daukate: giza egintza determinatua eta determinatzailea da, eta gizartearen egiturak baldintzaileak eta baldintzatuak dira. Bikoiztasun hori gizartearen produkzio eta erreprodukzioaren ezaugarri nagusia da, eta, horregatik, gizartearen produkzioa eta gidaritza etengabeko prozesu dinamikotzat har dezakegu.

Aipatu den bezala, *praxiaren* emaitza, normalean, ez da ehunetik ehunean egintzaren asmoa, testuinguruak, arauak eta baliabide mugatuak dituelako eta asimetrikoa den botere-dialektika bat ere bai; gainera, batzuetan, *praxi* errealak nahigabeko ondorioak produzitzen ditu. Baina, *praxiaren* emaitza ez da ehunetik ehunean egituren determinazioen emaitza. Izan ere, gizabanakoak modu pertsonalean barneratu ditu transmisio kulturalaren bidez jaso duen egintzarako zentzutasuna, horregatik gizartearen instituzioak etengabeko aldaketan daude, etengabeko moldaketa eta gaurkotzea baita biziberritzeko modu bakarra<sup>20</sup>. Are gehiago, batzuetan, gizabanakoek, haien harreman sozialetan, egoerak problematizatzen dituzte; eraturarik eta dominanteak ez diren jokabideak definitzen dituzte, baita gauzatu ere.

20. Joasek aipatu duenez, ohiturak eta erreproduzioek badute beti sortzailea den zerbeit; bai eta alderantziz ere, sormen handiko ekintzetan beti dago ohitura, erreprodukzioa edo lehenagotik datozen elementuak.

Eguneroko praktika errutinarioa, erreproduzitzailerak eta sasikontzientea alboratuz, erata dagoenarekiko kritikoa eta kontzientzia diskurtsibora ailegatzen den *praxi* autonomoagoa eta sortzaileagoa abiatzen da. Horrela, berriak, diferenteak eta alternatiboak diren aukera ineditoak agertzen dira, lehian egongo direnak ordura arte instituzionalizaturik zeudenekin.

Hortaz, aktore sozialek gizartearen instituzioetan eta egituretan eragiteko daukaten ahalmena (agentzia) bizitza pertsonalaren eta kolektiboaren gidaritza hartzeko aukera da. Baina jokabide alternatiboak sortzeko aukera, edo gauzak *beste modu batera* egiteko ahalmena, aktibatu barik gera daiteke, eta botere agentziala jokabideen moldaketa erreproduzitzailerak eta errutinarioa bultzatzea.

Sharon Hays-ek zehaztu zuen moduan, beraz, lehenengo eredu teoriko tradizionalak (determinismoa eta boluntarismoa) zein oraingo joera teoriko konstruktivistak kontuan hartuta, lau modutan uler daiteke giza agentzia:

1. Gizabanakoak eragileak dira, gizarte-egituren eramaileak diren aldetik.
2. Gizabanakoek egiturak egiten dituzte, eta, aldi berean, egiturek gizabanakoak egiten dituzte. Eragileek, eguneroko praktikan egiten dituzten aukeren bidez, etengabe produzitzen eta erreproduzitzen dituzte gizartearen egiturak.
3. Gizabanakoak eragileak dira, gizartearen instituzio eta egituretan ondorio transformatzaileak dituzten aukerak egiten dituzten neurrian.
4. Gizabanakoak eragileak dira, beren egintzaren esku dagoelako errealitate sozialaren erabateko kontrola eta gidaritza.

Lehenengoa eta laugarrena, determinismo estrukturalista eta determinismo boluntarista, gaindituak izan dira gaur egun, Haysen ustez. Determinismo estrukturalak ukatu egiten du giza agentziak duen ahalmena gizartearen instituzioak eta egiturak eragiteko. Determinismo boluntaristak, bere aldetik, ez ditu gizabanakoak kokatzen historikoki eta sozialki egituratuak dauden testuinguruetan, eta, horren ondorioz, desagerrarazten ditu giza egintzaren oinarri soziokulturalak. Horren bertsio utilitaristan kontraesan nabarmena legoke, aktore arrazionala mundu sozialaren kontrola izan beharrean, bere jokabide estrategikoa erabat determinatua egongo bailitzateke inguruan dituen aukera eta baliabideen egituragatik<sup>21</sup>.

Bigarren eta hirugarren ikuspegiaren artean ez legoke horrenbesteko alderik, bieran onartzen baita giza agentziaren ahalmena gizarte-egiturak eragiteko. Bigarrenean, gizabanakoak eragileak dira egunero praktikan bidez instituzio eta egituren existentzia eta iraupena bermatzen dutelako. Gizabanakoak, beraz, eragileak

---

21. Hays, S. (1994): "Structure and agency and the sticky problem of culture". *Sociological Theory* 12: 1, 62.

dira zentzu tekniko batean, aukerak egiten dituztelako estrukturalki eskuragarri dituzten aukera-sorta baten barruan; baina giza agentziaren ahalmena baino azpimarratu nahi dena egituren izaera prozesuala da. Hau da, helburu teorikoa litzateke gizartearen instituzio eta egituren kosifikazioa gainditzea, eta, giza *praxia* egituren kontzeptualizazioan agerrarazten, determinismo estrukturala ukatzea. Horregatik, gehiago azpimarratzen da agentziaren joera erreproduzitzaila eraldatzailea baino. Haysen ustez, hori da gertatzen dena, beste autore batzuen artean, J. F. Alexander, Berger & Luckman eta Giddens-en planteamenduekin. Agentzia-mota horri agentzia erreproduzitzaila esaten dio Haysek.

Azkenik, hirugarren ikuspegian, eragileek aldaketa soziala produzitzeko daukaten boterearen azterketa dugu. Hau da, ondorio arruntak ez dituen agentzia, modu nabarmenean eta enpirikoki behagarrian gizarte-egituren arauak, baliaabideak eta harremanak eragiten dituzten *praxi* sozialak. Interesgune nagusia, beraz, gizakia-aren pentsamendu eta jokabideek dituzten ondorio historikoak dira. Beraz, ikuspegi honetan, onartu egiten da giza agentzia prozesu estrukturalatik eratortzen dela —eta normalean prozesu horiek erreproduzitzen dituela—, baina gehien interesatzen dena aukera eraldatzaileak dira; agentziak egituren izan dezakeen eragina. Hau da, Haysen ustez, agentzia eraldatzailea izendatu beharko genukeena.

### Giza egintzaren ahalmena eta gizarte-egituren determinismoa:

1) **Praxi soziala** → errealitatean gauzatzen den ekintza (giza egintza eta gizarte-egituren arteko dialektikaren emaitza)



Errealitate sozialaren eratzaila nagusia: aktoreak aktoreen arteko elkarrekintzak eta gizarte-egiturak eratzen baititu.

Eguneroko praxia ↔ Aktore-sareak ↔ Giza artekotasuna

2) **Aldaketa sozialaren irudikapen kontingentea ala nahitaezkoa?**

Gizarte-egiturekiko aktore-sareek garatzen duten praxiaren araberakoa:

•• Aktore-sareek, praktika parte-hartzaileak garatzen dituzten neurrian, gizartearen eta aldaketa sozialaren irudikapen deskosifikatzailea eta kontingentea egiten dute.

Arestian aipatu den bezala, gizartearen eboluzioa eta instituzio sozialen bila-kaera ez da nahitaezko eboluzio saihestezina, baizik eta etengabeko biziberritze kontingentea. Planteamendu horren erreferente normatiboa autodeterminazioaren ideia da, eta autodeterminazioaren ideia abstraktua demokraziaren teoria batean gauzatu beharko zen; hain zuzen ere, Castoriadis-en eskutik ikusi dugun bezala, giza artekotasunaren autonomian eta autoprodukzioan oinarritutako demokrazia.

Demokrazia eredu horretan, partaidetza kolektiboa eta instituzioen permeabilitatea lirateke gakoak; hau da, demokraziaren irudikapen formala eta prozedurazkoa baino harago joanez, gizarte-kideen delegazioan oinarritu beharrean, gizartekideen partaidetza antolatuan oinarritzea. Partaidetza kolektiboak ahalbidetzen baitu instituzioak eta arauak praxi kolektiboaren etengabeko biziberritzearen emaitza gisa antzematea. Zentzu horretan, instituzio eta mekanismoen egitura formala substantzializatu barik, horien baitan indarrean dauden egintza-prozesuak eta -funtzionamenduak dira funtsezkoena demokrazia etengabe gauzatzeko eta sakontzeko; giza funtzionamendu horien araberakoa izango baita instituzioen permeabilitatea eta autotransformaziorako gaitasuna.

Demokrazia eredu horrek bilatu beharko luke, partaidetza kolektiboaren bitartez eta instituzioen autotransformazioa ahalbidetzen duen permeabilitatearen bitartez, duintasunean berdinak garenen artean dauden aldeak (kulturalak zein sozioekonomikoak) bideratzea eta armonizatzea. Joasek, maila normatiboan irudikatzen den demokrazia horren aurrekari soziologikoak Mead-en pentsamenduan ikusten ditu. Izan ere, Meadentzat ordena soziala ez litzateke izan beharko kontsentsu edo adostasun normatibo baten egonkortasuna, baizik eta autotransformatzeko gaitasun kolektiboaren emaitza; giza artekotasunak bere arazoak eta gatazkak bideratzeko dituen aterabide posibleen artean kontsentsu berriak lortzeko gaitasuna. Kontsentsuak bai, beraz, baina modu dinamikoan ulerturik eta ez estatiokoan, etengabekoa baita arazoen eta ezusteen agerpena, ausardiaz eta sormenaz gainditu behar diren gatazkak. Meadek “Iraultza Instituzionalizatua” deitu zion benetako demokraziari.

Ikuspegi teoriko horien pertinentzia historikoa oso interesgarria da, gaur egungo aldaketa sozialak munduan hedatzen ari baitira mendebaldeko irudikapen kulturalean oinarritzen den giza artekotasunaren garapen eredu bat; diskurtso sozioideologikoen mailan, gizartearen eboluzio naturala balitz bezala aurkezten den garapen-eredua, kontingentziarik edo beste aukerarik onartzen ez duen eboluzioa. Izan ere, etengabeko hazkunde ekonomikoa eta produktiboa, zalantzan jartzen ez den giltzarria da ongizate eta bizimodu hobea lortzeko; merkatu globalizatuaren lehiakortasunak, eta etengabeko berrikuntza zientifiko-teknologikoak, berez, elkarbizitzaren eta bizimoduaren hobekuntza ekarriko balute bezala.

Irudikapen ideologiko horretan, globalizazio-prozesua gidatzen duena, meta-soziala eta determinista den logika ebolutiboa da, aktore-sareen eguneroko *praxia-ekin* lotuta ez dagoen logika, beraz. Diskurtso ideologiko horren inguruan erabateko kontsentsua eraikitzeak —eztabaidarik onartzen ez duen eboluzio saihestezin gisa ezartzeak— defini dezake, neurrian batean, azken urteotako joera sozioideologiko nagusia. Hortik dator, hain zuzen ere, Joas, Touraine, Bourdieu eta beste pentsalari askoren deia globalizazio-prozesua demokratizatzeko, eztabaidagai dela onartzeko eta balioespen zein zenbait aukera dituen prozesu gisa eraikitzeak. Hau da, indarrean dagoen gizartearen aldaketa-joera, giza *praxian* hezurramitzen ari delako, onartu beharra dago giza *praxia* aplikatu ahal zaiola modu erreflexiboan. Izan ere, John Dewey-ren hitzak gogoratu eta beste une batean aipatu dugun moduan, logika metasozialak baieztatzeak oztopatu egiten du aktore-sareek daukaten ardura onartzea, eta borondate horrek ziurta dezake soilik giza aurrerapena<sup>22</sup>.

Zentzu horretan, azkeneko urteetan munduko hedapena duen mugimendu sozialaren agerpena ezagutu dugu. Hain zuzen ere, “beste mundu bat posible dela” leloarekin aldaketa sozialaren kontingentzia aldarrikatzen duen mugimendua; globalizazio-prozesua bera, giza artekotasunaren aldaketa joera gisa, gatazka politikoa bihurtzen ari den mugimendua: aldaketa-joera horren ondorioak eta norabidea hausnarketa kolektiboaren eztabaidagai eta negoziazio-gai bihurtu nahi dituen. Horrela, geure azterketa enpirikoan ikusi dugun bezala, beste erreferentzia sinboliko-ideologikoak oinarri hartuta —eta indarrean dauden ereduaren hegemonia, automatismoen esku dagoenik ukatuz—, gaur egungo aldaketa-joerek pentsamendu ideologikoekin eta jarduera politiko-ekonomikoarekin duten lotura agerrarazi nahi du, baita aurkakotasuna erakutsi ere. Hortaz, kolektibitatearen autoprodukzioaren kontzientzia oinarriturik —indarrean dauden aldaketa-joerak giza egintza kolektiboaren emaitza gisa definituz—; eztabaidarako eta partaidetzarako itxiera salatzen du, giza artekotasunaren autodeterminazioaren nahia eta borondatea erakutsiz. Azken batean, Tourainek baieztatu zuen moduan, mugimendu sozialen egintza kolektiboak zenbait kultura-eta balio-errealitatetan gauzatzea bilatzen du, eta horretarako aurre egiten die botere-harremanen arabera definitzen duen arerioaren interesei eta eraginari. Horrexegatik erants dezakegu guk: giza artekotasunaren produkzioa ez da *praxi* sortzailearen emaitza sinplea, *praxi* hori aktore-sareek etengabe biziberritzen duten testuinguru batean gauzatzen baita, permeabilitatea edo inpermeabilitatea erakuts dezakeen testuinguru batean; protesta, errepresioa, negoziazioa eta diskurtso ideologiko ezberdinen arteko eztabaidan eta gatazkan.

---

22. Joas, H. (1990): “The democratization of differentiation: on the creativity of collective action”, in Alexander & Sztompka (argit.) *Rethinking Progress*, 184-185.



**BIBLIOGRAFIA**

- Alexander, J. C.; Sztompka, P. (1990): *Rethinking Progress: movements, forces and ideas at the end of the 20th century*, Unwin Hyman Inc, Winchester, AEB.
- Alonso, L. E.(1987): “Funcionalismo y paradigmas sociológicos. Notaciones críticas a un libro de Jacques Coenen-huther”, *REIS*, **37**, Madril.
- Beck, U.; Giddens, A.; Lash, S.(1997): *Modernización reflexiva*, Alianza, Madril.
- Bourdieu, P. (1991): *El sentido práctico*, Taurus, Madril.
- , (1997): *Razones Prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Anagrama. Madril.
- Castoriadis, C. (1983): *La institución imaginaria de la sociedad*, Tusquets, Bartzelona.
- , (1998): *Los dominios del hombre*, Gedisa, Bartzelona.
- Cohen, I. J. (1990): “Teoría de la estructuración y praxis social” in *La teoría social hoy*. Giddens, A. Turner, J. (bateratzaileak), Alianza Universidad, Madril.
- Dawe, A. (1998): “Las teorías de la acción social”, *Historia del análisis sociológico*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Emirbayer, M.& Mische, A. (1998): “What is agency?”, *American Journal of Sociology*, **4**, 103. lib.
- García Selgas, F. (1994): *Teoría social y metateoría hoy*, CIS, Madril.
- , (2000): “La reflexividad y el supuesto sujeto” in *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*, CIS, Madril.
- Giddens, A. (1995) *La constitución de la sociedad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- , (1999): *Consecuencias de la modernidad*, Alianza.
- Hays, S. (1994) :“Structure and agency and the sticky problem of culture”. *Sociological Theory* 12: 1.
- Joas, H. (1998) :*El pragmatismo y la teoría de la sociedad*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril.
- , (1996): *The creativity of action*, Polity Press, Cambridge.
- Latour, B.(1993): *Nunca hemos sido modernos*, Debate, Madril.
- Melucci, A. (1992): “Frontier land: collective action between actors and systems” in *Studying Collective Action*, Diani, M. Eyerman, R. (argit.), Sage, Londres.
- , (1996): *Challenging Codes. Collective Action in the information age*, Cambridge University Press.
- Sánchez Capdequí, C. (1999): “El pensamiento social de Cornelius Castoriadis” *Inguruak*, **23**.
- Sánchez de la Yncera, I. (1999): “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema”, in *Globalización, riesgo, reflexividad: tres temas de la teoría social contemporánea*, Ramos, R. García Selgas, F. (Argit), CIS, Madril.
- Sztompka, P.(1991): *Society in Action*, Polity Press, Cambridge.

- Touraine, A. (1990): *Movimientos Sociales hoy*, Hacer Editorial, Bartzelona.
- , (1993): *Critica de la Modernidad*, Temas de hoy, Madril.
- Wagner, P.(1995): *Sociología de la modernidad*. Herder. Bartzelona.

# **Globalizazioaren zoko ilunak: garapen-bideen hesiak nekazaritzan**

Efren Areskurrinaga Mirandona, *EHU-Ekonomia Aplikatua I Saila*

## **SARRERA**

Diskurtso ofizialak globalizazioaz hitz egiterakoan bi ezaugarri nagusi azpimarratzen ditu behin eta berriz: bata, prozesua ezinbestekoa dela, ez dagoela beste bide alternatiborik, eta bestea, globalizazio-prozesuak onurak baino ez dituela ekartzen partaide diren guztientzat. Globalizazioaren aurkako mugimenduek argi utzi duten bezala, errealitatea, ordea, ez da horren positiboa. Globalizazio-prozesuak irabazleak eta galtzaileak sortzen ditu, eta prozesua bera eta emaitza hori ez dira inolaz ere ezinbestekoak.

Jarraian datozen lerroetan, globalizazio-prozesu horrek zer-nolako itxura hartu duen esparru zehatz batean (nekazaritzan, alegia) azalduko dugu. Izan ere, globalizazioaren garai honetan ere nekazaritza oso sektore garrantzitsua da hegoaldeko herrialde askorentzat, oso ekarpen garrantzitsua egiten baitio herrialdearen Barne Produktu Gordinari (BPG), bere bilakaeran eragin azpimarragarria eraginez. Era berean, hegoaldeko hainbat herrialdetan nekazaritza-jardueratan aritzen direnak herrialdearen guztizko eskulanaren ehuneko altuak osatzen dituzte, sektorea diru-sarrerak eskuratzeko bide nagusia bihurtuz. Horren ondorioz, nekazaritza-sektorearen bilakaerak eragin zuzena izango du herrialde horietako populazioaren garapen-aukeretan. Bestalde ezin daiteke uka nekazaritzak oinarritzko eskubidea diren elikagaiak lortzeko orduan betetzen duen funtsezko zeregina. Nekazaritzaren garapenak (edo garapen ezak) eta bere moldeak nabarmen baldintzatuko du herrialde baten lorpenak elikadura arloan.

Globalizazioaren garai honetan nekazaritzak hartu duen moldea nolakoa izan den eta zein ondorio izan dituen hegoaldeko elikaduraren egoeran eta bere garapen aukeretan aztertuko dugu. Horretarako, lehenbizi gaur egun munduan gosea eta azpielikaduren arazoa zer-nolakoa den aztertuko dugu, arazoaren larritasun-maila eta banaketa geografikoa azpimarratuz. Ondoren, hegoaldeko nekazaritza-sektorearen bilakaera aztertuko dugu, bertan nagusitu diren politikak azaltzeko. Jarraian,

politika horiek aplikatzeko orduan globalizazio-prozesuak izan duen eragina aztertzeke. Azkenik, nekazaritza-arloan globalizazioaren alternatiben inguruko zenbait aipamenekin bukatuko dugu.

### ***ELIKADURA-ZIURGABETASUNAREN GAUR EGUNGO EGOERA***

Zientzia eta ezagutza teknikoaren aro honetan oraindik gabezia izugarriak hauteman daitezke hainbat herrialdetan eta gose direnak edo azpielikaturakoen kopurua handia da. FAOren arabera<sup>1</sup>, gaur egun munduan 840 milioi pertsona bizi dira azpielikaturata eta gosea modu iraunkorrean jasaten, horietatik 174 milioi umeak dira. Gosea diren gehienak garapen-bideetako herrialdeetan bizi dira, 799 milioi, hain zuzen; baina gosearen eragina nabarmen hedatu da transizio ekonomiak deituriko lehengo Sobiet Batasuneko eta Ekialdeko herrialdeetan (30 milioi), herrialde garatuetan diren 11 milioi ahazteke. Egoera lazgarri horri aurre egiteko borondatea agertu zuen nazioarteko komunitateak 1996. urtean FAOk sustatu zuen Elikaduraren Munduko Goi-bileran (EMG), eta 2015. urterako gose direnen kopurua erdira jaisteko konpromisoa hartu zuen.

Gosearen gaur egungo bilakaerak, ordea, zalantzan jartzen du nazioarteko komunitateak 1996an Erroman onartutako helburua beteko denik. Izan ere, 90eko hamarkadan 2,5 milioi pertsonak bakarrik lortu zuten urtero bataz beste gose iraunkorretik ihes egitea, EMGko helburua lortzeko urtero izan behar den murrizpenaren hamarrena besterik ez<sup>2</sup>. Azterketa zehatzagoa eginez gero, murrizpen apal hori garapen-bideetako herrialdeen artean joera kontrajarrien ondorio dela ikus dezakegu. Alde batetik, gosearen hedapena nabarmen murriztu duten herrialde gutxi batzuk daude<sup>3</sup>, Txina buru dutela. Baina herrialde horiek kenduta, gainerako garapen-bidean dauden herrialdeetan gose iraunkorraren eragina handitu egin da 80 milioi pertsona gehiagotan.


Gose iraunkorra jasaten duten pertsonen kopurua zein garrantzi duen herrialdearen guztizko populazioan aztertzen badugu, emaitza zertxobait hobea ateratzen da. Zonalde gehienetan gose iraunkorra jasaten dutenen kopurua jaitsi egin da, Afrika Zentrala eta Transizio ekonomiak kenduta. Orain bai, kasu gehienetan jaitsiera hori herrialdeko populazioa handitu egin delako ematen da, eta ez gose-tuen kopurua murriztu delako. Adibiderik garbiena India dugu. Indian gosetu iraunkorren kopurua 18 milioi pertsonatan handitu bada ere, populazioa handitu denez, gosetuen kopurua guztizko populazioan zertxobait murriztu da: % 25etik % 24ra.

1. FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea da, 1945. urtean sortua nekazaritza- eta elikadura-arazoak jorratzeko, gosea eta azpielikaturari aurre egin eta elikadura-ziurtasuna lortzeko asmoz. Nazioarteko datu-iturri nagusia da, bai aldiroko txostenen bidez, bai duen datuen base estatistikoaren (FAOSTAT) bidez. Datu horiek FAO (2002a)tik aterata daude.

2. Beste era batera esanda, hamarkada honetako murrizketa-eritmoarekin gosearen eragina erdira murrizteko helburua 2015. urtean baino 2150. urtean lortuko litzateke.

3. Vietnam, Indonesia, Tailandia, Nigeria, Ghana eta Peruk 3 milioitik gora murriztu dute gosea jasaten duten pertsonen kopurua. Txinan murrizketa handiena eman da: 74 milioikoa.

### Azpielikaduraren hedapena garapen-bideetako eta transizioko herrialdeetan, 1979-81, 1990-92 eta 1998-2000



Iturria: FAO (2002a).

Analisia zonaldeka eginez gero, Sahara Azpiko Afrika ageri zaigu gosetu iraunkorren kopuru handiena duen zonalde gisa, baita eragina gehien handitu duen tokia ere. Hala ere, zehaztu behar da Sahara Azpiko Afrikako zonalde zehatza dela emaitza kaskar horien erantzule, eta ez eskualde osoa. Izan ere, Afrika Erdiko Errepublikan bakarrik ematen da joera hori, Kongoko gudak nabarmen eragina. Beste leku batzuetan, kopuruan igoerak badaude ere, kopurua murriztu egin da. Beste muturra Ekialdeko Afrika da, non bai gosetu iraunkorren kopurua eta bai horiek populazioan duten garrantzia murriztu egin diren, Hego-ekialdeko Asia eta Hego Amerikan baino errepikatzen ez den joera positiboa ezagutzen. Orain bai, gosetu iraunkorren kopurua kontuan harturik Asia da, eta batez ere Hegoaldeko Asia, eragin handiena duen zonaldea 500 milioitik gorako eraginarekin; Txina eta India herrialde handiak nagusi dira horretan (ikus hurrengo grafikoa).

Egoera negargarri hori are okerragoa da pertsona orok hazkunde egokia izateko beharrezkoak dituen elikadura-gaien (bitaminak eta mineralak) gabezia kontuan hartzen badugu. Izan ere, gaur egun 2000 milioi pertsonatik gora elikadura-gaien gabezia dute, gose ezkutuaz izendatzen den egoeran dira, alegia. Gabezia horien artean hedapen handiena dutenak A bitamina, Iodoa eta Burdina dira. Horien jatorria dieta errepikakorra eta gutxi dibertsifikatua datza, zereal gutxi batzuetan oinarritzen diren dietak edota okela-, esneki- eta barazki-gabeziak dituzten dietak. Elikadura-gai horien gabeziek ikusmenean, sistema inmunitarioan, adimen-garapenean eta ahalegina egiteko gaitasunean eragiten dute, hurrenez hurren; ondorio kaltegarri nabarmenak dituzte pertsonen bizi-baldintza eta garapen pertsonalean, ekarpen ekonomikoan dutena ahazteke.

### Azpielikatutakoen banaketa munduan 1998-2000 (milioi pertsona)



Gosea eta azpielikaduraren hedapenaren zergatiak aztertzerakoan, eta batez ere egoerari aurre egiteko neurriak hartzeko, lagungarria da gosea eta azpielikaduraren hedapenaren arabera sailkatzea herrialdeak. Horrela FAOk bost kategoria bereizten ditu herrialdeen artean<sup>4</sup>. Sailkapen horri jarraituz egindako analisisian, gosea eta azpielikaduraren eragina eta hedapena altuak diren herrialdeetan, nekazaritza-sektoreari dagokionez, ezaugarri garrantzitsu antzekoak dituztela ikus dezakegu.

### **HEGOALDEKO NEKAZARITZA-SEKTOREAREN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA**


Nekazaritza-sektoreak herrialde hauetan duen eginkizuna funtsezkoa dela nabarmena da. Aipatu den bezala, herrialde horietako ekonomia-jardueraren zati garrantzitsua dakar eta eginkizun are erabakigarria du lan-indarraren arloan. Orain bai, gaur egun garapen-bideetako herrialdeak entitate homogeen gisa hartzeak ez du zentzurik. Egitura-mailan eta azken urteetan izan duten bilakaera ekonomiko sozialean eman diren desberdintasunak ezinezko egiten du trataera hori. Hala ere, gehien kasuan, eta herrialdetik herrialdera aldaketa nabarmenak direla jakinik, lehen sektorearen ekarpena herrialdean sortutako Balio Erantsi Gordinari garrantzitsua da, eta % 7 eta 43 artean dago; horren bilakaera erabakigarria da jarduera osoaren bilakaeran.

4. Kategoría desberdinak gosea eta azpielikatuak direnak herrialdeko populazioan duten ehunekoaren arabera egin dira. Horrela, 1 Kat < % 2,5 ; 2 Kat % 2,5-4; 3 Kat 5-19; 4 Kat 20-34 eta 5 Kat > %35. Kategoría baxuetan Ekialdeko ekonomiak leudeke; LAK 3. kategorian eta Asia eta Afrika eskualdeak 4. eta 5. kategorietan. Kategoría bakoitzean dauden herrialdeak ikusteko, jo FAO (2002:31-34 or.).

Alde batetik, eragin zuzena du ekonomia-jardueraren emaitzan, BEGari egiten dion ekarpenaren bitartez. Bestetik, zeharka ere eragin nabarmenak ditu ekonomiaren bilakaeran, atzerritik eskuratzen diren ondasunak ordaintzeko beharrezkoak diren dibisak berak lortzen dituelako batik bat, horretan ere herrialdeen artean desberdintasun handiak izan arren.

Honako irudi honetan agertzen den bezala, nekazaritza-sektorearen garrantzia nabarmen handiagoa da Gutxien Aurreratutako Herrialdeen<sup>5</sup> (GAH) artean eta, oro har, sarrera baxuetako herrialdeetan. Geografikoki aldiz, garrantzi handiena Hegoaldeko Asian du, Sahara Azpiko Afrikan eta Ekialdeko Asia eta Pazifikoa ahazteke. Herrialde horietan, nekazaritza-sektorearen ekarpena BEGari munduko eta garapen-bideetako herrialdeen batuz bestekotik nabarmen garaiagoa da. Hau da, gosea eta azpielikaduraren hedapena garaiena den herrialdeetan garrantzi handiagoa du nekazaritzak bertako ekonomian.

### Nekazaritza-sektorearen garrantzia Balio Erantsi Gordinean 1980-2000



Iturria: Munduko Bankua. World Development Indicators. 2002.

GAHetan talde gisa, nekazaritza-sektoreak % 33-43ko ekarpena egin dio BEGri azken bi hamarkada hauetan. Sarrera baxuenen taldearen kasuan, ekarpen hori hamar puntu txikiagoa 25-15 tartean mugitu da, bost puntu gutxiagotan Sarrera ertainekoak kontuan hartzen baditugu (20-15), eta beste bost puntu gutxiago Ertainak

5. GAHak 1971. urtetik aurrera NBEak hiru urtez behin, garapen-prozesuan zailtasun eta oztopo nabarmenak dituzten herrialdeekin osaturiko sailkapena da. Bertan izateko, NBE jarritako hiru irizpideak bete behar dira. Irizpide horiek diru-sarrera baxuak, giza gaitasunen ahultasuna eta ekonomia-hauskortasuna dira. Gaur egun 49 herrialde daude sailkapenean; 34 Sahara Azpiko Afrikakoak, 9 Asiakoak, 1 Karibekoa eta 5 Pazifikoko uharte.

bakarrik hartzerakoan, mundu bataz besteko % 5-10 artean mantenduz. Kasu guztietan joera beherakorra izan da. Era berean, sarrera edo garapen-mailari begiratu beharrean, geografikoki eginiko sailkapenak kontuan hartuz gero, Hegoaldeko Asia da nekazaritza-sektoreak ekarpen handiena egin duen zonaldea, % 38-25 bitarteko ekarpenarekin. Jarraian, Ekialdeko Asia eta Pazifikoa leudeke baina joera beherakor nabarmenarekin, %25 izatetik erdira jaitsiz. Sahara Azpiko Afrikaren kasuan, % 15 eta 20 bitarteko ekarpena da, eta Latinoamerikan, %10 eta %15 bitartean. Denetan joera beherakorra da, Ekialde Hurbila eta Iparraldeko Afrikaren kasuan izan ezik, non % 10etik 15era igo den.

Baina nekazaritza-sektorearen garrantzia nabarmenagoa agertzen da bertan enplegatutako langileen kopurua ekonomia osoaren lan-indarrarekin alderatzen dugunean. FAOSTATen arabera, herrialde horietan lan-indarraren % 20a kasurik txikienean eta % 80a garaienean, nekazaritza-sektoreko jardueratan aritu izan da herrialde horietan azken bi hamarkadetan. Zonalde guztietan, ordea, joera galtzerena izan da. Hemen ere aldeak nabarmenak dira herrialdeen artean. Hurrengo irudian ikusten denez, egoera honen muturrean GAHak ditugu, zeinetan nekazaritza-sektorearen lan-indarra guztizko lan-indarraren % 70-80 bitartean ibili den epe osoan zehar. Oso antzeko egoera islatzen dute Elikadura Defizita duten Sarrera Baxuko Herrialdeek (EDSBH)<sup>6</sup>, baina batz best 10 puntuko pisu baxuagoa izanik % 60-70 bitartean, alegia. Analisia zonaldeka eginez, Sahara Azpiko Afrikako Herrialdeak eta Ekialde Urruna<sup>7</sup> ageri dira nekazaritzako lan-indarrak pisu handien duten zonalde gisa (Afrikaren kasuan, %75-65 bitartean eta Asiaren kasuan % 60-70 bitartean). Gainerako eskualdeetan, nekazaritzako eskulanaren pisua erdiaren azpitik ematen da, eta gutxiengoa Latinoamerikan dugu: %20-30 bitartean. Hemen ere nekazaritza-sektorean aritzen den eskulanaren pisua garaiagoa da gosea eta azpielikaduraren hedapena handiena den tokietan.


---

6. EDSBHen multzoa FAOk analisi analitikoak egiteko erabiltzen duen kategorია da. Bertan izateko hiru irizpide bete behar dira. Lehenengoa diru-sarreraren ingurukoa, MBk erabiltzen duen sarreraren arabera sailkapeneko azken bi kategorietakoa izatea (1445 \$ buru bakoitzeko urteko baino gutxiago); Bigarrena elikagaien merkataritzan defizita izatea, eta hirugarrena, egonkortasun-irizpide bat. Egoera horretan egotea behin-behinekoa ez dela adierazten duena. Gaur egun 84 herrialdek osatzen dute, munduko populatuena diren Txina eta India barne. Nekazaritzan nagusitu diren politikak erabakigarriak izan dira, zalantza barik.

7. FAOk egiten dituen eskualdeen multzoak ez datoz bat erabat MBk egiten dituenekin. Horrela, aurreko grafikoarekin alderatuz, hemen Ekialde Urrunak lehengo Hego eta Ekialdeko Asia hartuko luke, baina Ekialde Hurbilak ez du Ipar Afrikako mendebaleko Maroko, Argelia, Tunez eta Mendebaldeko Sahara hartzen, horientzat beste kategoría propio bat dago.



### Nekazaritza-sektoreko eskulanaren garrantzia garapen-bideetako herrialdeen guztizko eskulanean, 1980-2001



Iturria: FAOSTAT

Nekazaritza-sektorearen garrantzia ikusirik, sektore honen garapena behar-beharrezkoa dela gosea eta pobrezia gaindituko badira aldarrikatu zuen FAOk, FIDA eta PMArekin batera Garapenaren Finantzapena helburu zuen Monterreyko Konferentzian aurkeztu zuen proposamenean (FAO, PMA y FIDA (2002)). Txosten horren arabera, oso harreman estua dago pobrezia eta gosearen hedapena eta herrialde horietako nekazaritza-sektorearen ezaugarrien artean, eta funtsezko jotzen da nekazaritza-sektorearen garapena Nazioarteko Garapen Helburuak<sup>8</sup> lortzeko.

### **GARAPEN-BIDEEN HESIAK NEKAZARITZAN**

Geroago aztertuko dugun proposamen horrek adierazten duenaren guztiz kontrako norabidea hartu du nekazaritza-politikak, ordea, aipatutako herrialde horietako askotan globalizazio-prozesuaren baitan. Izan ere, laurogeiko hamarkadaz geroztik, ikuspegi neoliberalaren nagusitasunaren pean nekazaritza- eta landa-politikaren norabidea nabarmen aldatu dira, pobrezia eta gosea gainditzeko funtsezko gisa jo dugun garapen-bideetako barneko nekazaritza-produkzioaren garapena bultzatzeko neurri eta helburuetatik. Horrela esan daiteke globalizazio neoliberalaren bidearen ondorioz, garapen-bideetako herrialde askoren garapen-aukerak mugatu dituela, nekazaritza-sektorean eman diren politiken norabide-aldaketan ondorioz.

8. Nazioarteko Garapen Helburuak (NGH) Nazio Batuek 2000eko irailean Biltzar Orokorrean onartu zituztenak dira. Zortzi dira alor hauetan: gosea eta pobrezia; oinarrizko beharrak (osasuna eta hezkuntza); gizon eta emakumezkoen berdintasuna; eta ingurumenaren zaintzaren aipamen orokor batekin. Lehenengoa pobrezia larrian eta gosez bizi direnen kopurua erdira murriztea da. Gaur egungo lankidetzaren ikuspegia markatzen ari dira.

Azken batean, globalizazio neoliberalak, bere bilakaerarekin batera, hesi berriak eta indartsuak jarri ditu hegoaldeko nekazaritzan bi prozesu hauen ondorioz. Lehenengoa *kanpo-zorraren* arazoaren eztabairaren ostean, pentsamendu neoliberalak Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtzaren eskutik hegoaldeko herrialdeetan indarrean jarri zituzten Egiturazko Doikuntza Planak; bigarrena, 1986-94 bitartean GATTen baitan gauzatzen den nazioarteko merkataritza-txanda berriak, Uruguai Txandak, alegia, izandako emaitzak: i) nekazal produktuen merkataritza liberalizatzeko hartutako hitzarmena eta ii) Merkataritzari lotutako Jabego Intelektualaren gaineko Hitzarmena, biak Txandaren ostean sortu Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) baitan garatuak geroztik.

Izan ere, nekazaritzaren inguruko lehentasunak iparraldeko elikagai-enpresen interesak babestea eta merkatu boterea handitzea dira, horretarako, neurriak datorkien Nazioarteko Erakunde garrantzitsuan presioak eginez, hots, MMEan. Erakunde horren baitan Uruguai Txandan sinatu ziren aipatutako bi hitzarmenak baliatuz, nekazaritza-ondasunen merkataritzaren liberalizazioa eta horren erabilpen pribatua sustatzen ari dira; bereziki bi hitzarmen hauen berrikusketa-prozesuak hasi direnean 1999 urtetik aurrera eta 2001eko azaroan Dohako negoziazio-txanda ireki berriaren bitartez.

Munduko Merkataritza Erakundearen baitan gai hauetan gauzatzen ari diren negoziazioak modu zuzenean eragiten dute hegoaldeko herrialdeen nekazaritza-sektorean, hartutako konpromisoak nahitaez bete behar dituztelako eta MMEak horiek indarrean jartzeko ahalmena duelako. Horrela esan daiteke gaur egun hegoaldeko herrialdeen aukerak nekazaritza-garapena lortzeko eta bere populazioaren elikadura-beharrak asetzeko, Mendebaldeko herrialdeek kontrolatzen dituzten arau, erakunde eta enpresen esku daudela neurri handi batean. Neurri handiago batean izango dira globalizazioaren aldeko pentsamenduaren nagusitasunak eraginda, aurrerantzean nazioartean elikadura-arazoei aurre egiteko merkaturak, eta zehatzago esanda nazioarteko merkataritzan, oinarritzen den eredu industrialak bul-tzatuko denez MMEren baitako nekazaritza-hitzarmenaren bitartez.

Laburbilduz, hiru hesi-mota nagusi dira gaur egun nekazaritza-arloan Hegoaldeko herrialdeentzat:

1. Eredu liberalak —EDPen bitartez— ezarritako esportaziora bideratuta dagoen nekazaritza, barne-merkatua eta oinarritzko elikagaien produkzioa kaltetzen duena.
2. MMEren Nekazaritza Hitzarmenaren izaera diskriminatzailea.
3. MMEren Jabego Intelektualari buruzko hitzarmena; zeinak, landare eta hazien gain, patenteak edo bestelako erregulazioa ezartzeko eskatzen duen.

### ***1. hesia: Eredua liberalak EDPen bitartez esportaziora bideratuta dagoen nekazaritzaren eredua.***

Kanpo-zorraren arazoaren ezta daren aurrean<sup>9</sup>, Iparraldeko herrialdeetako botereguneetan diren ekonomialari eta politikari neoliberalak beren ikusmoldea ezartzeko, edo hobeto esanda inposatzeko, aukera ezin hobe hori baliatzen dute, zorraren birnegoziatio prozesua abian jartzeko garaian, aurre baldintza gisa bere ikusmoldean oinarritzen diren Egiturazko Doikuntza Planak ezartzeko.

Egiturazko Doikuntza Plan horiek ikusmolde berriaren haritik azpigarapen-egoeratik —hazkunde ekonomikoa baliatuz— ateratzeko helburu formala zuten; baina benetan bilatzen zuten helburua, herrialde horiek Iparraldeko banketxeekin zituzten zorrak kitatzeko nahikoa dibisa eskuratzea zen. Hori zen lehentasuna. Horretarako, eta sinesmen berriari jarraituz, kanpo-sektorea indartu behar zen barne-eta kanpo-liberalizazioa jarraituz. Sinesmen hori gauzatzeko tresna dira, beraz, EDPak. Aurrez inon saiatu gabe eta oraindik behar bezalako oinarri teorikorik gabe, hartzekodunaren botereaz baliatuz, aplikarazi zituztenak, alegia.

Plan horiek bi zutabe zituzten: ekonomia egonkortzea lehenik, oreka makro-ekonomikoa lortuz, eta bigarrena ekonomia doitzea egiturazko aldaketan bitartez, ikusmolde berriak azpimarratzen zituen ardatzen arabera. Hau da, merkatua eta ekimen pribatuaren nagusitasuna sendotzea sektore publikoaren esku-hartzearen aurrean eta ekonomiaren kanpo-sektorearen liberalizazioa bultzatzea, nazioarteko elkartrukeak erraztuz. Lehenengo zutabearen ardurua Nazioarteko Diru Funtzaren gain geratzen da, eta bigarrena, berriz, Munduko Bankuaren esku. Bakoitzak bere helburuak lortzeko jarraitzen dituzten politikak eragin oso handia izango dute nekazaritza-sektorean. Lehenak egonkortzea eta oreka makroekonomikoa eskari agregatuaren murrizketan oinarritzen duelako, eta horrek sektore publikoak nekazaritzan egindako gastuaren murrizketa suposatuz zuelako; eta bigarrenak nazioarteko merkatuetan irteera izango duten nekazaritza-salgaiaren ekoizpena indartzen duelako, nekazaritza-sektorea kanpora begira jarritz.

Horrela, EDPei hegoaldeko nekazaritza-sektorearen hondamendia ekarri zuten kasu gehienetan. Dibisak lortzea lehentasuna zenez, nekazaritza-sektorearen jardura barne-merkatua eta oinarritzko elikagaiak (artoa, patatak, garia eta abar) ekoiztera bideratu beharrean, nazioarteko merkatuetan irteera izan zezaketen nekazaritza-ondasunen monokultiboak (kafea, kotoia, kakaoa, soja eta abar) sustatu dira. Herrialdeko elikagaien beharrak asetzeko bideratutako lur-sailen kopurua gutxitu egin da, eta esportaziora bideratutakoak ugartu, azken horiek lortzeko zituzten diru-sarrerekin aurrekoen inportazioak finantzatzeko gai izango zirelakoan.

---

9. Ezaguna den legez, kanpo-zorraren arazoa 82ko abuztuaren Mexikok bere hartzekodunei egin behar zizkien ordainketen atzerapena eskatzen duenean ezta daren aurrean. Hegoaldeko gainerako zordunak gauza bera egitekotan Iparraldeko banketxe-sistemaren porrota izateko arriskuaren aurrean gobernuak neurriak hartzea eskatzen diete, eta hemendik sortuko dira birnegoziatio-prozesuak eta Egiturazko Doikuntza Planak. Gai horren inguruan gehiago jakiteko, ikus Atienza (2002).

Emaitzak ordea ez dira onak izan. Esportazioen kopurua eta horiengatik lortutako sarrerak ez dira hazi modu nabarmenean (prezioak oso baxu nazioartean, enpresa gutxi batzuen kontrolpean daudelako eta Herrialde asko berezitu direlako, elikagai berdinetan eskaintza areagotuz nazioartean), baina bai inportazioak. Kredo berriaren arabera, oinarritzko elikagaiak lortzeko nazioarteko merkatuetara jotzea hobesten da. Esportazioen bitartez lortutako dibisak erabili eta nazioarteko merkataritza baliatuz, oinarriko elikagaien produkzioan eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste herrialdeek (sarritan diruz ondo lagundutako Iparraldekoak) merkaturatzen zuten produkzioa eskuratzea nazioartean jotzen zen estrategia egokiena. Horren ondorioz, mota horretako doikuntza-planak jarraitu zituzten herrialde askotan elikagaien barne-produkzioa murriztu egin zen, aldi berean atzerrik inportatutako oinarritzko elikagai merkeak nabarmen handituz. Emaitza hori desegoki ez ikusteaz ez ezik, nazioarteko baliabideen esleipen efizientea lortzen zela ere argudiatu zen, eta helburu hori da hain zuzen helburu behinena kredo neoliberalaren baitan.

EDPak duten strategiaren emaitzak, ordea, ez dira izan onak ez ageriko helburuari dagokionez (EDPak aplikatu dituzten herrialdeek ez dituzte hazkunde-tasa ekonomiko garai eta sostengaturik lortu kasu gehienetan), ezta ezkutukoari buruz ere. Izan ere, bi hamarkadaren buruan herrialde horiek Iparraldeko hartzekodunei zor dizkietena jaitsi beharrean handitu egin da (1,5 bilioi \$ 1990. urtetik 2,6 bilioira 1999. urtean), tarte horretan zehar sufrimendu handia eraginez gizarteetan, hainbat mila milioi dolar ordaindu arren. Are gehiago, hainbat herrialde pobreren kasuan urteko ordainketak eta metatuko zorra ekonomiarentzako zama jasanezina dira, esportaziotik lortutako sarreretatik eta Barne Produktu Gordinaren ehuneko garrantzitsuak izanik eta herrialde horien garapen-aukerak nabarmen baldintzatuz<sup>10</sup>.


Nekazaritza-arloan, norabide berri horren ondorioak are larriagoak izan dira. Alde batetik, ordura arte bertako nekazaritza-produkzioa sustatzeko indarrean zegoen sektore publikoaren esku-hartzea murriztu egin zen, ekimen pribatuari lehentasuna emanez. Nekazariari emandako dirulaguntzak murriztuz, nekazaritza-produkzioa eta stockak gorde, kudeatu eta merkaturatzeko ardura zuten enpresa publikoak deseginez eta nekazaritza-ikerketara alboratuz, elikadura-ziurgabetasuna nabarmen hedatu da. Joera horri ekimen pribatuaren jokabide kontraesankorra gehitu behar zaio. Alde batetik, ekoizle txiki eta kontsumitzaileen arteko bitartekari eta merkatarien presentzia nabarmen areagotu da, mozkin garrantzitsuak eskuratuz; baina beste alde batetik, nekazaritza-produkzioan bertan egindako kapital-inbertsioak nabarmen egin du behera, produktibitate-igoera nabarmenak ekidinez. Horrela, (FAO, PMA, FIDA 2002)-ren arabera gosea eta azpielikadura hedatuago

---

10. Esaterako, zorraren zerbitzua 90eko hamarkadan zehar %112 igo zen hegoaldean. Datuak eskualdeko zehaztuz, eta orokorrean kanpo-zorrek hegoaldearentzat izandako kalbarioaren berri izateko, ikus Atienza (2002).

dauden herrialdeetan sektore publikoak nekazaritzan egin duen gastua, ekimen pribatuak egindako kapital-inbertsioak, eta garapenarako laguntza ofizialaren fluxuetatik nekazaritzara bideratu dena, beste herrialdeekin alderatuta, nabarmen txikiagoa izan da. Horren ondorioz, herrialde horien arteko produktibitate-mailen arteko tartea nabarmen hazi da (20 aldizko tartea dago 1. eta 5. kategorien arteko nekazari bakoitzaren nekazaritzaren balio erantsian).

### Hirugarren munduko elikagaien inportazioen bilakaera 1980-2001



Iturria: FAOSTAT

Goiko irudian ikus daitekeen moduan, laurogeiko hamarkadan indarrean jarri ziren Egiturazko Doikuntza Planen ondorioz, 88-89 urteetatik aurrera elikagaien inportazioak nabarmen hazi ziren hirugarren munduko eskualdeetan. Eragin handiena Ekialde Urrunean eta Latinoamerikan eta Karibearen izan zen. Lehenaren kasuan, inportazioak 80ko hamarkadaren hasierako mailak bikoiztea baino iguera garaiagoa izan zen. Maila apalagoan bada ere, zonalde guztietan errepikatzen den gertakizuna da. Sahara Azpiko Afrikaren kasuaren iguera apalak esportazioetan izandako emaitza kaskarrak irudikatzen ditu, gosea eta azpielikaduraren hedapenean isla dutenak. Inportazioen bilakaerak eta arestian aipatu esportazioen hazkunde apalak elikagaien merkataritzan hegoaldeko herrialde asko eta asko defizitarioak izatea ekarri zuten ondorio gisa<sup>11</sup>.

Horren guztiaren ondorioz, nekazari txikien egoera nabarmen okertu da. Oinarrizko elikagaien barne-produkzioa sustatzeko pizgarriak izan beharrean, atzerriko inportazio merkeekin (diruz lagundutakoak gehienetan) lehiatzera behartu dituzte, galera nabarmenak eraginez. Madeley-k (2000) hegoaldeko 27 herrial-

11. Latinoamerika eta Karibea dira elikagaien merkataritzan defizita ez duten eskualdeak; gorena Ekialde Hurbilean ematen da 15 mila milioi dolarren defizitarekin 2000. urtean. Ikus FAOSTAT datu-basea.

detan egindako ikerketan barne- eta kanpo-liberalizazio neurri hauek hegoaldeko nekazaritza-sektorean izan dituzten ondorio larriak azaltzen ditu modu nabarmenean. Ikasketa horren arabera, alde batetik, elikagaien barne-produkzioa eta erabilitako lur-sail kopurua murriztu egin da, nekazaritza lortutako sarrerak murriztuz eta pobrezia hedatuz. Bestetik, lur-sailen jabegoa are gehiago kontzentratu egin da egoera honetan zailtasunak izan dituzten nekazari txikiek bere lur-sailak saltzean. Era berean, langabezia ugaldtu egin da hegoaldeko nekazaritza-sektorean zehar. Madeleyren estimazioaren arabera, 30 milioi lanpostuen galera da hegoalde osorako, ondorio kaltegarri horietan guztietan, kaltetuenak emakumeak izan direla ahazteke. Izan ere, Afrikan emakumeak dira produkzioaren % 75aren arduradunak eta, horren ondorioz, barne-produkzioaren aurkako ondorio guztien jasotzaile nagusiak. Azkenik, ingurumenean izandako ondorio kaltegarriak aipatu behar dira. Dibisak eskuratzeko gaitasuna zuen edozein ondasun ustiatu egin da muturreraino, ingurumenean kalte larriak sortuz, bai lehengai kimikoak erabileraren ondorioz, bai natura-baliabideen gehiegizko ustiapenagatik.

Horren guztiaren ondorioz, elikadura-ziurtasuna eta -nahikotasuna nabarmen ahuldu egin da hegoaldean. Hiritarren elikadura beharrak asetzeko atzeritik inportatutako elikagaien menpe geratu dira. Kanpo-sektorearen emaitzen menpe geratzen da barne-elikadura beharren asetzea. Horrek ziurgabetasun larriak eragiten ditu. Sektoreak emaitza kaskarrak lortzen baditu (esportazioen kopurua handitzea lortu ez edo esportatutako kopuruarengatik ordain baxuagoa eskuratu) barneko beharrak asetzea (tartean elikadurari dagokionak) kolokan gera daitezke. Horixe da hain zuzen, hainbat hegoaldeko herrialdetan gertatutakoa eta horietan gosea eta azpielikadura hedatu izanaren zergatia. Izan ere, herrialde horiek esportatu dituzten petrolio ez beste lehengaien nazioarteko prezioak etengabe egin du behera hamar-kada hauetan zehar, eta esportazioen bitartez lortutako diru-sarrerak mantendu edo behera egin dute. Egoera horrek populazio-hazkundearen ondoriozko elikagai behar metakorrei aurre egitea ezinezko egin du, herrialdeen baitan, azpielikaduraren hedapena zabalduz. Zenbait herrialderen baitan kaltetuenak elikagai-inportazio horiek erosi ezin dituzten sarrera baxuko taldeak kalte handienak jaso dituzte.

## ***2. hesia: MMEren Nekazaritza-hitzarmen diskriminatzailea***

Hamarkadetan zehar merkataritza-arauetatik at izan den nekazaritza 86an abian jarri zen Uruguai Txandako negoziatioetan sartu zen lehendabizikoz, Iparraldeko herrialdeen eskariz. Hamarkada luzez elikagai-ziurtasuna helburu izanik Iparraldeko herrialdeetan, elikagaien barne-produkzioa sustatu eta Hirugarren Munduko herrialdeen esportazioetatik babestuz jardun ondoren sektorearen liberalizazioaren beharra aldarrikatu zuten. Jarrera-aldaketa horretan ordura arteko babes-politikak mantentzeak zekarren diru-baliabide izugarriak murrizteko (EBren aurrekontuaren erdia baino gehiago Nekazal Politika Bateruak –NPB– xurgatzen du) nahia eta unean nagusitzen ari zen ikusmolde berriak gastu publikoaren eta

orokorrean sektore publikoaren esku-hartzea murriztearen aldekoa izatea erabakigarria suertatu ziren.

Hamarkadetan zehar haien merkatuak HM esportazioei itxiz, herrialde hauek elikagaien produkzioan izan zezaketen abantaila konparatiboaz ezerezean utzi ondoren eta babes-neurriak eragindako soberakinak nazioarteko elikagai-merkatuak oinarrizko elikagai merkeez bete ondoren, nekazaritza-jarduera zailagoa eginez hegoaldean, orain nekazaritza-salgaien merkataritza oztopatzen duten trabak murriztea aldarrikatzen da. Ordura arte arriskutsu gisa jotzen zena estrategia onena bihurtu da. Izan ere, elikagai ziurtasunaren aldekoek atzerriko elikagaien inportazioen menpe izatea populazioaren elikadura-beharrak asetzeko estrategia okerra zela aldeztu zuten, elikagaiek edozein ekonomia eta gizartearen ongizatean betetzen duten funtzio estrategikoagatik. Ezin zitekeela merkatuaren legearen menpe bakarrik jarri, lege horrek erosteko ahalmena eta ez pertsonen beharrak hartzen baititu kontuan.

Kontuak kontu, nazioartean indarrean dauden babes-neurriak apurka murrizteko konpromisoa hartu da, Txandaren hitzarmen orokorraren baitan Nekazaritzari buruzko Hitzarmena sinatuz. Hitzarmenak, ordea, ordura arte Iparraldeko herrialdeek jarraituriko babes-politikak nazioarteko merkatuetan sortutako kalteak zuzentzera bideratu beharrean (formalki esan bazen ere), EB eta AEBko interesen arabera egiten da, nekazaritza-politika zalantzan jarri gabe, salbuespen garrantzitsuak ezarri. Izan ere, arantzelak gutxitzeko onartutako erreferentziazko urteak egokiro aukeratuz (babes-neurriak gorenean ziren 1986-9 urteak alegia) Iparraldeko babes-maila gutxitu beharrean hedatu dela ondorioztatu da azken urte hauetan, eta Hegoaldean emandako liberalizazioa sakonagoa izan da.

Bestalde, Batasuneko nekazaritza-politika bateratua (NPB) eta AEB nekazaritza-politikak salbuespen gisa onartu ziren, zenbait koloretako kutxez osatutako salbuespen-sistemaren bitartez. Babes-neurriak merkataritzan duten eragin kaltegarriaren arabera sailkatu ziren kutxa urdin, orlegi eta horietan, batzuek murrizpen-erabakiak hartzera behartuz eta besteak salbuetsiz, merkataritza-fluxuak oztopatzen ez zituztelakoan. Banaketa garrantzitsuena Kutxa orlegia eta besteen artean ematen da. Horrela, EBko NPBko eta AEB *Farm Act* deritzan laguntzak merkataritza oztopatzen ez zuten neurrien artean kokatu ziren kutxa orlegian, babes-neurriak jarraitzea, eta dataren aukeraketa interesatuaren bitartez, indartzea ere ahalbidetuz.

Aitzitik, hegoaldeko herrialdeak beren merkatuak irekitzera behartuak izan dira, merkataritza askeak munduan baliabideen esleipen efizientea sustatzearren izenean. Nekazaritza-sektorearen liberalizazioaren onuradun nagusienak, abantaila konparatiboak haiek beraiek dituzten heinean, haiek izango zirela argudiatuz. Egiturazko Doikuntza Planen esparruan, Nekazaritza Hitzarmenean adierazitakoa

baino askoz gehiago liberalizatuz gainera; hitzarmena betetzeko orduan egin zituzten akatsak ahazteke. Hegoaldekoek lortu zuten bakarra babes-neurrien murrizketa konpromisoen maila txikiagoa eta transizio-epe luzeagoak lortzea izan zen.

Hitzarmenak bi helburu nagusi ditu eta hiru arlo nagusitan egituratzen da. Alde batetik, hitzarmenak nekazaritza-merkataritzaren arauak eraldatzea bilatzen du eta bestetik, arau berrien oinarrian babes-neurriak murriztea, liberalizazioa, alegia. Horretarako, hiru arlo hauek dira hitzarmenaren ardatz nagusiak<sup>12</sup>:

- i) Arantzelak ez diren babes-neurriak arantzel bihurtzea.
- ii) Mugasari edo arantzelen murrizketa eta esportaziorako laguntzak sunsitztea.
- iii) Merkatuetarako sarbidea.

*i) Arantzelak ez diren babes-neurriak arantzel bihurtzea.* Konpromiso honi tarifakazioa deitu izan zaio eta berehala sartu zen indarrean. Arantzelak ez ziren babes-neurriak baliokideak ziren arantzelekin ordezkatu behar ziren. Herrialdeek (batez ere Iparraldekoak) baliokidetza zehazteko prozedurak sarritan nahita puztu zituzten, arantzel berriaren bitartez aurreko babes-neurriak baino maila gairaiagoan babestuz barne-produkzioa. Are gehiago, tarifakazio-prozesu horrek beste betebeharrak bat zekarren, arantzelen bitartez hartutako babesak izango zuen gehieneko muga zehaztea hain zuzen. Gorengo maila hori izango zen jarraian ikusiko ditugun liberalizazio-konpromisoek adierazten zuten mugasarien batz besteko jaitsieraren abiapuntua.

Nekazaritza-ondasun bakoitzaren gaineko gehieneko babes-neurria (arantzelaren maila) finkatu zuten herrialdeek. Orain bai, abiapuntu gisa onartuko ziren gehieneko muga hauek finkatzean herrialde askok —bereziki Iparraldean— nabarmen igo zituzten ordura arte indarrean zegoen babes-maila. Hegoaldean, aldiz, tarifakazioak ekarri zuenaren gaineko ezjakintasunak eraginda batzuetan, eta besteetan aipatutako prozesuan hartu zituzten konpromisoen benetako eragina eta ondorioak nolakoak izango ziren ondo baliotsi gabe erabakiak hartu zirenez, beraien babes-muga Iparraldekoarena baino maila apalagoan jarri zuten. Geroztik diruz lagundutako Iparraldeko esportazioetatik babesteko arantzelak igo ezinik aurkitzen dira, inportazio horien lehiak nekazaritza-sektoreak egiten ari den triskantzari aurre egin ezinik.

---

12. Hiru horiekin batera nekazaritza gaientzako salbuarda klausula berezia ere onartzen da, merkatuko arazoak daudenean aplikatzekoa (bat bateko inportazio igoerak batez ere), Marrakexeko erabakiaz ezaguna dena. Adostutakoa, ordea, ez da aplikatu. 1996. urtean hegoaldeko inportazioak gehiegi igo zirenean salbuarda hori aplikatzea ez zuen onetsi MMEak, Nazioarteko Diru Funtzak inportazioen bat-bateko igoera hitzarmenaren ondorio zuzena zela argi ez zegoelako.



*ii) Mugasari edo arantzelen murrizketa eta esportaziorako laguntzak suntsitzea.* Hitzarmenean adostutako liberalizazioa bi neurri hauetan gauzatu zen. Alde batetik, ordura arte indarrean zeuden mugasariak eta aipatutako tarifikazio-prozesuan jarri ziren arantzelak murriztea eta, bestetik, zenbait herrialdek esportazioei emandako dirulaguntzak suntsitzea. Lehenengoaren kasuan, negoziazioen emaitza honako hau izan zen: Gutxienez % 15 murrizteko konpromisoa hartu zen, hitzarmenaren sei urteko epe osoan bataz beste % 36ko murrizketaraino iritsiz. Garapen-bidean dauden herrialdeen kasuan murrizketa txikiagoa, bataz beste % 24koa, izatea adostu zen, hamar urteko epean. Emaitza oso apala zen txandaren hasierako helburuei begira.

Bigarren neurriaren inguruko konpromisoak azalpen gehiago behar du aurrez. Nekazaritza sustatzeko eta babesteko joeraren ondorioz, nekazaritza-gaien barneko prezioa<sup>13</sup> nazioartekoa baino garaiagoa zen. Horren ondorioz, barne-merkatua asetzen zenean nazioartera jotzerakoan alde handia zegoenez barneko eta kanpoko prezio horien artean, barneko merkatua hobesten zen. Joera hori aldatzeko eta Iparraldean etengabe hazten ari zen produkzio-ahalmenari irteera emateko asmoz, beren ekoizpena esportatzen zuten nekazariei diruz laguntzea erabaki zen eta barneko prezioak zekarren maila bermatzen zen. Jokabide horiek hasiera-hasieratik GATT hitzarmenetik salbuetsi eta onartu ziren, eta horretarako jartzen zitzaien muga bakarra laguntza horiei esker lortutako merkatuaren zatia arrazoizkoa izatea zen. 80ko hamarkadaren erdialdean elikagaien nazioarteko merkataritzak, eta batez ere zerealenak, behera egin zuenean laguntza-mota hauek ugaritu egin ziren EB (sasoi horretarako jadanik elikagaien esportatzaile netoa bihurtua zena) eta AEBen artean bereziki, merkatuko zatia irabazteko asmo argiarekin. Esportazioei emandako laguntzak herrialdeen produkzio- eta esportazio-ahalmena, eta horren ondorioz bere presentzia nazioarteko merkatuetan itxuraldatzen dutelako negoziazioen baitan hauek ezabatzeko ahotsak entzun baziren ere, liberalizazio apala baino ez zen adostu. Herrialdeek sei urteren buruan esportazioen sustapenean gastatzen zutenaren % 36ko murrizketa eta diruz lagundutako esportazio-kopuruaren % 21eko murrizketa izan zen azken emaitza. Kasu bietan murrizketa 1986-90 (laguntzen gorenean) urteetako mailak erreferentzia gisa hartuta. Garapen-bideetako herrialdeen konpromisoa gastuaren % 24 eta esportazio-kopuruaren % 14ko murrizketan gauzatu zen. Erreferentzia-urteetan horrelako laguntzarik ematen ez zuten herrialdeak debekua jaso zuten halakorik egin ahal izateko. Adostutakoa aurrekoa bazen ere, azken orduan aldaketa esanguratsua gehitu zitzaion. Erreferentzia-urteak aldatu<sup>14</sup> ziren eta 1986-90 edo 1991-92 urteetako mailarik garaiena hartu zen erreferentziazat. Alda-

13. Prezio garaiago horiek izan ziren nekazariei gutxieneko sarrerak bermatzeko eta horrela nekazaritzan jarduten jarraitzeko eta, horrela, barne-produkzioaren bidez elikadura-segurtasuna lortzeko.

14. 1992ko dirulaguntzak aurreko erreferentzia-urteetakoak baino nabarmen garaiagoak izan zirenez, adostutako murrizketak aldaketa esanguratsua ekarriko zuen EB eta AEB baitan (esportatzen zen bolumenaren murrizketa esanguratsua eta nahiko azkar gainera). Arazo horiek ekiditeko egin zen da aldaketa, azken bi horien mesederako.

ketarekin esportazioak laguntzen zituzten herrialde garatuek ondorengo sei urteetan ere beren ordainketekin jarraitzea lortu zuten.

**iii) Merkatuetarako sarbidea.** Tarifikazio-prozesuaren ondorioz, hainbat ondasunetan onartuko zen babes-maila garaiak *de facto* inportazioak ekidingo zutela jabetun izanez, merkataritza sustatzeko eta liberalizazioan sakontzeko merkatu guztietara inongo diskriminaziorik gabe gutxieneko inportazioak sartzeko bermea hitzartu zen. Horrela, herrialde orok ondasun guztietan gutxieneko sarbide hori bermatzeko arantzel berezi baxuagoak jartzera behartuta dago. Gutxieneko sarbide hori uneko inportazioen bolumena edo ondasunaren kontsumo-mailaren % 3 kokatzen da, bietako garaiena alegia, hitzarmenaren epealdian % 5 igotzeko konpromisoarekin. Errealitatean, ordea, Iparraldean, ondasun bakoitzaren gainean baino ondasun-motaren araberako multzoetan aplikatu da, gutxieneko sarbidearen irizpidea inportazioen kopurua bere horretan mantenduz, sarbidea handitu beharrean. Era berean, diskriminazio ezaren irizpidearen kontra, EBak eta AEB aurrez zituzten lehentasunezko hitzarmenen bidez emandako sarbidea ere gutxieneko sarbide horrekin zenbatzen da, lehentasuna zeukaten herrialdeentzako inportazioak handitzeko aukerak ekidinez.

Deskribatu dugun testuinguru horretan izandako elkartrukeen emaitzak botere-posizioa dutenen Iparraldeko herrialdeen aldekoa izan dela esatea ez da ustekabea. Herrialde garatuak bultzatutako jokabideak negoziazioetan zehar nahiko mugatu dute Iparraldeko nekazaritza-merkatuen benetako liberalizazioa, hitzarmenaren onuradun nagusiak haiek bihurtuz. Izan ere, babes-maila eta neurriak murriztu beharrean, indartu egin dira herrialde hauentzat eta hegoaldekoentzat kontrakoa gertatu da. Batzuetan, herrialde horien ezjakintasun eta gaitasun-gabezien ondorioz, besteetan txandan negoziatu ziren gainerako esparruetan irabaziak izateko esperantzagatik (hitzarmena orokorra da, dena edo ezer ez), nekazaritzan amore emanaren ondorioz edo Iparraldeko herrialdeen presioen ondorioz.

### ***Nekazaritza-hitzarmenaren bilakaera MMEn baitan***

Uruguaiako txandan gertatutakoa erabakigarria izan zen; horren ondorioz, sinatutako orobateko hitzarmenak txandan zehar adostutako neurriak gainbegiratzeko eta bete ezean betearazteko erakunde berria sortu zuelako, hots, Merkataritzaren Munduko Erakundea. Beraz, nekazaritza-hitzarmenaren kudeaketa eta ondorengo garapena erakunde horretako Nekazaritza Batzordearen esku geratu zen. Bertan hartutako konpromisoak erabakigarriak izan ziren eta bete ezean isunak jasotzeko beharrezko bitartekoak ere indarrean jarri ziren, Desadostasunak Gainditzeko Erakundearen bitartez<sup>15</sup>.

---

15. Erakunde horren ezaugarriak, funtzioak eta egitekoak eta eragina duen esparruak gehiago ezagutzeko, ikus Zabalo (2001).

Erakunde horren erabaki-ahalmen nagusia bi urtez behin aurrera eramaten den Ministroen Konferentzia da. Orain arte horrelako lau egin dira; nekazaritza-gaiei dagokienez, 2001eko azaroan Katarren egin zen Dohako Ministroen Konferentzia da garrantzitsua. Nekazaritza-hitzarmenak sei urteko epea zeukan eta epea bukatutakoan hitzarmenaren berrikuspena aurreikusten zuen, sektorearen liberalizazio-asmoekin jarraitzeko betiere, baina oraingoan erakunde peto baten baitan eta ez GATT gisako hitzarmen soilaren baitan, horrek dakarrenarekin. Horrela, 1999 eta 2000ko urteetan zehar, nekazaritzaren hitzarmenaren berrikusketa abian jarri zen. Aldi berean, Seattleko konferentziak nazioarteko merkataritzari buruzko negoziazio-txanda abian jartzea zuen helburu. Seattleko porrotaren ondoren, zeinetan nekazaritzaren inguruko ikuspuntuak erabakigarriak izan ziren, Dohako Konferentziak abiarazi behar zituen merkataritza-negozio orokorrak, nekazaritza barne. Seattlen aurrez, eta geroago Dohan ere bai, herrialdeen artean nekazaritzan liberalizazioari dagokienez jarraitu beharreko urratsen gainean oso ikuspuntu kontrajarriak ageri ziren. Herrialdeak hiru ikuspuntu nagusi hauetan lerrotatzen ziren.

Alde batetik, AEBk eta Cairnsko Taldeak<sup>16</sup> aldeztu zuena dago. Horientzat aurreko txandan lortutako liberalizazio-maila oso apala izan zen, eta prozesu horretan sakontzea eskatu zuten. Nekazaritza-sektorean nazioarteko merkataritzarako dauden oztopo eta babes-neurri guztiak kentzea proposatzen dute, ahalik eta azkarrena gainera. Gaur egungo egoerarekin galtzaile ateratzen direla argudiatuz, edo beste modu batera esanda, merkataritzaren liberalizazioarekin lortzea espero duten onura guztiak jasotzen ez dutelako egungo agertokian. Babes-neurriak orokorrean, baina esportazioen gaineko dirulaguntzak ezabatzea da lehentasuna.

Beste aldetik, EB, Japonia eta Suitza agertzen dira. Horiek nekazaritzaren funtzio-aniztasuna aldarrikatzen dute. Izaera estrategikoa duen sektorea izanik, begirune berezia behar duena. Ikuspuntu honentzako nekazaritza ez da bakarrik elikagaien produkzioa bermatzen duen sektorea, baizik eta lurraren eta ingurumenaren zaintzaren ardura duen sektorea. Herrialde baitako lurralde-banaketan (landak eta hiriguneak) egiteko propioa duena eta, horren ondorioz, babestu beharrekoa. Beraz, izaera berezi horren karira, liberalizazio neurriak kontu handiz hartu behar dira, funtzio-aniztasuna bermatuz une oro.

Azkenik, eta kasu honetan ordenak inporta du, Hirugarren Munduko gaine-rako herrialdeak dira, G77 taldearen inguruan bilduak. Horien aburuz, hitzarmena berrikusi behar da, bere horretan uzteak hegoaldekoen kalterako izaten jarraituko duelako. Lehentasuna Uruguaiako Txanda adostutako hitzarmenak liberalizazio-prozesuan Iparraldeko herrialdeek eta hegoaldekoek jasaten dituzten zama zuzentzea da. Aurrera egin aurretik, hitzarmenaren aplikazioak izan dituen ondorioen gainean ikerketa egitea eskatzen dute. Hitzarmenarekin beraiek kaltetuak

---

16. Cairnsko Taldea bere burua nekazaritza-produktuen ekoizle eraginkortzat hartzen dituzten herrialdeen taldea da, garatu eta garapen-bidean dauden herrialdez osatua, Australia buru dutela.

izan direla aldarrikatzen dute eta egoera hori zuzendu behar dela. Liberalizazio-prozesuak garapen-bideetako herrialdeen garapen-maila kontuan hartu behar duela, eta batez ere, herrialde ororen elikadura-ziurtasuna bermatu behar duela, horretarako trataera berezia ahalbidetuz hitzarmenaren berrikuspenean. *Garapenaren Kutxa* gisa aurkeztu dituzte beraien eskakizunak. Horien artean Marrakexeko Erabakia berehala indarrean jartzea da garrantzitsuenetakoa, herrialde-mailan elikadura-ziurtasunari begira nekazaritza-politika nazionala eta malgua ezartzeko subiranotasuna ahazteke.

### ***Dohako Konferentziaren emaitzak***

Hegoaldeko herrialdeak nahiko modu bateratuan jokatu arren Indiaren lidergopean, haien aldarrikapenak azken hitzarmenean bilduta ikusi arte Negoziazio Txanda berririk abiatzeko konpromisoa ez zutela onartuko adierazi, eta kementsu saiatu arren, aurreikusi baino bi egun geroago izan bazen ere, 2005 bitartean Nazioarteko Merkataritzari buruzko negoziazio-txanda berria abiatzea da emaitza aipagarriena, egunkarietan arreta gehien jaso zuena ez izan arren<sup>17</sup>.

Oraingoan ere Iparraldeko ikuspuntuak nagusitu egin ziren, txanda orokorrean hegoaldeko herrialdeak nahi ez zuten negoziazio-gai berriak<sup>18</sup> agendan sartuz eta nekazaritza-hitzarmenaren berrikuspenean ere, Garapen Kutxa kontzeptuaren atzean zeuden neurri eraginkorrak berrikusketatik at geratzen dira. Aurrekoan gertatu zen bezala, onartutakoak herrialde garatuen interesak bermatzen ditu hegoaldearen kalterako. Ezartzen diren arauak Iparraldeko interesen arabera ezartzen dira, bai liberalizazio-prozesua azkartzeko edo salbuespen-neurriak ezartzeko. Abian den globalizazio neoliberala hedatzeko balioko duen emaitza ematen da. Liberalizazio-neurriei bultzada emanez, eta nekazaritza-sektorearen izaera estrategikoa eta hegoaldeko herrialdeen egoeraren trataera berezia bigarren mailan edo bertan behera geratzen den neurrian. Negoziazioak aurrera eramanez diren moduaren arabera<sup>19</sup> eta ateratako emaitzak ikusita, liberalizazioa bera dela helburua ematen du, eta ez garapena lortzeko bitarteko soila. Ukiezineko tabu gisa hedatzen ari dena, gainera.

Nekazaritza-hitzarmenaren berrikusketari dagokionez, negoziazio horiek bilatu behar dituzten helburuak eta horiek lortzeko jarraitu beharreko prozeduretara

---

17. HIESaren aurkako botiken patenteen gaineko eztabaida izan zen entzutetsuena. Azkenik, MLJIH ez dela aplikagarria osasun-larrialdietan eta botika generikoak hegoaldean ekoiztea —baina ez horien merkataritza— ahalbidetzen zuen ebazpena onartu zen.

18. Negoziazio-gai berrien artean honako hauek agertu ziren: Desadostasunen gaineko prozedura, Ingurumena, Zerbitzu Publikoak, Oztopo administratiboak, Inbertsioak, Lehia, MLJIHren berrikusketa.

19. Negoziazio-prozedura antidemokratikoa erabili da. Legebiltzarren kontroletik kanpo, Transnazionalen ordezkariak negoziatzaile gutxi batzuen arteko egindako negoziaketak —ondasun horren merkataritzaren pisuaren arabera gehienetan— baina hitzarmenak nahitaez bete beharrekoak dira, gizadiaren etorkizuna merkatuaren menpe jarritz.

mugatu da oraingoan, aurrekoaren aplikazioaren ondorioak alde batera utzita, lehenengo bi taldeen interesak bilduz gehienbat. Helburuen artean esportazioei emandako dirulaguntzak murriztea, ezabatzeko ikuspegiarekin da hegoaldearentzat agertzen den lorpen bakarra. Hala ere, orain arte gauzak ez doaz uste bezala. Izan ere, 2003ko martxoaren 31rako negoziatioak jarraituko duen prozeduraren inguruko adostasuna lortzea aurrikusten zen, baina oraindik ez da lortu. Atzerapauso hau gainerako esparruetako negoziatioetan gainditzea espero da, 2005. urterako helburua oraindik bere horretan mantenduz<sup>20</sup>.

### **3. hesia: MMEren baitan onartutako Jabego Intelektualari buruzko hitzarmena**

Uruguaiako Txandan, Iparraldeko herrialdeak kexu agertu ziren hegoaldeko herrialdeek Patente eta Jabego Intelektualaren inguruko legedirik ez zutenez Iparraldeko ondasunak lotsarik gabe eta inongo mugarik gabe kopiatzen zituztela, jarraian kopiak nazioartean merkaturatuz, markarik gabe prezio askoz txikiagoan, jatorrizko ondasunen salmentei kalte eginez. Txandaren emaitza bakarra zela aprobetxatuz eta jakinik bertatik merkataritza-mailan arauak ezarri eta betearazteko gaitasuna izango duen erakundea abiatuko zela, merkataritzari lotutako gai gisa sartu zuten hitzarmen orokorraren baitan. Horrela, Merkataritzari Lotutako Jabego Intelektualari Buruzko Hitzarmena sartu zen txandaren azken emaitzan. Gure alorrean adierazpen zehatza du hitzarmenak. Izan ere, azken urteetan nekazaritza-teknologiaren ikerketa eta garapena bioteknologian edo ingenieritza genetikoan oinarritu da, mikroorganismoen gaineko aldaketa genetikoak eraginez eta landare, zuhaitz edo animalia berriak sortuz. Eraldaketa genetiko horien bitartez, landare eta zuhaitz horiek jasaten dituzten izurriteak ekiditzea bilatzen da, eta horrela produktioa (eta elikagaien eskaintza) handitu eta izurriteen kontrako produktu kimikoen erabilpena murriztu. Teknologia hori dagoeneko kalean da eta horren bitartez sortutako elikagai transgenikoak merkaturatu dira. Sarritan, ondasun horien erabilpenak izan ditzaketen ondorioen inguruko inongo ikerketarik egin gabe merkaturatu dira, enpresen negozio-aukerak soilik bultzatuta<sup>21</sup>. Teknologia berri horrek eman ditzakeen mozkin paregabeaz konturaturik, Iparraldeko elikadura-, kimika- eta bioteknologia-alorreko enpresak GEO gaineko patenteak ezartzea ahalbidetzeko presioa egin zuten, eta eskaria aipatutako hitzarmenak bete-betean jasotzen du.

---

20. Uruguaiako Txanda espero baino hiru urte geroago bukatu zen eta nekazaritza-oztopo nagusietako bat izan zen. Oraingoan ere horrela izango dela dirudi, Cairnseko taldea eta Europar Batasunaren arteko desadostasunak medio. Hegoaldeko ikuspuntua jasoko denentz ikusteko dago, baina susmo onik ez orain artean.

21. GEOen gainean eztabaida beroa da hedapenak nekazaritzan, ingurumenean eta baita gizakion osasunean ere izan daitezkeen ondorioen inguruan. Kritika nagusia hau da: agindutakoaren kontra, ez du gosearen arazoa konponduko (arazo ez da elikagai eza, banaketa baino) eta ingurumena nabarmen kaltetu du. Benetako helburua bioteknologiari lotutako enpresen irabaziak handitzea baino ez da (Altieri M. eta Roseet P., 1999).

Horrela, MLJIH arabera, mendeetan zehar nekazariak (hegoaldekoak bereziki, gehiago direnez behintzat) erabili, zaindu, hobetu eta garatu dituzten hazien biltegiak eta bankuez baliatzeko aukera ematen die elikagaien eta hazien merkataritzan aritzen diren enpresei (Transnazionalak gehienetan). Hazi horiek eskuratu ostean, genetikoki eraldatu ondoren, hazi berri gisa hartzen direnez horien gaineko patenteak ezartzea ahalbidetzen du hitzarmenak. Are gehiago, 10 urteren buruan MMEko partaide diren hegoaldeko herrialde guztiak patente horiek babesteko eta errespetatzeko patente eta jabetza intelektualaren inguruko legea, edo horren balio-kidea den legeren bat indarrean izatera behartzen ditu. Sektoreko Transnazionalek hazien erabilpen pribatua bultzatzeko atea irekita dago jadanik.

Genetikoki eraldatutako hazien baliagarritasunaz eta izan ditzaketen ondorio kaltegarriez gain, gure kasuan hazi horien ezaugarri bereizi bat azpimarratu nahi dugu. Genetikoki Eraldatutako Hazien kasuan nahi diren ezaugarriak artifizialki ezar dakizkieke, baina ez dute hazi berririk sortzen, antzuak dira. Urte horretarako baino ez dute balio. Beraz, urtez urte hazi horien hornitzaileari erosi behar dizkio nekazariak, hurrengo urtean landatzen jarraitu nahi badu. Beraz, produkzioa urtez urte nekazariak hazi hori erosteko ahalmenaren menpe geratzen da. Horretarako, uza ona izatea eta prezio egokian saldu ahal izatea beharrezkoa da. Baina liberalizazio-neurrien ondorioz, barne-produkzioa atzerritik diruz lagundutako esportazioen lehiaren menpe (herrialdean inportazio merkeetan bihurtuz) ere dagoenez, bere uztaren truke prezio duina izateko aukera gutxi du. Are gehiago, EDPeren suposatutako sektore publikoaren esku-hartzearen murrizketarekin. Nekazaritzako sostengu politikak desagertzean prezioen sostengua nekazariarentzat, eta biltzeaz, garraioetaz eta merkaturatzeaz arduratzen ziren enpresa publikoak pribatizatu ondoren, nekazaria merkaturatzen diren merkataritza-enpresen boterearen menpe geratzen da, hark finkatutako prezioaren menpe, alegia.

Are gehiago, hazi mota horien ugaltzeak arriskuan jar dezake nekazaritza-sektorearentzat garrantzitsua den bioaniztasuna. Mota bakarreko haziak (GEHak, noski) ugaltzen badira munduan zehar nekazaritza- eta elikadura-sektorearen hauskortasuna nabarmen handituko da. GEHak uste bezain emaitza onak eman ezean edo uste baino ahalmen urriago badu, ager daitezkeen izurrite berriei aurre egiteko munduko elikadura-ziurtasuna arriskuan legoke. Kasu horretan ezin izango zen beste lurralde batetako haziak erabili hondatutakoak birlandatzeko eta produkzioarekin jarraitzeko. Horregatik, eta nekazaritza gain ekosistemen garapenerako eta jasangarritasunerako bioaniztasunak duen garrantzia kontuan izanik, beharrezkoa da bioaniztasun hori enpresen interes pribatu horretatik babestea.

Orain arteko bilakaerak, ordea, ez du baikortasunerako tarte handirik uzten. Alde batetik, nekazaritza-arloan nazioartean ikerketa eta garapena zuzentzen duen erakundeak, CGIAR izenekoak, nazioarteko ikerketaren lehentasunak eta baliabideak Iparraldekoen mesederako diren elikagaietan pilatzen ditu. Herrialde hauetan

eskatzen diren elikagaiak eta eskaintzaren ikuspuntutik lehiakorrak diren zerealak eta orokorrean zonalde epeleko elikagaiak jasotzen dute zati nagusia. Hegoaldeko herrialdeetan oinarrizkoak diren elikagaien errendimendua handiko ikerketa hutsaren hurrengo da, Iparraldeko enpresa transnazionalen onurarako baino ez diren GEOak bultzatzeraino.

Beste alde batetik, Rioko Goi-bileran Bioaniztasunari buruzko Konbentzioa ezarri zen hura babesteko asmoz. Hitzarmen hori, ordea, ez zen oztopo izan bi urte geroago MLJIH sinatzeko. GEOen aurkako jarrera nagusitzen joan den heinean, batez ere European, eta mota honetako hitzarmenen bitartez globalizazioak dakarren alor gehienek merkantilizazioaz kezkatuta, 2001. urtean FAOren eskutik Elikadura eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoen inguruko Nazioarteko Hitzarmena bultzatu eta izenpetzen da bioaniztasunak duen baliabideen babesa eta horien erabilpen jasagarria sustatzeko.

Teknologia berrien bitartez sor daitezkeen ondasun (salgai) berrien eta nekazarietako hobetu eta garatu dituzten hazien artean erabilpen eta kudeaketa orekatua du helburu bioaniztasunak, haren kudeaketak sortutako onurak Iparralde eta hegoaldearen artean modu orekatuan banatzeko helburua ahazteke. Hitzarmenaren emaitzak ez dira oraindik ikusi; baina lan honetan zehar ikusi ditugun aurrekarietako begirata, baikortasunerako zantzu askorik ez dago tamalez. Hitzarmenaz egingo den benetako erabilpenaren nolakoak baldintzatuko du dena, asmo onak eta arriskuak.

### ***PROPOSAMEN ALTERNATIBOAK***

Hemen ikusi dugunaren arabera, globalizazioak garapen-bideetako nekazaritzan izan dituen ondorioak ikusita, argi dago nekazaritza-politiken norabidearen aldaketa beharrezkoa dela. Neoliberalismoak proposatzen duen liberalizazio-prozesuaren sakontzearen aurrean, herrialde bakoitzeko barneko nekazaritza-sektorean oinarritzen den nekazaritza-politika beharrezkoa da. Taula honetan laburbiltzen den moduan, nekazaritza-sektoreak zeregin erabakigarria du herrialde horietan, gosea eta azpielikadura gehien hedatuta dauden herrialdeetan, batez ere.

Beraz, zentzuzkoa dirudi egoera horri buelta emateko nekazaritza-sektoreak eta landa-garapenak zeregin erabakigarria izan behar dutela eta lehentasuna izan behar dutela; merkataritza baino barne-produkzioa sustatzean dagoela gakoa. Nekazari txikiei eta, batez ere emakumeei, baliabideak (lurra, maileguak, teknologia aproposak) eskaintzea dela bidea. Elikadura-ziurtasuna benetako lehentasun gisa oinarri duen nekazaritza-politika nazionalak behar dira, barne-merkatua kontuan hartzen duena.

**Nekazaritza-sektorearen garrantzia gosea eta azpielikaduraren hedapenaren araberako kategoriak kontuan hartuz, 1993-93 eta 1995-98**

Gosea eta azpielikaduraren hedapenaren araberako herrialdeen kategoriak										
Adierazlea	1 < % 2,5		2 % 2,5-4		3 %5-19		4 % 20-34		5 > % 35	
	90/93	93/95	90/93	93/95	90/93	93/95	90/93	93/95	90/93	93/95
Nekazaritza-sektorearen pisua BPG (%)	10,9	9,7	11,6	12,7	16,4	18,2	23,1	22,3	31,6	21,0
Nekazaritza-esportazioen pisua (%)	10,7	9,0	11,2	8,7	11,7	10,7	18,2	15,0	42,2	43,5
Nekazaritza-populazioa (%)	31,8	27,3	52,0	51,6	63,5	59,9	72,8	71,2	74,8	75,8

Iturria: FAO, PMA, FIDA (2002)

Pobre direnen diru-iturri nagusi diren esparruak sustatuz eta garatuz baino ez da posible gosea eta pobrezia gaur egungo maila modu esanguratsuan murriztea, nazioarteko garapen-helburuen ildotik<sup>22</sup>. Helburu horrek ingurunearen jasangarritasunarekin batera izan behar du arestian aipatutako nekazaritza-politika berriaren ardatza. Nekazari txikien nazioarteko mugimenduak *Vía Campesina* alegia, elikadura subiranotasunaren inguruko proposamenean gauzatzen du ikuspegi berri hori. FAOk berak nekazaritzaren barne-produkzioaren garapena ardatz duen proposamena egin du berriki, elikagaien merkataritzak elikadura-ziurtasuna eskuratze-ko orduan, bere ikuspegiaren aurrez zuen garrantzia nabarmen gutxituz<sup>23</sup>.

Errealitatean, ordea, gosea eta azpielikadura nagusi diren herrialdeetan, nekazaritzak duen garrantziak ez du baliokidetasunik bertara bideratzen diren baliabideekin. Are gehiago, azken hamarkadan sektore horretara bideratutako sarreramota guztiak murriztu egin dira, bai barneko gobernuen gastu publikoa, bai atzerriko kapitala, bai Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO), eta modu nabarmenago batean gosearen eragina zabala den herrialdeetan. Joera hori irauli behar da halabeharrez, eta nekazaritzarenganako lehentasuna baliabide ekonomiko nahikoekin babestu behar da.

22. FAO (2002a) argi uzten du gosea eta pobrezia buruzko lehen helburu horrek gainerako nazioarteko garapen-helburuetan duen eragin onuragarria eta erabakigarria. Helburu horiek giza garapenaren ikuspegiaren pertsona orok bere gaitasunak garatzeko aukerak izateko nahikoak ez badira ere, oinarritzko abiapuntua dira, oinarritzko abiapuntu hori aurrerantzean garatzen bada, bere horretan geratu gabe.

23. FAO (2002a); FAO (2002b); FAO, PMA eta FIDA (2002), zeinetan nekazari txikien produktibitate-igoerak, sarreren dibertsifikazioa, lur-sailen jabegoa eta bere banaketa parekoa, eta emakumeen zeregina azpimarratzen dituen.



Orain bai, politiken norabide berria hartzeko oztopoa ez da inolaz ere ekonomikoa. FAOk (2002b) gosearen aurkako txostenean adierazitako helburuak betetzeko beharrezko ekonomi baliabideak 24 mila milioi \$ dira, eta ELGEko herrialdeak urtero nekazaritzari emandako 300 mila milioi \$ dira. Munduan urtero sortzen den bilioitako aberastasunarekin alderatuta hutsaren hurrengoa da, edo Jeffrey Sachs-en hitzetan “biribiltze-akats gisa har genezake, 100 dolarreko bost penike baino ez” (FAO (2002b: 4 or.).

Barne-produkzioak lehentasuna izan behar duela azpimarratzeak ez du esan nahi elikagaien merkataritza errotik baztertu behar denik, ezta soluzio bakar gisa jo behar denik ere. Orain bai, merkataritzak ekarpen bidezkoa egingo badu gaur egun indarrean diren arau disparekoak zuzendu beharko ditu ezer baino lehen, berrietan Iparraldeko herrialdeek dituzten pribilegio-posizioak ezabatuz eta hegoaldeko herrialdeen beharrak eta eskariak benetan kontuan hartuz. Orain arte liberalek aldarrikatu duten merkataritza askearen (*free trade*) aurrean, bidezko merkataritza aldarrikatu (*fair trade*) behar dugu; ezaguna da merkataritza askea (oztoporik gabekoa) aldarrikatzen dutenak beraiek direla errealitatean babes eta oztopo gehien jartzen dituztenak, eta edonola ere, merkataritza askea bakarrik da onuragarri denentzat partaide guztiak baldintza berdinetan daudenean. Bestela botere-egoeran dagoenak jasoko ditu onura guztiak, menpekoaren kontura. Horixe da, hain zuzen, azken hamarkada hauetan gertatu dena nekazaritza-alorrean Iparraldeko herrialdeen onurarako eta hegoaldekoen kalterako. Azken horiek planteatzen duten Garapen Kutxa nekazaritza-hitzarmenean sartzea da bideetako bat edo beste bat *Vía Campesinak* mantentzen duen jarrera: nekazaritza merkataritza-hitzarmenetik ateratzekoa.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Atienza, J. (2002): *La Deuda externa del mundo en desarrollo*, Akal, Madril.
- Altieri, M. eta Roset P. (1999): *Diez razones que explican por qué la biotecnología no garantizará la seguridad alimentaria ni protegerá el medio ambiente ni reducirá la pobreza en el Tercer Mundo*, <http://www.tradeobservatory.org>.
- FAO (1995): *El estado de la agricultura y la alimentación 1995*, FAO, Erroma.
- , (2000): *El Estado de la agricultura y la alimentación 2000. Enseñanzas de los últimos 50 años*, FAO, Erroma.
- , (2002a): *El Estado de la inseguridad alimentaria en el mundo 2002*, FAO, Erroma.
- , (2002b): *Programa de lucha contra el hambre. Reducir el hambre mediante el desarrollo agrícola y rural sostenible y un mayor acceso a los alimentos*, Segundo borrador, FAO, Erroma.
- FAO, PMA eta FIDA (2002): *La reducción de la pobreza y el hambre: la función fundamental de la financiación de la alimentación, la agricultura y el desarrollo rural*, Documento preparado para la conferencia internacional sobre la financiación para el desarrollo Monterrey, México, 18-22 de Marzo.

- Madeley, J. (2000): "The Impact of trade liberalisation on food security and poverty", *Globala studier*, **4**, Forum Syd, Stockholm.
- , (2003): "Food trade and food security", *The Courier*, **197**.
- Zabalo (2000): "La Organización Mundial del Comercio paradigma de la globalización neoliberal", *Hegoako Lan Koadernoak* **28**, Hegoa, Bilbo.

# Liluraren kontra, liluraren alde

Aitor Zuberogoitia, Kazetaritza doktorea

Buruz ari naiz, baina nago ez ote den *Liluraren kontra* Mikel Laboaren kantu ezin ederrago baten izenburua (*Lilurarik ez / ez dago itzultzerik / eguna atean dago / haize hotza dakar / ez da izango beste goizerik...*); nago, halaber, ez ote diren Bertolt Brechtenak kantuaren hitzak. Edozelan ere, abesti hori, bere gordinean, bizitzari eginiko gorazarrerik ederrenetakoa dela begitantzen zait; izan ere, kontsolamendu erraz/nagiak, ameskeriak, aldiro zerua urratzen duten bolanderak eta lilura faltsua bazter utzi eta, kontraesanak oro geure eginez, bizitzari gogotsu lotu beharraz mintzo baita.

Bada ordea etxafuegorik, bolandera ikusgarriak, lilura faltsurik bazterretan. Horiek guztiak berba totemikoen mozarropean gorde ohi dira maiz, estalki dotore askoaren azpian errealtate bidegabea ezkutatuta. Globalizazioaz hausnartzen hasita, hori datorrit burura niri behintzat. Estreinako biderrez munduko hiritar izango garela, mugak desagertuko direla, herri eta pertsonen arteko distantziak murriztu eta harremanak areagotuko direla... Zer ez ote dute esan azken boladan prozesu jakin bat justifikatu eta haren azpian dautzan kontraesan lazarriak estaltzeko? Lilura baliatu dutela, alegia, hitzen eta ideien lilura; izan ere, nork ez ditu *dinamismoa*, *merkatuak malgutzea*, *unibertsaltasuna*, *modernitatea*, *mugarik gabeko mundua*, *liberalismoa* eta gisako berba totemikoak entzun globalizazioari buruzko apologietan? Badirudi, gainera, prozesu horren kontra dagoena kobazuloetara itzulerara aldarrikatzen ari dela; gisa horretan mintzatu izan dira, adibidez, Bill Gates edota Mario Vargas Llosa birigarroak, besteak beste. Ez alferrik, Japonia eta Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate handietako negozio-eskoletan asmatu ei zuten *globalizazio* terminoa (ikus Etxezarreta, 2001).

Alabaina, kea astintzen hasi eta ke horren ostean zer gordetzen den aztertu beharra dago. Eta behin puntu honetara helduta, zehaztasun bat, ezer baino lehen: azken bolada honetan, Seattleko gertaerez geroztik batik batik, hain ezagun egin den

*globalizazioaren kontrako mugimendua* ez dago globalizazioaren kontra, globalizazioaren eredu jakin horren kontra baizik<sup>1</sup>. Zein da, baina, gaur egun indarrean den globalizazio-eredua?

Jose Luis Sampedro espainiar idazlearen aipu bat baliatuko dut makulu modura gaur egungo globalizazio-eredua irudikatzen hasteko. “Globalizazioaz ahobetea jardun eta gero benetan globalizatu guran dabilena sar ez dadin Tarifan poliziak jartzeari”, dio Sampedrok, “erabateko kontraesana deritzot. Globalizazioa gizadiaren zati txiki-txiki batentzat baino ez da”. Egia esan, Sampedrok esaldiari berba bat erantsi eta hauxe esan behar luke, taxuz mintzatze aldera: “Globalizazioa gizadiaren zati txiki-txiki batentzat baino ez da *mesedegari*”; ezen izan, globalizazio-prozesua mundu osoan ezartzen ari diren prozesua baita, eta gizadia guztiarengan eragiten baititu ondorioak.

Dena dela, Sampedrok zauri barruan sartu du atzamarra: mugak bigundu eta mugasariak-eta kendu behar direla aldarrikatzen badute, ez da pertsona eta herrien arteko harreman berdinkideak eta komunikazioa bultzatu gura dutelako, multinazional handien eta estatu indartsuenen mesedetan den kapitalen eta salgaien joan-etorri *askea* bermatu nahi dutelako baino. Hortxe dago, egon ere, prozesu honen guztiaren gakoa: burgesiaren ekimenez sorturiko estatu-merkatuak txiki geratuta, mundu osorako merkatua eratu nahi dute orain arrain handiek.

Miren Etxezarretak dioenez (2001), kapitalismoak beti izan du nazioartera hedatzeko joera. Hasiara batean, sistema kolonialak etekin itzelak ateratzea ahalbidetu zion, gisa berean kapitalismo industrialaren finantzaketari ateak parez pare zabalduta. Behin hori eginda, hurrengo urratsa nazioarteko merkataritza (eta ez berdinen artekoa preseski) abian jartzea izan zen. Prozesu hori iragan mende hasieran bizkortu zen, baina baita 1929ko New Yorkeko burtsaren *crash* ospetsu harekin eten ere; hondamendi hark eraginda, kapitala nazioarteri mesfidantzaz begiratzen hasi eta bere baitara, estatuen barne-mugetara bildu zen berriro.

Haatik, II. Mundu Gerra amaituta, prozesua berriro jarri zen abian, orduantxe (1946an) sortu baitziren mundu osorako merkatuaren aitaponteko eta gidari nagusi ditugun Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa. Bi urte geroago, berriz, 23 estatuk alde askotariko merkataritza-sistema bat hitzartu zuten: GATT edo Muga-sariei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra, alegia. 1948tik 1994ra bitartean, haren barruan zortzi negoziazio-itzuli egin zituzten (dezenteko sona izan zuen Uruguaiko itzulia izan zen azkena), merkataritzari (multinazionalen eta estatu boteretsuenen interesen mesedetan zen merkataritza-motari, bistan denez) hainbat

---

1. Hori izan da beharbada mugimendu horren akats nagusienetarik bat: bere burua era negatiboan definitzea; hau da, alternatiba gisa baino gehiago, zerbaiten kontrako mugimendu modura. Haatik, badirudi batzuk ohartu direla dagoeneko akats horretaz eta, hori dela kausa, gaur egun haien buruak *globalizazioaren aurkari* modura baino *globalsolidario* gisa aurkezten dituzte (definizioa *positibitate*z saiatu direla, azken batean).

muga zabaldua. Merkatuak handitzearen logika horren barruan baita, 1989an APEC (Asia eta Ozeano Bareko Elkarlaguntzarako Foroa) edo Asiako merkatu batua sortu zen, 1992an Europar Batasuna Maastrichten eta 1994ko urtarrilaren 1ean (Zapatistak matxinatu ziren egun berean) NAFTA edo Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Eskualdea. Akordio hori Amerika osora zabaldu gura dute orain ALCA (Merkataritza Askerako Esparru Amerikarra) hitzarmenaren bidez.

Ez da hor amaitzen kontua: aditu batzuek diotenez (Fernandez Durán, 2001) *Transatlantic Economic Partnership* delakoak AEB eta Europar Batasunaren arteko merkatu berri bati emango ei dio bide. Horrez gain, Afrikan bertan ere 1963an sorturiko OUA erakundea ordezkatu zuen 2001eko udan Lusakan (Zambia) eginiko bileran sortu zuten Afrikako Batasunak. OUA elkarrizketa-egitura zen batez ere; Afrikako Batasuna, aldiz, batasun ekonomiko eta politiko izateko helburuarekin jaio zen<sup>2</sup>. Europar Batasunari dagokionez, erakunde horrek 2000. urtean Nizan onarturiko hitzarmenean ekialderantz zabaltzeko oinarriak jarri zituen, modu horretan 100 milioi lagun baino gehiagoko kontsumitzaile potentzialen merkatu bati atek zabalduta.

Merkatu handi eta bakar bihurtu gura digutela mundua, berba batean. Helburu hori erdietsi guran, 1994an, Uruguaiako itzuliaren ostean, Munduko Merkataritza Erakundea (MME) sortu zuten, GATTen oinordeko modura sortu ere. Seattleko bilera ospetsuaren garaian (1999 amaieran, beraz), 135 estatu zeuden MME baitan (munduko merkataritzaren %90). Horrez gain, beste 30 herrialdek ere (Txina eta Errusia tartean zirela) MMEen sartzeko nahia agertua zuten jada (Txinak MMEen sartzeko akordioa lortu ere lortu zuen handik gutxira Washingtonekin<sup>3</sup>). Eta hartan, Seattleko goi-bilera ailegatu zen. Munduko merkataritza are gehiago liberalizatzea zen goi-bilera horren xedea. Haatik, honezkero denok sobera ezagun ditugun gertaerak tarteko, porrot egin zuen goi-bilera hark, mundua bildu baitzen Seattlen protesta egitera: ekologistak, libertarioak, antimilitaristak, nekazariak, gobernuz kanpoko erakundeetako kideak...

Zer eskatzen zuten ordea? Zergatik zen haien ustez kaltegarri MMEk mundu osorako merkataritza atek parez pare zabaldu eta merkataritza liberalizatzea? Hona arrazoi batzuk: prozesu horrek *pisu arinak* eta inperialismo bidez gizendu eta indarturiko *pisu astunak* ring berean borrokan paratu gura dituelako, aurrez ezer jazo ez balitz bezala; prozesu horrek uniformizazioa bultzatu eta aniztasuna hondatzen duelako; prozesu horrek era askotako inperialismoak hobesten dituelako; prozesu horrek natura-baliabideak eta lurralde-oreka aintzat hartzen ez dituelako; prozesu horrek, azken buruan, multinazionalen eta potentzia handien arpilaketari, botere-metaketa geroz eta handiagoei eta antolaketa-sistema ezin piramidalagoei bide ematen dielako.

---

2. Ikus *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-V-27.

3. Ikus *El Mundo*, 2001-VI-10.

Bada kontra egoteko nahikoa arrazoi, ezta? Alabaina, maiz gertatu ohi zaigun moduan, abstrakzioan oinarritu ditugu arrazoiok. Eredu *tangible*agoetara etorrira, esan dezagun mundu osorako merkatu *libre*arena ezta ezta zabalena ere irentsiko ez lukeen errotaria dela; hau da, Hans Christian Andersenen pareko irudimena behar dela eduki ipuin hori inori sinetsarazi guran ibiltzeko. Ipuinak zutabe bi ditu. Azter ditzagun banan-banan.

Baga: estatuek ez dute esku hartu behar merkatu librean, ezin dituzte enpresak lagundu eta ez diete ezelako gizarte-babesik bermatu behar gizarteko sektore-rik behartsuenei. Premisa horiek betetzen ez dituzten lehenak, ordea, Ameriketako Estatu Batuak eurak dira. Gizarte-babesak ezabatu ezabatzen dituzte, hori bai, baina aldi berean baita euren enpresa estrategikoak diruz ondo baino hobeto hornitu ere. AEBetako enpresa esportatzaile nagusia (*Boeing* konpainia), barbarako, II. Mundu Gerra garaian aberastu zen, Gobernuaren inbertsioak nabarmen areagotzean. Horrez gain, une jakinetan (1990eko hamarkadaren hasieran, esate baterako) Gobernuak enpresa horri bidea leundu izan dio bere esku-hartze zein dirulaguntza publikoei esker<sup>4</sup>. Baina hori bai, nola gizarte-sektore zigortuenak hala euren enpresa estrategikoak babes barik utz ditzatela eskatzen diete gero estatu behartsuenei.

Biga: mugasariak desagertu egin behar dira, bai kapitala bai produktuak eurak traba barik ibil daitezten munduan barrena. Haatik, AEBak eurak dira inor baino protekzionistago, besteak beste ehungintzan, azukre-salmentan edota automobilgintzan mugasari ezin gogorragoak jartzen dituztelako sektore estrategiko horiek babeste aldera.

Besteak partaide gura dituzten jokoan arauak ezarri eta gero arau horiek ez betetzen eurak lehenak izanagatik, jokoak iraun badirau. Horren adibide, 2000ko udan, *Gara* egunkarian irakurritako albiste hau:

Kobre-meatzeen pribatizazioak miserian utzi du Zambia. Zambiano egoera ekonomikoa lehendik ere negargarria zen Nazioarteko Diru Funtsak bertako Gobernu presionatu zuenean, kobre-meatzeak (Zambiaren diru-iturri nagusiak) pribatiza

---

4. Esanguratsua da, halaber, *Euskaldunon Egunkariak* 2002-V-14an argitaratu emaniko berri hau: "Estatu Batuetako nekazaritza produktuei dirulaguntzak nabarmen handitzea jasotzen duen legea izenpetu zuen atzo George Bush AEBetako presidentek. (...) Legearen arabera, hamar urteko epean dirulaguntzak %80ean handituko dira, 190.000 milioi dolar izateko. (...) Bushen arabera, garai txarrak datozeneko nekazariei laguntza eta babesa emango dien lege baten beharrari erantzuna emango lioke atzo onartutako neurriak. (...) Europar Batasuna, Brasil, Kanada eta Australiak gogor kritikatu zuten Washingtonek onartutako legea eta prest agertu ziren auzia MMEren aurrera eramateko. Merkatuen liberalizazioaren defendatzaile agertu arren, ondoren AEBetan kontrakoa egitea leporatu zioten George Bush gobernuburuari. (...)" Honi guztioni loturik, hara zer irakurri diogun Fredric Jamesoni (2000:13): "(...) Merkatu librea ez da berez hazten; neurri esku-hartzaile sendoen bidez sortu behar da merkatu librea: lege jakin batzuk ezarri eta beste moduzko neurriak hartu behar dira hura sortzeko. Horrela gertatu zen (...) XIX. mende hasieran (...) eta justu horrela ari da jazotzen du gure garaian ere bai".

zitzan. Ministro baten dimisioa eragin zuten negoziazioen ostean, azkenean akordioa hitzartu zuten; akordio horren ondorioz, Zambiak meatze-aberastasuna multinazional biren esku geratu zen. Harrezkero, langabezia ikaragarri igo da, miseria egunez egun ari da hazten, eta meatzeak erosi zituzten multinazional biek oraindik ez diote agindutako dirurik ordaindu Gobernuari<sup>5</sup>.

Zambia, ordea, urruti dago, eta hango egoerak hemengoarekin zerikusirik ez duela pentsatuko du norbaitek. Mendebalde gero eta teknologizatuago eta (ustez) aurreratuagoan ere, ordea, badu eraginik prozesu horrek; ene bizilekutik gertu dagoen supermerkatua, adibidez, multinazional handi batek irentsi zuen duela ez horrenbeste; hori egin eta segidan, digestioa arintzeko edo, hauxe deliberatu zuten bertako agintariek: behargin zaharrenei lan-itunean agindutako soldata-igoerarik ez bermatzea, 96.000 pezetako (600 euro baino gutxiago) soldata garbirik ez ematea (enpresaren barne-agiriei taldearen emaitzak geroz eta hobeak zirela eta lantegi berriak zabaldu behar zituztela zioten arren) eta beharginak eurak lan-lekuz aldatzea; haien ordez, diru gutxiago irabazten duten neskato gazteak paratu zituzten lanean. Ene jaioterrian, berriz, bertako enpresa bat irentsi eta gero, multinazional batek herriko lurrik onenak hartu eta enpresaren zabalkunde-plana abiarazi zuen duela gutxi; inork ez du bermatzen, ordea, hemendik hamabost urtera beste nonbaiten eskaintza hobe jaso eta beharginak kale gorrian utzita bertara alde egingo ez duenik (hondakinak gurean utzita, bistan denez); multinazionalon beharginekiko jokabidea (lan-sariak eta enparauak) txukun-txukuna ere ez dela ondo dakigu honezkero (esanguratsua da, adibidez, Gasteizera etorritako Daewo enpresaren kasua, Iruñeko Volkswagena edota Danone, Marks&Spencer, Toshiba zein Ericsson kasuak esanguratsuak diren moduan).

Hori da indarrean den logika: harrapaketaren, arpilaketaren logika, etekin ekonomikoen bilaketa itsuaren logika. Horrek, jakina, enpresak batzea dakar (BBV-Argentaria, BS-Central Hispano, Renault-Volvo...), lanpostuak suntsitzea (Time Warner eta AOLek bat egin eta berehala, adibidez, 3.000 behargin kaleratu zituzten, eta BBVak ere 7.500 beharginen kaleratzea iragarri zuen Espainia eta Latinoamerikan 2001ean, mozkinak % 24,2 gehitu ostean; azpimarratzeko moduko datua da hau: BBVk eta Argentariak 1999ko azaroan bat egin zutenetik 12.631 behargin gutxiago dituzte<sup>6</sup>), botere-metaketak gehitzea (Espainiar Estatuan, hiru talde pribatuk Estatuak berak baino diru gehiago ei darabilte esku artean<sup>7</sup>), agintea gero eta kontrolagaitzagoa izatea, erabakiguneak jendearengandik geroz eta urrunago izatea, kapitala geroz eta gehiago metatu eta zentralizatzea...

Logika horren ondorio dira, halaber, kultura eta bizimolde partikular jakin batzuen inposizioa munduko kultura-aniztasunaren kaltetan, hiriguneen hazkunde

5. Ikus *Gara*, 2000-VIII-21.

6. Ikus horri buruz *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-IV-5.

7. Ikus *Ardi Beltza*, 5. zenbakia, 2000ko maiatza.

neurribakoa landa-eremuen eta lurralde-orekaren kaltetan, zentroak lehenestea periferia geroz eta handiagoen kaltetan (horra hor Ipar/Hego desoreka, Iparrean bertan ere zentroak eta periferiak etengabe indartzen ari diren bitartean<sup>8</sup>); horra, halaber, ustiatze basatitik eratorritako natura-baliabideen suntsipen geroz eta bizkorragoa...

Logika horrek berorrek mundu-estatu baterantz eramango ote gaituen eta gaur egungo estatu-nazioek iraungo ote duten, hori da gaur egun politologoek kezka nagusienetarik bat. Ignacio Ayestaran filosofoak, adibidez, hauxe utzi digu idatzirik (2001: 32):

Berlingo Harresia erori zenetik, munduko merkatua batu da subiranotasunaren ikurrak hartuz: botere militarra, monetarioa, komunikazionala, kulturala eta linguistikoa. Botere militarrean autoritate bakar bat dugu armamentu nuklearretik Echelon espioitza-sare mundialeraino. Botere monetarioan moneta hegemoniko bat dugu, dolarra, finantzen gainean. Komunikazio-boterean kultura-eredu bat inposatzen saiatzen da, hizkuntza unibertsal baten garaipen anglosaxoniarrean oinarrituta. Horrelako gailua nazioz gaindikoa, mundu osokoa eta erabatekoa da.

Gisa berean berba egin izan du beste zenbait adituk ere. Heinz Dieterich, adibidez (Chomsky-Dieterich, 1996), *de facto* existitzen den protogobernu mundialaz mintzo da: bere ustez, AEB, Kanada, Frantzia, Alemania, Japonia, Italia eta Erresuma Batuak osaturiko G7 edo Zazpi Handien taldeak betetzen du gobernu globalaren gidaritzaz-funtzioa. Horrez gain, G-7 taldeak zuzenduriko mundu osorako exekutiboaren egitura honako hau da Dieterichen iritziz: alor ekonomikoa Munduko Bankuaren, Nazioarteko Diru Funtzaren, Munduko Merkataritza Erakundearen eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen esku ei dago; alor politikoa, Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren esku; gizarte-alorra, alor ideologikoa, Unescoren, Lanaren Nazioarteko Erakundearen, PNUMAren eta NBERen Batzar Nagusiaren esku<sup>9</sup>; alor militarra, azkenik, NATOren esku dago,

---

8. Ikus bestela ELA 2001eko hasieran Hego Euskal Herriko pobrezia-aren bilakaerari buruz kaleraturiko txostena.

9. NBERen egiturari buruz ezin esan oso demokratikoa denik; Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusia, adibidez, ez dute lekurik estatu gabeko nazioek; horrez gain, Batzar Nagusia eztabaida-foroa baino ez da, azken batean. Benetako erabakiak Segurtasun Kontseiluan hartzen dira, eta hor, txandakaturik doazen hamar kideek baino, bost partaide iraunkorrek (Txina, AEB, Errusia, Erresuma Batua eta Frantzia) erabakitzen dute egin beharrekoa, haien beto-eskubidea baliatuta. Fernandez Duranek (2001) dioskunez, bestalde, Kofi Annanek 1998an NBERen diru-arazoak konpontze aldera Nazioarteko Merkataritza Ganberarekin sinaturiko akordioak ez dio legitimotasun handirik erantsi NBERi; egin kontu akordio horretan, multinazionalen presioei men eginez, kapitalen zirkulazio askea eta mundu osoko merkataritza librea sustatzeko konpromisoa hartu zutela Nazio Batuek. Ezin ahaztu, azkenik, Erresuma Batuak eta AEBek 2003an Iraken aurka eginiko eraso-garaian, NBEk izaniko jokabideak ez duela lar lagundu erakunde horren balizko zilegitasuna sendotzen.



denok ere honezkero ondo baino hobeto dakigun moduan<sup>10</sup> (justizia alorrik ez dugu aipatu; beharbada NBERen adar den Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia izan daiteke mundu osorako justizia-sistemaren hazia, baina Dieterichek ez du aintzat hartzen, baldintzapean ekonomiko eta politiko handiak dituela argudiatuta. Dena dela, Slobodan Milosevicekin zer jazo zen ikusita, badirudi etorkizunean Hagako auzitegiak zeresana eman dezakeela).

Alemaniar pentsalariaren aburuz, enpresa eta ondare publikoak pribatizatzeaz eta muga-oztopoak ezabatu eta kapitalarentzako nazioarteko merkatu handi bat prestatzeaz arduratu da azkenaldi honetan gobernu global hori. Alde batzuk gorabehera, gisa berean mintzatu dira, besteak beste, James Petras, Miren Etxezarreta, Noam Chomsky, Ignacio Ayestaran, Ramon Fernandez Durán edota Antxon Mendizabal.

Julen Zabalo basauriar pentsalariak, ostera (2000), erlatibizatu egin du iritzi-korronte hori. Hara zer dioen:

Mundu-estatuaren aukerak gutxitzen dira, eskualde hauek [Europar Batasuna eta munduan sortzen ari diren gisa horretako makroeskualdeak] haien interesak babes-ten ahalegintzen baitira, beste eskualdeen kaltetan. (...) globalizazio-prozesua aldaketak eragiten ari da munduko egituraketa politikoan, baina eragin horrek hainbat aldaera ditu lekuen arabera, tokian tokiko baldintzekin batzean. Ez dago, beraz, joera finkorik, ez mundu-estatu baterantz, ez nazio-estatuaren amaiera ziurrerantz, ez aipatzen diren beste aukera batzuetarantz.

Dena dela, bada eztabaida ezina den kontu bat: geroz eta bloke ekonomiko-politiko handiagoak ari dira eratzen munduan: Afrikako eta Europar Batasunak, APEC edo Asiako merkatu batua eta arestian aipatu dugun ALCA dira adibideak. Ezin uka, hala ere, bloke horiek sendotu edo zabaltzeko oztoporik izango ez denik. Europar Batasunaren eraketa-prozesu katramilatsua dugu horren adibide: Erresuma Batuak, Suediak eta Danimarkak diru-batasunetik at geratzea erabaki zuten eta Irlandan ezetza gailendu zen Nizako hitzarmenari buruz eginiko lehen erreferendumean. Ezin ahaztu, era berean, Frantzia eta Alemaniaren ikuspuntuaren arteko desberdintasunak edota Europako Batzorderako presidente iraunkor baten proposamenak estatu handi eta txikien artean eragin zituen desadostasunak.

Kontuak kontu, badirudi azkenean EB Nizan hitzarturikoa gauzatzen saiatuko dela. Hori horrela, estatukideek hitzarmena berretsi ostean, ia amaitu dira jada EBren eta bertan sartzeko aurreratuen dauden estatu hautagaien arteko negozi-

---

10. Dena dela, Europar Batasunak, badaezpada ere, bere armada propioa eratu du. Hara zer zioen 2003-V-20ko *Egunerok*: "Europar Batasuneko esku-hartze azkarreko indar militarra *bake operazio-sorta askotarako* prest dela iragarri zuten atzo Bruselan bilduriko EBko Defentsa ministroek (...). Halere, 60.000 militar inguru izango dituen indarrak ahalmen mugatuak dituela onartu zuten. (...)"

zioak, modu horretan 2004rako Batasunak lehen hamar kide berriak izan ditzan: Lituania, Estonia, Letonia, Eslovenia, Hungaria, Malta, Polonia, Eslovakia, Txekiar Errepublika eta Zipre, hurrenez hurren (bigarren txanda batean, berriz, Errumania, Bulgaria eta beste batzuk sartuko ei dira)<sup>11</sup>.

Eta zer leku izango lukete egungo estatuak makroegitura sorberrietan? Honetan ere aditu gehienak bat datoz: larderia-eragileena, ordena-zaintzaileena, hori litzateke estatuak aurrerantzean izango luketen zeregin nagusia, behin enpresa, zerbitzu eta ondasun publiko gehienak pribatizatu eta gero. Horri gagozkiola, Fernandez Duráñen ustez (2001), estatuak (gune periferikoetan batez ere) boterea galdu izana ez da kasualitatez gertatu. 1990eko hamarraldi hasieran, NDFk, Munduko Bankuak eta nazioarteko beste zenbait erakundek Washingtonen erdietsitako *Washington consensus* delakoaren emaitza ei da hori; bertan, *gutxieneko estatuaren* kontzeptua inposatu ei zuten<sup>12</sup>.

Nolanahi dela, mundu-estaturantz joan ala ez, kontua da gaur egun indarrean den logika suntsigarria dela eta logika hori mundua jasangarritasunaren muturrera eramaten ari dela<sup>13</sup>. Esanikoa egia dela frogatze aldera, aipa ditzadan azken hileotan plazaratu diren albiste batzuk. Antartikako glaziarrak, adibidez, arinegi ari ei dira urtzen. Lurra, berriz, bizkorregi berotzen eta ozono-geruza mehetzen ari da, eta oraingo martxan jarraituz gero, 2025. urterako hego hemisferioan ez ei da oihan tropikal probetxuzkorik izanen, eta bazterrotan ere gehiegizko ustiapenak kasik arrain barik utzi ei ditu euskal itsasbazterrak...<sup>14</sup>

Hala ere, Bushek ez zutela Kyotoko protokoloa sinatuko iragarri zuen 2001eko udaberri minean, eta multinazionalak oihana txikitzen jarraitzen dute, eta bazterrotan ere, horren kutsagarri diren erregai fosilen erabilera murriztu beharrean, erre-pide gehiago egiten ditugu, eta baita kapital-metaketek eta fusio- eta zentralizatze-prozesuek ezinbesteko dituzten Abiadura Handiko Trenei eta enparauei bide eman ere, lurralde-orekak bestelakorik agintzen duen arren.

---

11. Lerrook idazten ari garela, Malta, Eslovakia, Eslovenia, Hungaria. Polonian eta Lituanian egin dira jada erreferendumak (Europar Batasunari baiezkota eman diete guztietan) eta laster egingo dituzte galdetegiak beste estatu hautagaietan ere bai.

12. Hori dela eta, zenbait autorek (ikus Jameson, 2000) eta beste eragile batzuek (*Le Monde Diplomatique* kazetak) Estatu indartzea proposatzen dute globalizazio neoliberalari aurre egite aldera. GPA (Herrien Ekintza Globala) moduko sareek, aldiz, tokian tokiko erabakiguneak, erabakigune hurbilagoak hobestea proposatzen dute, gardentasunaren eta aniztasunaren izenean.

13. Fernandez Duráñen arabera (2001), “*garapen jasangarria*, Rioko Goi-bileran sorturiko kontzeptu hori, gaur egungo eredu ekonomikoak etengabe hazteko daukan joera berdez makillatzeko ahalegina baino ez da, azken batean. Eta argi dago mugarik gabeko hedapena ez dela bideragarri biosfera bezalako sistema mugatu batean.”

14. Ikus adibidez *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-I-12; *Gara*, 2001-V-1; *El Nervión*, 2001-V-31.

Horrez gain, Jean Ziegler soziologoak NBEri aurkeztutako txosten batek dioenez, 36 milioi lagun hiltzen dira urtero elikagai faltagatik. Haatik, txostenean ageri denez, nekazaritzaren garapen teknologikoari esker gaur egun munduak 12.000 milioiko populazioa elika dezake, ezelako arazo barik, gainera. Zieglerrek Mendebaldeko estatuen nekazaritza-politikak, herrialde pobretuen kanpo-zorra eta multinazionalen agindutara den Nazioarteko Diru Funtsak ezarritako programa estuak aipatzen ditu, besteak beste, miseria-eragile nagusi modura<sup>15</sup>.

Hori da indarrean den paradigma, eta, bistan denez, ez da jasangarria, inondik inora. Hori erakusten digute, besteak beste, bere itzalgune itzelek: immigrazio-poltsa gero eta handiagoak, natura-baliabideen agortzea, ekoizpen-ereduen krisia (aheria, dioxinadun oilaskoak, behi eroak, txerri kutsatuak...), ondasunen banaketa gero eta desorekatuagoa eta abar. Itzalgune horiek paradigma-aldaketa behar dute. Hala ere, gu geu ere has gaitezen lanean, badaezpada ere. Eta lanean hasteak hauxe esan gura du, besteak beste: batetik, kexatzeari utzi eta alternatiba konkretuak, egitura zehatzak eraikitzea (kexutik harago ez joatea alternatibak hezurramitzeko dugun ezintasunaren erakusle baita); bestetik, arreta boteregune erraldoietan fokalizatu beharrean (kexuka dihardugunean ere hori egiten baitugu maiz) daukagun energia (ganoraz aktibatuz gero, hain eraginkor izan daitekeen energia horixe berbera) geure zentroak eraikitzen xahutzea.

*Think globally, act locally* maxima ezinbesteko dugun garaiotan, beraz: eska dezagun kanpo-zorra ezabatzea; bultza ditzagun, espekulazioaren, kapitalen ihesaren eta inbertsio transnazionalen kontrola bermatze aldera, esaterako Tobin tasaren egitasmoa; bultza ditzagun baita merkataritza solidarioaren sareak ere. Baina, perspektiba globala ahaztu barik, bultza ditzagun batez ere tokian tokiko garapen-eredu autozentratuak. Izan ere, gaur egungo eredia kanpora begira eraikia baita, esportaziora eta hedapenera begira, eta horrek lehia, lan-baldintzen prekarizazioa eta enparauak eragiten ditu. Garapen-eredu autozentratuek, aldiz, kanpokoari begiratu beharrean, barrukoari begiratzen diote: tokian tokiko beharrak zein diren ikusi eta horien (eta ez kapital transnazionalen) araberako kultura-, lurralde- edo elikadura-politikak, azpiegiturak eta giza mailako ekonomiak diseinatzen dituzte. Eta hori ez da norberaren baitara biltzeko saioa, munduko gainerako herriekin benetan solidario izateko eman beharreko estreinako urratsa baizik<sup>16</sup>.

Hortaz, uniformizazio- eta zentralizazio-garaiotan, susta ditzagun aginte lokalak, hiritarrendandik gertuen diren egitura parte-hartzaileak, ekoizpen-eredu garbiago eta jasangarriagoak, susta halaber tokian tokiko hizkuntza eta kulturak,

15. Ikus *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-IV-3.

16. *Ekonomia* terminoa bera ere grezierazko *oikos* hitzetik (*habitat-a, etxea, bataren zein bestearen gobernu*) ei dator. Izena eta izana batera doazela erakusten digu adibide honek ere, ezen terminoa bestelakotzearekin batera, errealitatea bera ere antzaldatu egin baita: norberaren inguruaren premia aztertu eta horien araberako erantzunak ematea baztertuta (jatorrizko *oikos* hura ahazturik, beraz) mundu osoko arpilaketa, diru-bilaketa itsua da egunotan *ekonomiaren* funtsa.

lurralde-oreka hobetsiko duten neurriak edota kalitatezko elikadura bermatuko duten politika zehatzak; sor ditzagun multinazionaleri kontrapisua egingo dieten kooperatiba txikiak, geure sosak kudeatzea ahalbidetuko diguten egiturak (banku berdeen esperientzia, konparazio batean, oso interesgarria da), kontsumo-elkar-teak...

Globalizazio-eredu jakin honen goresleei, hortaz, haien liluratzeko-saioak indargabetze aldera, gaur egungo egoeraren itzalguneak eta euren erantzukizuna gogorarazi behar zaizkie; baina, batez ere, geure gizarte-eredu alternatiboa hemen eta orain eraikitzen hasi beharra dago, kontua balizko euskal estatua eskuratzen dugunerako utzi beharrean. Izan ere, zer gertatuko da estaturik sekula santan ematen ez badigute? Ibili behintzat, haiei eskaka gabilta, oraintxedanik eraikuntza-lanari lotu beharrean... Eta jakina, gurdia idien aurretik paratuta marko-aldaketarekin tematuta gabiltzan bitartean, marko horren edukiak diseinatu dizkigute jada (horra Bizkaian aurrera doazen proiektu makroenergetikoak, horra AHT, horra gure lurrrak neoliberalismo basatiaren ikur diren hipermerkatu erraldoiz gero eta josiago), eta ia ez dugu energiari bideratzen arlo horietan erantzunik ematera...

Has gaitezen berehala, bada, arlo horietan lanean, zein herri-eredu gura dugun zehaztuta. Eta horretarako (paradoxaren bitxia!) geuk ere lilura baliatu beharko dugu, globalizazio neoliberalaren propaganda-tresnak (baita zapatistek edota intsumisoez ere, arrakasta handiz gainera) egin izan duen moduan. Lilura, egitasmo erakargarriak, produktu ganorazkoak, proposamen zehatz eta seduktoreak, antolamendu horizontalagoak, bazterrok bizigarriago egin gura izanez gero behar-beharrezko dugun diskurtso berri, ederragoa... Hori guztia inoiz baino premiazkoagoa dugu: ekin diezaiogun gaurdanik eta geure kontraesanak onartuta, praxi zehatzetara inoiz jaitsi ez eta, maximalismoen ezkutuan babestuta, lantzean behin botatako aldarri perfektuekin lasai geratu beharrean. Has gaitezen, beraz, lanean, eta has gaitezen koherente eta aldi berean seduktore izaten, lilura bultzatzen, proiektu erakargarriak taxutzen; saia gaitezen, azken batean, eraiki gura dugun hori gaurdanik eraikitzen eta eder bihurtzen, kontua biharko utzi beharrean.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Ayestaran, I. (2001): "Globalizazioa edo inperialismoa?" in *Jakin*, **122**, 31-53.
- Chomsky, N. & Dieterich, H. (1999): *La aldea global*, Txalaparta, Tafalla.
- Etxezarreta, M. (2001): "Algunos rasgos de la globalización" in Zenbaiten artean: *Globalización capitalista. Luchas y resistencias*. Virus & Baladre, Bartzelona, 13-41.
- Fernandez Duran, R. (2001) : "Capitalismo global, resistencias sociales y estrategias del poder", in A.A.: *Globalización capitalista. Luchas y resistencias*, Bartzelona, Virus & Baladre, 61-233.

- Jameson, F. (2000): “Globalización y estrategia política”, in *New Left Review* (gaztelerazko edizioa), **5**, 5-22.
- Mendizabal, A. (1999): *La globalización. Perspectivas desde Euskal Herria*, Hiru, Hondarribia.
- Petras, J. (1999): *Globalización y ciudadanía: dimensiones sociales y políticas*, Hiru, Hondarribia.
- Ramonet, I.(2000): *La tecnología: revolución o reforma. El caso de la información*, Hiru, Hondarribia.
- Zabalo, J. (2000): *Abertzaleak eta ezkertiarak*, Elkarlanean. Donostia.
- Zuberogoitia, A. (2000): *Globalizazioaren adarrak*, Alberdania. Irun.
- Zulaika, J. (2001): “Espainia eta Europa probintzializatu zaizkigunean eta... probintziak globalizatu”, in *Jakin*, **122**, Donostia, 117-123 or.



# **Globalizazioa eta nazio-arazoa: Euskal Herriko globalizazioaren aurkako mugimenduaren diskurtsoa. “Hemen eta munduan”**

Linda Parenti, *Soziologoa Florentziako unibertsitatea*  
Iñaki Barcena, *EHU-Zientzia Politikoa*

## **1. GLOBALIZAZIOAREN INGURUAN, NAZIONALISTEK EMANDAKO ERANTZUNAK**

Jarduera akademikoaren literaturak orri ugari eskaini dizkio azken hamarkadan *globalizazioa* deritzon fenomenoari eta, azken aldi honetan, baita globalizazioaren aurkako mugimendu sozialari ere. Beste horrenbeste esan dezakegu nazionalismoaz, une honetan indarrak gehien duen eta osasuntsuen dabilen ideologiaren inguruan ehunka liburu sortzen dira urtean fenomeno poliedriko hori kontuan hartuz. Hala ere, gutxi dira gai biak, bata eta bestea, batera aztertzen dituzten egi-leak eta liburuak, J. L. Abellán-ek fenomeno biek elkarri lotuta daudela badio ere, elkarrekiko menpekotasun sakonak dituzten eraginak izanik, gizarte garaikidearen mugimenduari dialektika bateratsu baten bidez lotuta daudenak. (ikus “Nacionalismo y Globalización”. El País-en, 1997ko abuztuaren 29an).

2001.eko uztailaren hasieran, Genoako goi-bilera egin baino egun batzuk lehenago, Jeremy Rifkin estatubatuarrak idatzi zuen: “Une honetan globalizazioaren aurkako erreakzio bortitzaren lehen zantzuen lekukoak gara, eta litekeena da horren ondorioak XVIII. mendearen bukaeran gertatu ziren demokrazia politikoa- ren eta merkatu-kapitalismoaren aldeko mugimendu iraultzaileenak bezain garrantzitsuak eta eraginkorrak izatea”. Bi hilabete geroago, irailaren 11ko hondamena gertatu zen, erreakzio hori agerian utziz. Hala ere, estatubatuarren aberriaren egunean argitaratu zen gogoeta horren osagairik interesgarriena (“Un nuevo actor en la escena global”. El Paisen, 2001eko uztailaren 4an) mundu osoko tokian tokiko kulturen iratzartzeaz egindako oharra zen, ohartarazten zuena berrezarpen horrek fundamentalismo-mota berri eta gogor bat ekar lezakeela, dibertsitatearen berpizkundea ekar lezakeen erraztasun berberarekin. Eta horri beste hau eransten zion esandakoari “Espainian, Katalunia eta Euskal Herriak lurralderik gabeko

Europar beren kultura-ondareari eusteko ahaleginetan dabilta. Bigarrenen kasuan, kultura-nortasuna galtzeak sortutako zapuzketak biolentzia eta hilketa politikoak areagotzea eta ikara nagusitzea ekarri ditu”.

Hitz horiek gogorazazi nahi izan ditugu, hain zuzen ere, globalizazioaren aurkako borroken eta nazionalisten eskarien arteko loturak antzeman nahian. Gure gogoia da, batetik, jarduera bi horien batuketan gertatzen diren erantzunen aniztasuna —kontraesanean eta elkarren kontrakoak badira ere— agerian uztea, eta, bestetik, aurreko kasuari begiratuta, globalizazioaren aurkako euskal mugimenduak, autodeterminazio pertsonala eta kolektiboa proposatuz, egiten dituen bi eskari horien hibridazioa aztertzea.

1989. urtean beste estatubatuar batek, Francis Fukurama-k, Sobietar Batasuneko sozialismoaren kolapsoaren ostean, “Historiaren amaiera” eta “funtsezko kontraesanan amaiera” iragarri zizkion munduari, eta adierazi zuen nazionalismoa eta erlijio-fundamentalismoak zirela, behin klase-arazoa amaituta, liberalismoak bizirik zituen etsai bakarrak, baina esan zuen kontrolpean eduki zitzakeela biak ordena kapitalista berriak (The National Interest-en, 1989ko irailean).

Hamar urte geroago, MMEren Seattleko bilerari egindako boikota zela eta, munduan ahots ugari elkartu ziren historiaren berpizkundea aldarrikatu eta Bretton Woods-eko erakundeek II. mundu gerratik bultzatzen ziharduten politikari betoa ezarri. Badira, hala ere, hori sozialismo errealearen suntsiketaren ondoren frustratutako ezkerren ernalketa erromantiko eta gazte labor eta pasakor bat baino ez zela diotenak. Agian hori baino ez zen izango, baina iruditzen zaigu atzean zerbait gehiago zegoela.

Globalizazioa neoliberalaz hitz egiten denean, Euskal Herriko egoerari buruzko aipamena egiten bada, badirudi gai horren inguruko edozein eztabaidari heldu aurretik bi osagai azpimarratu beharra dagoela. Lehenengo eta behin, globalizazio neoliberalak, oinarritz, globalizazioaren alderdi ekonomikoari lotuta dagoela. Hala ere, ez dugu ahantzi behar globalizazio ekonomikoa globalizazio-prozesu orokorraren baten zati bat baizik ez dela, bizitzaren eremu guztietan (sozialean, kulturean, politikoan) eragina duen prozesu orokorraren baten zatia (A. Giddens). Ildo horretan, nazionalismoaren erantzuna euskal gizartearen barruan dauden dinamika sozial, politiko eta kulturei buruzkoa ere bada.

Bigarrenik, Euskal Herrian gertatzen ari den globalizazio-prozesua ez da beste lurralde batzuetan gertatzen ari denaren desberdina eta berezia. Mendebaldeko munduan gure garaiaren ezaugarri nagusia den globalizazio-prozesu bera dugu eta Euskal Herriak, bistan denez, industrian eta ekonomian indar handikoa izanik, garrantzi handia du Espainiar Estatuan. Aldez aurretik bi osagai horiek argitu arren, oraindik korapilatsua da, globalizazio neoliberalak dela eta, nazionalismotik etortzeko erantzunen gaiari heltzea.



Euskal errealitateari kanpotik begiratu gero, zaila da erantzun lineal edo orokorrik aurkitzea. Hortaz, barrurago joan behar da, barrukoari begiratu, euskal sistema politikoaren eta sistema horretako alderdi politikoaren eta, bestetik, gizarte zibilaren artean oraindik bizi-bizirik dirauten haustura eta gatazketan. Gatazka eta ikuspegi desberdin horiek aldatzen ari dira, etengabe, eta ez bakarrik euskal gizartean dagoen banaketagatik (gizartearen zati batek bere burua nazionalistatzat jotzen du eta beste zati batek ez du bere burua horrelakotzat jotzen) baizik eta joera horiek, itxuraz egonkorrak izanik, politika neoliberalen arazo berriek eraginda, krisian sartuta daudelako, eta egitez Euskadiri atzerritik begiratzen diotenentzat nahiz euskal herritarrentzat oso panorama politiko, kultural eta sozial konplexua sortzen dute. Horrela, nazionalisten joeren artean badira globalizazio neoliberalaren osagai positiboa dela uste dutenak, hazkundearen eta garapenaren aginduaren izenean eta munduan nagusia den ereduaren izenean; badira, berriz, globalizazio ekonomikoa Espainiar Estatuak eta Frantziak Euskal Herrian daramaten esplotazioaren beste alde bat dela diotenak.

Globalizazio kapitalistaren aurkako nazioarteko mugimendu berria epe laburrerako moda iragankor berria ote den edo, ordea, Rifkin-ek uste duenez, fenomeno iraunkorra ote den, gure artean luzerako geratzeko etorritakoa, argitzen ahalegin-tzea baino apalagoa da artikulua honen helburua.

Euskal Herrian sortu den mobilizazio sozialaren eremuan zentratuta, eta globalizazioaren aurkako mugimenduaren nazioarteko hitzorduen (Seattle, Praga, Niza, Miarritze, Goteborg, Qatar, Bartzelona, Sevilla...) haritik, gure asmoa da aldi berean tokian tokikoari eta, bestetik, globalitateari begiratu nahi dien mugimendu berri (berri?) honen arrazoieta eta aukeretan sakontzea. Mugimendu horrek Euskal Herrian dituen ideiak, diskurtsoa, ekintza-bidea eta antolaketa-erak aztertu nahi ditugu, batik bat mugimenduak hemen duen erakunderik garrantzitsuenak: *Hemen eta Munduan* erakundearenak.

Zelan uztar daitezke euskal nazionalismo *separatista* eta, esaterako, diskurtso indigenista, humanitarioa eta galaxiarteko zapatistena? Nola liteke eskutik helduta joatea hizkuntza minorizatuaren, euskararen, aldeko aldarrikapena eta Interneten erabilera militantea? Zelan egiten dio aurre mugimendu horrek nazioarteko komunikabideek mugimendua desitxuratzeko erabili izan duten faktore nagusiari, hots, indarkeriaren arazoei, batez ere kontuan hartuta euskaldunok European terrorismoaren estigma garelako?

Galdera horiei erantzun nahian, gure azterlanaren oinarritzko materiala izan dena lortzeko, *Hemen eta Munduan*-eko lagunekin egin ditugun egin dituen elkarriketak aztertu eta erakunde horrek bi urteko bizitzan eztabaidatzeko eta propaganda egiteko erabili dituen materialak bildu ditugu, baita erakundeko kideek komunikabideetan idatzitako iritzi-artikuluak eta emandako elkarrizketak ere.

## 2. GLOBALIZAZIOAREN INGURUKO DISKURTSOAK: EKINTZAILEAK ETA INTEGRATUAK

Bat gatzoz Ulrich Beck-ekin (1998:55) esaten duenean globalizazioari buruzko bibliografiaren baitan oinarritzko eztabaida dagoela: globalizazioa aurrera daramana logika nagusi bat den edo, ordea, globalizazioa zenbait modutan aldeztutako eta azaldutako arrazoi ugari eta konplexuren ondorioa ote den. Aipatutako Alemaniako soziologo horren ustetan, esaterako, globalizazioaren inguruko soziologia askotarikoa da, eta nahiz eta bertan logika nagusiaren iritziarekin bat ez datozen egile mordoak egon, gehienak haietariko batean sartzen dira. Wallerstein-ek, *mundu sistemaren* inguruko teoriarekin, Rosenau-k, Gilpin-ek edo Held-ek *nazioarteko politika* aipatzen dute faktore nagusitzat; Roberston, Appadurai, Giddens, Albrow, Featherstone, Lash edo Urru, berriz, teorika kulturalaren tradizioaren partaideak dira. Beckek berak (1992) krisi ekologikoa eta arrisku-gizartea aipatzen ditu arrazoi nagusitzat.

Zesar Martinez euskal soziologoak, partaidetza kolektiboa eta atxikipen sozio-estruturala ezaugarri nagusiak kontuan hartuta, aukeratutako pertsonen erantzunak bildu ditu argitaratu berri duen aktibismoari eta aldaketa sozialari buruzko dokto-rego-ikerketan (Martinez, 2002). Ikerketa horren arabera, lau dira Euskal Herrian globalizazioaren inguruan dauden diskurtsoak.

Lehendabizikoa **egokitzapen**-diskurtsoa dugu (diskurtsoa *komunikazio sozialeko norbaitek sorturiko testuari* deritzogu), globalizazio-dinamikei loturiko aurrerapen ekonomiko eta teknologikoa geldiezina dela, eta, kontraesaneko emaitzak sortzen dituela onartzen bada ere, epe luzera bizi-baldintzak hobetuz joango direla eta etorkizunean bizimoduak horrelaxe jarraituko duela uste dutenek sortutakoa. “Beti egon izan dira desberdintasun sozialak, baina globalizazioak aukera berriak eskaintzen ditu, aprobe txatu egin behar direnak, bestela bazterrean geratuko ginateke eta. Aurrera egiteko nahitaezkoa da dinamika ekonomiko berrietan sartu eta horietara egokitzea”.

Martinezek berak onartzen duenez, diskurtso-mota horrek globalizazioaren aldeko irakurketa positiboa egiten du, aurrerapen teknologikoan, teknologia berrietan eta informazioaren ugaltzean oinarritutako elkartrukatze onuragarria gorai-patzen baitu.

Bigarrenik, **ezintasunaren** diskurtsoa izenekoa aipatu beharko genuke, globalizazioaren defendatzaileez fidatzen ez direnen diskurtsoa, haiek planteamendu onak zabaltzen badituzte ere (mundu batuago bat, ekonomia bakarra...), errealitateak bestelakoa erakusten digulako: dirua, merkatua eta kontsumismoa jaun eta jabe dira eta biztanleriaren gehiengoak ustezko onura horietatik kanpo uzten dute. Eta maila pertsonalean estresa eta antsietatea sortzen dizkigute, hots, desoreka pertsonala. Prozesua gidatzen duten politika eta ekonomiako elitek egoera alda lezakete, baina ez dute nahi, eta elkartasun-talde sozial batzuek, GKEek esaterako,

baino ez dute egoera aldatzeko zerbait egiten. “Haiei lagundu beharko genieke, sistema politikoa biziatuta dago eta” da bigarren joera hori babesten dutenek sarri erabilitako esaldia.

Giza taldeen ekintzetan parte hartzen ez dutenen ezintasuneko eta egokitzapeneko diskurtso utilitarista horien aldean, itxaropena eta antagonismoa dira azaltzen dira. **Itxaropena** da globalizazio neoliberalaren aurkako iritzia izanik eta globalizazioaren ondorio negatiboez kezkatuta egonik, kontsumismo eta diru-materialismoaren aldean giza balio alternatiboak berreskuratu behar direla uste dutenen diskurtsoaren ezaugarria: behartsuei lagundu, hezkuntza solidario berria sustatu eta GKEekin batera lanean aritu, gaur egungo garapen ereduari eutsi ezin baitzaio.

Azkenik, **antagonismoa** da beren burua kapitalismoaren kontraktotzat jotzen dutenen eta argi globalizazioaren aurka eta mundua merkantzia bilakatu nahi duten enpresa transnazionalak biztanleriaren kopuru handi baten baitan sortu duten ametsezko sentsazioaren aurka agertzen direnen diskurtsoaren ezaugarri nagusia. Konpetibitatea eta kontsumismoa ezarri nahi dira munduan eta kultura-aniztasun eta gizarte-ereduak arriskuan jartzen ari dira. Globalizazioaren gaur egungo dinamika aldatzea joera horiek sortu eta zuzentzen dituzten eragile, erakunde eta elkarrean kontra egitea da, eta horretarako munduan nagusi diren inertzien kontra borrokatu eta antolatu beharra dago. Nahitaez era horretako zuzen-gabekeriaren aurka altxatu beharra dago.

DISKURTSOA	EGOKITZAPENA	EZINTASUNA	ITXAROPENA	ANTAGONISMOA
EKINTZA SOZIALA	Utilitarista autonomoa	Utilitarista heteronimoa	Normatiba autonomoa	Sorkuntza autonomoa
GIZARTEA	Kanpokotasun ezarlea	Kanpokotasun ezarlea	Balioen araberako sorkuntza	Gatazkako sorkuntza
EKOIZPEN SOZIALA ETA LIDERGOA	Aurrerapena Metakontakizun lineala	Mozkin ekonomikoen logika	Interes ekonomikoen araberakoa	Giza ekimena guztiona
	PARTE-HARTZE KOLEKTIBORIK GABEA		PARTE-HARTZE KOLEKTIBOA	

Iturria: Z. Martinez (2002)

Azken diskurtso horretan, antagonismoa deitu diogun diskurtso horretan, sakontzea eta luzatzea da lan honetan interesatzen zaiguna, diskurtso hori globalizazioaren aurkako mugimenduaren barruan sortu dena delako, hain zuzen ere. Globalizazioa interpretazio kontrajarriak, positiboak eta negatiboak, onartzen dituen fenomeno gisa hartzen duten iritzien aldean, diskurtso hau bestelakoa da, eta interpretazio kontrajarri horiekiko jarrera hartu eta herri bezala irauteko politikak

garatu behar direla aldeztzen du. “Gure jarrera da negatiboegiak diren jarreretatik ihes egin behar izatearena, baina jakina, eragin handia sortuko duten aldaketak ger-tatuko badira ere, ez dugu pentsatu behar euskal nortasuna galdu egingo denik... Ez dago beste biderik! Beste era batera esanda, argi dago globalizazioaren alde po-sitiboak aprobetxatu eta negatiboak ekiditen ahalegindu beharra dagoela eta horrek estrategiako neurri batzuk hartzea eskatzen du”(P. Juaristi. [2001]).

Enfrentamenduan eta salaketa ideologikoan oinarritutako diskurtsoa da, zeren, horren arabera globalizazioa kapitalismoaren fasetariko bat baita; botere politiko eta ekonomikoek diseinaturiko eraikuntza politiko eta ideologikoaren eredu bat da, inperialismoaren bidez, pentsamendu bakarraren bidez, kultura-hegemoniaren bi-dez, desregulazio eta pribatizazio politika neoliberalen bidez, inmigrazio legeen bi-dez... adierazten dena, zertarako-eta lehiakortasuna, produktibismoa eta kontsumoa errazteko. Horrela, enpresa-talde transnazionalak eta finantza-erakundeak izan dira, pentsamendu neoliberalaren formula horiek diseinatuz, sozietatea manipulatu dutenak, eta horiek dira borrokatu beharreko lehendabiziko etsaia.

Zentzu horretan interesgarria da alderatzea, batetik, den-dena egindakotzat eman eta egungo globalizazio-egoera aldaezina dela uste dutenen deteminismo so-ziala eta, bestetik, lehendabiziko zeregina gaur egun nagusi diren konformismoa-ren eta pasibitate soziala alienazioaren oinarria den eredu sinboliko-ideologiko auzitan jartzea dela usten dutenen jarrera.

Globalizazio neoliberalaren aurkako Euskal Herriko nahiz mundu osoko mu-gimenduak “posiblea da beste mundu bat” leloa aldarrikatu du, aldaketa soziala-ren ezinbesteko bilaketa adierazteko eta gaurko globalizazio-prozesuari gatazka politikoaren bidez amaiera eman beharraren alde egiteko; eta, horretarako lan-tres-natzat gizabanakoen autodeterminazioa (bakoitzarena nahiz taldearena) sortzeko kritika soziala eta eztabaida kolektiboa aukeratu ditu.

### **3. “HEMEN ETA MUNDUAN”. NAZIO-NORTASUNA ETA JARDUERA ANTIGLOBALITARIOA**

“Kaixo, munduko hainbat tokitan gertatzen ari den bezala, Euskal Herrian ere, geure etorkizunaz kezkatuta gauden hainbat lagun *Hemen eta Munduan* herri-ekimena bultzatzen ari gara globalizazio neoliberalak dakartzan desorekak eta bidegabekeriak salatzeke eta gizarte berri baterako proposamenak egiteko. Ekimen horren bidez, antolatzeke eta parte-hartzeke espazio bat eskaini nahi diegu herritar guztiei. Pragan izan ginen, eta, harrez gero, Miarritze eta Nizan antolatutako protes-taldietan ere parte hartu dugu, baina gure helburu nagusia, globalizazio neolibe-ralaren aurkako kontzientziari hauspoa ematea da.” Horiek dira *Hemen eta Mun-duan* globalizazioaren aurkako euskal ekimenaren web orrian sartzean aurki ditza-kegun lehenengo hitzak. Ikus daitekeenez, ekimen horrek ez du bere burua jotzen elkartzat, erakundetzat edota gizarte-mugimendutzat, ezta talde politikotzat ere.

### 3.1. *Jaiotza eta aurrekariak*

*Hemen eta Munduan* 2000. urtean jaio zen, globalizazioaren inguruko Euskal Herriko herri-ekimen legez. Nazioarteko Diru Funtza (NMF) eta Munduko Bankua (MB) Txekiar Errepublikako hiriburuan egiteko ziren urteko goi-bileraren aurkako ekitaldietan parte hartzeko; Pragaraino hurreratu ziren gizon eta emaku-meei zor zaie mungimendu horren sorrera. 2000ko iraila zen, eta *Hemen eta Munduanekin* batera Europako goi-bileren aurkako mobilizazioetan parte hartzen aurki ditza-kegun Europako beste hainbat talde sortu ziren garai horretan ere bai. (Romano, 2002).

Horretan interesgarria da azpimarratzea Euskal Herriko subjektu edo mugimendu sozial berri baten sorreran eraginik handiena izan zuena ez zela izan, hainbat herrialdetan gertatu denaren kontra, Seattle hirian 1999an izandako gertaera mul-tzoa, nahiz eta herri horretan aipatu ziren estreinekoz globalizazioaren aurkako mugimenduak. *Hemen eta Munduan* taldeko gaurko zenbait kide Seattlen egon baziren ere, gero euskal mugimendua osatuko zuten pertsonen ustez gehienetzat Seattlekoa urruti geratu zen eta ez dirudi hemen eragin handirik izan zuenik. Pragan geratutakoak, hainbat pertsona atxilotu izanak, ordea, seguruen globalizazioaren aurkako herri-ekimenaren sorrera eragin zuen. Euskal Herriko 25 pertsona atxilotu zituzten Pragan eta atxilotutakoak etxera itzultzean sortu zen *Hemen eta Munduan*.

Mugimendu berriak euskarazko izena hartu zuen, *Hemen eta Munduan*, bi osagai nabarmentzeko: batetik, euskararen hautaketa, hasieratik ekimenaren jatorria eta nongotasuna adierazteko; eta, bigarrenik, bere jarduera-eremua toki zehatz batean izanik, munduaren globalitatean ere jardun nahi duela adierazteko.

Mugimenduaren aurrekariak bilatzeko orduan, hainbat bide jorratu behar izan ditugu. Batetik, funtsezko sustraia Madrilen 1994ko irailean, NMF eta MBren urrezko ezteien ospakizunetan, egin zen *50 urte aski da!* nazioarteko kan-painan legoke. Euskal ordezkari ugari bildu ziren esandako ekitaldien kariatara *Planetaren bestelako ahotsak* izeneko foro alternatiboan. Euskal Herrian egun beretan *50 urte zoritxarrez!!!* plataforma eratu zuten hainbat erakunde sozial, sindikal eta poli-tikok, ekologisten eta internazionalisten Bretton Woods-eko erakundeekiko kriti-kak bilduz. Garai horretan hasi zen zabaltzen Euskal Herrian nazioarteko erakunde horien politikaren berri eta erakunde horiekiko lehendabiziko kritikak plazaratzen (doikuntza estrukturaleko egitarauak, kanpo-zorra eta zor ekologikoa, sasigarape-na...). Euskal Herriko Unibertsitateko ekonomia irakaslea den Antxon Mendiza-balen hitzetan “Pentsakera paternalista horrek aurrerapena hazkunde ekonomikora murrizten du, emanzipazioa ekonomiara, pertsona merkantziara, eta izar sortzailea izan behar litzatekeen gizakumea besteen politika ekonomikoaren objektu huts bilakatzen du” (Mendizabal, 1995: 171).

Urtebete geroago, eta Europar Batasunaren lehendakaritza Espainiako gobernuaren eskuetan zela, zenbait foro alternatibok (Madrilekoak, Bilbokoak...) globalizazioaren aurkako disidentzia zabaltzen zuten, Bruselako nekazaritza, ingurumen-, garraio-, inmigrazio- eta ekonomia-arloetako barne- eta kanpo-politikak disidentzia horretan integratuz.

Hortaz, nazioarteko foroak eta plataformak, eta horiek Euskal Herrian izan dituzten oihartzun-mugimenduak, izan ziren *Hemen eta Munduan* proiektua sortzeko abiapuntuetariko bat joan den mendearen azken hamarkadaren erdi aldean. Beste abiapuntu bat sindikatuen arteko lankidetzak izan zen. Euskal sindikatu batzuetako (EHNE, ELA, LAB, ESK...) arduradunak izan ziren *Hemen eta Munduan* ekimena sortzea bultzatu zutenak, hasiera batean politikoki babestuz eta komunikabideen aurreko agerpen publikoetan babesa eskainiz.

Hirugarren osagaiak zerikusi handiagoa du ideologiarekin erakundeekin baino: nazioarteko elkartasun-mugimenduaren sektore batek internazionalismo berri bat bilatu nahi du, guztiz bestelakoa, ez bakarrik laguntzazkoa edo ideologiko hutsa, baizik eta garapenerako eta ohiko nazioarteko elkartasuneko GKEak baino harago doana, jendearen ilusioa berpiztuko lukeena, indar berriak sortuko litzukeena eta aktibismo mota berri baten eragilea izango litzatekeena. Horrelaxe sortu zen *Hemen eta Munduan*, aldi berean planetaren beste toki batzuetan gertatzen ari zen zerbaiten isla moduan.

### **3.2. *Hemen eta Munduan mugimenduko kideen eta antolaketa-eraren soslaiak.***

*Hemen eta Munduan* taldeko kideen ezaugarriak ez dira, antza, beste talde eta mugimendu sozialek dituzten oso desberdinak. (Ajangiz eta Barcena, 2001).

Hiru talde daude, zenbait tokitan biltzen direnak, elkarrekiko urruti. Talde bat Bilbon dago, bigarrena Gasteizen eta hirugarrena Iruñean. Talde bakoitzak 20/25 kide ditu; ez dira, hortaz, oso talde handiak edo bereziak. Kideen jatorria askotarikoa da. Kideen adina 20 eta 50 urte bitartekoa da, zenbait maila sozialetako gizon eta emakumeak. Badira beste erakunde batzuetan parte hartzen duten kideak (horiek gehiengoak dira) eta badira *Hemen eta Munduan*en bidez aktibismoarekiko lehen urratsa eman dutenak. Beste talde batzuetan ere parte hartzen dutenen artean, badira alderdi politikoetan, GKEetan, irratilibreetan, mugimendu antimilitaristetan, bakearen aldekoetan, internazionalistetan, ekologistetan, feministetan eta abarretan ere parte hartzen dutenak. Horiek guztiak bi gauza dituzte berdin: ezkerreko politikako jarrera eta naziotasunaren definizioa: beren burua euskalduntzat jotzen dute, eta ez espainolatzat.

*Hemen eta Munduan* taldearen antolaketari dagokionez, guztiz deszentralizaturik dago, kide guztiak boluntarioak dira, burokraziako zereginez arduratzeko liberaturik edo langile iraunkorrik gabe —horrek erakartzen duen lan egiteko erritmo

geldoarekin— eta Interneten erabileraz baliatzen dira talde bakoitzaren barruko nahiz hiru euskal taldeen arteko koordinazioa osatzeko: ekintzak, barne-eztabaidak eta jendaurreko hitzaldiak, trebakuntzako mintegiak eta protestak prestatzeko bilerak.

Amalgama multimilitante horrek sarea aukeratu du koordinatzeko, horizontalki eta bileren bidez; baina talde espirituari eutsiz, nortasun propioa gordez, kanpaina luze baten antolaketa baino harago edo taldeen koordinazio-erakundea izatea baino gehiago, elkarrizketatutako mugimenduko kideen esanetan Golkoko gerran edo Kosovokoan gertaturiko esperientzia *txarrak* errepika ez daitezten.

Bi kanpaina horietan, batzarretan ez ziren pertsona hutsak elkartzen, erakundeen ordezkariak baino, baina erakunde horiek praktika, antolatzeko era eta jarduteko eremu desberdinak zituzten, baita ideologia desberdinak ere; horrek gutxieneko akordioak lortzeko bidea zaildu egiten zuen, mobilizazio bateratueterako deialdia egiteko baizik ez bazen. *Hemen eta Munduan* argi eta garbi daukate elkarrekin bizi izatea beharrezkoa dela, adostasun berriak eraiki behar direla, bakoitzaren ezberdintasunen aberastasunak onartuz eta ahalik eta legitimitate sozialik zabalena bilatuz, baina betiere ekimen bakarrean, bateratuan eta baterakoian, oinarrituta.

### 3.3. *Nortasuna eta borrokatzeko erak.*

*Hemen eta Munduan* osatzen duten kideen hitzetan, baita mugimenduaren agiri eta ekimenetan ere, mugimendua globalizazio neoliberalaren aurkako borrokan ari da, eta bereziki Munduko Bankuaren, Nazioarteko Diru Funtsaren eta Merkataritzako Mundu Erakundearen politiken aurka, horiek jotzen baititu munduko etsai ofizialtzat. *Hemen eta Munduan* taldea borroka Europako herritarrei erabakiak hartzeko duten eskubidea onartzearen aldekoa da, herri guztien autodeterminazioaren aldekoa, giza eskubideen benetako bermearen aldekoa. Pertsonen zerbitzurako ekonomiaren alde eta zerbitzu publikoen bidezko babes sozialaren alde borrokatzen da, baita emakumeen berdintasunaren alde, naturaren eta ingurumenaren alde; ere, planetako herrialde pobreen alde eta desmilitarizatutako mundu baten alde. Europar Batasunaren nekazaritzaren arloko politikaren kontra eta McDonal's-ek bultzatutako elikadura-ereduaren eta janari transgenikoen kontra borrokatzen da. Tokian tokiko borrokari dagokionez, hemen Eusko Jaurlaritzaren eta euskal administrazioen politika neoliberalen eta finantza-enpresen aurka dihardu, besteak beste, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA) banketxearen kontra.

Azpiparratzeko datu bat: *Hemen eta Munduan* taldearen jaiotzaren eta ondoko garapenaren oinarrian mundu guztiko pertsonen eta herrien autodeterminazio-eskubidearen defentsari lehentasuna ematea dela azaltzen da, eta iritzi hori mugimenduaren oinarritzko osagai nagusia da, kideen uste sendoa eraberritzaile eta partekatua. Ezin dira munduko arazoak konpondu edo, besterik ez bada, arazo horiei aurre egin, tokiko errealitatean “zapaldutako herri” bat dagoenean, horrela definitzen dute-eta euskal hiritar gehienek beraiek bizi duten egoera. Ikuspegi hori

egoera berdintsu edo antzeko guztietara zabaltzen da. Hortik dator estaturik gabeko herriekiko edo herri bezala aske bizi ez diren herriekiko nahiz, besterik gabe, beren politika eta ekonomia aske kontrolatu eta antolatu ezin duten herriekiko elkartasuna.

Globalizazioaren aurkako mugimenduaz ari garela, nortasun-borroka hori globalizazio neoliberalaren aurkako borrokaren oinarrian autodeterminazio printzipioa ezarriz gauzatzen da, eta uste izanik gatazka eta konfrontazioa ez direla beharrezkoak, baizik eta gai globalak garatzen dituen eta, aldi berean, tokian tokiko gatazkak —lurralde-mailan mugatutakoak— konpontzen ahalegintzen den mugimenduaren barruan elkar ulertzeari lehentasuna ematea. Mugimenduaren barruan, badira tokiko eremuari erabateko lehentasuna ematen diotenak; badira ere, eremu globalari lehentasuna ematen diotenak eta bada era batera edo bestera, gehiago edo gutxiago, joera nazionalisten espekto zabal bat. Horixe da *Hemen eta Munduan* taldearen ezaugarri nagusietariko bat, Europako gainerako taldeetatik bereizten duena. Euskal Herriko biztanle batentzat garrantzizkoa da bere burua euskal herritartzat definitzea, baina definizio hori ez dagokio aberriaren hautapenari, aberriaren partaide izateari edo aberria kontzeptuaren izateari. Hori baino aurrerago doa. Aberria bada, badago, eta euskal herritarra dena aberri horretako partaidea da. Independentzia eta autodeterminazio printzipioak eta balioak baieztatu nahi dira, eta *Hemen eta Munduaneko* kideek ez dute uste horiek Eusko Jaurlaritzak, toki erakundeek edo nazioarteko erakundeek behar bezala bermatzen dituztenik.

Herrien autodeterminazioari buruzko gaiak, Euskal Herrira etorritz, ingurumenaren egoerarekin eta naturaren defentsarekin du lotura. Joan den mendeko zazpigarren hamarkadatik hona mugimendu ekologista dinamiko bat dago, ekonazionalismo bat sortu duena, beste herri batzuetan —Europako Ekialdeko herrialdeetan, esaterako— ematen denaren desberdina dena (Barcena, 1994; Barcena, Ibarra, Zubiaga, 1997), eta gaur egun globalizazioaren aurkako mugimenduarekin lotzen duena, autodeterminazio eskubidea eta ingurumenaren defentsa elkartzen dituen lotura orijinalaren bidez.

Horrela, *Hemen eta Munduan* taldeko kideentzat Euskadiko lurraldea kalte-tzen duen edozein esku-hartze edo interbentzio-mota, balio ekologikoenganako mehatxua izateaz gain, Euskal Herriaren autodeterminazio printzipioenganako mehatxua ere bada. Hortaz, ziklo bateratuko indar-plantak eraikitzeako proiektuak (egun euskal lurraldean sei eraikitzeako asmoa dago) edo abiadura handiko trenaren “Y” deritzon euskal proiektua erasotzat jotzen dituzte.

*Hemen eta Munduan* taldearen nortasunaren beste ezaugarri batzuk bakezaletasuna eta antimilitarismoa dira. Mugimendu antimilitarista eta intsumisioaren aldekoak indar handia izan du Euskal Herrian, eta gaur egun ere badu (Barcena, Ibarra eta Zubiaga. 1996: 91-124); tradizio horretatik ere elikatzen da *Hemen eta Munduan* mugimendua. 2000ko azaroaren 21eko agiri batean, mundu desmilitari-



zatu baten aldeko konpromiso aktiboa azaldu zen: “... armadek eta ordena-indarrek desberdintasun sozialean eta planetaren beste alde batzuk menpean hartzeko borondatean oinarritutako gizartean aldeko apustueta baino ez dute tokirik. Gizartearen sektore behartsuenengandik sortutako eskariei erantzuteko, zapalkuntza eta biolentzia erabiltzearen aldeko apustueta”.

Euskal mugimendu antimilitarista garrantzi handiko erreferentzia da *Hemen eta Munduan* mugimenduko kideentzat. Eta mugimendu horretatik ikasi omen dute (Patxi eta Josurekin egindako elkarrizketak), nazioartean globalizazioaren aurkako mugimendua kriminalizatzen ahalegindu diren “biolentziaren aitzakiarekin”.

“Ni desobedientzia zibilaren aldeko leiala naiz, eta hori, jakina, hementxe ikasi dut, eta ez globalizazioaren aurkako mugimenduan. Hemen ikasi dut, antimilitaristekin batera militatzen” (Patxi Z.-ri egindako elkarrizketa)

Desobedientzia zibila borrokatzeko tresna eta tokian tokiko biolentziei nahiz biolentzia globalei aurre egiteko konponbideak bilatzeko nortasun eta politikako formula legez erabiltzearen aldeko apustu argia da.

*Hemen eta Munduan* taldearen aktibismoaren azken ezaugarri gisa mugimendu horrek BBVA banketxearekin duen ageriko etsaigoa aipatu nahi dugu. BBVA Espainiako bigarren banketxe nagusia da, eta *Hemen eta Munduanen* tokiko etsai nagusia ere bada. Banketxearen egoitza nagusia Bilbon dago, hiriaren erdi-erdian, 20 solairuko etxe erraldoi batean, hiriko edozein tokitatik ikus daitekeena, bigarren Guggenheim bat dirudiela, eta egoitza hori globalizazioaren aurkako mugimendua borrokatzen den boterearen irudi bilakatu da. Egoitza horren inguruak dira *Hemen eta Munduanek* bere ekintzak egiteko aukeratu izaten duen tokia, eta egoitzako hormak izan ohi dira globalizazioaren aurkako euskal mugimenduari buruzko erreportajeetan eta argazkietan agertzen direnak.

*Hemen eta Munduanek* 2001eko martxoaren 10ean Bilboko Euskalduna Jauregiaren aurrean kontzentrazio bat antolatu zuen, BBVA banketxea toki horretan Akziodunen Urteko Batzarra egiten ari zelako. Mobilizazioaren leloa “Sácale chispas al BBVA” izan zen (Garan, 2001eko martxoaren 9an), banketxeak Latinoamerikan 2000tik 2002ra irabazkinak laukoizteko plana aurkeztean erabilitako hitz berberak ironikoki erabiliz. “...Haren (BBVAren) irabaziak energiaren tarifatik (...) eta petrolioaren igoeretatik ere elikatzen dira, eta energia alferrik galtzera eta ingurumena hondatzera garamatzate (beharrezkoak ez diren hainbat zentral termiko eraikiz eta zentral nuklearrak mantenduz), presa hidroeletrikoak erakiz edo petrolio eta gas atereaz Amerikako indijenen hainbat komunitate lurrik gabe uzten dituzte (...) eta industria militarrean dituzten partaidetzen bidez irabaziak handitzen dituzten bitartean heriotza zabaltzen dute...”, “240 pertsonak osatutako taldean, ez dute ezta %5eko emakume-kopururik ere”, “zerbitzu publikoak pribati-

zatu eta garestitzen dituzte, lanpostuak eta ingurunea suntsitzen dituzte, gerrei laguntzen diete... eta, gainera, hiritarren kontrol demokratiko guztietatik kanpo dauden botere-taldeak osatzen dituzte...”.

### 3.4. Abiapuntua eta etorkizuna: “Glokal”a

Zer nahi du *Hemen eta Munduan* taldeak? Erakundeko kideen hitzen arabera, beste mundu bat nahi du, gaur egungo egoera aldatu egin nahi du eta beste globalizazio bat, neoliberala edo kapitalista ez dena, nahi du. Hurrengo galdera hauxe da, eta zein da horra joateko bidea, horretarako atea irekiko duen giltza?

Inor hurreratzten bada *Hemen eta Munduan* moduko erakunde batera, guztiz zentzuzkoa da zalantza sortu eta definizio- eta konnotazio-arazoak dituen mugimendu baten helburuaz galdetzea.

Zaila zaie mugimendu sozial guztiei epe ertainean eta epe luzean jarduteko eta mugitzeko proposatutako neurriak, jarduerak eta tresnak direla eta, koherentziari eustea. *Hemen eta Munduan* taldeak, globalizazioaren aurkako gainerako mugimenduek bezalaxe, osagai eta diskurtso ugari biltzen ditu bere baitan. Baina herri-ekimen horrek badu ezaugarri nagusi bat, *Hemen eta Munduan* erakundearen etorkizunaz hitz egiterakoan aipatu beharrekoa: euskaldunek, eta are gehiago globalizazioaren aurkako mugimendu horretan diharduten pertsonak, aldarrikatzen duten nazio-nortasunaren eta aurrera daramaten diskurtso globalaren arteko gatazka-egoera bizi dute barruan. Globalizazioaren aurkako Euskadiko mugimendua aztertzean, horixe da antzematen dugun ezaugarrietariko bat, besteekiko bereizten duena. Euskal nortasunaren indarra ez da ageri-agerikoa eta osagai horrek ez ditu berdin baldintzatzen Euskal Herrian bizi diren pertsona guztiak. Mehea, zorrotza eta pertsonala den zerbait da. Ez da adierazten ikurrinaren bidez soilik, ezta mitoak, irudiak eta legendak aldarrikatuz ere. Lurralde honetan bizi-bizirik dauden bizipenen, pentsaeren, jarrerren, jokabideen eta sentimenduen multzo bat da, eta horrek norberaren burua herri zanpatutzat, eta ez guztiz independentetzat edo autodeterminatutzat jotzean sortzen den konpromiso antagonikotik hartzen du indarra.

Abiapuntu hori, globalitatea eta tokian tokikoa elkarri lotutako osagaiak baliara bezala aipatzen den, agian etorkizunean eusteko zail samarra den oreka izan daiteke, baina gaur egun emaitzak ematen ditu. Horren adibidea dugu UGT (sozialista-estatalista) eta LAB (ezker abertzalekoa) sindikatuak, programari eta praktikari dagokienez elkarrekiko hain urrun, MMEren Qatar-eko goi-bilera zela eta, beste hainbat euskal erakunderekin batera batu eta elkarrekin batera jarduteko konpromisoa hartzea.

Era horretako taldekerien aurkako esperientziek, euskal gizartean hain ezohikoak eta hain beharrezkoak izanik, globalizazioaren aurkako ekimenen, *Hemen eta Munduan* barne, etorkizunerako argi-izpiren bat sortzen dute.

#### 4. EUSKAL/EUOPAR ERREFERENTEA DISKURTSO ANTAGONIKOAN

Globalizazioaren aurkako nazioarteko mugimenduak hasiera-hasieratik aurre egin behar izan dio kritika bati: Europako eskuin-muturreko diskurtso chauvinisten Europar Batasunaren kontrako diskurtsoekiko, adibide bat jartzearen, parekotasuna eta horiekin bat etortzea, nahiz eta bat-etortze hori mugimenduaren gustukoa izan ez; edota, bestetik, ekialdeko sekta erlijiosoekiko edo estatubatuar milizia arrazistekiko konkordantzia (M. Castells, 1998).

Gai horretan, *Hemen eta Munduaneko* kideek, gero eta ugariagoak diren Europako eskuin-muturreko erakundeekiko bat-etortze posible horri buruzko galderari emandako erantzunak argiak dira. Globalizazioaren aurkako euskal mugimenduak mestizajearen aldeko apustua egiten du eta, chauvinismoaren edo jingoismoaren jatorriaren inguruko iritziak baztertuz, kulturen arteko harreman horizontalaren aldekoa da.

Euskal hizkuntzaren —euskararen— berreskurapena eta bazterketa positiboa babestea indigenen eskakizunekin bat dator. Euskararik gabe ez dago Euskal Herriari eta, hala ere, zapatismoak erakutsi dien bezala, euskal hizkuntza euskal herriaren ezaugarri kulturala da, Internet erabiliz, babestu daitekeena eta babestu egin behar dena. Beste era batera esanda, “imajinatutako komunitate” horren ikur tradizionalak (B. Anderson, 1983) ez dira berez negatiboak, ez ikurrak izateagatik, ezta tradizionalak izateagatik ere. Ez dira, *Hemen eta Munduaneko* kideen ustetan, beste kultura, ikur eta hizkuntza batzuekiko begirunearekin bateraezinak. *Hemen eta Munduanek* tokian tokiko kulturen “jabekuntza”ren (ingelesezko *empoverment*) bidea hautatu du, kontzeptu hori herrien eta pertsonen autodeterminazio askea deritzon kontzeptuarekin lotuz.

Hala eta guztiz ere, zenbait esanahi dituzten hitz edo terminoen arteko gatazkak hortxe dirau, erabiltzailearen eta erabiltzeko eraren arabera. Eta erantzunak bereizteak eta, batez ere, sistema politikoaren barruko erantzun nazionalen eta erantzun nazionalisten arteko bereizketak terminoen arteko gatazka sortzen du. Batetik, nazionalismoa izeneko terminoa, aurpegi bikoitza duena: autodeterminazio, autonomia eta independentziaren aldekoa eta bestea, tradizionalismoa, itxiera eta *status quo*aren mantentzearen alde dagoena. Bestik, globalizazioa, hitzaren definizio askotarikoekin, baina ezaugarri nagusizat, besteak beste, ekonomia eta alde neoliberalak dituena.

Nazionalismoa eta globalizazioa itxuraz elkarrengandik urruti dauden osagaiak dira; baina errealitatean, euskal errealitatean bertan ikus dezakegunez, euskal erakunde autonomikoek 20 urte daramatzate alderdi nazionalisten eskuetan eta alderdi nazionalista horiek munduko ekonomiaren arazoetan daude sartuta, eta behin eta berriro neurri politiko eta ekonomiko neoliberalak proposatu izan dituzte. Horrek ez du esan nahi ageriko gatazkarik ez denik, hau da, hemengo nazionalismoa globalizazio ekonomikoarekin ahaidetu nahi den nazionalismo erregionala da,

oraingoz politikoki onartuta ez dagoen nazionalismoa da, eta, bestetik, gizarte zibilaren laguntza masiboa lortu ez duena. Euskal gizartean indar nazionalisten arteko baieztapen-aldien eta globalizazio neoliberalaren arteko desoreka antzeko egoera hautematen da. Ekonomia kapitalista eta neoliberalak dituzten beste herrialde *globalizatu* batzuetan, independentzia edo autodeterminazioaren inguruko arazo politikoak iraganeko arazoak, iraganeko oroitzenak dira. Madrilera eta Parisekiko harreman-zailtasunek, baita barruko kontrasteek eta bakearen arazoak ere, euskal testuingurua ahaldu egiten dute Euskal Herrian, bat-bateko aldaketak eragiteko arrisku-egoeran utziz.

Estaturen gaineko erakundeek, estatu-nazio finkatuak eta estaturik gabeko nazioen edo autonomien arteko kontraesan “nazionala” alde batera utzita, *Hemen eta Munduanek* ez du erakunde horiek guztiek egun garatutako eredu inolako ezberdintasunik ikusten. Garapeneko euskal/espainiar/europar eredu neoliberalak bakarrik da eta logika kapitalista bakarrari erantzuten dio, kudeatzaile eta ahots ezberdinak, eta batzuetan interes kontrajarriak, baditu ere.

*Hemen eta Munduanek* Europar Batasunarekiko aurre egiteko moduko diskurtsoa du, eta jaio zen unetik Europako foro eta goi-bileren aurkako ekitaldietan hartu izan du parte. Mugimenduaren ustez, EBk bere diskurtsoan garapen jasangarria, ekokonsumoa, eraginkortasun ekologikoa edo baliabide berriztagarriak hitzak sartu baditu ere, besteak beste, egia esan EB erakunde sasikontinentala da, bere merkataritza eta inbertsio-politiketan, energia- eta garraio-politiketan, nekazaritza-ereduetan eta lurralde-antolamendurako ereduak, liberalizazio- eta desregulazio-prozesuak bultzatzen dituena. “Europar Batasunak etengabeko produkzioan eta kontsumoan, pertsona eta merkantzien gero eta lekualdatze ugariagoetan, nekazaritza industrializatuan, gastu sozialen murrizketan, enpresen pribatizazioan, planetaren eremu zabalen kontrolean, “Europa gotorlekua”n, ingurumenaren degradazioan, finantzen espekulazioan... horietan guztietan oinarritutako garapen-ereduari erantzuten dio, hau da, eta labor esanez, hazkunde ekonomikoan eta mundu osoan eta gure bizitzaren eremu gehienetan merkatuak sortzean baino ez oinarritutako ereduak. Europar Batasuna, NMFrekin, Munduko Bankuarekin, G-8rekin... batera, globalizazio ekonomikoa bultzatzen duten eragileek artean, beste bat da” (*Hemen eta Munduan*. Iruñeko Foro Soziala. Iruñea, 2002ko apirila).

Europar Batasuna, bertan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea estatuek bakarrik izanik, nekez izan daiteke arazo “glokal”ak konpontzeko eremua. Hortxe dago euskal elite politiko-ekonomikoen eta globalizazioaren aurkako mugimenduaren arteko oinarritzeko beste alde bat. Haien artean EBren baitan protagonismoa irabaztea euskal arazoaren konponbidearen zati bat izan badaiteke ere, *Hemen eta Munduan* taldearentzat tokian tokiko arazoak eta arazo globalak konpontzen has-teko beharrezkoa litzateke “beste” Europa bat, baina mugimendu horretako kideek “Europa S. A.” deitzen dioten Europa horretaz guztiz bestelakoa.

*Hemen eta Munduan* taldeko kideen iritziak ez du zalantza-izpirik uzten: “Europaren eraikuntzaren historian orain arte ez da sekula ere hainbeste jende batu gobernuek guretzat eraikitzen diharduten Europaren kontra egiteko... Ezin dugu ahaztu ongizatearen gizarte hau planetaren gainerako herriak esplotatu eta espoliatzen dituen sistema ekonomiko baten menpe egiten ari dela. Planetaren bi herenak nekez bizi dira, gure herriak Europa sozial honetaz goza dezan” (Jon Sanz eta Ainhoa Subinas. *Hemen eta Munduan*. “Sevilla otro paso en la Europa Neoliberal”. Garan, 2002ko ekainaren 21ean).

## 5. ONDORIO GISA

Globalizazioaren aurkako mugimenduan zer dagoen berri galdetzen digutenei esan diezaiekegu mugimendu berri horren berritasuna ez dela erakundeen aurkakoa, transnazionalen aurkako edo kapitalismoaren aurkako mugimendua izatera mugatzen. Mugimendu hori “kapital internazionala”ren erretorika zaharra baino aurrerago doa, Berlingo harresia erori ostean hiltzorian zegoen ezkerren iratzarraldia eta agian berriro osatzea ekarri baititu (Cockburn eta beste batzuk, 2000:4).

Euskal Herriko egoerari dagokionez, berrikuntzak, gure ustetan, bat baino gehiago dira. Batetik, nazioarteko elkartasun-erakundeen egiteko moduak zein gizarte-mugimenduek euskal nazio auziaren inguruan erabiltzen duten diskurtsoa eraberritu dituen diskurtso *global* bati hasiera eman diola.

Horrez gain, mugimenduen arteko langak edo mugak hautsi egin dituela, ekintzarako gutxieneko batasuna izeneko politikak alde batera utzi eta mugimendu zahar eta berriak elkartu egiten dituela eta desberdintasunaren adostasuna bilatzen duela. Orain arte egindako bidean euskal gizartearen zati handi bat erakartzeko eta horren legitimitatea irabazteko gai izan da eta, hori gutxi izango balitz, oraindik itxaropentsuago izateko bidea ematen diguna, euskal politikaren barruan berez dagoen banaketa sektarioa dela eta, lankidetzeta eta bat-etortze mota guzti-guztiak saihesten dituzten indar eta sektore sozialen bateratzea lortu du.

Globalizazioaren aurkako ekimen berri hauen berritasunik handiena, baita *Hemen eta Munduan* erakundearena ere, porrot egin zuen 90eko garapenerako GKEen laguntza-internazionalismoa eta, bestetik, ezker marxistaren inperialismoaren aurkako diskurtso eta ideologia zaharkitua baino aurrera egin nahi izan dutela, etxean bertan, Iparraldean, Mendebaldean, jarduten ahaleginduz, eta onartuz mundu osoa ez dagoela globalizatuta eta aldatzeko itxaropena tokian-tokian eta munduan jarduteko pentsamenduaren batasunean oinarritzen dela.

Mugimendu sozial horren berrikuntzarik interesgarriena, agian, globalizazio *txarraren* eragile nagusiei izen-deiturak (ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz) jarritzeaz gain, jakin badakiela bidea luzea dena eta alternatiben eraikuntzak, besteak beste, mugimendura hurbiltzen diren (mugimenduak komunikabideetan duen arrakastak eraginda edo mugimenduak ezkerrentzat izan dezakeen indar eraberritu

tzaile eredugarriak bultzatuta) ezkerreko erakunde tradizionalakiko (alderdi eta sindikatuekiko) irudimen handiko eztabaidaren premia duena.

Globalizazioaren aurkako mugimenduak badaki, nahiz eta indartsua, iragarlea, sortzailea eta ameslaria izan, eragile sozial bakarra ez dela gai orekarik gabeko anabasa handi honi aurre egiteko, eta mugimendu horren lankidetzeta eta kooperazio-eredu berriak “bidea, eginez egiten da” printzipioaren gauzatze politikoa dira.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Abellán, J. L. (1997): “Nacionalismo y Globalización”, *El Pais*, (1997-VIII-29), Madril.
- Ajanguiz, R. eta Barcena, I. (2001) : *Euskal Herriko gizarte mugimenduak*, Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Anderson, B. (1983): *Imagined communities*, Verso, Londres.
- Atxutegi, E. (2002): “Erronka”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-VI-25, Donostia.
- Barcena, I.; Ibarra, P.; eta Zubiaga, M. (1996): “Movimientos sociales y democracia en Euskadi”, *Mientras Tanto*, **64**, Bartzelona, 91-124.
- Barcena, I; Ibarra, P; eta Zubiaga, M. (1996): *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización en el Movimiento Ecologista Vasco*, Libros de la Catarata, Madril.
- , —————, —————, (1997): “The evolution of the relationship between ecologism and nationalism”, In Redclift, M.&Woodgate, G. *The International Handbook of Environmental Sociology*, Edward Elgar, Chentelham (GB), 300-331.
- , (1994): “¿Etno-ecología o eco-nacionalismo? Breve introducción a la realidad nacional y ecologista en Ucrania, Estonia y Euskadi”. *Ecología Política*, **7**, Icaria, Bartzelona.
- , (2001):” Globalizazioa eta Historiaren berpizkunde posiblea”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-VII-11a, Donostia.
- Beck, U. (1992): *Risk Society. Towards a New Modernity*, SAGE, Londres.
- , (1998): *¿Qué es la globalización. Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Paidós, Bartzelona.
- Castells, M. (1998): “La era de la Información. Economía, Sociedad y Cultura”, 2. liburukia, *El poder de la identidad*, Alianza Editorial, Madril, 96-135.
- Chomski, N. eta beste batzuk (2002): *Los límites de la globalización*, Ariel, Bartzelona.
- Cockburn, St.Claire & Sekula (2000): *5 Days That Shook the World. Seattle and Beyond*, Verso, Londres.
- Eguzki Irratia (2001): *Acción Global de los Pueblos. Resistencia al neoliberalismo en los cinco continentes*, Eguzki Banaketak, Iruñea.
- Giddens, A. (2000): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Taurus, Madril.

- Hemen eta Munduan (2002): “Porque tenemos otras energías”, Iruñako Foro Soziala, apirila, Iruñea.
- Juaristi, P. (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, Euskaltzaindia - BBK Fundazioa, Bilbo.
- Martinez, Z. (2002): “Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritzza: globalizazioaren inguruko diskurtso sozio-ideologikoak”, *Uztaro*, **41**, Bilbo.
- Mendizabal, A. (1995): “Internacionalización, globalización y desvertebración de las sociedades periféricas y las naciones sin Estado”, in *Zenbaiten artean, 50 años bastan. Las otras voces del Planeta*, Talasa, Madril, 170-196.
- Rifkin, J. (2001): “Un nuevo actor en la escena global”. *El Pais*, (2001-VII-4), Madril.
- Romano, P. (2002): *Jaque al a globalización. cómo crean su red los nuevos movimientos sociales y alternativos*, Mondadori, Bartzelona.
- Sanz, J. eta Subinas, A. (2002): “Sevilla otro paso en la Europa Neoliberal”, *Gara*, (2002-VI-21), Donostia.
- Sommier, I. (2001): *Les nouveaux mouvements contestataires à l'heure de la mondialisation*, Flamarion, Paris.
- Wallerstein, I. (1997): *El futuro de la civilización capitalista*, Icaria, Bartzelona.
- Zuberogoitia, A. (2000): *Globalizazioaren adarrak*, Alberdania, Donostia.





# **Naturaren kontserbazioa eta ingurumena.**

## **Urdaibai: izadia, baserria eta gizakia**

### **jasangarritasunaren kabian**

Xabier Arana Eiguren, *Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren zuzendari-artatzailea*

#### ***NATURAREN KONTSERBAZIOA ETA INGURUMENAREN BABESA, LURRALDE-ANTOLAKETAZ BALIATUZ***

XXI. mende honen hasieran gure gizarte kaletarrak —postindustrialak eta motorizatuak— lurralde osoa behar omen du bere beharrianak asetzeko. Hortara, bizi eta atsedean hartu, lan egin eta aisirako uneak bilatzerakoan lurralde osoari (agian planeta osoari) begira dago. Horregatik, ezinbestekoa da lurraldean egingo ditugun jarduerak ondo neurtzea eta antolatzea. Izan ere, landa-esparruko biztanleak (base-rritarrak) beren habitat-etik bultzadaka baztertzen ari gara, eta, bestetik, naturaren kontserbazioak —ondare kulturala dela ahaztu gabe— erabaki eta estrategia tin-koak behar ditu gure gizartearen dinamika bortitzaren aurrean. Ekosistemak, biodibertsitatea eta naturaren prozesu naturalak neurri handi batean gure jardueraren eraginpean daude, onerako eta txarrerako.

Goian egindako hausnarketa are zentzuzkoagoa da horren populatua den gure Euskal Herrian, gainera herritarren dentsitate-indizeak muturrekoak izanik lurraldearen toki batetik bestera.

Horregatik guztiagatik, lurraldearen erabilpenerako, antolaketarako eta babe- serako bide desberdinak jorratu dira azken hamarkadetan mundu osoan. Hasieran, naturak eta gizakiaren trebetasun mugatuak erakusten zuen “zer gauza non egin”: lurzorua erein haraneko lautadan edo etxebizitza egin uholde-lautadatik urrun. Baina gizartearen gaitasun teknologikoa handituz joan ahala, gero eta baldarragoak bihurtu gara erabakiak hartzeko orduan. Gehiago dakigu, indartsuagoak gara, gure jakintza eta eskarmentua, ostera, bigarren mailan uzten dugu.

Munduko zenbait tokitan naturagune babestu ikusgarriak babesteko sustatu zituzten ekimenak ahaztu gabe (Yellowstone, Serengeti,...), lurraldea antolatzeko premiak lehendabizi hirigintzaren bidea hartu zuen. Jokabidea oso erraza zen, hau

da, herri edo hiri urbanoak bere hazkuntzarako behar zuen espazio guztia hartzen zuen eta gainerakoa, landa-eremua, hondar modura uzten zen. Hau da, eremu urbanoak berea asetzen zuen (alde hirigarriak, azpiegiturak, urtegiak, zabortegeiak eta abar) eta baserri-lurra zuzenean okupatuak izaten ziren, gainera azken espazio honetarako ia inolako antolaketa edo erabilpen-arautegirik ez zen ezartzen. Hirigintza-tresna nagusiak Hirigintza Antolaketarako Plan Orokorra, Ordezko Araua, Eskualdeko Planak eta Plan Bereziak ziren.

Hala ere, zoruaren legak bazituen gaitasunak natura babestu eta landa-eremuko lurraldeak antolatu eta era jasangarrian erabiltzeko. Horrela, alde baliotsuak babesteko bi tresna zeuden: a) Babes Bereziako Eremuen kalifikazioa (besteak beste, hezeguneak edo basoak babesteko); b) Paisaia eta natura-baliabideak babesteko Plan Bereziak. Azken tresna hau oso zabal erabili da Katalunian, izan ere 144 naturgune daude babesturik planifikazio-tresna honen bitartez (Garrotxa parkea edo Montseny biosfera-erreserba, esaterako). Gugandik gertu Txingudiko badia dugu adibiderik hurbilena.

Baina zalantzarik gabe lurralde-antolamenduaren estrategian eta natura babesteko orduan, naturguneen izendapena izan da azken 20 urteetan erabili den bide zabalena eta oparoena. Gaur egun, Bardeetara joan edo Itxinan galdurik gabiltzalarik, parke natural, biotopo babestu, biosfera-erreserba, erreseba naturalak, kostalde babestuak eta antzeko izendapenak eta kategoriak aurkituko ditugu (ikus I. eraskina). Munduan zehar milaka milioi hektarea daude babestuta (paperaren gainean bada ere), naturaren kontserbazioa abiapuntu harturik. Gainera, nazioarteko sareak eta hitzarmenak ere jorratu dira, Lurraren gainazal osoa laztandu nahirik edo. Ramsar hitzarmena (hezeguneena), Natura 2000 sarea (Europako naturguneen sistema), munduko Biosfera Erreserben sarea (UNESCO) edo biodibertsitatea babesteko itun desberdinak kontzientzia berriaren adierazle nagusiak dira.

Ez dugu espazio horien kudeaketan sakonduko; baina gure legedien arabera, bi tresna nagusi daude atxikita naturgune babestu horiei, hots, natura-baliabideen antolaketarako planak (NBAP/PORN) eta erabilpen eta kudeaketarako egitamu-gidariak (EKEG/PRUG). Lehenari dagokionez bi azalpen garrantzitsu eman behar dira, izan ere NBAP/PORNak gainerako lurralde-planeamendu gainetik dira hierarkiko eta, bestetik, antolaketa-tresna horiek ez dira naturgune babestuetara mugatzen, legez lurralde oro antolatzeko eta natura-baliabideak babesteko erabiliak izan baitaitezke.

Baina lurralde osoari so eginez, badira bestelako tresna garrantzitsuak, horiek ere natura babesteko balio dutenak, baita lurralde osoko ondare eta baliabideak era jasangarrian erabiltzeko edo poliki-poliki hartzeko ingurutik ere. Horiek guztiak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketarako Legearen seme-alabak dira: Lurralde Antolamendurako Artezpideak (LAA/DOT), eta horren garapenerako

aurreikusita dauden Lurralde Zatikako Planak (LZP/PTP) eta Lurralde Alorreko Planak (LAP/PTS). Ikus II eraskina.

Lurralde Antolamendurako Artezpideek, ondoko 7 antolaketa-kategoriak proposatzen dituzte lurraldearen sektorizaziorako: Babes berezia, ingurumenaren hobekuntza, basoa, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako zona eta landazabala, mendiko larreak, lurrazaleko uren babesa eta, amaitzeko, erabilera-bokazioa definitu gabea. Bestalde, ingurune fisikoan aurki ditzakegun “Baldintzatzaile gainjarriak” ere definitu zituen: Akuiferoen urrakortasuna, eremu higagarriak, uholde-eremuak eta naturgune babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Lurraldearen antolaketarako kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak harturik, gero ingurune fisikoaren antolamendu-matrizeak egokitu behar dira, lekuan lekuko erabilpen eramangarriak edo egokienak definitu ahal izateko.

Nafarroari dagokionez, Lurralde Estrategia orokorra onartua izan ondoren, eskualdez eskualdeko eredia lantzen ari dira; horrela, naturaren kontserbazioa, landa-garapena eta hiri-sistema arteko oreka bilatu behar dute.

Atal honi bukaera eman aurretik, eta natura era egokian erabiltzeko tresnak badirela azpimarratu nahirik edo, aintzat izan behar dira zenbait arlo desberdinen legedia: kostaldearen legea, uraren legea, baso edo mendien legea eta abar, ahaztu gabe Europatik datozen arteztarau garrantzitsu eta betebeharrekoak (hegazti, habitat, ur, ibaiak, atmosfera...).

Adibide gisa, hona hemen natura babestu eta lurraldea antolatzeko era desberdinak:

- **Gorbeia:** Parke naturala eta Itxinako biotopo babestua.
- **Txingudi-Plaiiaundi:** Plan berezia. Ramsar hezegunea.
- **Bardeak:** Parke naturala eta Biosfera Erreserba.
- **Abbadie ingurua:** Kostaldea babesteko eremua.
- **Asturias:** Natura-baliabideen antolaketarako plana (NBAP) onartu zen Printzerri osorako. Aipagarria da antolaketa-tresna indartsu hori erabili izan zelako herrialde osoaren lehentasunak azpimarratzeko eta bermatzeko.
- **Urdaibai:** Lege propioa, Biosfera-erreserba. Gainera Ramsar hezegunea.

## ***URDAIBAI, BIOSFERA-ERRESERBA***

Aurreko atalean ikusi dugunez, Urdaibaik bide bitxia hartu zuen bere erronkei aurre egiteko. Izan ere, UNESCOk biosfera-erreserben munduko sarera gehitu ondoren 1984. urtean, Eusko Legebiltzarrak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren

Babeserako eta Antolaketarako legea onetsi zuen (1989). Izendapenaren eta legearen irizpide nagusiak hauek dira:

- Itsasadarra babestu nahi bada, arro hidrografiko osoa era jasangarrian kudeatu behar da.
- Natura babestu behar da, baina tokiko garapena ahaztu gabe.
- Ekosistemen kontserbazioak landa-eremuko lehen sektoreen jarduerak eta paisaia mantzentzea eskatzen du.
- Urdaibai gure Herriaren eta munduaren lagina da; bertako eskarmentuak, onak eta traketsak, zabaldu beharko dira.
- Kontserbazioa eta garapena uztartzeko, ikerketa, informazioa, heziketa parte-hartzea eta etengabeko ebaluazioa ezinbestekoak dira.

Ondoko taulan (ariketa-modura nork bere erara bete dezake) Urdaibaiko ondarea, herritarren beharrizanak (?) eta prozesua sendo abiatzeko behar diren atalak aurkeztu dira, biosfera-erreserben hiru eginkizunak aintzat izanik: Kontserbazioa, Garapena eta Laguntza logistikoa. Jakina, munduko edozein lekurako baliagarria da tokikoak bere erara moldatzen baldin badu.

### 1. taula. Ondarea, baliabideak, beharrizanak eta tresna-bideak

MUNDUA / EUSKAL HERRIA / URDAIBAI / GURE UDALERRIA / ...		
LURRALDEA		GIZAKIA
<b>KONTSERBAZIOA</b>	<b>GARAPENA</b>	<b>LAGUNTZA</b>
Ekosistemak	Elikagaiak	Informazioa
Ura	Arropak	Komunikazioa
Lurzorua	Osasuna	Ikerketa
Airea	Lana	Formazioa = Gaitasuna
Biodibertsitatea	Etxebizitza	Ingurumen-heziketa
Ondare kulturala (baserria, euskara...)	2. bizitza - txaleta	Parte-hartzea
Tokiko identitatea eta ohiturak	Heziketa - kultura	Elkar ulertzea
Ingurumena babestu (beharrizan filosofikoa)	Oporrak + bidaiak	Bakea
...	Autoa – motoa	Gardentasuna
Paisaia	Itsasontzia	Demokrazia
	Kirola-aisia	Lankidetzeta-elkartasuna
	(ehiza, mundua ezagutu...)	

Urdaibaiko biosfera-erreserbaren bidetik abiatuta, behin legea onartua izan ondoren, ondoko tresnak jarri ziren indarrean lehen ekogarapena eta orain garapen jasangarria deritzon erronkari aurre egiteko:

1. Legez babestu ziren lurralde-eremuak: estuarioa/itsasadarra, kostaldea (Izaro uhartea barne), kantauriar artadiak eta, gainera, kokaleku arkeologikoak.
2. Administrazioen eta tokiko eragileen topagune eta parte-hartze mahaiak sortu ziren: Urdaibaiko Zaingo-batzordea (2000ko urtarrila) eta Lankidetzakontseilua (1997).
3. Erabilpen eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria (EKEG). Antolaketa-tresna horrek lurralde osoaren antolaketa egiteaz gain, eskualde honen harrera-gaitasuna edo zama-ahalmena definitu zuen. Natura eta paisaiaren ikuspegitik balioetsuak diren espazioak identifikatu eta nekazaritzarako aberatsak diren lurzorua ere babestu zituen.
4. Eskualdearen garapena bermatzeko tresna adostu zen, eragile guztiekin, eta ondoren, onetsia izan zen: Jarduera sozioekonomikoen garapenerako eta egokitzapenerako programa, hain zuzen. Gainera, lana prestatzeko erabili zen metodologia ikusita eta gizarte-gaiak barneratu dituela aintzat izanik, Urdaibaiko Tokiko 21 Agenda balitz bezala erabiltzen da.
5. Ikerketa, informazioguneak, ingurumen-heziketa, jardunaldiak, partaide-tzakako bideak, gardentasuna eta abar sustatu dira goiko tresnei ganorazko jantzia gehitzeko. Puntu honetan, Interpretazio, Ikerketarako eta Heziketarako ingurumen-plana (IIHIP) (1997) aipatu behar da.
6. Udetxea jauregia (Gernika-Lumo), Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren egoitza, baina baita espazio honen informazio gune nagusia (dokumentazio zentrua barne) ere, eta talde eta eragile desberdinen topagunea.

Esan beharrik 2004. urtean, UNESCOren izendapenaren 20 urte betetzeko direnean, oraindino helburu asko gauzatzeke daudela, eta lan zaila eta neketsua dagoela aurretik.

Hala ere, EZINA EKINEZ EGINA esana brankan jarrita aurrera egitea da bide bakarra. Bestalde, ez da ahaztu behar Urdaibaiko inguru fisikoaren hobekuntza eta tokiko biztanleen eta gizartearen garapena eragile guztien ardura dela. Antzetzoki honetan bai Administrazio publiko guztiek bai gizarte-aktore orok badute eginkizuna eta zeresana. Zentzu horretan, argi gera dadila Urdaibaiko Patronatuak, zeina Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailari atxikita dagoen, ez dituela bereganatu gainerako eragileen esku-menak eta betebeharrak. Hortara, Urdaibaiko Patronatuaren eginkizun nagusiak ondoko hauek dira: ekosistemak babestu, lurralde-antolaketa bermatu, ingurumena arlo guztietan txertatu eta garapen jasagarria hedatzeko laguntza eta tresnak eman.

Hurrengo taulan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gai garrantzitsuak eta alde makalak aurkeztu dira. Taula hau ere ariketa modura osa dezake nork bere erara. Gure eskualde, herri, edota auzoan ere egin dezakegu ariketa bera.

## 2. taula. Urdaibai, jasangarritasunaren erronkak

KONTSERBAZIOA	GARAPENA	LAGUNTZA
<b>Legea – PRUG</b>	<b>PADAS</b>	<b>IIHIP</b>
<b>Akuiferoa kutsatuta</b>	<u>Sektore ekonomiko ugari</u>	<u>Zaingo-Batzordea</u>
<u>Babes bereziko eremuak</u>	<b>Langabezia</b>	<u>Lankidetzatza kontseilua</u>
<u>Arkeologia inbent.</u>	<b>Etxebizitza garesti eta ugariak hutsik</b>	<b>Gatazka dialektikoa bizirik</b>
<u>Itsasadarra ondo</u>	<u>Bertoko ura nahikoa</u>	<b>Desadostasunak oraindik</b>
<u>Kostaldea bikain (Prestige aurretik behintzat)</u>	<b>Igandezale asko, turista gutxi</b>	<u>Ikerketa, Dibulgazioa</u>
<b>Landazabala mehatxatuta</b>	<u>Energia-ingurumena plana</u>	<u>Ikastaroak</u>
<u>Nekazaritzarako lurak babestuta</u>	<u>Garraio publikoaren alde</u>	<u>Urteroko jardunaldiak</u>
<b>Landare inbaditzaileak</b>	<b>Lurraren gaineko espekulazio handia</b>	<u>Konposta egiteko ekimena</u>
<u>Oihana: kantauriar artadia</u>	<u>Zabortegeiak itxita</u>	<u>Partaidetza sustatu (GAP)</u>
<u>Laida eta Lagako dunak</u>	<b>Industria oso ahulduta</b>	<u>Galtzagorriak (boluntarioak)</u>
<b>Aulki elektrikoak airean</b>	<b>Baso-lan kaltegarriak</b>	<b>UNESCO KATEDRA</b>
<b>Urdaibai: 3000 espezie</b>	<b>PADASa garatzeko borondate</b>	<b>Ebaluazio-sistema falta da</b>
<b>Natura/ingurumen balioak</b>	<b>nahikorik ez</b>	<u>Lan-taldea finkatu gabe</u>
		<u>Helmuga argi, sasien gainetik</u>
		<u>Giza baliabideak bikainak</u>

### Gai garrantzitsuak (azpimarratuta)-Arazoak edo alde makalak (beltzez)

Goian ikusi denez, lurraldera eta bertan dagoen gizarte eta sistema ekonomikora hurbiltzen garenean jasangarritasunaren ikuspegitik, jorratu behar diren ahalmenak, arazoak eta erronkak ugari dira. Goian, adibide gisa, bururatutako gutxi batzuk besterik ez dira. Lurraldeko Planak aztertzeke, herriko planeamendua pentsatzeko, Tokiko 21 agenda bideratzeko eta abarretarako azterketa- eta gogoeta- taulak oso lagungarriak dira.

### ***LURRALDE-EREDUAZ, NATURAREN KONTSERBAZIOAZ, JASANGARRITASUNAZ ETA URDAIBAIZ ZENBAIT GOGOETA***

- Lege, arautegi, tresna eta bide ugari daude naturaren kontserbazioa eta natura-baliabideen erabilpen jasangarria bermatzeko.
- Naturaren kontserbazioa, eremu zehatzetara mugatu beharrean lurralde osora hedatu beharko litzateke, zenbait lehentasun-maila ezarriz.
- Maila askotan, herrialde- edo probintzia-mailan esaterako, lurralde- eta garapen-ereduak ezezagunak dira, eta praktikan zelan gauzatzen diren ikusten dugu.

- Herri trinko edo giza habitat sakabanatuaren eztabaida Euskadiko Autonomia Erkidegoan behintzat amaituta egon beharko litzateke, gure lurraldea ez delako zabala eta mendi arteko espazioak eta baliabideak mugatuak direlako.
- Babes-eremuak zerrendatzen direnean, nekazaritzarako lurzoru aberatsak, hezeguneak, akuiferoak, hilarako-basoak eta abar kontuan izan behar dira.
- Bestalde, lurraldearen izaera horrek lurralde-antolaketaren premia areagotzen du.
- Ingurumenaren ikuspegitik lurralde iragazkorra behar da, korredore ekologikoak daudenean, naturaren autopista soil modura diseinatu beharrean.
- Hurbiltasun-printzipioa gogoan izan behar da: distantziak murriztu behar dira (lanpostu-politika, auzoko dendak) eta joera desegokiak baztertu (Zelanda Berriko sagar ekologikoak !?).
- Herrietan oinezkoari lehenetasuna eman, autoa bigarren mailara eramanez. Eskubideak pertsonentzat dira, ez makinetarako.
- Lege ugari daude, baina ez dira goitik bera betetzen edo garatzen. Bestalde, plangintza asko dira abian, baina agian ez dute emaitzarik ikusiko. Lehehengo legeak betearaztea eskatu behar da, ondoren plangintza poliki denen artean adostu, gero onartu eta, azkenik, gauzatu.
- Plangintza egitean bi martxa daudela dirudi: adreilu edo ekonomia-arlokoak abiadura bizia daramate, ingurumen-arlokoak, ordea, txirrindularena.
- Garapen jasangarriak, prozesu osoa eta aberatsa izan dadin, informazioa, aktore guztien formazioa eta partaidetza eskatzen du. Hala ere, nork bere mailan eman dezala ahal duena.
- Jasangarritasuna lurralde fisikotik gure espazio psikosozialera ere eraman behar dugu. Zein da gutariko bakoitzak duen garapenaren, naturaren edo bizikidetzaren irudia? Informazioa eta kontzientzia garatu behar dira jasangarritasuna gure balioen artean ager dadin adiskidetzeta, askatasuna, bakea, demokrazia eta bestelako balioen multzoan. Agian, nork bere 21 Agenda pertsonala landu beharko luke (gero lanera, eskolara, kalera edo bidaiari eramateko).
- Oro har, jarduera egoki edo zuzenen arloan gabilitza gure espazian (Europar, Euskal Herrian). Eredu bikainerantz jo beharko genuke poliki.
- Nahiz eta hanka sartzeko arriskua izan, parte hartu naturaren kontserbazioan, lurralde-antolaketa lanetan, zure herriko edo ikastetxeko Tokiko 21 Agendan, estropezu eginez ikasten baita ibiltzen eta hurrengoan gauzak hobeto egiten.

- Amaitzeko, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak oso bide konplexua eta ausarta hartu zuen bere garaian; izan ere, erronkak ugariak dira oraindik, baina egindako aurrerapenak gizarte-mailan gero eta gehiago balioesten dira.

## **I. eraskina**

(Adibide gisa)

### **PARKE NATURALAK**

EAE: Aiako harriak, Aralar, Gorbeia, Izkiz, Pagoeta, Urkiola, Valderejo

Nafarroan: Bardeak, Bertiz, Urbasa

### **BIOSFERA-ERRESERBAK**

EAE: Urdaibai

Nafarroa: Bardeak

### **BIOTOPO BABESTUAK (EAE)**

Biasteriko hezeguneak, Gaztelugatxe, Inurritza, Itxina, Leizaran ibaia

### **NATURA-ERRESERBA (Nafarroa)**

Larra....

## **II. eraskina**

### **EAEko LAA/DOT**

#### **LZP/PTP (Eskualde-egiturak)**

Hasierako onarpena dutenak: Arabako erdialdea/ Arabako Errioxa / Aiara / Deba barrena / Deba Garaia / Goierri / Urola kosta

Aurreko agiria: Durangaldea / Gernika-Markina / Arratia

Hasierako faseetan: Enkarterriak / Bilbo metropolitarra / Donostia-Beterri / Mungialde / Toloserri.

### **LAP/PTS**

Onartuta:

- Ibaiertzak eta erreken ertzak antolatzeke.
- Trenbideak.
- Energia eolikoa.



Aurreagiriak:

- Landa eta basoko eta natura-ingurunea.
- Hezeguneak.
- Itsasertza.
- Etxebizitzen sustapen publikoa.
- Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta merkataritza-hornikuntzak.
- Euskal Kultura Ondarea.
- Portuak.
- Baliade turistikoaren antolamendua.



# **Klimaren eta lurraren gaineko gogoeta-uholdeak oinarri**

Iñaki Antiguiedad, *EHU-Geodinamika Saila*

## ***ATARIKO MODURA***

Gizakiek globalizazioa asmatu aurretik ere betidanik izan da beste globalizazio bat, berezkoa: atmosferak, ozeanoak eta lurrak elkarren eraginez sortzen dutena. Klima esan edo ziklo hidrolotikoa esan, biak dira uztarriaren parte. Sistema global hori berez da aldatorra, espazioan zein denboran. Gaur egungo kontua ez da klima aldatzen ari ote den, aldatzen ari ote garen baino. Klima berez aldatu denean, modu kontrolatuan izan da. Baina klimaren azken hamarkadetako bilakaeran, berezko aldatetari gizakiek sortua gehitu zaio, azken horrek naturak dituen berezko kontrolbideak atzekoz aurrera jarri dituela. Horren ondorioz, azkartu egin dira naturako prozesuak. Bestalde, gaurko globalizazio ekonomizista lurraldearen eraldaketa eta, askotan, hondamena sortzen ari da han-hemen, iparrean zein hegoan modu desberdinean egiten bada ere, funtsezko diren natura-baliabideak agortzeko bidean jarritz, uretatik eta lurretik hasita. Lurraldearen eraldaketa horrek ere badakar naturako prozesuen azkartzea. Aldaketa globala (*global change*) diotena, zalantza ugari dituen aldaketa. Horren gaineko gogoetari eusteko badira zenbait bide, baina hemen *natura-arriskuak* esaten den horiena hartu da hizpide, uholdeak batez ere. Uholdeen aitzakian hainbat kontu bildu dira idazlan honetara elkarren uztarrian, batzuetan sakonago, arinago besteetan, helburu argi batekin: berezkoa eta antropikoa hobeto desberdintzen ikasi, gure gogoetarako oinarriak zabaldu eta, horren ondorioz, jator jokatu nor berean.

## ***KRISIA BAI, BAINA EZ URARENA***

XXI. mendearen hasierako honetan, ura aurreko hogeii mendeetan ez bezalako eta ez besteko presioa jasaten ari da, mundu zabalean edonon jasan ere. Berrikitan, 2003ko martxoan, Japonian izan zen Uraren Munduko Hirugarren Forora begira Nazio Batuen Erakundeak prestatutako txostenak (*Ura denontzat, Ura bizitzarentzat* izenekoa; NBE, 2003) bildu egiten ditu urari lotutako arazo nagusiak.




Txostenak 11 erronka ezartzen ditu munduko ur-arazoak konpontzeko ezinbesteko ardatz, talde bitan banatuak: *giza ongizateari* lotuak eta *kudeaketari* lotuak. Lehenengoan honako hauek dira: gizakien gutxienezko beharrak elikagaietan eta osasunean bermatu; ekosistemek eskaintzen dituzten natura-zerbitzuak mantendu; hirigune handiak inguruko landa-eremuekiko errespetuan gobernatu; ekoizpen industrial garbia izan eta energia denon zerbitzura jarri. Argi dago, pobrezia uraren arazo larrien kausa, baina, aldi berean, ondorioa ere bada. Bigarren taldean, honako hauek daude: uholde-lehorte arriskuak gutxitu; ura ibai-arroaren esparru osoan kudeatu; uraren betebeharrak guztiak kontuan hartu; ur-kulturaren oinarri den jakintza alde guztietara zabaltu; ura garapen jasangarriaren ardatz jarri.

NBERen buru denak 2002ko udako Johannesburgoko Lurraren Goi-bileran bost gaitan bildu zuen munduaren garapena leku guztietan jasangarria egiteko apustua: WEHAB ingelesezko siglatan. Honako hauek euskaraz: *Ura, Energia, Osasuna, Nekazaritza eta Biodibertsitatea*. Bat datoz horrekin lehen aipatutako erronkak. Baina hau ez da berria, aspaldian esan zen. Zergatik, bada, atzera joan aurrera joan beharrean? Hortxe gogoeta sakona, gaur egungo globalizazio ekonomizistaren helbide eta helburuekin lotu behar dena.

Ur-arazoen han-hemengo biztanleengan eragina dute, modu desberdinetan eragin ere arazoaren nolakotasunaren arabera. Arazoon artean, uholdeak eta lehortek dira pertsona gehienei eragiten dietenak, baina horietaz gain, badira bestelako ur-arazoak ere, zuzen edo zehar jendeari kalte egin eta eragindako kalteengatik hondamenez hartzen direnak. Hondamenen garrantziaz jabetzeko gogoratu behar da igaro den 1990-2000 hamarkada Natura Hondamenak Gutxitzeko Nazioarteko Hamarkadakoa (*International Decade for Natural Disaster Reduction*) izan zela, Nazio Batuek hortara bideratua.

Horren harira, (Rodda, 2001) 1963-1992 denbora-tartean munduan zabal izandako hondamen handien sailkapena erakusten du 1. irudiak, hiru irizpidetan egindako sailkapena, hain zuzen: hondamenen kopurua, pertsonenganako eragina eta hildakoak. Esan beharra dago neurri batetik gorako hondamenak baino ez zirela horra bildu, hau da, munduan esanguratsuak izan zirenak, gutxienezko kalte materialak edota hildakoak sortu zituztela. Ikusten denez, gehienak urarekin edo ur ezarekin daude zelan edo halan lotuta. Esan ere, hondamen-mota batzuk elkarri lotuta datozela, kausa-ondorio moduan batzuetan (uholdeak-izurriteak; lehortek-goseteak); hortaz, zuhur interpretatu behar da irudian bildutakoa.

**1. irudia: 1963-1992 aldiko hondamen handienak, zenbait irizpidez sailkatuak (Rodda, 2001). UHO: uholdeak; TEK: tropikoko ekaitzak; LEH: lehorteak; LUR: lurrikarak; HAI: haizeteak; SUT: suteak; SUM: sumendiak; LUB: lubiziak; TSU: tsunamiak; HOT: hotzaldiak; GOS: goseteak; IZU: izurriteak; ELU: elurrausoak; BER: beroaldiak.**



Nabarmena da uholdeak (UHO) direla gehien gertatu diren hondamenak eta hildako gehien utzi dutenak ere. Aurreneko postuetan dira tropikoko ekaitzak (TEK) ere, sarri uholdeekin batera gertatuak, baina tropikoko herrialdeetara mugatuak. Lehorteak (LEH), ostera, sarri gertatu arren eta biztanle ugarirengan eragin arren, uholdeek besteko, ez dute modu zuzenean hildako-kopuru handia sortu, bestelako hondamenen aldera, nonbait herrialde lehorretako jendeak jakin izan du, neurri batean behinik behin, lehorteari aurre egiten edo, azken irtenbidea, handik alde egiten, uholdeetan ez bezala. Goseteak (GOS) jende askori egiten dio kalte baina ez da, inondik inora ere, hildako gehien dakarren hondamena. Hortaz, goseteak baino zuzenean hiltzaileagoak dira izurriteak (IZU), lurrikarak (LUR), lubiziak (LUB), haizeteak (HAI) edo lehorteak (LEH), kasurako.

Beste hondamen-motek (beroaldiak, suteak, sumendiak, hotzaldiak, tsunamioak —itsaspeko lurrikarek sortutako olatu handia—, elurrausoak) jende gutxiagori egiten diote kalte eta hildako gutxiago ere ekarri, betiere alderaketa eginez. Gogoratu irudiko datuak urte-tarte zehatz batekoak direla eta luzera bereko beste urte-tarte batean hainbat gauza aldatu egin daitezkeela. Horra hor, kasuko, 2003ko udan Europan izan den beroaldi itzelak utzitako hildako-kopuru handia, Frantzia batez ere (hamar bat mila bizpahiru astean). Hala ere, irudian jasotako datuak hondamenen nolakotasunaren islatzat har daitezke, argigarri behintzat.

**1. taula: 1950-1999 urte arteko Natura Hondamen Handien bilakaera (Munich Re Group, 2003).**

	1950-59	1960-69	1970-79	1980-89	1990-99	80ak/60ak	90ak/60ak
<b>kopurua</b>	20	27	47	63	87	2,3	3,2
<b>galerak*</b>	39,6	71,1	127,8	198,6	608,5	2,8	8,6

\* galerak 1999ko bilioi dolarretan eman dira.


Datu horiekin alderatzeko, 2002. urteari dagozkionak dira hauek (Munich Re Group, 2003): munduan 10.600 lagun hil ziren, gehien-gehienak (8.500) Asian izandako lurrikara eta uholde handietan. Iturri horietatik ere hartu dira 1. taulan bildutako datuak, 1950-1999 denbora-tartean hamarkadaz hamarkada munduan zabal izan den natura-hondamen handien kopuruaren bilakaera agertzen dutenak. Kasu honetan *natura-hondamen handitzat* hartu da eskualde batean gertatu hondamenak eskualdeaz gaineko laguntzaren beharra eragin duenean. Datuak datu begi-bistakoa da hondamenak handituz joan direla azken hamarkadetan, bai kopuruan eta bai sortu galera ekonomikoetan ere. Beraz, bazuen, bai, nahiko arrazoa Nazio Batuen Elkarteak 1990-2000 hamarkada Natura Hondamenak Gutxitzeko Nazioarteko Hamarkada izendatzeko. Aurrerantzean ere izango du horretarako arrazoa, ikusten denez globalizazioak ez dakarrelako horien apaltzea, eta gobernu askoren ahoan den jasangarritasunak berak ere ez.

## UHOLDEAK: GOGOETA BAT


Oraintxe aipatu moduan uholdeak dira hondamenen artean hondamenik handiena munduan zabal. Uholde suntsitzaileak beti izan dira, hasierako zibilizazioetatik (Noe bera gogoan) oraingo honetara. Uholdeak natura-gertaerak dira, berezkoak, izan dira, dira eta izango ere, inongo zalantzarik gabe. Baina uholdeak gero eta gehiago dira antropikoak jatorriz. Izan ere, azken urteotako uholde batzuek aurretiko marka guztiak gainditu dituzte, bai kalte materialetan (ereu sozioekonomikoaren eta lurralde antolaketaren ondorio) eta baita urek lortu duten altueretan ere (ibai-arroen ezaugarri fisikoen eta horien alderaketaren ondorio).

1990-1998 denboraldian munduan zehar izan diren uholderik suntsitzaileak (hildakotan eta kaltetan) 2. irudiak biltzen ditu ikuspegi erregional batetik (Kundzewicz eta Takeuchi, 1999). Horko gehienak, eta hiltzaileenak, Asian, Txina barne, izan arren Europan eta Ipar Amerikan ere izan dira uholde handiak, galera ekonomiko handikoak behinik behin. Gogoan izan, kasurako, 2002ko udan Erdiko Europan izan ziren uholde zabalak, geroxeago aipatuak, irudi hortara bilduak ez direnak. Denboraldi horretako uholdeen bestelako ikuspegia 3. irudiak ematen du, uholdea izandako herrialdeen Nazio Produktu Gordina (NPG per capita, Estatu Batuetako dolarretan emana) batetik, eta uholdeak hildako bakoitzeko eragindako kalte ekonomikoak (dolarretan ere) bestetik uztartzen dituela. Bada irudi horretan joera garbia: herrialde aberatsetan kalte ekonomiko handiak, baina hildako gutxi sortzen dituzte uholdeek; herrialde txiroetan, ostera, askoz ere hildako gehiago izaten dira eta, beraz, proportzioan, kalte ekonomikoak hildako bakoitzeko askoz ere gutxiago. Joera argigarria.

**2. irudia: 1990-1998 aldiko uholde suntsitzaileenak banaketa geografikoan (Kundzewicz eta Takeuchi, 1999).**



### 3. irudia: 1990-1998 aldiko uholde suntsitzzaileenak ikuspegi ekonomiko batean (Kundzewicz eta Takeuchi, 1999).



Irudi horietako datuen azterketa zehatzagoa eginda, hainbat ondorio argigarri atera daitezke:

- Munduko inongo herrialderik ez da uholdeetatik salbu, ezta herrialde idorrak ere; are gehiago, datuak datu herrialde idorretan pertsona gehiago hiltzen dute uholdeek lehorreek baino, azken batez horko jendeak jakin izan du ohiturak garatzen ohiko duten lehorteari egokitzeko, baina ez, ostera, aldian aldiko ustekabeen harrapatzen duten uholde bortitzei egokitzeko.
- Itxura batean, azken urteotako klimaren aldakortasunak uholdeen maiztasuna areagotzen lagun dezake, zenbait herrialdetan behinik behin.
- Gizartea zenbat eta txiroagoa izan, orduan eta hiltzaileagoa uholdea; txiroek ez dute gauza material handirik galtzeko, bizia baino ez dute.
- Herri garatuak ez dute arriskuan bizi nahi eta dirutza handia inbertitzen ohi dute uholdeen aurkako babes-lanetan. Garatu gabeko herriek, ostera, ez dute aukera hori izaten eta arriskuarekin bizi beharra dute, eta hil ere sarri askotan.
- Babes-lanek segurtasuneko berme faltsua sortzen dute gehienetan; izan ere, uholde bat izan den lekuan berriro izango da beste uholde bat denbora pasatuta, oraingoak aurrekoak baino kalte ekonomiko handiagoak sortuko bide dituela, ibaiertzak berme faltsuaren kontura denborarekin gero eta beteago izaten direlako.
- 100 urteko, kasurako, errepika-denbora duen uholdea gertatzen bada horrek ez du, inondik inora, esan nahi 100 urte pasatu arte ez dela antzeko uholderik hor gertatuko. Izan ere, errepika-denbora handiak lasaigarri modura



hartu ohi dira askotan, eta ez da horrela; urte jarraietan izan daitezke antzeko uholdeak, hainbat kasutan gertatu bezala. Azken batean, errepika-denbora kontzeptu matematikoa da, prozesu meteo-hidrologikoen aldakortasunaren ispilu desegokia sarritan.

- Gizarteak han-hemenka ikasi, hezi eta bere inguruko natura-hondamenei moldatzen jakin beharko luke, gizartearen aurretiko esperientziek etorri daitezkeen hondamenari aurre egiten laguntzen dutelako. Zoritxarrez, baina, gizartean bada halako higadura kolektibo modukoa, oroimenaren urria edo, eta aurretik izandako gertaeretatik ez du ikasgai handirik ateratzen.
- Naturaren arriskuarekin bizitzen ikasi behar du gizarteak, arriskurik gabeko ameskeria albo batera utzia. Kundzewicz eta Takeuchi (1999) ikerlarien hitzak argigarri oso suertatzen dira: “A more disaster conscious society needs to be built with better preparedness and safe-fail (safe in failure) rather than unrealistic fail-safe (safe from failure) design of flood defences (Il faut développer la conscience sociale de la vulnérabilité, en préparant plus à la possibilité d'échec des mesures de protection qu'en cultivant un sentiment irréaliste de protection absolue)”. Bestera esanda: bulnerabilitate-kontzientzia, arriskuarena bera, garatu behar da gizartean, jendea babes-neurrien hutsezinean baino babes-neurrien hutsahalean heziz.

Uholdeak, oso handiak izanda ere, naturan berez den prozesu hidrologikoa dira. Baina dudarik ez da, lehen esan moduan, azken urteotan gero eta prozesu antropikoago bihurtu direla, klima-aldaketaren ondorio izan edota lurraren erabilpen txarraren ondorio izan; segituan jorratuko dugu hori. Baina horra pasatu aurretik, lehentxoago aipatu ikerlarion beste gauza bat nahi nuke hona ekarri. Izan ere, gizarteak garapen-bidean urteak pasatu ahala, natura-hondamenak (1. irudian bildutakoak) ez dira desagertu, kontrolpean ere ez dira, bere horretan diraute, gizartearentzat gero eta suntsitzaileago. Baina oraingo *zibilizazioak* hondamen-mota berriak ere sortu ditu, gero eta maizago gertatuak: hiri-uholdeak (*urban floods*) eta hondar-lubiziak (*debris flows*), nagusian. Horiei ezin natura-hondamena esan, hondamena bai, baina naturazkoak ez direlako.

Izan ere, nonahi gertatu da azken urteotan ibaiertzetako lautadak (emari handiko urak berezko pausaleku hartuta ibaian beherako uholdearen lasaigarri direnak) bizileku edota industrigune bihurtuak izan direla, hiri handien etengabeko hazibidean; landa-eremuetatik jendea joatea eta ondoriozko hiriratzeak badu horrekin lotura. Ibaiertzotako betetze horrek, gainera, ibaiko uholdeen aurkako babes-lanak ekarri ditu, bertoko biztanleentzako segurtasun-berme modura. Baina babes-egitura horiek (ibaibidearen mozte-desbideratzeak, ubideratzeak, lubetak,...) pausalekuen desagertzea, urak ibaira arinago biltzea, ibaian beherantz urok bizkortzea eta uholde-arazoak ibaian behera eramatea ekarri dituzte, besteak beste. Babes-egiturak ematen duten ustezko segurtasun-berme osoaren aitzakian, bestalde, gero

eta beteago daude ibaiertzok, gero eta ur-pausaleku gutxiago ere, eta, jakina, ibaiertzak berez, nahitaez, ibaiari dagozkionez ibaiak aldian aldiko berriro hartu egiten ditu, berme osoaren zentzu ezaren seinale. Horri hiri-uholdea (*urban flood*) esaten zaio hondamenari begira.

Hondar-lubiziak dira beste hondamen-mota berria. Lubiziak berezko prozesuak dira naturan, neurri batean behintzat, baina hondar-lubizia (*debris flows*) esaten duguna jatorriz nagusiro antropikoa den lubizia da. Izan ere, sarritan gertatzen denez luraren erabilpen desegokiak (lurren hara-honako mugimenduak, lur-meta-keta desegonkorrak, landaretzaren desagertzea,...), mendi-hegal aldapatsuan batez ere, lurra indargabetu, askatu, hondartu eta higalanaren esku uzten ditu lur-zorua eta honen azpiko harriak ere; horren ondorioz, baldintzak aldekoak direnean, lurrak blaitzen direnean, kasurako, bolumen handiko hondar-lubiziak izan daitezke. Azken urteotan, horrelako lubizi hondatzaile batzuk gertatu dira munduan zehar, Hego Amerikan eta Asian batez ere, basoak oso arin soildutako leku menditsuetan, hain zuzen. Normalean, eurite handietan izaten dira horrelakoak, uholdeekin batera, beraz, basa-oldearen itxura hartuz; baina, hala ere, garrantzitsua da batak eta besteak bereiztea, jatorrian, kausetan, desberdinak direlako.

Kundzewicz eta Takeuchi (1991) ikerlarien esanetan “since a flood protection system guaranteeing absolute safety is an illusion, a change of paradigm is needed: **it is necessary to live with awareness of the possibility of floods**”. Babes-lanak (presak, lubetak, ubideratzeak...) egitean kontua ez da zein handi den diseinuko uholdearen errepika-denbora, handia izanda ere (100 urtekoa, kasuko) beti gertatu daitekeelako errepika-denbora handiagoko uholderik (200 edo 500 urtekoa, kasuko). Zer egin, orduan? 500 urteko errepika-denborakoa hartuko ote dugu diseinuko uholde? Askoz ere garestiagoa izango dira babes-lanak eta gainera 700-1000 urtekoa ere ez dute babes-lanak saihestuko; eta gertatu egin daitezke horrelakoak. Nolabaiteko oreka mantendu behar da zer babestu eta zelan babestu horien artean; baina, jakina, betiere ibaiari dagokionaren errespetua oinarri; inguru fisikoari begiratzeko begi berrien beharra, azken finean.

### ***PRAGA, 2002KO UDA. ORAINA ETA IRAGANA***

Adierazi nahi denaren adibide egokia 2002ko abuztuaren hasieran Erdiko Europan izandako uholde suntsitzaile zabala dugu, eta are zehatzagoa Pragan izandakoa. Orduan gertatuaren informazio sakona *Czech Hydrometeorological Institute* izeneko webgunean da ikusgai ([www.chmi.cz](http://www.chmi.cz)). Txekiar Errepublika osoan 100 bat hiri eta herri urpean geratu ziren guztiz, beste 350 bat alde batean, 1,6 milioi lagun kalte-tuak, 220 mila etxea denbora batez utzi behar, eta 15 hildako. Praga, hiri nagusia, ibai biren elkargunean kokatzen da: Vltava, nagusia, eta Berounka ibaiak. Lehena-uren-ur-emia nahiko kontrolatua dute Pragan gora den presa-kate baten bidez (*the Vltava cascade*). Beroungan, berriz, ur-emia berezkoa da, presatu gabea.


Abuztuaren hasiera horretan, intentsitate handiko euri-jasa bortitzak izan ziren inguru zabal-zabalean (guztira 150-400 mm tartekoa, bi eguneko eurite bitan). Lehenengo euritean, ibaira isuritako urak Vltava ibaiko presa-katean izan ziren presatuak, eta gainerakoek arroaren zoruak blaitu zituzten; baina bigarren euritea gertatu orduko, presok urez gainezka zeuden, zoruok ere berdin, uholde berriari eutsi ezinean, eta ibaian beherako uholdea geldieztina gertatu zen. Horrez gain, Berounka ibaiaren uholdeak Pragara iristean topo egin zuen Vltavatik zetorrenarekin. Uholde bion aldibereko topaketak Pragako bazter ugari urpean utzi zituen, ezinbesteko ondorioz.

Pragatik igaro zen gehieneko ur-emaria 5200 m<sup>3</sup>/s-koa izan zen, kalkuluak kalkulu, 500 urteko errepika-denborako uholdea bera, 1000tik gorakoa arroaren adar batzuetan. Gauzak honela, berau da Pragan bertan erregistratu den ur-mailarik handiena, nahiz eta inguruko beste leku batzuetan handiagoak ere izanak diren aurretik. Izan ere, Pragan bertan 1827 urtetik aurrera izan da ibaiaren emariaren (4. irudia) eta ur-mailaren etengabeko erregistroa. Horretan ikusten denez, 2002an neurtu da emaririk handiena, nahiz eta aurretik ere, 1845 (udaberriko elur-urtzeak sortua) eta 1890 (udako euri-jasa bortitzek sortua, 2002koen antzerakoa) urteetan, kasurako, oso emari handiak erregistratuak izan.

Urek lortutako mailari dagokionez informazio gehiago, denboran zehar luzeagoa, izaten da ur-emariena baino, iraganeko uholdeek utzitako markek iraun egiten dutelako zelan edo halan (eraikuntzetan utzitako aztarnak, margoak, dokumentu zaharretako aipuak...). Pragan izan badira hainbat leku, historian uholdeen erreferente izan direnak, Charles zubia (*Karlův Most*), esaterako. Horretan 2002an urak 140 cm-ko maila altuagoa lortu zuen 1890ean baino, 75 cm-koa 1845ean baino; baina 55 cm-koa bakarrik 1784ko uholdean baino, azken kasu honetan ur-emariaren erregistrorik ez zegoela oraindik. Beraz, uholde handiak izan dira aurretik ere, orduan sortutako kalteak eta oraingoan sortuak arras desberdinak badira ere.

Adituek jakin bazekiten 2002koa gertatu egin zitekeela: “It is clear and not surprising for hydrologists and other experts that the cascade (presa-katea) in the Vltava river cannot protect Prague during so extreme flood. There was an incorrect opinion, in part of the public, that the cascade can protect Prague against flood. Nobody thinks so after this event already”. Jendeak izan ohi duen segurtasun-bermearen ustea sarritan ustel geratzen da. Arriskuarekin bizitzen ikasi behar dugu, berezko arriskuari aukera berriak eman gabe; hortaz, ibai-arroak, orokorrean, eta ibaiertzak, zehatzean, zentzuz kudeatu behar dira, ibaiari errespetua galdu gabe. Kontua ez da, ezina delako, natura-arriskuak desagertaraztea, horiekin maila onargarri batean bizitzea baizik.

#### 4. irudia: 1827-2002ko ur-emari handienak (*discharge*, $\text{m}^3/\text{s}$ ) Vltava ibaian, Praga hiriaren parean.



#### KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINA

Azken urteotan, klimak berotze aldera egin du, han-hemenka asko edo gutxi egin ere. Aurrerantzean bide horretatik jarraituko duelakoan dira zientzialariak, zalantzak zalantza betiere. Baina, zer ondorio izan dezake berotze horrek uholdeen sorreran? Galdera horri erantzuna eman aurretik badira zehaztu beharreko kontuak. Izan ere, uholdeez ari garela uholde-motak daudela esan behar da.

Alde batetik, *iraupen luzeko uholde zabalak* dira (lautada-uholdeak; *plain floods*), ibai-arro handietan (1000  $\text{km}^2$  baino handiagoak) gertatzen dira, hainbat egunetan, edo astetan ere, izandako euriteen ondorioz sortuak, lekuan leku urtzeko elur-urak lagunduak. Uholdeok ibaiertz zabal-zabalak hartzen dituzte urpean egun batzuetan, arroen beheko aldeetan batez ere. Horrelakoak izaten dira noiz edo noiz Afrikan (2000. urtearen hasieran Mozambiken izan zen uholde hiltzailea, kasurako), Asian (Bangladesheko deltakoak) edo Hego Amerikan direnak, nahiz eta Europan bertan ere gertatzen diren (Rhin, Danubio edo Ebro ibai-arroetan, esaterako; urrunera joan gabe, 2003ko otsailean Nafarroako Erriberakoa).


Beste alde batetik, *lekuko uholde arinak* dira, kolpe batean gertatuak (kolpe-uholdeak; *flash floods*). Ibai arro txikietan gertatzen dira, oso intentsitate handiko eta iraupen gutxiko euri-jasek sortuak; batzuetan, oso euri-jasa lokalak dira, ordu gutxitan ur asko botatzen dutenak. Jausitako euri-urak arinetan biltzen dira ibaira, erliebe aldapatsuetan eta lurzoru urrikoetan are arinago, eta espazioan zabal eta denboran luze ez izan arren oso hondatzaileak suerta daitezke. Horrelakoak izaten ohi dira Euskal Herriko Kantauri aldean izan diren asko (1983, 1988, 1992,

1997, 2002, azkenetariko batzuk baino ez aipatzearren; guztiak uda partean izanak).

Zer ondorio izan dezake klimaren berotzeak uholdeen sorreran? Atmosferako fisikaren ikuspegitik (Bronstert et al., 2002) uraren eta energiaren zikloak elkarri lotuta daude, guztiz, sistema bereko osagaiak. Termodinamika oinarri, tenperatura goratzeak ziklo hidrokologikoen azkartzea ekarriko duela pentsa liteke, planetan behinik behin, hau da, eskala globalean. Horrela, tenperaturak datozen urtemugetan 3-5 °C tartean gora egingo balu, batzuek aurreikusi moduan, prezipitazioak eta lurrunketak ere gora egingo luketela aurreikus daiteke, % 7-15eko gorakada osagai bietan ikerlari batzuen datuetan, gaurko ziklo hidrokologikoa azkartuz. Beste modu batera esanda, tenperatura, planetaren batez bestekoa, 15 gradutik, gaurkoa, 18 gradura, bihar-etzi litekeena, igonda urteko prezipitazioa planetan, batezbestekoa ere, 1000 milimetrotik 1100 milimetrorra pasatuko zen, % 10eko igoera, gutxi gorabehera.

**5. irudia: Klimaren aldaketak ukitu ditzakeen prozesu hidrokologiko nagusiak.**

Klimaren aldaketak modu konplexuan elkarri lotutako prozesuak sortzen ditu



Baina jakina, izan litezkeen horiek, dudazkoak dudazko, eskala globalari dagozkio. Oso bestelakoa da lekuan leku izan litezkeenak, izan ere planetan han-hemenka klima-eredu desberdinak dira, guztiz, eta kausa globalaren ondorioak ere desberdinak izango dira han-hemenka. Adituak maila globalean gerta daitekeena

ulertzen saiatzen dira, hori abiapuntu hartuta eskualdeko eskalan gerta daitekeena ondorioztatzeko, *downscaling* (zabalekoz laburrera) dioten prozedura baliatuz, hots, goitik behera, zabaletik laburrera. Baina ez da batere erraza, oso sistema korapilatsua delako atmosferako fisikarena.

5. irudiak erakusten du, modu oso sinplean erakutsi ere, klima-aldaketak, tenperaturaren igoerak zehatzago, prozesu hidrológico nagusietan sor ditzakeen eraginak eta atzeraelikadurak (kausa-efektua-kausa; *feedback*), bai eskala globalean eta bai eskualdeko eskalan ere. Azken horretan prezipitazioek gora edo behera egin dezakete, urtean edota sasoietan. Euskal Herria, kasurako, klima-eskualde desberdinen muga da kokatua, jakina denez. Modeloak modelo, eta hipotesiak hipotesi (berotegi-gasen isuri tasa diferenteak datozen urteetan), prezipitazioak neguan eta udaberrian mantendu eta udazkenean eta udan gutxitu egingo lirarteke 2020ra begirako aurreikuspenetan, udan gehiago gutxitu (%10-15) udazkenean baino (%7). Urtemuga horretan tenperatura, urteko batezbestekoa, gaurkoaren gainetik izango zen 0,8-2 °C. Buruan izateko datuak dira, baina tentu handiz hartu beharrekoak ere, zalantzasak zalantzasak.

Izan ere, Klimaren Modelo Globalak deritzanak (GCM, *Global Climate Models*) orain hainbat urte hasi ziren erabiltzen, baina horiek duten lan-eskala zabalegia da, hartzen duten lurralde zabalaren sare-laukia oso handia izanda (500 x 500 km, sarri askotan). Zer esanik ez, zabalera horrekin modelook ezin dute ibai-arro txikietan (5000 km<sup>2</sup> baino txikiagoak, kasuan) aurreikuspenak egiteko moduko informazio egokirik eman; eskala-kontua. Hori horrela, beste teknika batzuk garatu behar izan dira *behealde* horretan erabiltzeko aproposagoak.

Horietariko bat datu historikoen analisi estatistikoa da, hau da, iraganeko urte-serie luzean gertatuaren analisia, seriea zenbat eta luzeagoa hainbat eta zentzuzkoagoa hortik ateratakoa. Alemaniako Rhin ibai-arroan, esaterako, 110 urteko (1880-1990) prezipitazio-datuak aztertu ziren. Bi ondorio atera ziren: urteko eurikopuruak goranzko joera ageri du denboraldi horretan, gutxi izan bada ere, 80 mm-ko igoera hasieratik azkenera (%10 bat); bigarrenik, bada ere euriteen sasoi aldatze bat, udatik negurakoa, neguko euririk handitu egiten direla edo. Joera-eredu hau, neguko euririk handitzea, Ipar eta Erdiko Europarako eginiko beste azterketa batzuetan ere islatua izan den bitartean kontrako ateratzen da Hegoko Europarako eginikoetan, hau da, hor neguko euririk gutxitu edo egiten dira.

Rhin-en arrorako egin zen analisiak ez zituen prezipitazioak bakarrik hartu, ur-emariak ere hartu zituen, kasu honetan urte-seriea luzea izan bai (100 urte), baina euriena baino apur bat motzagoa. Emariotan ere goranzko joera igartzen da, oso argia ez bada ere, urteko gehienezko eguneko emarietan. Pentsatu ur-emarien etengabeko erregistroak, hamar minututik behin, normalean, urte-serie motza duela oraindik, baina askoz luzeagoa dela urteetan egunean behin hartutako erreferentzia-seriea (ibaiaren ur-maila); azken horien mailarik altuenetan igartzen da

goranzko joera hori. Jakina, uholdeen kasuan ezer gutxi balio du une bateko ur-mailak ematen duen informazioak, eguneko hogeita lau orduan zehar oso gorabehera handiak izan daitezkeelako; horretarako, beraz, etengabeko erregistroak dira funtsezko, eta horien serieak oraindik orain motzak direnez ezin joera seriorik atera hortik.

Europako beste ibai batzuetan, ostera, gehienezko ur-emarien beheranzko joera igarri da analisi estatistikoetan. Ibai-arroak oso desberdinak dira han-hemen jokamoldez, eta horrexek azaltzen du arro batean goranzko joera igartzea eta beste batean beheranzkoa. Esaterako, elur-urek neurri handian elikatutako ibaietan normalean da beheranzko joera agertzea urtze-garaian sortutako uholdeen gehienezko emarietan, klimaren berotzeak glaziarren urritze nabarmena ekarri duelako azken urteetan. Arroburuetan egindako presatzarrek, bestalde, uholdeen gehienezko maila jaits dezakete ibaian behera. Beraz, kasuak kasu interpretatu behar dira arroak.

Bestalde ere, litekeena da Europako han-hemengo euri-ereduak aldatzeko bidean izatea, eskualde batzuetan behintzat, orain arteko euriak ekialdetik nagusian etorri izan badira ere, kasu baterako, mendealetik etortzera aldatzeko bidean. Norabide-aldatze honek garrantzi handia hartzen du uholdeei begira, ibai-arro zabal baten barruan azpiarro handiak izan daitezkeelako, erliebez eta kokapenez desberdinak, eta, hortaz, euriak norabidez aldatzeak areagotu egin dezake azpiarro batzuen uholde-arriskua eta moteldu beste azpiarroena. Gainera, igarri edo egin daitezkeen era horretako aldatzeak oso urte-serie gutxiko eurietan oinarritu dira, eta, beraz, betiko zalantza datorkigu burura: epe luzeko berezko klima-aldaketaren berezko ondorio ala epe motzeko klima-aldaketa antropikoaren ondorio, zer dira euri-eredu horien aldatzeak?

### ***IRAGANEAN ESANA GOGOETARAKO ABIAPUNTU. EUSKAL HERRIKO KASUA***

Klima-aldaketa modan da egunotan, ahotik ahora. Komenigarria dugu, gai honetan aritzean, hezurra eta mamia bereiztea, oso oroimen meteorologiko eskasa dugulako, orokorrean. Hortaz, jakingarri gertatzen da gurean garai bateko egunkarietan honetaz edo hartaz esana, eguraldiaz betiere. Oso bilduma polita, interesgarria benetan, dugu Meteorologia Euskal Zerbitzuak 1998. urtean argitara emandako *El clima del País Vasco a través de la prensa – Euskal Herriko klima prentsaren bidez* izeneko liburuan; bertara 1882 urtetik eta 1950 urtera bitartean Hegoaldeko euskal lurraldeetako prentsa idatzian jasotako ehunka albiste bildu eta sailkatzen dira. Aipamen bitxi batzuk baino ez ditut hemen egingo, gogoetarako iturburu.

Gaurko neguak ez direla lehengoan modukoak? Begira 1904. urteko abenduaren 29an La Gaceta del Norten idatzia: «Todo cambia en este mundo, hasta el clima de Bilbao, que ya no es el que era, ni mucho menos.... ¿Cuando se ha admirado a últimos de diciembre el campo florido y los jardines cubiertos de rosas, de

pensamientos, de violetas, de cuantos adornos se viste la primavera?». Eta «¿Dónde estamos? ¿Es que el planeta ha dado algún quiebro y nos vemos alejados de las nieves?... estamos por confesar que Vitoria es como Niza» irakurri zitekeen 1905eko abenduaren 1ean El Heraldo Alavesen. Eta 1938ko apirilaren 29ko El Pueblo Vascon: «Llevamos todo lo que va de primavera sin llover y como el invierno ni nieva ni hace frío, habrá que declarar a la villa (Bilbao) estación invernal por excelencia. Ni Alicante, ni Málaga, ni Mallorca, ni Canarias, la separan ni aventajan en sus excelencias de clima templado». Lehenago ere «No hace aún muchos días, en los pasados del carnaval, sentíase una temperatura digna de los hermosos días de junio» idatzi zen 1892ko martxoaren 5eko La Unión Vascongadan.

Gaurko eguraldia oso aldakorra dela egun batetik bestera? «En otros tiempos había una transición dulce y paulatina entre el rigor estival y el frío cruel del invierno; había un otoño dulce, melancólico; se pasaba dulcemente y sin sentir desde el ardiente hasta el helado polo. Pero ahora los dos polos se tocan, y un día anochece como de agosto y el otro amanece como de diciembre. No falta quien achaque esto a que la Tierra se va enfriando; verdaderos achaques del planeta que se va haciendo viejo» dago idatzia 1894ko irailaren 15ean La Unión Vascongadan, egunkari bereko aurreko aipamena baino bi urtetsu beranduago. La Gaceta del Norteko 1904ko albistea aipatu dugu lehen, Bilbo neguan udaberriaz janzten zenekoa; urte batzuk geroago, ordea, 1910eko urriaren 2an hain zuzen, hauxe zioen egunkari berak: «Es lo cierto que no rige ya el mundo como hace tiempo, en que no era el verano como el invierno. No ha habido primavera, no hubo verano, y el otoño parece que se ha eclipsado, porque el invierno sea dueño del año doce meses de invierno son muchos meses con lluvias y granizos, hielos y nieves que sólo al recordarlos me ponen verde».

Eguraldiaz jendeak duen pertzepzioa, eguraldia ulertzeko modua bera, oso desberdina da, nork berea. Subjektibitatea nagusi. Hona, kasurako, La Voz de Guipúzcoak 1896ko otsailaren 9an zioena: «Semana Donostiarra. El tiempo sigue primaveral y el sol no deja un solo día de acariciarnos. Nunca se ha conocido un invierno más benigno». Hilabete lehenago, berriz, urte bereko urtarrilaren 11n justu-justuan zera irakurri zitekeen egunkari berean: «Como se dice vulgarmente no nieva de frío. Poco nos falta para alcanzar, mejor dicho, para descender a la temperatura más baja que se ha conocido de 10 años a esta parte».

Uholdeak ere albiste izan dira aldian aldiko. Albistek albiste argi dago kalteak sortu dituzten uholdeak, horiexek izan baitira albiste, uda partean gertatu izan direla gehien, ekaina-abuztuan nagusian. Azken urteotako uholdeak buruan (bilduma horretan ez direnak; 1975, 1977, 1983, 1988, 1992, 1997 urtekoak, kasuko) gehienak ere udan izan dira. Izan ere, uholdea dakarten ur-jasa bortitzak gurean uda partean gertatzen dira maizago, nahiz eta hilabete euritsuagoak besteak izan. 1925-1930 urte-tartea ageri da aberatsena uholde-albisteen aldetik, hortik kanpo uholde hondatzaileak izan badira ere. Horra, adibidez, Baztaneko bazterrak,



Erratzu batez ere, 1913ko ekainean suntsitu zuen uholdearena: «La ola penetró en el pueblo de Elizondo y entró en todos los comercios, destruyéndolos completamente. En la iglesia, el agua llegó hasta el Sagrario, pero las Sagradas Formas quedaron intactas. En cambio, los bancos confesionarios fueron arrebatados por la ola que llegó de la parte de Errazu» (Euzkadi, 1913ko ekainaren 4an). Tira ba, forma sakratuok behintzat ez zituen urak eraman!. Gaitz erdi!

Jende adindua ezagutza erreferente interesantea izan da beti, batzuetan nahiko subjektiboa izan badaiteke ere, batez ere lehengo urte haietan ur-mailaren ezelango erregistrorik ez zegoela. «Según noticias, todas las anteiglesias de este valle arratiano han sufrido pérdidas importantes, pero indudablemente una de las más castigadas ha sido la de Dima, cuyo río, ordinariamente de poco caudal, alcanzó una altura no conocida, según afirmación rotunda de los ancianos» idatzi zen El Pueblo Vascon 1913ko maiatzaren 20an. 1930. urteko ekainaren 6an, uholdeak izan ziren Gasteizen eta orduko alkateak gaurko alkate batzuek buruan duten ikuspegi bera izan zuen; baina, jakina, hura 1930. urtea zen eta orain 2003an gaude, ingurumenarekiko konpromiso garaian, ustez: «El alcalde ha hablado con los periodistas acerca del desbordamiento del río Avendaño registrado ayer por causa de la lluvia; es la tercera vez que tal sucede en el año actual, y urge acometer el remedio, que, en opinión del alcalde, es encauzar y cubrir el río» (El Liberal).

Honaino bildumatik jasotako hainbat albiste esanguratsu. Azkenik, klima-aldaketarekin lotutako gauza bat. Bildumak hartzen duen urte-tarte horretako albiste askotan klimaren aldakortasuna aipatzen da, Euskal Herriko klima berotze edota hozte aldera ari den aipamena. Ustezko aldaketaren kausak esatera ere ausartu ziren albiste-emaile batzuk, izan litezkeen kausak edo aldian aldiko modako sinesmeneko kausak betiere. Kausok ez ziren, gehienetan, gaur buruan darabilzki-gun kausa berak, nahiz eta gutxiren batek treneko lurrin-makinen hedapen handiari leporatu orduko klimaren gorabeherak. Gehienek Golkoko Korrontearen (*Gulf Stream*) dinamika aldakorrarekin lotzen zituzten gorabeherok. Baina baten batek Panamako ubidearen irekierarekin ere lotu zituen, edo irratien uhin hertziarren ugaltzearekin berarekin ere, edo Las Antillaseko sumendien erupzioekin ere bai.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Antiguedad I. (2001): *Arroa (3D) kausa, Ibaia (1D) ondorio. Zer erregulatu?. In-guruak*, Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Aldizkaria, **31**, 139-152.
- Bronstert A., Niehoff D. eta Bürger G. (2002): *Effects of climate and land-use change on storm runoff generation: present knowledge and modelling capabilities*. Hydrological Processes, **16**, 509-529.
- Kundzewicz Z. eta Takeuchi K. (1999): *Flood protection and management: quo vadimus?*. Hydrological Sciences Journal, **44** (3), 417-432.

- Munich Re Group (2003): *Topics: Annual Review of Natural Catastrophes 2002*.  
Munduko Bankuko webgunean da  
([www.worldbank.org/html/fpd/dmf/knowledge/publications.htm](http://www.worldbank.org/html/fpd/dmf/knowledge/publications.htm)).
- Nazio Batuen Erakundea (2003): *Agua para todos Agua para la vida*. World Water Assessment Programme. [www.unesco.org/water/wwap](http://www.unesco.org/water/wwap).
- Rodda J. (2001): *Water under pressure*. Hydrological Sciences Journal, **46** (6), 841-854.

# Garraioko azpiegiturak eta dinamikak jasangarritasunaren ikuspuntutik

Helena Franco Ibarzabal, *EHU-Ekonomia Saila*

## **I. SARRERA**

Azpiegiturek, oro har, protagonismo ikargarria hartu dute azken hogeitaz urteetan mendebaldeko herrialde industrializatuetan. Gobernuak beren lurraldearen garapenerako aurkezten dituzten politiken artean, azpiegiturak lehen mailako tresna bilakatu dira; proposatzen dituzten esku-hartzeko neurri eta ekimen zehatzei begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Bistan da gaur egungo esku-hartze publikoko ekimen guztiak globalizazio- eta liberalizazio-joerak nagusi dituen garai batean kokatzen zaizkigula. Zentzu honetan produkzio-mailan eta, oro har, arlo ekonomikoan gertatzen ari den berregituraketak espazioaren definizio- eta antolaketa-mota desberdin bat du beharrezko; azpiegitura politika osagai garrantzitsua bilakatu da krisiaren ostean eta kapitalaren beharren arabera itxuratzen ari den espazio berri hori lortzeko bidean.

Mundu mailako berregituraketa horretan, eta dakarren Nazioarteko Lan Zati-keta Berrian, mendebaldeko herrialdeei egokitu zaien funtzio nagusia honako hau da: berrikuntzarako eta kontrolerako gune izatearena. Horren ondorio espaziala argia da: hiri/metropolieta kontzentratutako ereduak bultzatuko dira, aldi berean munduko gune nagusien artean konexio eraginkorrak bermatuz.

Honen guztiaren inguruan jardungo dugu artikulua honetan. Hasteko, garraioko azpiegituren ezaugarriak baldintzatzen dituen gaur egungo testuinguruaren joera nagusiak aipatuko ditugu laburki. Ondoren, garraioa eta ingurumenaren gaia aztertzeke ikuspegi desberdinek eskaintzen dizkiguten zenbait gako mahaigaineratuko ditugu. Laugarren atalean, gaur egungo garraio-azpiegiturako politikaren ezaugarriak laburbilduko ditugu, eredu horrek agertzen ditun muga nagusiak ere aipatuz. Bosgarrenean, abiadura handiko trenaren gaia jorratuko dugu, esaten ari garen ideia desberdinen adibide gisa. Azkenik, eta eztabaidarako ekarpen gisa, eredu alternatibo baten oinarri izan litezkeen zenbait proposamen azalduz bukatuko dugu artikulua.

## 2. TESTUINGURUAREN JOERA NAGUSIAK

### 2.1. Globalizazioa<sup>1</sup>

Globalizatorako joera bizkortu egin da azken hamarkadetan eta, horrela, kapital transnazionalen interesek gidaturik mundu-ekonomia gero eta gehiago errealitate bihurtzen ari zaigu. Pertsonen eta ondasunen mugikortasuna inoiz baino garrantzitsuagoa da eta berebat informazioaren transferentzia edota elkar trukea.

Enpresa transnazionalak aitzindari, eskala handiko produkzio eta banaketa hedatzen eta finkatzen ari da. Pertsonak eta batez ere merkantziek gero eta distantzia handiagoak egin behar izaten dituzte. Horrela, “globalizazio ekonomikoa eta mugikortasun motorizatuaren hazkunde geldiezina txanpon beraren bi aldeak lirake. Garraio-eskari berriei buruzko eztanda orokor hau azpiegitura handien bidez ase behar da (errepidekoak, portu-azpiegiturak, aireportukoak...), mundu-mailako dimentsioa duen produkzio-eredu baten funtzionamendua ahalbidetu dezaten. Eta,aldi berean, azpiegiturak sortze horrek bere aldetik globalizazio, hiritartze eta mugikortasun motorizatuaren hedapen-prozesuak sustatzen ditu” (Fernández Durán, 2000: 4). Horrek jasanezitasun global gehikorreko bide batean sartzen gaitu ezinbestez.

Ekonomiaren globalizazio-joeran murgildurik dagoen honetan, produkzioa, banaketa, inbertsio eta bestelako finantza-fluxuak gero eta *mundu mailakoagoa* den esparru batean antolatzen jotzen dute. Merkatuen eskala handiak, boterearen zentralizazio era berriekin batera, azpiegitura-beharrak birdefinitzen ditu; garraio-ko eta komunikazioko azpiegiturak eraginkorrak izan behar badute *nazio*-eremuez harago doan nazioarteko izaera lortu beharko dute nahitaez.

Testuinguru honetan kokatuko lirake, adibidez, garraio-sare transeuroparrak. Europa-mailako sare eraginkorra eraikitzeak aukera berriak ematen ditu produkzioaren antolaketari dagokionez, kostuak gutxitzearen bidetik —bereziki eskala handiaren onurak eta lan-kostu diferentzialak aprobetxatuz— lehiakortasun-hobe-kuntzak ekar ditzakeena. Horrek ez du esan nahi, haatik, lehiakortasun irabazi horiek Europar Batasuneko lurralde osoan zehar modu parekoan gertatuko direnik eta are gutxiago, sare transeuroparrek lurralde-kohesioaren ikuspegitik funtsezko ekarpena egingo dutenik.

Bestalde, azpiegitura horiek eraikitzeak eskala handiko produkzio eta banaketari are aukerak handiagoak eskaintzen dizkio. Garraio-kostu merkeagoari esker, industriak produkzioa arrazionalizatu eta fabrika gutxiagotan zentralizatuko dute (beste fabrika batzuk itxiz), oso eremu zabalak hartzen dituzten merkataritza-bana-

---

1. Globalizazioaren inguruko hausnarketa orokor eta osatuak, adibidez, honako hauetan: Martínez González-Tablas (2000), Zurbano (1998), edota Arizkun, Galarza eta Gómez Urangak (1998) koordinatutako lan kolektiboko hainbat artikulutan.

ketarako sareak osatuz. Horrek guztiak oso ondorio kaltegarriak izan ditzake enplegu bolumen orokorra eta horren banaketa espazialean.

Hortaz, irisgarritasuna garapen ekonomikorako funtsezko osagai bilakatzen da. Eta iristeko erraztasun hori toki jakin baten zentralitate geografikoarekin baino nazioarteko eta erregioko kokagune ekonomiko nagusienekiko lotura fisiko (azpiegiturak) egokiagoak eta azkarragoak edukitzearekin egongo litzateke erlazionatuta. Horrela ere garraio-azpiegitura berriekiko lotura eraginkorrik gabe geratzen diren lurraldeek arazoak izan ditzakete garapen ekonomikoari begira.

## ***2.2. Ikuspegi neoliberalaren gailentasuna***

Orain gutxi arte inork ez zuen zalantzan jartzen azpiegituren eraikuntza eta ustiapena sektore publikoaren eskuduntza eskusiboa zela. Ondasun publikoak hornitzeaz administrazioa arduratu behar zen, eta azpiegiturak bete-betean sartzen ziren kategoria horretan. Baina azkenaldi honetan, eta tesi neoliberalari jarraiki hedatzen ari den planteamenduaren arabera, sektore pribatuak alor horietan ere gero eta parte-hartze handiagoa izan behar du. Sektore publikoa ez da desagertuko, baina bai bere betekizuna berregokituko.

Jakina da politika neoliberalen zutabeetako bat sektore publikoak jarduera ekonomikoan duen esku-hartzea murriztea dela. Hor kokatuko lirateke, besteak beste, hainbat enpresa eta zerbitzu publikoren privatizazioak edota administratibotik arauketa-maila altua izan duten zenbait jardueraren desregulazioa. Mota horretako ekimenak justifikatzeko merkatuaren ontasunaz, eragile pribatuen efizientzia handiagoaz eta abarrez mintzatu zaizkigu. Baina muineko arrazoiak ez dira inolaz ere neutroak; izan ere, privatizazio-uhin honen atzean dagoen benetako helburua kapital pribatuari errentagarritasuna eman diezaioketen jardueren esparrua zabaltzea da: krisiaren jatorrian mozkinen erorketa egonik, horrek esan nahi du aukera gutxi dagoela kapitala errentagarri egiteko. Hortik etorriko litzateke orain arte arrazoi historiko edota estrategikoak zirela medio sektore publikoak egindako jarduera produktiboak (batez ere errentagarrienak, energia edo komunikazioak, adibidez) sektore pribatura itzultzearen edota tradizionaliki Estatuak eskaini dituen zerbitzuak sektore pribatura trasladatzearen aldeko apustua.

Azpiegituren alorrera mugatuz<sup>2</sup>, ikus dezagun kasu honetan ere antzeko argudioak mahaigaineratzen dituztela ekimen pribatuaren alderako aldaketa hori azaltzeko: azpiegituren ustiapenean eragile pribatuek publikoekin baino emaitza hobekak lor ditzaketela, lan- eta industri-harremanei dagokienez, malguagoak izan daitezkeenez baliabideak (eskulana, kasu) modu produktiboagoan erabil ditzaketelako; edota batzuetan enpresa pribatuak ez daudelako sektore publikoa bezain

---

2. Azpiegituren alorrean nagusi diren ildo liberal berrien inguruko azalpen eta hausnarketa egiteko, Gómez Uranga eta Etxebarria (1994) lana hartu dugu oinarritzat.

lotuta proiektu jakin bateko faseen sekuentziari (planifikazioa, diseinua, eraikuntza eta kudeaketa) eta malgutasun horrek epeak denbora laburragoan lortzea ahalbidetzen die.

Aurreko baiezen hori zalantzan jar daiteke, eta, gainera, badago beste hainbat elementu aintzakotzat hartu behar direnak ekonomiarako azpiegituren pribatizazioak ekar ditzakeen balizko onurak balioetsi nahi denean eta, nolabait, sektore pribatuaren soluzioak kasu guztietan efizientzia bermatzen duten bakarrak direneko uste liberala zalantzan jarriko luketenak.

- Efizientzia globalaren ikuspegitik finantziario pribatu eta publikoaren artean aukeratzekoan kontuan izan behar dira ekonomiarentzako guztizko finantza-kostu; izan ere kasu askotan eraikuntza/kudeaketa pribatuaren abantailak kostu sozialen gehikuntza nabarmen batekin batera gerta baitaitezke.
- Pribatizazioak ondorio negatiboak izango ditu azken erabiltzailearentzat; inbertitzaile pribatuak errazago hartuko du parte kapital munta handiak eskatzen dituzten azpiegitura proiektuetan baldin eta etekin handia lortzea espero badute; kapital pribatuari jarduera horretan parte-hartzea errentagarri gerta dakion, sarrerek kostuak konpentsatu beharko dituzte, prezioetan ere islatuko dena.
- Zenbait egoeratan garraio-zerbitzuen finantziario publikoa beharrezkoa dela onartzen dute pribatizazioaren aldeko sutsuenek ere bai. Adibidez, beharizan sozial nabarmenak daudenean; tarifa jasotzearen kostuak erabiltzaileei ordainarazteagatik lortutako efizientzia baino handiagoak direnean; zenbait garraio bideen garrantzi estrategikoa dela-eta pribatizazioa ez-komenigarritzat jotzen denean.

Ez genuke ahaztu nahi, bestalde, sarritan errentagarritasun ekonomikoa eta soziala bat ez datozela, bereziki duela gutxi onartutako zenbait kostu kontuan izaten baditugu (kutsadura, kongestioa, zarata) edota gizartearen ongizaterako desiragarri diren helburu batzuk ere (lurralde- eta gizarte-oreka handiagoa, adibidez).

Dena den, nagusitasun liberaleko testuinguruan bertan ere sektore publikoaren esku-hartzeak funtsezkoa izaten jarraitzen du garraio-azpiegituren proiektuen garapenerako. Azpiegitura nagusien diseinu eta planifikazio orokorretan ez ezik finantziario arloan ere esku hartzen du, finantziario modu desberdin eta konplexuak bideratzeaz gain, ia beti bere aurrekontuen bidez eginkizun horretan zuzenki parte hartuz.

Kontuan izan dezagun azpiegitura proiektuak prestatzea, egitea eta ustiatzea hainbat arrisku dakartzala<sup>3</sup>, parte-hartzaile desberdinen artean modu konple-

---

3. Finantziarioa eta arriskuari buruzko gaiaz luzeago jardun genuen honako lane honetan: Gómez Uranga, Franco eta Etxebarria (1998).

xuan banatzen direnak. Horien artean berezko garrantzia hartzen dute arrisku soziopolitikoek; proiektuaren egingarritasuna kolokan jar lezaketen arazoak saihestu nahi badira eragindako taldeekin (erabiltzaile potentzialen taldeak, zergapekoak, ukitutako lurraldeak eta komunitateak) akordio eta konpromiso espezifikoak lortu beharko dira, eginkizun horretan sektore publikoak parte-hartzea funtsezkoa izanik, transakzio- eta bitartekaritza-kostuak<sup>4</sup> minimizatzeke.

Eragin espazialaren aldetik begiratuta ere, oso kontuan hartzekoa da azpiegituren finantziazioaren esparruan gertatzen ari diren aldaketa hauek guztiak. Kudeaketa edo zerbitzuak errentagarritasun pribatuko irizpideren menpe geratzean eta parte hartzen duten enpresek epe laburrretan mozkinak lortzea helburu izanik, azpiegitura-proiektuak eskari potentzial handiko espazioetan kontzentratuko dira; hots, azpiegitura-sareen arloan erregulazio publikoa ezabatzearen praktikak lurralde-oreka handiagoa ahalbidetu beharrean garapen ekonomikoaren eta aberastasunaren kontzentrazio espazialerako joera areagotuko luke.

### 2.3. Nagusitzen ari den lurralde-ereduaren ezaugarriak

Ekonomiaren nazioarteratze gehikorraren eskutik merkatuko lehia nabarmenki areagotu da, eta lehia bortitz horren atzean gertatuko dira doikuntza eta berregituraketa industrialeko prozesuak.

Mendebaldeko herrialde industrializatuei dagokienez, produkzio-egituran eraldaketa sakonak gertatuko dira. Orain gutxi arte ekonomiaren oinarri izan diren industria tradizionalak garrantzia galduko dute nabarmen, garapen-bideko herrialdeetako kostu-baldintza hobeen aurrean lehiarako zailtasun itzelak izango baitituzte. Horren ondorioz, herrialde horietan lehiakortasunari eutsi ahal izateko balio erantsi altuko goi-mailako jarduerak gero eta garrantzi handiagoa lortu beharko dute haien produkzio-egituretan.

Goi-teknologiako industria berriak eta produkzio-zerbitzu aurreratuak dira, zentzu horretan, herrialde hauetako produkzio-sistemen espezializaziorako zutabe nagusi gisa aurkezten zaizkigunak. Testuinguru berrian, eta esandakoaren ondorioz, hiriak indartuta agertzen zaizkigu<sup>5</sup> eta beraz hirien arteko eta hiriekiko konexio- eta komunikazio-bide eraginkorrak izatea nahitaezko bihurtzen da lurralde baten garapenerako.

---

4. Kostu horiek honako hauekin egongo liriteke erlazioan: *diseinu- eta eraikuntza-faseetan*, prestakuntza, planifikazioa, oinarritzko arau juridikoak, azterketa teknikoak eta aholkularitzak, bidegarritasun-azterketak, adituei kontsultak, herritarrei kontsultak, inpaktu-azterketak, informazioa eta publizitatea (inbertitzaileak erakartzeko edota biztanleak eta instituzioak konbentzitu edo informatzeko); *kudeaketa-fasean*, sarrerak jasotzeko puntuak instalatzeko material beharrezkoa, operadore pribatuei jarraipen eta kontrola, eta funtzionamendu eta kudeaketarako beharrezko diren auditoretza-azterketak (Gómez Uranga eta Etxebarria, 1994: 16-17).

5. Gai honen inguruko hausnarketak Sassen (1994) edota Castells (1997) lanetan aurki daitezke.

Ekonomia *global* horretan, lehia gero eta gehiago ezagutza eta ikaskuntzan oinarritutakoa bilakatzen ari den heinean, erregio eta toki-espazioak interesgarriak izan daitezke kapitalerako<sup>6</sup>. Izan ere, ezagutza berriaren sorkuntza eta informazio egokiaren prozesaketarako gaitasuna eta etengabeko berrikuntza eta egokitzapenerako ahalmena neurri handi batean lurraldean txertatutako osagaien araberakoa baita. Horrela, garapen politiken helburua bertan txertatuta dauden potentzialtasun endogeno horiek sustatu eta ahalik eta hobekien erabiltzea izango da.

Berrikuntzaz jardutean azpimarratzen denez, ezagutzaren osagai asko espezifikoa eta tazitoak izaki, oso errotuta daude antolakunde eta toki espezifikoetan. Horregatik gizabanako edota enpresen ikaskuntza-gaitasuna merkatuetako lehian aurrera egiteko nahitaezko izango den bezala, horrela ere erregioen ikaskuntza-gaitasuna funtsezkoa bilakatuko da beren lehiakortasunerako. Lan-indarrak, enpresa-ehunak, zientzia- eta teknologia-erakundeek, bestelako antolakundeek eta beren arteko harremanen izaerak eragin zuzena izan dezakete ingurune berriztatzaile baten garapenerako aukerak eskaintzeko orduan. Hiri-ingurune aurreratuek (metropoliek) izango dute posizio pribilegiatuena.

Garapen-politikek, beraz, gaur egungo testuinguru neoliberean merkatuko indarren eta lehiakortasunaren aginduetara diseinatutako politikak diren neurrian, garapen-potentzial eta jadanik lehiakortasun handiena eskaintzen dituzten toki-espazioei emango diete lehentasuna, hots, hiri-aglomerazio eta eremu metropolitarrak. Izan ere, hiri nagusietan kokatuta daude testuinguru global horretan jarduera estrategiko gisa azaldu zaizkigunak, alegia, finantza-jarduerak, produkzio berriztatzaileak eta sistema osoaren antolaketa eta kudeaketan giltzarri diren zerbitzu aurreratuak.

Horrela ere, hirien arteko harreman jariakorrak gauzatzeko bidea ematen duten sareak gero eta beharrezkoagoak bilakatzen ari dira, hiriek eurek duten protagonismo eraberritu hori dela eta. Zentzu honetan, aparteko garrantzia hartuko luke abiadura handiko garraio-sistemen garapenak (aire, errepide edota tren bidezkoak), baita telekomunikazioenak ere.

Honaino iritsita, argi samar hauteman dezakegu gaur egungo politiken ardatzek zeri erantzungo lioketen: lehia-testuinguru latz batean gobernuek beren aginte-esparruko lurraldearen erakargarritasuna handitu nahi izango dute, horretarako kapital handien interesek gidatutako merkatu-joera nagusiei men eginez eta eremu metropolitarrak hazkundera eta garapena sustatuz (jarduera eta dinamismo ekonomikoaren kontzentrazioak eskaintzen dituen alde onak ustiatu ahal izateko); horrek halabeharrez hiri handi horiek munduaren enparauarekin ondo konektatuko dituzten azpiegitura-sare eraginkorrak eratzea ere eskatzen du.

---

6. Erregio-ekonomiaren alorrean egiten ari diren garapen teoriko berriek azpimarratzen dute erregio eta toki-espazioen eta berrikuntza eta lehiakortasunaren arteko erlazio hori. Ildo horretako hausnarketa interesgarriak honako lan hauetan aurki daitezke: Cooke, Gómez Uranga eta Etxebarria (1998), Morgan (1997), Storper (1995), Maillat (1998), besteak beste.



### 3. **GARRAIOA ETA INGURUMENA: ARAZO BERDIN BATI HELTZEKO BI HURBILKETA ZEHARO DESBERDINAK**

Industria-iraultzaren hasieratik garraioak ingurumenari eragin zion narriadura bizkortuz eta areagotuz joan da azken garaiotan. Teknologia berriek eta garraio-modu berriek, egoera konpontzetik urrun, arazoaren larritasuna areagotu egin dute, bai ingurumenari dagokionez, baita bestelako ondorio sozial kaltegarriei dagokienez ere.

Azpiegiturak ez dira auzi horretatik kanpo geratzen inolaz ere. Ezaugarri batzuk ala beste batzuk dituzten azpiegituren alde egiteak eredu suntsigarriagoak ala ez horren suntsigarriak bultzatuko ditu. Funtsezkoa iritzi izan diogu arazo horren aurrean dauden planteamendua desberdinak jasotzeari, ondoren gizartean kezka handia sortzen duten gai hauei buruz erakundeengandik jasotzen diren jarrerak eta ekimenak balioesteko osagai gehiago izan ditzagun.

*Garraio-ekonomia estandarrak* gaur egun nagusi den pentsamendu ekonomikoan ditu bere oinarriak. Bilbe kontzeptual neoklasikoarekin koherentzian, ez ditu aintzat hartzen garraioaren ingurumenaren gaineko ondorioak eta ondorio sozialak (zarata, poluzioa, lurraren okupazioa, energia-zarrastelkeria, istripuek eragindako hildakoak eta zaurituak, etab.)<sup>7</sup>, unibertso ekonomikoari ez dagozkion kanpokotasuntzat hartuz. Dena den, azken hamarkadetan sortutako ingurumenari buruzko eta arazo sozialak direla-eta, autore batzuek “garraioaren kanpo-kostuak internalizatea” proposatu dute, garraioak sortutako ondorio negatiboak prezioak esleitzearen bidez. Baina kontua da aipatutako kanpoko eragin gehienaren balioespen monetarioa egiteko orduan ez daudela onargarritasun-maila nahikoa lor dezaketen irizpideak.

Garraio-ekonomiak ikuspegi neoklasikoa aplikatuko du garraio-sistemaren azterketa eta antolamenduari buruzko analisisan. Ardatz nagusiak<sup>8</sup> honela laburbil daitezke:

- a. Garraio ez-motorizatuaren modu desberdinak (eta bereziki oinez mugitzearena) analisi-eremutik kanpo uzten ditu (etekin eskuragarri, baloragarri eta trukagarriak sortzen ez dituzten neurrian ez baitira produkzio ekonomikotzat hartzen).
  - Ildo beretik, garraioaren ingurumenaren gaineko ondorio eta ondorio sozial ez monetagarriak ere alde batera geratuko dira, kanpokotasun gisa hartzen baitituzte (hots, sistema ekonomikoari edo truke balioen unibertsoari ez dagozkion faktore gisa).

7. Estevan eta Sanz-ek (1996) beren liburuan aurkezten digute ondorio horiei guztiei buruzko berrikuspen aski osatua, argibidetzat Estatu espainiarreko datuak agertuz. Hor agertzen denak garraio-arloan egindako hautuak berraztertuarazi egingo dizkigute bati baino gehiagori.

8. Kontzeptuen inguruan ikuspegi sakon eta osatuagoa Naredo-ren (1996) *La economía en evolución* liburu ezagunean.

- b. Garraio-jardueraren barne soilik pertsona zein merkantzien joan-etorri eta lekualdatzeak hartuko dituzte aintzakotzat (garraioaren ziklo fisikoaren ezin bananduzko atal diren beste batzuk kanpoan utziz —hain zuzen ere: ibilgailuen eta azpiegituren eraikuntza eta mantentzea).
- c. Bere helburua ahalik eta baliabide edo produkzio-faktore gutxiena erabilita, ahalik eta *garraio*-balioaren produkzio handiena lortzea da (errealitatera eramanda ahalik eta abiadura handiena esan nahiko duena). Behin maximo bat aurkituta, ondorengoaren bila joko dute, energia eta baliabide naturalen kontsumo gehikorra ekarriko duen planteamendu batean.

Esandakotik ondoriozta daitekeenez, ikuskera horrek garraioaren konpatibilizazio ekologikoa barneratzeko muga nabarmenak agertzen ditu: batetik, jarduera ekonomiko eta sozialen kokapenari buruzko kontuak (garraio-beharrak definitzeko orduan funtsezkoak direnak) beste disziplina batzuen esku uzten ditu; bestetik, lurraldea soilik garraio-beharrizan batzuen euskarri pasibotzat hartzen duen neurrian ez ditu aintzakotzat hartzen sistemak berak dituen muga ekologikoak; muga horiek gauditutak suertatuko dira, are gehiago helburua ahalik eta hazkunde maximoa lortzea izanik.

Dena den, zenbait muturreko egoeren jasanezintasunaz-jabeturik eta errealtatean bistakoa den eta kezka ugari sortzen duten arazoei nolabait erantzun beharri aurre egiteko, garraio-ekonomia konbentzionaleko zenbait sektoreren aldetik heldu zaigun proposamena kanpo-kostuen internalizazioa izan da (ondorio negati- boei prezioak jarritz eta erabiltzaileari ordainaraziz)<sup>9</sup>.

Garraioari buruzko ikuspegi konbentzional horren aurrean, *garraio ekonomia- ren hurbilketa ekologikoa* (Estevan eta Sanz, 1996: 43-49) hasi zaigu gorpuzten. Hastapen nagusiak aurreko ikuskeran azaldu ditugunekiko erabat desberdinak dira: muga ekologikoak aintzatestea; baliabide naturalen titularitate kolektiboa; prozesu fisiko/ekonomikoen orobateratasuna; balio monetarioak, ingurumenari buruzkoak eta balio sozial guztiak eskema kontzeptual bakarrean integratzea; argi izanda ingurumenari buruzko balioak zein balio sozialak moneta-unitateetara ezin bihur dai- tezkeela (bihurtezintasuna<sup>10</sup>). Bistan denez, ikuspegi konbentzionalean eta orobat garraio- eta azpiegitura-plangintzen arduradunen artean nagusitzen ari den *kanpo- kostuak* kontzeptuak ez du lekurik ekonomia ekologikoaren planteamenduan.

---

9. Arrazoibide neoklasikoari jarraiki, kostu horiek termino monetarioetan *modu egoki batean* balioetsita badaude, oreka-puntu berria optimo ekonomiko orokor berri batean egongo da, zeinean orain baliabide naturalen erabilera optimoa eta, berebat, zaraten, poluzioen, istripuen eta abarren maila *optimoa* izango dugun.

10. Martínez Alier-ek (1992) iradokitzen digu ekonomia ekologikoaren funtsetako bat den hau (bihurtezintasun edo neurtezintasunarena).

Ikuspegi horren arabera, mugikortasuna eta irisgarritasuna desberdin behar dira. *Mugikortasuna* sistema sozioekonomiko jakin batean pertsonen edo merkatuen burutzen dituzten desplazamenduen kopurua neurtzen dituen aldagai kuantitatiboa litzateke; *irisgarritasuna* komunitate bateko kideek beharrak edo nahiak asetzeko bitartekoak dauden tokietarainoko distantzia egiteko duten erraztasuna adierazten duen aldagai kualitatiboa.

Hortik abiatuta, irisgarritasunaren hobekuntza bi modutara lor daitekeela azpimarratzen dute:

- Bata, tokiak garraio-sistemaren efizientzia handiago baten bidez irisgarria-  
goak eginez (hortaz, garraio-sistema etengabe indartzen aritzea beharrezkoa  
izango da, mugikortasun motorizatuaren gehikuntzari bide emanez).
- Bestea, irisgarritasuna hurbiltasunarekin parekatuz eta beraz, nahi edo  
behar bat asetzeko egin beharreko desplazamendua ahalik txikiena izan  
dadila sustatuz.

Azken horrek, garraioaren ikuskera ekologikoak aurkezten dituen aukerak, *hurbiltasuna sortzeari* emango dio garrantzia, mugikortasuna eta garraioaren produkzioa berez positiboak diren balio izateari utzi eta gizakien behar eta nahiak asetzeko onartu beharreko ordaintzat hartuko lirakeke.

Estevan eta Sanz-ek (1996: 44) adierazten dutenez, hurbiltasuna sortzea giza jarduera desberdinen kokapenaz harago doan kontzeptua da, “berebat, eta batez ere, produkzioaren eta kontsumoaren antolaketari, gizabanakoen hamaika beharrizan eta desira asebetetzeko erei eta, oro har, antolaketa sozioekonomiko orokorrari aplikatzen dakiekeen kontzeptua da”. Hurbilekoa balioestea, inguru hurbilean eskura dagoen oro kontu handiz erabiltzea eta urrutirako desplazamenduak soilik hurbileko baliabideen bitartez ase ezin daitezkeen beharrizan eta nahi garrantzitsuak konpontzeko erabiltzearen norabidean emandako urratsak lagungarri dira hurbiltasun-sorrera horretan.

Esan gabe doa ekonomiaren globalizazioa kontrako norabidean doan joera dela, hain zuzen; izan ere, etengabe ari baita urruntasuna sortzen eta, zentzu horretan, berez jasangaitza den eredu baten aurrean kokatzen gaituela.

Jasangarritasuna eta ziurtasuna helburu gailen gisa kokatzeak beste garraio-eredu batera eramango gintuzke, harreman ekonomiko eta sozialei dagokienez aldaketa nabariak ekarriko lituzkeenak. Eta, horrexegatik hain zuzen ere, balio kolektiboen aldaketa sakona izan beharko du oinarri. Epe luzearen ikuspegitik, hurbiltasuna sortzearen bidetik jo beharko litzakeen arren, epe laburragoan ez sakoneko eraldakuntza ekonomikoak ezta biztanleriaren mugikortasun absolutuari murrizketarik ekarriko ez dioten neurriak ere aplikatzen has daitezke: pertsonen mugikortasun motorizatuaren nolabaiteko moderazioaren bidez, merkantzien

mugikortasunari dagokionez historikoki izandako hazkunde-joerari eutsiz, garraio-bideetan ingurumenari kalte txikiagoa egiten dioten moduen alderako transferentzia bultzatuz eta, halaber, garraio-bideen erabilera arduratsuegia (abiaturaren, okupazioaren eta garraio-sareen kudeaketan). Horrek guztiak, jakina, azpiegituren inbertsioen eta plangintzen berrikusketa eskatuko luke<sup>11</sup>. Hartu beharreko neurriek eragile sozio-ekonomiko eta herritar guztiengan eragina izango duten heinean nahitaezkoa da eztabaida-prozesu gardena bultzatzea, informazio ugari, fidagarri eta asotarikoaz horniturik, honelako bideari ekiteak izan ditzakeen kostuak eta onurak bere neurrian kontrastatu ondoren adostasun-maila onargarri batera heldu ahal izateko.

Edozein kasutan, hurbilketa horren bidez azter dezakegu garraioak sortutako ingurumen- eta gizarte-narriadura, baita gizarte jakin bat narriadura horri zenbaterainoko mugak jartzeko prest dagoen ere. Muga horiek ezartzeko orduan, kolektibitate bakoitzak kontuan izango ditu bere erreferentzia soziokulturalak, ingurumen-narriadurari dagokionez onartzeko prest dagoen maila maximoa zehaztuz eta, halaber, sor litezkeen ez-betetzeak kontrolatzeko jarriko dituen mekanismoak.

#### **4. GARRAIO-AZPIEGITURAKO POLITIKAREN EZAUGARRIAK ETA MUGAK**

##### **4.1. Garraio-azpiegituren funtzioa eta ezaugarriak**

Zalantza barik garraio-azpiegiturak funtsezko osagaia bilakatu dira gero eta globalizatuagoa den munduko ekonomia modu eraginkor batean egituratzeko. Eskala handiko produkzioa eta banaketa bideratzeko ez ezik ezinbestekoak izango dira, berebat, gestio eta kontrolerako gune estrategiko gisa nabarmentzen ari zaizkigun hiri- eta metropoli-eremuak ere elkarrekin lotzeko. Hots, azken finean, mundu-mailako dimentsioa duen produkzio-ereduaren funtzionamendua ahalbidetzeko.

Aurrekoarekin batera, kontuan hartzekoa da azpiegitura-proiektu berriak ikuspegi neoliberalaren gailentasuna bereizgarri duen testuinguru batean ari direla definitzen, eta horrek ere utziko du bere arrastoa.

Lehiakortasuna eta merkatu-irizpideen nagusitasunaren pean, alde zuzenetik abiaburuko posizio hobea duten lurralde eta espazioen aldera bideratuko dira inbertsioak. Erakundeen aurrekontuei, gainera, murrizketa eta muga garrantzitsuak ezarriko zaizkie, gastu publikoa baldintzatuz. Horrez gain, sektore publikoaren esku-hartzearen inefizientziak eta, aldiz, merkatua eta sektore pribatuaren onurak azpimarratzen dituen diskurtso orokorraren haritik, azpiegituren finantziazioan eta kudeaketan parte-hartze pribatua bideratzeko formulak nagusituko dira. Horrela,

---

11. Estevan eta Sanz-ek (1996) aipatutako lanean askoz landuagoa aurkezten dute hemen bi hitzetan jaso dugun proposamena, epe motz eta luzea bereiziz eta kasu bakoitzean jarraitu beharreko urratsak zehaztuz.

proiektu desberdinen arteko lehenetasunak finkatzeko orduan finantza-errentagarritasunak izugarritzko garrantzia izango du, bestelako helburu batzuk bigarren maila batean utziz (adibidez, lurraldearen egituraketa orekatuagoa).

Esandako guztiak ondorio nabarmenak izango ditu azpiegituren diseinuan (eta hortaz, lurraldeen arteko harremanen konfigurazioan): garapen handiko lurraldeak abiadura handiz elkarrekin lotzeko azpiegiturretara eta, orobat, metropoli handien barne-mugikortasuna ziurtatzeko azpiegiturretara zuzenduko dira ahaleginak zein baliabideak, nazioartekoa/tokikoa sustatzeko joera horretan jarduera ekonomikoa eremu metropolitarretan are gehiago kontzentratzeko aukerak indartuz.

#### ***4.2. Lurraldearen ikuspegitik, desoreken gehikuntza eta irisgarritasun-arazoak***

Ahalmen handiko azpiegitura-proiektuek (abiadura handiko trenak, autobideak, tamaina handiko aireportuak eta portuak...) lurralde- eta erregio-desoreken gehikuntza ekar dezakete herrialde baten barnean eta baita herrialde desberdinen artean ere. Lurralde batzuk hazkunde ekonomikoko guneetatik, aberastasuna eta enplegua kontzentratzen diren horietatik, urruntzen doaz eta horrek dakarren pixkanakako kohesio-galerak espazioen marjinazioa eragin dezake, baita eremu metropolitarrak prosperoen barruan ere; halaber, pobrezia gerturatuko diren biztanle multzo batzuen bazterketa soziala.

Baina, aldi berean, jarduera ekonomikoen, enpleguaren, administrazio publikoen, kultura-jardueren, garraioaren eta abarren gehiegizko kontzentrazioak aglomerazio-desekonomiak sorrarazten ditu gero eta eremu metropolitarrak eta hiri-eremu gehiagotan. Ondorioak honako hauek dira: poluzioa eta ingurumenaren narriadura, kongestioa (biztanleriaren aldetik, trafikoa, etab.), bizi-kalitatearen gutxikuntza, enpresentzako kostu ekonomikoen gehikuntzak, etab.

Kontzentrazioa areagotzen duen lurralde-ereduak, beraz, arazoak ditu. Eskualde jakin batzuetan, batetik kongestio-arazoak dituztenetan eta bestetik periferian kokatuta daudenetan, ondasun eta zerbitzuen zein herritarren mugikortasunak txarrera egin dezake. Hots, irisgarritasuna mugatua eta oztopatua izango dute, bai bertara iristeko bai bertatik beste espazioetara joateko; horrek gainkostu ekonomiko eta sozialez gain, jarduera eta enplegu berriak erakartzeko aukeren galera ere eragin dezake.

Lurralde baten barne-integrazio eta kohesioaren ikuspegitik, garapen orekatuago eta homogeneousagoa ez da azpiegitura-sare handiak edukitzearen ondorioa. Herrialde batean azpiegitura-sare zabalak difusioa eta sendotzea gerta dadin beharrezko da erregio-barneko sareak garapena. Azpiegitura-sare handien internazionalizazioak ez du, alabaina, erregio-garapen integratuagoa bermatzen, baizik eta aitzitik jada posizio finkoena duten zentroak sustatzen. Testuinguru honetan, sare europarren difusioaren ondorioz erregio-barneko zentroen arteko erlazioak, hala nola Bilbo-Iruñea-Gasteiz artekoak, potentziatuko direla imajinatzea zail samarra

egiten zaigu. Kohesio-maila handiagoa lortzeko beharrezkoa da Euskal Herriko eremu desberdinen garapen orekatuagoa; horretarako, atzerriko zentro eta erregioekiko konexio ona ahalbidetu ez ezik barneko harremanak eta konexioak ere maila guztietan indartuko lituzketen azpiegitura-sareak sustatuz, beraz.

### ***4.3. Ingurumenari eragindako presioa***

Azpiegitura-proiektu handi horiek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak ikaragarriak dira. Kontuan hartzekoak dira, jakina, azpiegituren eraikuntzak berak dakartzan erasoak lurraldearen okupazioaren aldetik zein energia-kontsumoaren aldetik. Ildo horretan ezin ahantz dezakegu ezen, garraio-azpiegiturek sortutako ingurumen-eraginaren intentsitatea, bertatik zirkulatuko duten ibilgailuen abiadurarekin erlacionatutako diseinu-ezaugarrien arabera ere badela. Eta horrela, AHTren eta ahalmen handiko autobideen kasuan, abiadurak trazaketa baldintzatzen du, lurzoruari egokitzeko malgutasuna kenduz, eta zaratak eta energia-kontsumoa gehiarazteaz gain, inguruko lurraldearekiko irisgarritasuna murrizten du. Korridore azkar horietan berezko arreta eskatzen du hesi-efektuak, baita lurzoruen erabile-raren aldakuntzak ere.

Baina aurrean izan behar dugu, berebat, sustatzen den garraio-sistemak eragiten dituen ondorioak, alegia, mugikortasun motorizatuaren gehikuntza etengabea, honi loturiko arazo guztiekin: kutsaduraren gehikuntza, zaratak, energia-kontsumo neurrigabea eta energia-menpekotasuna, etab.

### ***4.4. Finantziazioaren arazoa***

Azpiegitura politikak, gaur egun dagoen moduan planteatuta aurrera egin ahal izateko finantziazioaren aldetik baliabide-kopuru izugarriak behar ditu. Sektore publikoak bere aurrekontuen zati esanguratsuak bideratu beharko ditu azpiegituren alorrera, bestelako ekinbide posibleen kalterako (adibidez, lurraldearen egituraketarako gutxienez horiek bezain funtsezko diren beste proiektu xumeagoen edota izaera sozial, birbanatzaile handiagoa luketen jardueren kalterako).

Baina horrez gain ezinbestekoa bihurtzen da kapital pribatuaren parte-hartzea ere eta, horren ondorioz, finantziatio-formula berriak deitutakoak (askotan elkarte publiko-pribatuen bidez gauzatzen direnak eta azken buruan erabiltzaileari azpiegituraren erabileragatik ordainaraztea ondorio izaten dutenak). Halere, eta azpiegitura-proiektu handiak berez arrisku handikoak diren inbertsioak izaki, errentagarritasunaren bermeak inolako zalantzarik ez duen kasuetan izan ezik, bestelakoetan nahiko zaila izaten da sektore pribatua honelako ekimenetara erakartzea. Horrek batzuetan proiektua bera bertan behera utzi beharra ekar dezake edo, agian, administrazioak finantziatio osoa bere gain hartzea, aurrekontuetan azpiegituretako inbertsioaren aldera are desoreka larriagoa gertaraziz.

#### **4.5. Kontsentsu eta akordioak lortzeko zailtasunak**

Gaur egun dagoen esparru instituzionalak eta eskumenei buruzkoak administrazio jakin batetik egin daitekeen azpiegitura- eta garraio-politika baldintzatzen du. Izan ere, askotan bat baino gehiago dira tartean dauden administrazioak, horrek erabakiak hartzeko prozesua, finantziazioa, kudeaketa, eta abar are zailago eginez. Administrazioek lehentasun eta irizpide desberdinak izaten dituzte, eta horrek sarritan elkarlana eta jarrera bateratuak lortzeko zailtasunak ekartzen ditu.

Kontuan izan behar da, halaber, eta neurri handi batean ingurumenean eragiten dituzten ondorio larriak eta bereganatzen dituzten baliabide-kopuru izugarriak direla eta, azpiegitura proiektuek gizarte-mailan ikusmina eta eztabaida piztu ohi dutela.

Azpiegitura-proiektu bat burutzeko prozesuak nolabaiteko defizit, demokrati-koa agertzen du, bere fase desberdinetan (plangintza, diseinua, ebaluazioa, kudeaketa, kontrola, etab.). Eragile sozial eta ekonomiko guztien benetako parte-hartze aktiboak prozesua aberastuko luke, kontsentsuak eta akordioak erdiesteko baldintzak jarriko lituzke, sortzen ohi diren gatazkak ezabatzeko baldintzak sortuz, eta legitimitate soziala emango lieke proiektu hauei eta oro har azpiegitura-politikari.

Administrazioen arteko akordiorik ezak edota gizartearen aldetiko kontrako jarrerak gerorapen jarriak eragin ditzakete proiektu baten bilakaeran, proiektuaren inguruko ziurgabetasuna areagotuz. Ziurgabetasun hori gehi proiektuek beraiek dakartzaten arriskuak direla eta, are zailagoa suerta daiteke inbertitzaile pribatua proiektu jakin batera erakartzea.

### **5. ADIBIDE GISA: ABIADURA HANDIKO TRENA EUSKAL HERRIAN**

#### **5.1. Abiadura Handiaren aldeko apustua**

Erakunde desberdinen eta beste zenbait eragileren aldetik ere trenbidezko garraio konbentzionalaren alternatiba gisa abiadura handiko trena aurkezten zaigun arren, horren garapena ez dago batere argi.

Nazioartean, soilik lau herrialdek jarri dituzte martxan abiadura handiko trenak: Japonia, Alemania, Frantzia eta Italia; eta gainera laurek ezaugarri berdin batzuen gain: berez eta alde zuzenetik eskari handia zuten trenbide-sare batzuetan eraikiko dituzte abiadura handikoak eta gainera dauden lineen osagarri, alegia, trenbide konbentzional azkarren bideari eutsiz. Are gehiago, Europan aitzindari izan diren herrialde horiek beroriek abiadura handiko proiektu berrietako batzuk berraztertzen ari lirateke, trenbide konbentzional azkar eta modernoan aurrerari kasu handiagoa eginez.

Beste herrialde batzuek ere (hala nola: Suitza, Danimarka, Grezia, Austria, Erresuma Batua edota Irlanda) badute beren trenbide-sareak azkarragoak egiteko asmoa (Erresuma Batuan 224 km/orduko abiadurainokoak, Irlandan 175 km/ordurainoko eta gainerakoetan 200 km/ordurainokoak) baina abiadura handirako sare berezi bat eraiki gabe (Antolín, 2000: 2).

Bistan denez, hortaz, munduko herrialde aurreratuenen artean ez omen dago jarrera bateratu argia garraiobide horren eraikuntza eta erabileraren alde egiteko orduan. Hori horrela izateko arrazoiaren artean, Abiadura Handiko trenak (hots, 220 km/orduko abiaduraren gainetik ibil daitekeena) badauzkala ohiko trenbide konbentzionalaren oso desberdin egiten duten osagaiak: teknologia berezia izateaz gain (seinaleztapen-sistema, elektrifikazio-moduak, etab.) batez ere trazatuaren ezaugarri geometrikoak oso bestelakoak direla: abiadura handi horrek kurba eta malda gutxiko trazatu zuzenak behar ditu; eta horrela azpiegitura hauen kasuan abiadurak baldintzatuko du trazatua eta trazatu horrek inposatuko dituen ezaugarri egokitu beharko zaie lurzorua, tunelen, bidezubien, lubeten, eustormen eta abarren bitartez.

Horrek guztiak ondorio nabarmenak izango ditu azpiegitura horiek jasoko dituzten espazioetan:

- *Ingurune fisikoaren gaineko* eragin larria, besteak beste, honako honengatik: (i) oso hesi-efektu bortitza (ibilbide osoan hesi-barnean doalako), oso kaltegarria dena giza ingurune zein ekosistemarako, (ii) lurzoru behar handia (plataformaren zabalera 14m-koa gehi menpeko eremuak, burdinbidearen alde bakoitzean 50 metrokoak izateraino iritsi daitezkeenak), (iii) energia-kontsumo handia (eta honekin batera menpekotasuna eta energia lortzeko azpiegitura erraldioen beharra, ingurumen-eragin larrikoak horiek ere), (iv) kutsadura akustikoa (gomendatutako mailatik oso gora dagoen zarata sortzen baitu), (v) istripu larriak (abiadura handiarekin istripu-arriskuak eta batez ere berauen norainokoak handitzen baitira).
- *Lurraldearen ikuspegitik*, hiriburu arteko konexio azkarrak bultzatzen dituen neurrian, hiri-aglomerazio handietako kontzentrazioa eta zentralizazioa ere ari da areagotzen, tamaina erdiko hiri eta herrien kalterako; horrez gain, ondorio bereziki kezkarriak eragiten ditu landa-ingurunean: ingurumenaren gaineko inpaktuari nekazaritzako lurren galera erantsi beharko genioke eta berebat landa-udalerrien irisgarritasun arazoek gehikuntza.
- *Finantza kostuak* askoz ere altuagoak izaten ditu eta aldi berean errentagarritasun baxu samarra (inbertsio-, mantenimendu- eta ustiapen-kostu altuak direla eta). Bidaia-txartelak ere altuagoak izan beharko dira, proiektuak gutxienez finantza-orekan egon behar badu. Azpiegitura horren hartzaile izango den erregioarentzat zama ikaragarria izan daiteke, urteetarako gastu-murrizketa handia eragin dezakeena.



Kontuan izan behar dugu tren horien ezaugarri behinena, eta izenak berak adierazten duenez, *abiadura handian* datzala, eta horrek zenbait muga eta arazo eragiten ditu.

Alde batetik, gelditzeak izugarri jaisten ditu batez besteko abiadurak, eta horrexegatik trenbideak hobeto moldatzen dira geldialdirik gabeko eta distantzia ertain eta luzeko ibilbideetan; eta hortaz, hirigune handien arteko lotura areagotzen du baina lurraldeko gune ertainen bizkar.

Bestetik, arazoak sortuko zaizkigu azpiegitura horrek aldi berean bidaiariak eta merkantziak garraiatzea nahi badugu.

Merkantzien garraioak gehieneko abiadura txikiagoak (140 km/orduko ingurukoak) behar dituzte, bagoiak eta burdinbideak ere pisu handiagoa eramateko prestatu behar dira eta malda txikiagoak onartzen dituzte ibilbidean. Hortaz, erabilerera mistoak posible badira ere sareak edo bidaiarien garraioari edo merkantzienari eman beharko dio lehenetsuna, ibilbide eta trazatua horren arabera egokituz.

Abiadura norbaitentzat garrantzitsua izatekotan, bidaiarientzat izango da, merkantzia gehien kasuan, aldiz, entrega-epari buruzko fidagarritasuna izaten baita abiadura baino garrantzitsuagoa.

Abiadura-handitze horrek dakarren denbora aurrezkoa, hala ere, erlatibizatu behar da. Geltokitik geltokirako denbora izaten da normalean ematen digutena baina horri erantsi beharko litzaioke geltokietaraino iristeko behar izango dena (geraleku gutxiago egonda, herri ertain askok lehen baino denbora luzeagoa emango dute honetan) eta orobat geltokietatik hiriguneetarainoko tartekak behar duena (AHTk dituen ezaugarri teknikoek zail samar egiten baitute geltokiak hiriburuen erdiguneko espazioetan kokatzea). Gainera ez da ahaztu behar bidaiarientzat abiadura garrantzitsua dela, baina baita prezioa, maiztasuna, erosotasuna, segurtasuna eta abar ere.

Abiadura Handiko Trena nagusiki bidaiarientzat pentsatuta dagoen garraio-bide bat da; horregatik, merkantzien garraiorako AHTk garapen txikiagoa izan du; orain arte eta erabilerera mistoko lineak egon diren arren, trafiko-mota bi horien arteko bateragarritasuna ez dago oraindik modu eraginkor batean lortuta.

Merkantzien garraioari buruzko kontu horretan azpimarratzekoa da Italiak, Estatu espainiarrak<sup>12</sup> eta Alemaniak linea mistoak dituzten arren Estatu frantsesak ez duela halakorik, hots soilik bidaiarientzat egokitutakoa dago hauen AHT sarea. Horrek AHTaren sare espainiarrak merkantzien garraiorako izan dezakeen

---

12. Estatu espainiarrean egun funtzionamenduan dagoen AHT bakarra Madril-Sevilla tartekoa hasiera batean merkantzietarako ere diseinatu zen arren, ondoren ezin izan zen horretarako erabili, bagoien pisuak burdinbideei kalte egiten zuelako. Ondoren, Madril-Bartzelona AVEa soilik bidaiarientzat dago diseinatuta eta horrek maldak %2,5ean gehitzea ahalbidetzen du.

baliagarritasuna izugarri mugatzen du, Iberia Penintsulatik kontinentera ateratzeko orduan abiadura handiko saretik at geratu beharko bailitzateke.

Edonola ere, eta gorabehera horiek guztiak mahai gainean, Europako Batzordea 1986az geroztik ari da abiadura handia sustatzen, garraio bide honen europar sarea osatzeko asmoz. Estatu espainiarreko administrazio desberdinek ahalegin izugarriak egingo dituzte euren proiektuak sare transeuropar horien barnean onartuak izan daitezzen.

Horrela, abiadura handiko trenbide-sarea milaka kilometroko hedadura lortuko luke XXI. mende honetako lehen hamarkadan. Aurreikuspen hori, hala ere, ez da oso sinesgarria ezta planifikatzaileentzat beraientzat ere, finantziario-ahalmen nahikorik ez dagoelako, eta gaur egun hainbat egitasmotan dauden atzerapenek eta inkognitek berrets dezaketenez.

## 5.2. *Euskal Herriko Abiadura Handiko Trenaren proiektua*

Gaur egun proiektuan dagoen azpiegitura lan erraldoiena eta lur-eremu handiena okupatuko duena da. Euskal Herriari dagokionez, hiru zati ditu: *Euskal* Ya Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian; Nafarroako korridorea; eta Behobia eta Baiona bitarteko zatia, Ipar Euskal Herrian, Akizeraino luzatuko litzatekeena. Hiru zati horiek kontuan hartuta, 467 kilometro trenbide berri egingo litzateke. Guk aurrerantzean EAEko jardueri eta zehazkiago *euskal* Yari emango diegu arreta.

Ukaezina da trenbidezko azpiegiturek gure lurralde zati honetan dituzten defizit itzelak, bereziki hiriburuen arteko loturari dagokionez, baita Penintsularen gainerakorako eta Europarako konexioei dagokienez ere. Halere, aspalditik datorren gabezia izanik, orain 15 urte hasi ziren arazoari aurre egiteko lehen proposamenak.

1987an Espainiako Garraio, Turismo eta Komunikaziorako Ministerioak plazaratutako Trenbidezko Garraio Planean Bilbo-Penintsulako Meseta ibilbidea hobetzeko asmoz Bilbo-Gasteiz artean trazaketa berria proposatu zuen; Eusko Jaurlaritzak geroago aurkeztu zuen Euskadiko Trenbide Plana, non hiru hiriburuen konexiorako proposamena aurkezten zen. Esan beharra dago hasierako proposamen hori ez zela abiadura handiko tren gisa planteatzen, izan ere, gehienez 200km/orduko abiadurarako zegoen diseinatuta.

Proposamen hori oinarritzat harturik, 1988an RENFE eta Eusko Jaurlaritzaren artean lankidetzak akordio bat sinatu zuten eta horri jarraiki geratu zen Euskal Herriko Trenbide-Alternatiben Azterketa. Lan hori egiteko, arestian aipatutako Euskadiko Trenbide Plana hartu zuten abiapuntu; oinarritzko txosten hori gainera, egokitu egin zen Espainiako Ministroen Kontseiluak 1988ko abenduaren 9ko bileran abiadura handiari eta nazioarteko zabalera lineei buruz onartutako irizpide berriak eransteke. Halaber, trafiko mistorako ezaugarriak eman zitzaizkion proiektuari (horrek abiadura mugatzea bazekarren ere).

Hasieratik ikus daitekeenez, beraz, trenbide-azpiegiturei dagozkien eskumena ez daude erabat gobernu autonomikoaren esku; horrexegatik izango da beharrezkoa bi aldeen arteko lankidetzaren etengabea, nahiz eta batzuetan ez den behar bezain jaria suertatzen.

Euskal administrazioek tinko eutsi diote proiektu horri, azken hamarkadan egindako txostenei erreparatuz ikus daitekeenez<sup>13</sup>. *Euskal* Ya deitutakoak 194 kilometro bide izango lituzke Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta 441 hektarea lur okupatuko lukete trenbideek. Halaber, alderik alderako bosna kilometroko segurtasun-hesi bat paratuko lukete ibilbide osoan. Zuzenean kaltetuko lituzkeen lur-hektareaz gain, zeharka, 207.000 hektareatan izango luke eragina azpiegitura berriak, alegia, hiru lurraldeotako lurren heren batean. Ehunka hektarea nekazari-lur —441,3 hain zuzen ere—, baso eta akuifero hondatuko lituzke, besteak beste trenbide berriak. Ingurumen Eraginaren Deklarazioak berak onartu du zenbait tokitan eragin larria eragingo duela (*Euskaldunon Egunkaria*, 2001-04-21).

Esan gabe doa proiektua, definizio zein diseinuko ezaugarriei dagokienez, Europar Batasunean zein Estatuan bultzatzen ari diren irizpide eta ildoekin erabat bat datorrela. Zentzu horretan ekar dezagun gogora *euskal* Yaren proiektua (hots, Gasteiz-Akize trenbidea eta Bilboko adarraren arteko lotura) “Espainia-Frantziako Atlantiko aldeko trenbide lotura: Madril-Valladolid-Gasteiz-Akize” izeneko proiektu transeuroparraren barnean kokatuta dagoela. Estatuko administrazioaren aldetik, 1993-2007 epealdirako Azpiegituren Gida-Planean (MOPTMA, 1994) jada aipatzen zuten delako proiektua eta berrikiago ere badirudi oniritzia ematen zaiola; 2000. urtearen bukaera aldera ingurumen eraginari buruzko aldeko aitorpena egin edota trenbide-sare berriaren gaineko azterlan informatiboa onartu izanak agerian uzten dutenez.

Arazoak, haatik, finantziarioa esleitzeko orduan azaltzen dira; sarritan txosten eta adierazpen ofizialetan esandakoak baino askoz argigarriagoa izan ohi da benetako lehentasunak non dauden ezagutzeko.

### 5.3. *Euskal “Y”aren finantziarioaren inguruko gorabeherak*

Proiektuaren finantziarioaz ere badago zeresanik. Hasiera batean, aurreikusitako 157.000 milioi pezeta zirenak (Llorens eta Larraya, 1990) 400.000 milioitik gora kokatzen ziren 1996an (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak, 1996: 93); eta gaur egun, 3.365 milioi euro (560.000 milioi pezeta) baino gehiagokoa izango dela aurreikusten da; azken inbertsioak ziuraski kopuru hori ere erraz gaindituko du.

---

13. Adibidez: Eusko Jaurlaritza (1994), Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak (1996), edota 2001eko apirilaren 9ko EHAA-BOPVn agertzen den Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.

Kopurua, berez, kezkarria bada, are gehiago finantziario-iturrien inguruan dauden hutsuneak ikusita. Printzipioz, eta azpiegitura horren gaineko eskumena haiei dagokien heinean, Bruselak eta Madrilek finantzatu beharko lukete. Eusko Jaurlaritzaren ustetan %80 Kohesio Funtsetatik eta gainerakoa Madrilek hartu beharko luke, nahiz eta Lakuako Gobernu bera ere laguntzeko prest agertu den.

Hala ere, eta *euskal Ya* Batasunaren lehentasunezko proiektuen artean egon dagoen arren, Europatik etorriko litzatekeen laguntza ez dago batere zehaztua, Batasunean bertan ez daukatelako argi nola finantzatuko dituzten haiek lehentasunezkoztat izendatu dituzten azpiegitura proiektu horiek guztiek. Arazoak dituzten artean Hegoaldeko AHT agertzen zen eta, bereziki, Atlantikoko adarra (horren barne dago *euskal Ya*), Estatu inplikatuentzat lehentasunik gabe, Mediterraneoako adarra baino askoz ere atzeratuagoa doana.

Zentzu horretan argigarria da 2003ko abenduaren erdialdean Europako Kontseiluak hartu duen erabakia; horren arabera, *euskal Ya* European berehala burutuko diren proiektuen zerrendatik kanpo geratu da. Eta nahiz eta,aldi berean, Europar Batasunak berak proiektuarekiko konpromisoa, hitzez behintzat, berretsi duen, zerrenda horretatik kanpo uzteak *euskal Yaren* atzerapena ekarriko luke gutxienez, beti ere gobernu zentralaren edota Eusko Jaurlaritzaren aldetik Europar Batasunaren lehentasunen gainetik AHTari ekitea erabakiko ez balute behintzat. Dena den, azken aukera horiek ere ez dira batere errazak, kontuan izanda, batetik, bi gobernuen artean dauden tirabirak, bestetik, gobernu zentralaren aldetik *euskal Yarekiko* dagoen interes eskasa eta, hirugarrenik, gobernu autonomikoak proiektua osoki bere gain hartzeko dauzkan muga nabarmenak.

Bistan da, edonola ere, *euskal Yaren* etorkizuna inoiz baino zalantzarikoa dela une honetan. Eta horregatik, memento interesgarria izango litzateke, proiektuaren inguruko erabateko adostasun sozialaren irudia eman nahi duten adierazpen eta ekimen instituzionalen gainetik, gizartean orain arte gauzatu ez den benetako eztabaida bideratzeko.

Gobernu zentralari dagokionez, hasiera batean bazirudien Bilbo-Gasteiz tar-tearen finantziarioa berak hartuko zuela bere gain, Azpiegituren Gida Planaren arabera (MOPTMA, 1994: 399) Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik 0.6 bilioi pezeta esleitzen baitzen zenbait abiadura handiko lanen burutzeko, eta horretan Madril-Bartzelona-Perpiñan ardatzeko Calatayud-Ricla eta Zaragoza-Lleida tartee-kin batera Bilbo-Gasteizkoa ere barneratuta legoke; baina praktikan, eta Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro salatu izan denez, proiektuarentzat esleitu diren kopuruak benetan urriak dira.

Gauzak horrela, 2000ko ekainean bazirudien azkenik, eta 90eko hamarkadako tirabiren gainetik, bulkada erabakigarria eman nahi zitzaiola proiektuari, Espainia-ko Sustapen Ministroak *euskal Yak* 497.000 milioi pezeta jasoko zituela adierazi zuenean. Gainera, adierazpen horren atzean Europako Kohesio Funtzak helduko

ziren ziur zeudela ematen zuen. Alabaina, ez ziren zehatz azaltzen ez nondik lortuko ziren aipatutako milioiak ezta zein epetarako izango ziren.

Laburbilduz, interes handiena duen erakundearen (alegia Eusko Jaurlaritzaren) ahalmenetik harago doan proiektu honen finantziazioari buruz oraindik ere zalantzak agintzen du, zuzenago inplikaturako erakundeek (Europar Batasunak eta Espainiako Gobernuak) aldeko jarrera behin eta berriro agertu arren ez baitituzte diru-funtsei buruzkoak xehetasunez azaldu ezta horren inguruan konpromiso argirik plazaratu ere.

Edozein kasutan, eta 3.000 milioi eurotik gora (bilioi erdi pezetatik gora) ibiliko den kopuruetaz ari garenez, beharrezko finantziazioa lortuko balitz, horrek eragingo lukeen zorpetzeak urte askotako aurrekontuak hipotekatuko lituzke, beste jarduera eta beharrian sozialen kalterako. Alegia, esleipen hori talde eta sektore sozial batzuentzat kontrako eta kaltegarria suertatuko da, gure gizartean jada dagoen dualismoa areagotuz (Gómez Uranga, Franco eta Etxebarria, 1998: 259).

#### **5.4. Inplikaturako estatuen jokabidea**

Finantziazioari buruz jardutean agerian geratu denez, euskal administrazioen aldetik ikus daitekeen tinkotasunarekin alderatuz deigarria da beste administrazio horiek agertzen duten zalantzazko jarrera, eta horrek egitasmoaren inguruko ziurgabetasuna areagotu besterik ez du egiten. Zehazki Estatu espainiarreko gobernu eta administrazio frantsesa auzi honen inguruan izaten ari diren jokabideaz ari gara.

Azken horretatik abiatuta, esan beharra dago *euskal* Yak Europako azpiegitura handiko sarearen parte izan nahi badu guztiz beharrezko duela abiadura handiko sare frantsesari (TGVri) lotuta egotea, eta horretarako Akizerainoko korridorea ezinbestekoa gertatzen da.

Estatu frantsesa, ordea, Iberiako Penintsularekiko lotura gisa Mediterraneo aldekoari ematen ari zaio lehentasuna hastapenetik. Eta, ondoren ere, Estatu frantseseko arduradunek azken urteetan egiten ari diren adierazpenek hasierako jarrera berresten duten neurrian ez dute jarrera baikorregiak izateko leku gehiegirik uzten.

Bestalde, Espainiako gobernu zentralaren jarreraren inguruan bi kontu izango ditugu mintzagai: lehenengoa, Mediterraneoko aldearen ondoan Atlantikokoari ematen zaion lehentasun mailaren ingurukoa; eta bigarrena, *euskal* Y proiektuak berak koiuntura politikoaren aldaketekiko duen zaurgarritasuna.

Atlantikoko eta Mediterranioko adarren arteko lehentasunei buruzko auzian, Eusko Jaurlaritzak batak eta besteak maila bereko lehentasuna dutela uste du. Haatik, 1988ko abenduaren 9ko Ministro Kontseiluaren akordiotik eta halaber 1993-2007 urtealdirako Azpiegituren Gida Planean (MOPTMA, 1994) administrazio zentralak Madril-Zaragoza-Bartzelona ardatza jartzen du goragoko mailan.

Hasierako urteetako uste horiek denboran zehar gero eta nabarmenago geratu dira, finantziarioari buruzko atalean esandakoari begiratu besterik ez dago: inbertsio mardulenak, eta alde handiaz, Madril-Zaragoza-Bartzelona ardatzera bideratu dira, eta korridore hori da gaur egun aurreratuen dagoena.

Bestalde, *euskal Yaren* asmoa abiatu zenetik, zenbait koiuntura politiko izan ditugu, eta horrela gobernu zentral berri bakoitzak proiektua berraztertzeari ekingo dio euskal erakunde nazionalistekin eta, zehazki, PNV-EAJrekin ezartzen dituen hauteskunde-osteko aliantzen arabera. Horrek proiektuak hasieratik berarekin dakarren ziurgabetasuna areagotzen du; izan ere, proiektuaren gauzatzea, azpiegiturak beste hainbat gairekin batera (aurrekontuak, kupoa, fiskalitatea, inbertsio estrategikoak, legegintzaldirako akordioak, etab.) aztertzen dituen negoziazioek baldintzatua geratzen baita. Horrela, gainera, beste alderdi batzuk alboratuak gera daitezke, adibidez, garapen estatutarioa hipotekatuz azpiegitura-sareei emandako lehentasunaren ondorioz (Gómez Uranga, Franco eta Etxebarria, 1998: 256).

Dena den, akordio horiek oinarri juridiko sendo baten gain eraikiak ez egoitean hauskortasun nabarmena agertzen dute, eskuarki alderdi ahulenaren kalterako, hots, autonomia-erkidegoaren kalterako; hortaz, etengabe birnegoziatu behar izaten dira une bakoitzeko indar-korrelazioaren arabera.

EAEko eta Estatu espainiarreko administrazioen arteko tirabiren azken pasarte berriki bizi izan duguna: Eusko Jaurlaritzak 2002ko abenduan *euskal Yaren* sei tarteetan proiektuen idazketarako kontratuak esleitzeko lehiaketa iragarri ondoren, 2003ko otsailean Espainiako Sustapen Ministerioak bertan behera utzi zezala eskatzen zion, bestela epaitegietan horren aurka egingo zutelakoan. Eta horren arrazoa bistakoa zen: Eusko Jaurlaritza berari ez zegozkion eskumen-eremu batean sartzen ari zen.

Edonola ere, GIF<sup>14</sup>ek 2003ko apirilean esleitu zituen *euskal Yaren* hiru tartee-tako lanen proiektuen idazketarako kontsultoria eta asistentzia teknikorako kontratuak.

Edozein kasutan agerian geratu da erritmoak eta finantziazioa gobernu zentralak kontrolatzen dituela eta honek Eusko Jaurlaritzarekiko konpromiso eta erabaki sendoak (besteak beste, finantziazio-iturriak edota lanak egiteko egutegia zehaztuz) hartzen ez dituen bitartean oso zalantzezko egoeran geratuko da proiektua bere etorkizunari dagokionez.

Laburbilduz, beraz, estatu inplikatuak dute ez interes gehiegirik ez jarrera argirik proiektu honekiko (beste kasu batzuetan agertzen dutenarekin alderatuz). Estatu frantsesak zein Estatu espainiarrak gaur egun askoz dinamikoagoa den

---

14. *Gestor de Infraestructuras Ferroviarias*: trenbide azpiegiturak (bereziki tarte berriak) eraiki eta, hala dagokionean, kudeatzeko ardura izango duen erakunde publiko enpresariala, Espainiako Gobernuak 1997an eratu.

ardatza, hots, Mediterraneokoa da benetan lehenesten eta sustatzen dutena, garapen gutxiagoko ardatzen kalterako. Europan, halaber, lurralde-orekako irizpideei lehiakortasunarena gailentzen zaien neurrian lehentasunak ildo beretik doaz. Estatuaren axolagabetasun eta epeltasuna ikusirik ez da harritzekoa, beraz, Europako erakundeetatik egiten zaion jaramon eskasa.

Inplikaturak erakundearen aldetikoa jarrera honek *euskal* Yak bere bidean oztopo eta zailtasun politiko-administratibo ugari topatuko dituela aurreratzen du (izan ere, hala ari da izaten). Agian ez legoke lekuz kanpo beste hainbat alderdirekin batera (hala nola finantza-zamak, erabilgarritasuna, kalte ekologikoak, erantzun soziala, etab.) osagai hori ere kontuan izatea eta *euskal* Yaren proiektuari buruzko sakoneko hausnarketa bultzatzea (proiektua bera birplanteatzearen aukera ere aintzakotzat hartu beharko lukeena).

### 5.5. *Lurralde-kohesioa eta nazioarteko konexioa*

Euskal trenbide-sarea gaur egun oso eskasa da, ez soilik barne kohesioari egindako ekarpenaren ikuspegitik baizik eta nazioarteko zein erregioarteko trenbide-sareekiko konexio-aukerei dagokienez ere bai. Errealitate horri erantzun nahian proposatzen da *euskal* Yaren proiektua, bi izanik honen bultzatzaile nagusi den Eusko Jaurlaritzak azpiegitura horren bidez lortu nahi izango lituzkeen helburuak: alde batetik, EAeko hiriburuen artean trenbidezko elkarlotura egokia lortzea, eta beste aldetik, euskal lurraldeak inguruko ekonomiekiko integrazio-maila handiagoa, hau da, Penintsularen gainerakoarekin eta Europarekin dituen konexio-bideak hobetzea. Administrazioa Zentralaren interes nagusia bigarren xede honetan finkatuko litzateke, batik bat.

AHT proiektua *Lurralde Antolamendurako Artezpideetan* (LAA) jasotzen den lurralde-plangintzaren barne txertatuko litzateke, espazioaren osagai egituratzaile eta bertebratzaile gisa. Baina izatez abiadura handiko trenak bere ezaugarriak direla-eta (aurrerago azaldu dugunez) lurralde-desorekak areagotu egiten ditu hiri-kontzentrazio handi eta metropolien mesederako. Euskal Herriari dagokionez, desoreka hori hiriburuen onurarako izango litzateke barneko eskualdeen kaltean; hots, kontzentrazio are handiagoa eraginez, jada jarduera ekonomiko eta sozialen kontzentrazio altua agertzen duten eremuetan, lurraldearen enparaua hustu eta baztertzeko joera indartuz. Horrelako azpiegitura batek euskal landa-ingurunean nekez arrazoizkotzat har litekeen inpaktu fisiko, ekonomiko, sozial, ekologiko eta kulturala eragingo luke.

Euskal Herriaren moduko lurraldeetan, neurri txikiko eta orografia malkartsu-koak, ez ohi da AHTa bezalako azpiegiturarik planteatzen, izaera ekonomikoagoa duten beste arrazoi batzuek gain, AHTa hesi artifizial iraganezina bihurtzen delako zeharkatzen duen lurraldean, lurzoru asko kontsumitzen duen azpiegitura bat izatez gain. Gainera, AHTren sarrerak sarritan bestelako garraiobide batzuk (baita

trenbide konbentzionala ere) zokoratzea ekartzen du, bere kostu altu eta bere funtzioa direla eta.

Azken finean, proiektu honen bidez hirien sistema hierarkizatu batean oinarritutako lurralde-ikuskerak bat sustatu nahi da, lurraldea metropolien eskariak eta interesak asetzeko erabiliz eta antolatuz.

Bigarren helburuaz, nazioarteko sareekiko loturari buruzkoaz, oraindik finkatzeke dauden kontu guztiak zehazten ez diren bitartean, ez omen dago guztiz argi EAeko trenbide-proiektu garrantzitsu hori zein puntutaraino izango den baliagarria Europako garapen-ardatzekiko integrazio handiagoa lortzeki dagokionez.

Estatu frantsesak ez badu bere gain hartzen berari legokiokkeen, alegia Hendaiatik Akizerainoko tartea, *euskal* Yak Europako Atlantikoarekiko izan zezakeen loturarik gabe geratuko litzateke. Egoera horretan (orain artekoak ikusita nahiko hipotesi errealista dena, bestalde), Europarekiko lotura Mediterraneo ardatzaren bidez egin beharko litzateke eta horretarako funtsezkoa da *euskal* Ya korridore nafarraren bitartez Zaragozatik joango den Madril-Bartzelona-Estatu frantsesa ardatzari lotzea. Horrela ere Estatu espainarreko metropoli nagusiekiko lotura (Madril eta Bartzelonarekikoak) bermatuko lirateke, Madrilekiko kasuan Valladolidetik joango litzatekeen aukerari beste hau erantsiz.

Halere, Nafarroako korridore horrek ere zalantza bat baino gehiago eragin ditu. 2001eko ekainean Iruñean Espainiako Sustapen Ministerioko, Nafarroako Herrilan Saileko eta Iruñeko Udaleko buruek izandako lan-bileran, abiadura handiko trenari bultzada eman eta 2007rako AHTa Iruñeraino iritsiko zela aurreikusi zuten. Baina, aitzitik, ez luke ziurtatuta izango *euskal* Yarekiko lotunea, Benigno Blancok —Sustapen Ministerioko Idazkariak— argi adierazi zuenez (*Euskaldunon Egunkaria*, 2001-06-28): “Orain Iruñean bukatzea da gure asmoa eta, 2000-2007 urte bitarteko egitasmoaren arabera ez dago ez baliabiderik ez egutegirik Iruñetik iparraldera igotzeko Abiadura Handiko Trenarekin”, eta nazioarteko zabalera duen trenbideak jarraitu, jarraitu beharko zuela, baina hori 2007tik aurrera aztertu beharko zela erantsi zuen.

Nazioarteko/erregioarteko konexioei buruzko helburua kolokan<sup>15</sup>, euskal lurraldearen egituraketarako abiadura handiko trenaren beharra ere zalantzan jarriko litzateke; aldi berean, azpiegitura mota horrek dauzkan ingurumen- eta finantza-kostu handiak ez dituen trenbide konbentzional moderno baten aldeko alternatiba indartuta aterako litzateke.

Dena den, ezin da ahaztu AHTren aldeko apustu horren atzean erabat komunikaziozkoak ez diren helburuak ere egon daitezkeela, esate baterako bai

---

15. Gogora dezagun, gainera, AHTaren sare frantsesa ez dagoela trafiko mistoetarako eginda eta, beraz, merkantziei dagokienez, *euskal* Yaren bidez ez litzatekeela Europarekiko konexio hoberik sortuko ezein kasutan.



nazioarteari bai barneari begira ere, industrializazio zaharreko erregioaren irudia beharrean, etorkizuneko erregio metropolitarratu baten irudia ematearekin zerikusia izan dezaketenak, inbertsioa erakartzeko ahaleginean.

### **5.6. Gizartearen parte-hartzea bideratzeko erari buruzkoak**

Bestalde, honelako makroproiektuek normalean sortu ohi dituzten beste arazo istilutsu bat ere agertzen zaigu *euskal* Yaren kasuan: gizarteko sektore desberdinekin eta bereziki proiektuak eragindakoeekin lortu beharreko parte-hartzeko bide eta akordioari buruzkoak.

Trenbide konbentzionalaren oso desberdina den azpiegitura erraldoi eta ingurumen eragin handikoa denez, kezka handia sortzen du herritarrengan, are gehiago neurri handiko beste garraio-azpiegitura batzuekin batera planteatzen direnean eta euskal geografiaren ezaugarriak direnak izanda. Lehen sektoreari eragiten dizkion kostu ekonomikoak ere itzelak dira.

Gainera AHTa ez da herritarren gehiengoak erabiliko duen garraio-modu bat<sup>16</sup>, aitzitik ondasun kolektibotzat hartzen direnen banaketan dagoen arrail soziala handiaraziko luke (Gómez Uranga, Franco eta Etxebarria, 1998: 260). Kontuan izan behar da, bidenabar, AHT proiektuak baliabide ekonomiko izugarriak bereganatuko lituzkeela, beste erabilera batzuen kalterako (esate baterako, trenbide konbentzionala, lurraldea integratzeko eta egituratzeko funtsezkoa dena; edota izaera birbanatzaileagoa izan dezaketen beste jarduera batzuk).

*Euskal* Yaren kasuan proiektua ezagutarazteko erabilitako prozedura ezin txarragoa izan da. Batetik, ez da gizarte-mailako eztabaidarik bideratu AHTren beharraz edo ez. 1989tik beretik proiektuaren inguruan egon den obskurantismo eta sekretismoak erabat indargabetu dute informazio eta parte-hartze publikoko prozesua.

MOPTMAk (Espainiako Herrilan Ministerioak) 1994an ateratako ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko lehen txostenaren inguruan sortutako zenbait erantzun aipatuko ditugu, egoeraren adierazgarri gisa. Trenbide berriaren eragina nozituko duten udal, erakunde eta elkarteei igorritako txosten honetan hiru traza-keta aukera planteatzen ziren alternatiba gisa. Zenbait erakunde ekologistek berehala altxatu zuten ahotsa, haien esanetan<sup>17</sup>: alde batetik, kontsulta-fasea izan behar zukeena ez zela benetakoa, izan ere proiektua onartutzat ematen baitzen, eta hiru

---

16. Zentzu honetan interesgarria da 1993-2007 epealdirako Azpiegituren Gida Planean (MOPTMA, 1994: 148) AHT sareari buruz esaten dena: "*La red se concibe, por lo tanto, para prestar un servicio de alta velocidad, competitivo con la aviación y capaz de atender preferentemente las demandas de viaje por motivo de trabajo y negocios*".

17. Ikus 1994ko azaroaren 16-17ko prentsa.

trazaketa alternatiboak aurkeztuz proiektua bere osotasunean eztabaidatzea saihestu nahi izan zutela, hau da, abiadura handiko trenbidearen beharra bera ez zedila eztabaidatu; bestalde, txostenean ingurumenak izango duen eragina ia ez zela aipatzen, eta horren ondorioz, bazirudiela benetako eztabaida gertaraziko lukeen informazioa emateko baino publizitatea egiteko balio zuela txostenak.

Bestetik, udal mailatik ere jaurtiki dira kritikak. AHTren moduko azpiegiturak, interes orokorrekotzat jo eta udalerrira gainditzen dutenak, praktikan udalerrien erabakitze-ahalmena baztertzen dute, hauek izan ditzaketan eredu ekonomiko eta sozialen gainetik igaroz.

2000. urtearen bukaera aldera izandako mugimenduek (*euskal Yari* bultzada erabakigarria ematen omen ziotenak) berpiztu eta biziagotu zuten herritarren erantzuna. Eragina zuzenean jasoko duten udaletako asko, AHTren aurkako asanblada, hainbat talde ekologista eta bestelako gizarte-eragile, sindikatu eta alderdiak biltzen dituen koordinakundea eratu zen 2001eko urtarrilean. Informazio- eta kontzientzia-zio-lanak egiteaz gain, herritarrak mobilizatzeko ekimenak ere proposatzen dituzte,aldi berean bide instituzionalean egin daitezkeen esku-hartzeekin batera (adibidez, 2001eko udaberrian eta koordinakundeko udalak aitzindari, Sustapen Ministerioak AHT proiektua baimentzeko hartutako erabakiaren aurka helegitea aurkeztea eta berebat EAeko Trenbide Lurralde Plan sektorialaren aurka).

Horrek guztiak, nolabait, egitasmo handien inguruan polemika eta ondoeza sortzea nahiko arrunta dela uzten du agerian; beraz, planifikatzaileek kontuan izan beharko lukete akordio sozialak lortzearen garrantzia, parte-hartze publikorako egiazko prozesuen bitartez, horrela gatazkak proiektuaren garapenean eragin ditzakeen atzerapenak edota gailak saihestu ahal izateko.

## **6. AZPIEGITURA-POLITIKAREN BERPLANTEAMENDURAKO ZENBAIT GAKO**

### **6.1. Azpiegitura-politika, eredu ekonomiko eta sozialaren baitan**

Honaino iritsita, gero eta argiago ikusten dugu garapen-eredu orokorrari buruzko eztabaidaren beharra, hor kokatzeko azpiegituren eginkizuna eta baita garapena bultzatzeko beharrezkoak liratekeen bestelako neurriak ere.

Azpiegitura-politika eraginkorra izan dadin ezin daiteke berau soilik planteatu, berarekin batera beste politika batzuk ere jarri behar dira martxan (industria-politika, hezkuntza-politika...), beren arteko osagarritasuna bermatuz. Horretarako, aldeztu aurretik politika horien guztien helburua zein izango den zehaztu eta argitu beharko litzateke, alegia, zein motatako gizarte eta ekonomia lortu nahi den. Beste batzuen artean, bertoko barne-egituraketari buruzko oinarriak eta kanpoarekin izan nahi ditugun harremanak zehaztu beharko lirateke. Zentzu honetan, garraio- edo

telekomunikazio-arloetako azpiegituren bidez garatu daitezkeen kanpo-sareak barnean ingurune berriztatzaile baten garapena ahalbidetuko luketen baldintza egoki batzuekin osatu beharko lirateke, kanpo-sareek merkatuen garapenaren gain izan ditzaketen efektuak modu eraginkorrean aprobetxatu ahal izateko. Horrelako planteamendu batek gizarteko sektoreen parte-hartzea eta lankidetzak eskatuko luke (langileak, enpresariak, unibertsitatekoak, zenbait administrazio-mailakoak, zentro teknologikoak, hiritarrak, etab.). Beraz, hain garrantzi handiko erabakia agintariek ez ezik gizarte osoak ere hartu beharko luke, horrela proposa daitezkeen egitasmoak legitimatuak egon eta bideragarriak izan daitezzen.

### **6.2. Baliabide urriak (*lurraldea eta ingurumena zein finantzabideak*)**

Agintariek jarraitu beharreko norabidea mugatuko lukeen helburu orokor hori behin finkatuta dagoenean eta azpiegituren arlora itzuliz, erabili beharko diren baliabideak urriak direla izan behar dugu kontuan: alde batetik, finantzabideak mugatuak daude, eta, bestetik, lurraldeak eta ingurumenaren defentsak ere beste muga garrantzitsua osatzen dute. Urritasuna abiapuntutzat hartuz, azpiegitura-proiektuen planifikazio orokor bat egitea litzateke zuzenena eta beharrezan eta garapen-helburuak betetzea ahalbidetuko duen aukera egokiena aukeratu, bikoiztasunak ekidinez, finantziazioan gehiegikerian erori gabe eta ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egin.

### **6.3. Gutxieneko akordioen beharra**

Gizartean jarduten duten eragileek eta herritarrek norabide berean jotzeko gutxieneko akordioa lortzeko ahaleginak egin beharko lirateke: zenbait administrazioen arteko tirabirak saihesteko, sektore pribatua eta oro har gizartea errazago inplikatzeko, baliabideen erabilera ezarritako lehentasunak edota neurriek eragindako efektuen inguruan jarrera ulerkorragoak eraginez, horretarako kalteak leuntzeko neurri konpentsagarrien beharra aintzat hartuz. Testuinguru orokor horretan, gaur egun nagusi den ereduaren aurrean bestelako eredu batzuk eztabaidatzeko atea zabalik uzteaz gain, berau bideratzeko baldintza egokiak sortu beharko lirateke.

### **6.4. Eztabaidarako: eredu alternatibo baten oinarriak**

Gaur egun nagusi dugun ereduaren aurrean, beste ezaugarri batzuk izango litzuzkeen eredu alternatibo bat honako oinarri hauen gain eraiki daiteke:

- Euskal Herria bere osotasunean jasoko duen ikuspegia: baliabide publikoen erabilera arrazoizkoagoa eta ingurumenaren gaineko eragin mugatuagoak izateaz gain lurraldearen eta hortaz, haren gainean gertatzen diren harreman ekonomiko, sozial, kulturalen egituraketarako funtsezkoa baita. Bistan denez bideragarria izan dadin herrialdeen arteko egungo lehiak gaingitu beharko lirateke; eta zatiketa administratiboa muga garrantzitsua dela ukatu gabe

ahaleginak egin beharko lirateke hainbat alorretan akordioak eta kontsentsuak lortzeko.

- Lurralde-egituraketari dagokionez, garapen orekatuagoaren sustatzailea: hazkunde ekonomikoa hiriburuko metropolien inguruan kontzentratzeko joerak areagotu beharrean patroi sakabanatuagoak sustatuz; horretarako, besteak beste, eta nazioarteko sareetan txertatzeko bideak baztertu gabe, barnean sare egituratzaile trinkoagoa eratzearen aldeko apustu tinkoa gauzatuz.
- Eredu jasangarria, ardua ekologikoa lehen mailan kokatuz: lurralde-plan-gintzan lurzoruen erabilera orekatuagoari garrantzia emanez (produkzioa, kontsumoa, aisia edota etxebizitza-arloak kontuan hartuz), eta horrekin batera kontsumo- eta produkzio-eredu desberdinak sustatuz (tokikoa baliotsiz eta bertoko lurraldea egituratu ahalik beharrian gehienak inguru hurbilean asebateak izan daitezen).
- Eredu parte-hartzailea: lurraldea eta berau itxuraldatu eta egituratzeko erabiltzen diren baliabide publikoak herritar guztiena izaki, parte-hartze eta erabakitzerako modu eraginkorrak bideratuz; herritarrengandik hurbilenen dauden erakundeek erabakitze-ahalmena indartuz, ikuspegi orokorragoa berma dezakeen erregio-mailako administrazioaren eskumenak zabalduz, baina halaber toki-erakundeei zor zaien protagonismoa aintzat hartuz.
- Baliabideen erabilera arduratsuan oinarritutakoa: lurraldearen lehiakortasunari eusteko beharrezkoak diren jarduerak burutuz, baina aldi berean neurritz gaindiko proiektuen aurrean bestelako aukera xumeagoak ere aintzakotzat hartuz eta hauek izan ditzaketan abantailak lehenetsiz. Azpiegituren eraikuntzak besterik gabe hazkunde ekonomikoa dakarren ideia zalantzan jarri eta askoz ere zuhurrago jokatu beharko da.

### ***6.5. Garraio-azpiegituren alorrean kontuan hartzekoak***

Garraio-azpiegiturei dagokienez, behinik behin honako alderdi hauek hartu beharko lirateke kontuan politika berri baten planteamendua egitean:

- Merkantzien trafikoak eta bidaiarien trafikoak zio eta helburu desberdinak dituzte, eta hortaz soluziobideak ere zeinek bere neurrikoak beharko du.

Merkantziei dagokienez, eta errepidezko azpiegituren aukerak agertzen dituen muga eta oztopo nagusien aldean, portuek eta trenbideak eskaintzen dituzten abantaila ukaezinak balioetsi behar dira.

Bidaiarien trafikoari dagokionez, hiri-eremuetako eta erregio barneko desplazamendutarako automobil pribatuaren bidezko eredu bultzatzen jarraitzeak dauzkan eragozpenen aurrean, garraio publikoari arreta gehiago eskaini beharko litzaioke (desplazamendu laburren motorizatu gabeko

moduak bideratzeko azpiegiturak eta neurrien egokitasuna ere ahaztu gabe).

Erregiotik kanpoko desplazamendu luzeagoetan, trenbidea eta hegazkina-  
ren arteko eskaintza egoki bat ziurtatu beharko litzateke.

- Garraio publikoak ingurumenean zein gizartean eragiten dituen onurak aintzat hartu behar dira azpiegitura politikak diseinatzeko orduan. Garraio publikoa bultzatu behar bada, kalitatezkoa izan behar du, trenbide-sare zabal eta eraginkor batean oinarrituta, eta autobusak edota tranbiekin osatuko litzatekeena; garraio-sistema publikoaren funtzionamendu efizientea bermatzeko beharrezkoak diren bestelako azpiegitura osagarriak (geltoki intermodalak, aparkaleku erosoak tren/bus geltokien inguruan) eta kudeaketa egokia ere eskainiz.
- Garraio-modu desberdinen eginkizuna, beren arteko uztarketa eta, horren ondorioz, azpiegitura politikaren ildo nagusiak birplanteatu beharko dira.

Horrela errepidean oinarritutako garraio-sistema bultzatzen jarraitzeak ekar ditzakeen eragozpen eta mugak aintzakotzat hartu behar dira. Errepidezko azpiegiturak gainerakoen eta, bereziki, trenbidearen aurrean duen abantaila nagusia hura baino askoz ere potentzialtasun egituratzaileagoa duela da, baina kontrako aldean kostu sozial eta ingurumenezko kostu altuagoak izateaz gain ezin ahaztu daiteke gaur egun agertzen diren kongestio-arazoak direla-eta, eta horiei aurre egiteko errepide-azpiegitura hedatzeak dakartzan ezintasunen ondorioz, beren eraginkortasuna izugarri mugatzen dela.

Kalitatezko trenbide konbentzional modernoak gaur egun duena baino garrantzia eta presentzia handiagoa lortu beharko luke garraio-sisteman eta azpiegitura-plangintzetan. Abiadura Handiko Trenei dagokienez, kostuak eta litezkeen onurak aurrez aurre jarri eta ondoren azpiegitura mota honen beharra birplanteatu beharko litzateke.

Portu- eta aireportu-sistemaren erabilera arrazoizkoa bultzatu beharko litzateke, gaur egun lurralde desberdinetan dauden azpiegiturak ahalik modu eraginkorrean aprobetxatuz, aldi berean segurtasun- eta ingurumen-eraginaren aldetik errespetu osoa ere bermatuz.

Intermodalitatea errealitate bihurtu beharko da, garraio-modu desberdinak sistema oso bakar batean integratuz, horretarako azpiegitura politika bateratua guztiz beharrezkoa izanik.

- Sektore publikoak, agente pribatuak, herritarrek garraio-azpiegiturak diseinatzeko eta finantzatzeko orduan duten funtzioa aztertu beharko litzateke. Eztabaidan eta erabaki-hartzearen prozesuan gizarteko sektore guztien parte-hartzeko bide demokratiko eta eraginkorraz gain, gaur egun

lehentasunak finkatzeko orduan nagusitzen zaizkigun zenbait irizpide ere (errentagarritasun finantzarioarena, adibidez) zalantzan jarri beharko lirateke, horrek finantziazio-formulen berrikusketa badakar ere. Azpiegituren finantziazioan beste hainbat ezaugarritan bezala (garraio-moduak, azpiegituren ibilbideak eta kokapena, tamaina, kudeaketa-erak) kontsentsu zabalak erdiesteko ahaleginak egin beharko dira.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Antolín, J. E. (2000): “El debate del Tren de Alta Velocidad dentro del sistema ferroviario vasco”, *Euskonews & Media*, **80**, (aldizkari elektronikoa).
- Arizkun, A.; Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (Koord.) (1998): *Soberanía Económica y Globalización en Euskal Herria*, Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.
- Castells, M. (1997): *La Era de la Información. Economía, Sociedad y Cultura. Vol.1: La Sociedad Red*, Alianza Editorial, Madril. Jatorrizko testua: 1996koa.
- Cooke, P.; Gómez Uranga, M. eta Etxebarria, G. (1998): “Regional systems of innovation: an evolutionary perspective”, *Environment and Planning A*, 1563-1584, 30.
- EHAA (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria /Boletín Oficial del País Vasco), zenbait ale.
- Estevan, A. eta Sanz, A. (1996): *Hacia la reconversión ecológica del transporte en España*, Los libros de la catarata/CCOO/Bakeaz.
- Eusko Jaurlaritz eta Foru Aldundia (1996): *Euskadi XXI: Plan Interinstitucional de Infraestructuras y Revitalización de Areas Desfavorecidas*, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritz (1994): *Euskal Sektore Publikoaren Epe Ertainerako Ekonomi Plana 1994-1997*, Gasteiz.
- Fernández Durán, R. (2000): “Movilidad motorizada, globalización económica y ‘proyecto europeo’: un análisis crítico de las políticas de transporte de la UE”, txostena honako jardunaldietan aurkeztua: *Las redes transeuropeas (RTE) y el modelo federal de la UE: una visión desde Euskadi*, 2000ko urtarrila, Bilbo (egileak berak emana).
- Gómez Uranga, M. eta Etxebarria, G. (1994): *Institutional Agreements and Long-term Infrastructure Finance Schemes*, EAEPE 1994 Conference: “Challenges to Institutional and Evolutionary Economic Theory: Growth, Uncertainty and Change”, Copenhagen, Danimarka, urriak 27-29.
- Gómez Uranga, M., Franco, H. eta Etxebarria, G. (1998): “Las redes de infraestructura y el desarrollo regional”, in: A. ARIZKUN, E. GALARZA, eta M. GÓMEZ URANGA (Koord.), *Soberanía Económica y Globalización en Euskal Herria*, Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.

- Llorens J. L. eta Larraya, J. (1990): “Las infraestructuras de comunicación en el País Vasco: localización, conexiones y accesibilidad”, *Papeles de Economía Española*, Serie Comunidades Autónomas: País Vasco, **9**, 105-136.
- Maillat, D. (1998): “Interaction Between Urban Systems and Localized Productive Systems: An Approach to Endogenous Regional Development in Terms of Innovative Milieu”, *European Planning Studies*, **6**, 2.
- Martínez Alier, J. (1992): *De la economía ecológica al ecologismo popular*, Icaria, Bartzelona.
- Martínez González-Tablas, A. (2000): *Economía Política de la Globalización*, Ariel, Madril.
- MOPTMA (Ministerio de Obras Públicas, Transportes y Medio Ambiente) (1994): *Plan Director de Infraestructuras 1993-2007 (2. argit.)*, Madril.
- Morgan, K. (1997): “The Learning Region: Institutions, Innovation and Regional Renewal”, *Regional Studies*, **31**, 491-503.
- Naredo, J. M. (1996): *La economía en evolución*, Siglo XXI, Madril. (2. argit.).
- Sassen, S. (1994): *Cities in a world economy*, Pine Forge Press, Thousand Oaks (Kalifornia).
- Storper, M. (1995): “The Resurgence of Regional Economies, Ten Years Later: The Region as a Nexus of Untraded Interdependencies”, *European Urban and Regional Studies*, **2** (3), 191-221.
- Zurbano, M. (1998): *Munduko Ekonomia: Botereak, disparekotasunak eta egonkortasun-eza Kapitalismo globalean*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.





# Ingurumenaren informazioa Euskal Telebistan

Joana Mendiburu, *Elhuyar*

Inork gutxi ematen ditu egunean ordu pare bat baino gutxiago telebistari so. Bakoitzak bere ordutegiaren eta interesen arabera aukeratuko ditu gustukoaren dituen emankizunak, —halakorik topatuz gero, behintzat— baina, ikusi, guztiek ikusten dugu. Hortaz, artikulu honetan agertuko diren aipamen eta ondorioak ez litzaizkioke inori arrotzak egin beharko. Azken finean, helburua ez da gauzak ongi ala gaiz-ki egiten diren esatea, horrelako balorazio bat egiteko begiak zabaltzea baizik.

Telebista-ikusle garen heinean, nola ikusten dugu ingurumenaren informazioa telebistan? Zein katek ematen du ingurumenari buruzko informazio gehien? Informazio asko ematea informazio egoki eta objektiboa ematea al da? Zein dira zuentzat ingurumenari buruzko informazioa ematen duten programak? Era horretako galderetatik abiatuta egindako aipamen-sorta da jarraian idatzitakoa.

## ***TELEBISTAREN GARRANTZIA KOMUNIKAZIOAN***

Telebista ia guztiok ikusten dugu. 2002an *Consumer* aldizkariak egindako ikerketa baten arabera, 14 urtetik gorakoek % 89k ikusten du telebista, % 52k entzuten du irratia eta % 36k irakurtzen ditu egunkariak. Datu horiek, aurrez jakina zena ziurtatu egiten dute; hau da, telebista munduari buruzko informazioa emateko ez ezik, munduari buruzko ikuspegia moldatzeko aparteko tresna ere bada.

Ingurumenari buruzko informazioa emateko, telebistan hiru bide daudela esan daiteke: naturari buruzko dokumentalak, gizakiak ingurumenean duen eragina aztertzen duten telebista-programak eta albistegiak. Azter ditzagun banan-banan.

### ***1. NATURARI BURUZKO DOKUMENTALAK***

Natura edo ingurumenari buruzko erreportajezaleek ez ezik, telebista-ikusle orok ere ezagutzen ditu naturari buruzko dokumentalak. Gehienetan, irudi zoragarri osatutakoak dira, baina zenbait helburu izan ditzakete.

Helburu horietako bat ingurune bat promozionatu edo ezagutaraztea da. Esaterako, natura-parke edo eskualde baten promoziorako bide garesti, baina eraginkorra izan daiteke. Enpresa batek kutsadura murrizteko hartzen dituen neurriak ezagutarazi eta ingurunean nola integratzen den erakusteko ere balio du. Normalean, zuzenean aditzera ematen ez bada ere, publiek irakurketa itxurakoak izan ohi dira.

Informazioa eta hezkuntza helburu duten erreportajeak ere izan daitezke naturari buruzkoak. Uraren zikloa erakusten dutenak, hondakinen birziklapena azaltzen dutenak eta abar dira adibideetako batzuk.

Hala ere, naturari buruzko erreportajeetan, denbora-pasa hutsekoak dira nagusi. Irudi ikusgarriz osatu eta ikuslea txunditzea beste helbururik ez dute izaten. Bigarren Mundu Gerra ondoren ezagutu zuten hazkunde nagusia era horretako megaprodukzioek, batez ere, BBC telebista-kateak jarritako diruari esker. 2003ko neguan ETBn emititutako *Blue planet* da megaprodukzio horietako bat.

Ikusgarriak direla ez du inork zalantzan jartzen, baina irudi bereziak hartzeko obsesioak errealitatea manipulatzera bultzatu du bat baino gehiago. Rodriguez de la Fuentek, esaterako, harrapariak goseak edukitzen zituen, askatzean lasterketa bizi batean harrapakina harrapa zezaten.

Luzaz, dokumental horien joera ikusgarritasuna bilatzea izan da, eta ez da animalia-izaera naturala edo ohikoa erakutsi izan. Hala ere, badirudi azken urteetan joera horren aurkako jarrera zabaltzen ari dela eta naturari buruzko dokumentalen sarietan epai-mahaiek arretaz begiratzen dute kameralariek animalia-izaera aldarazi duten ala ez.

## **2. GIZAKIAK INGURUMENEAN DUEN ERAGINA ERAKUSTEN DUTEN PROGRAMA**

Gizakiak ingurumenean duen eragina ardatz duten erreportajeak urriak dira. Haatik, maiz, gain korapilatsu eta deserosoak badira ere, dibulgaziorako eta hezkuntzarako aproposak izan daitezke.

Gaur egun, ingurumenaren eta gizakiaren arteko harremana, oro har, berri txarrez josita dago eta berriek kutsu dramatikoak izaten dute. Horregatik dago hain zabalduta “ingurumen... arazo” terminoa. Badirudi, ingurumena eta arazoa beti daudela eskutik helduta.

Horrek, telebistako programazioan zuzenean eragiten duten audientzia-mailetan eragina izan dezake. Ez litzateke harritzekoa hainbeste berri txarrekin ikuslea aspertzea eta, gainera, kontzientzia-arazoak saihesteko ostrukarena egin eta zapping egitea. Gaur egun, telebista ez da hezkuntzarako tresna legez erabiltzen. Ikusleak berri baikorrak eta dibertigarriak nahi ditu edo, bestela, erabat dramati-koak, baina norbera zuzenean salatzen ez dutenak.

Hala ere, inor deseroso jarri gabe lan daiteke ingurumenaren hezkuntza-ikuspegitik. Horren lekuko da TVE 2 telebista-katean emititzen duten *El escarabajo verde* programa. Bertan, Espainiako hainbat eskualdetan gizakiak naturan eta ingurumenean duen eragina erakusten dute, baina salaketa zuzenik egin gabe.

Euskal Telebistan ez dago horrelako programarik. Alta, gaiak ez dira falta: Itoitzeko urtegia, AHT tren, Boroako zentral termikoa, natura-parkeen kudeaketa... Ingurumenaren inguruan sortzen diren arazoaren hainbat adibide lan daitezke Euskal Herritik atera gabe.

Kopiatik ez direla onak esaten duenik ere bada, baina bestelako programak kopiatu eta egokitzeko joera dagoenez gero, zergatik ez da egiten eredu horretan oinarritutako ingurumenari buruzko programa bat? Programako 12.000 euro asko eskatzea da?

Dena dela, era horretako programa bat egiteko borondaterik ez arren, esan beharra dago ikuslea kontzientziatzeko sortzen diren aukera guztiak ez direla baliatzen. Esaterako, Prestige itsasontzia hondoratu zenean *Blue planet* megaprodukzioa emititu zuen ETBk. Lehen bideoaren sarreran, Ana Urrutiak duela 10 urte Prestigen istripua gertatu zen inguruan beste istripu bat izan zela aipatu zuen, baina ez zuen petrolioaren garraioa zalantzan jarri, edo, gutxienez, kasko bakarrek itsasontziak trafikotik kendu beharko lirakeela esan.

### 3. ALBISTEGIAK

#### 3.1. Albistegiak eta ikusleak

*Consumer* aldizkariaren 2002ko ikerketaren arabera, 10 biztanletik 7k ikusten ditu albistegiak, beraz, albistegiak dira gizartera gehien heltzen diren programak. Izan ere, ingurumenari buruzko dokumentalak ikusteko interesa eduki behar da edo oso ongi eginak eta erakargarriak izan behar dute.

Albistegietan, aldiz, era guztietako informazioa jasotzen da, interesatzen diren gaien artean bestelakoak ere egon daitezkeelako eta, azken finean, 1h eta 30 min. irauten duten bideoek ez dutelako zapping-erako tarte handirik uzten.

Albistegiak ikusten dituztenen artean, gainera, % 72k erabateko edo nahiko konfiantza egiten die albistegietako berriei. Horrek esan nahi du, albistegiek munduari buruzko berriak helaraztearekin batera, munduari buruzko ikuspegia moldatu ere egiten dutela. Ez da harritzekoa, hortaz, albiste bati buruzko aipamenak egiten “egia da, telebistan esan dute!” bezalakoak entzutea.

Hala ere, ikuspegi kritikoa duenak, ahal duen neurrian, jasotzen duen informazioa neurtu eta kritikatu egingo du, albistearen atzean egon eta esaten ez dena

igarriz eta, nola edo ahala, informazioa osatuz. Horretarako, baliteke gainerako medioek eskaintzen duten informazioaz baliatzea.

Benetako arazoa telebistan agertzen ez den albistearena da. Laida Basurtori, *Prestige* petrolio-ontziak egindako kalteen berri emateko ETBk Galiziara bidalitako berriemaile bereziari, *Euskaldunon Egunkarian* egindako elkarrizketan (2003-01-05) hauxe zen titularra: “Hedabideak joatean beraietaz ahaztuko garen beldur dira galiziar asko”. Horixe baita gertatzen dena: Telebistan agertzen dena gertatu da eta agertzen dena ez da gertatu!

### 3.2 Denbora-banaketa informatiboetan

1. taula. Denbora-banaketa informatiboetan

	TV1	TV2	Antena 3	Tele 5	ETB2
Politika	% 24	% 29	% 19	% 22	% <b>25</b>
Kirola	% 27	% 9	% 32	% 19	% <b>29</b>
Kultura	% 9	% 21	% 4,10	% 7,30	% <b>8,60</b>
Berri sozialak	% 5,60	% 8,70	% 8,70	% 13,00	% <b>2,80</b>
Gertaerak	% 5,90	% 5,10	% 9	% 10	% <b>7,30</b>
EHko gatazka	% 5,10	% 8,50	% 6,40	% 4,90	% <b>5,60</b>
Eguraldia	% 12	% 1,70	% 4,30	% 5,50	% <b>5,60</b>
Ekonomia	% 2,50	% 3	% 5	% 4	% <b>8</b>
Zientzia	% 1,10	% 5,40	% 2,40	% 3,10	% <b>0,90</b>
Osasuna	% 2,20	% 2,50	% 3	% 3	% <b>2,10</b>
<b>Ingurumena</b>	% 1,10	% <b>3,20</b>	% <b>0,80</b>	% <b>1,30</b>	% <b>0,70</b>
Kontsumoa	% 0,60	% 0,90	% 1,8	% 2,90	% <b>1,10</b>
Gizartea	% 2	% 0,60	% 0,1	% 2,50	% <b>0,10</b>
Segurtasuna	% 0,60	% 0,50	% 2,30	% 1,10	% <b>2,10</b>
Hedabideak	% 0,50	% 0,40		% 0,20	% <b>0,40</b>
Loteria	% 0,20	0	% 0,10	% 0,00	% <b>0,00</b>

Iturria: *Consumer* aldizkaria.

Denbora-banaketa informatiboetan taulak erakusten duenez, ETBk albistegietako denboraren % 1 baino gutxiago eskaintzen dio ingurumenari. Eta, Espainiako telebistetan, gehienez ere, denboraren % 3a hartzen dute ingurumenari buruzko albistegiek.

Albiste horien kalitatea aztertzeari ekin baino lehen, denborari dagokionez, bada aipatzea merezi duen ohar bat. Ingurumena politiko guztien programetan sartzen den gaia da. Bakea, segurtasuna, etxebizitza eta lana bezala, ingurumena hauteskundeetako programetako ardatz bihurtzen ari da.

Bestalde, jakina da, urte osoan zehar, albistegietako denboraren zati handiena politikari eskaintzen zaiola (batez beste % 22,1). Zergatik gertatzen da hain desoreka handia? Ingurumenari buruzko gaiak hauteskunde-garaian soilik ote dira politikoen interesekoak?

Ohar horrez gain, ingurumenaz hitz egiteko behar den denboraz ere komeni da aipamen bat egitea. Izan ere, ingurumenarekin zer ikusia duten albiste eta gaiak askotarikoak, zailak eta, batez ere, konplexuak izan ohi dira. Horrek ez du esan nahi ikusleari aparteko atentzioa eskatuko dioten gaiak direla, baina, bai kazetariak informatuta egon behar duela eta gauzak azaltzeko denbora behar duela.

Har dezagun, adibidez, Kiotoko protokoloari buruzko albiste bat heltzen dela agentziatik. Kazetariak, ikusleak ulertuko badu behintzat, albistea bere testuinguruan kokatu behar du eta, horretarako, Kiotoko protokoloa nork, noiz eta zertarako izenpetu zuen eta herrialde bakoitzean zein eragin duen jakinarazi beharko du, eta, baita, klima-aldaketa zein gasek eta nola eragiten duten ere.

Agentziatik iritsitako bi lerroz osatutako albistetik harago joan eta albistea osatzeko, argi dago minutu bakarra ez dela nahikoa. Izan ere, politikari buruzko albisteen testuingurua ezaguna den bezala —politiko batek beste politiko batek bezperan esandakoari erantzuten diolako eta politikaz egunero hitz egiten delako— ekologiaz hitz egitean zerotik hasi behar da, ia beti!

### ***3.3. Ingurumenari buruzko gaiak***

Ingurumenarekin zerikusi duten berrien edukiei dagokienez, gehien lantzen diren gaiak zein diren eta berrien hurbiltasuna aztertuko ditugu. Zehatz dezagun, halaber, azterketarako aintzat hartutako gaiak sei hilabeteetan aleatorikoki aukeratuak izan direla, eta, beraz, ez da nahitaez urteko batez bestekoa. Hala ere, nahikoa izango da ondorio nagusi batzuk atera ahal izateko.

Aztertutako sei hilabeteetan jatorri naturaleko berriak, animaliak, kutsadura toxikoak eta ingurumen-politika izan dira ETBko albistegietan landu diren ingurumenari buruzko gaiak.

Jatorri naturaleko berriei dagokienez, gehienak meteorologiarekin zerikusia dutenak izan dira. Besteak beste, klima-aldaketa, ohikoa baino euri gehiago egin izana (2002ko uda), Siziliako sumendia berri ere erupzioan hasi izana eta han eta hemen izandako euriteak aipatu dira. Bistan da meteorologiak, igogailuetan ez ezik, albistegietan ere bere lekua aspaldi egina duela. Bide beretik doa ere urari buruzko informazioa.

Sei hilabeteen, ez zen animaliei buruzko informazio askorik agertu, seguru asko, dokumentaletan bezala, irudi ikusgarririk ezean ez delako berria interesatzen. Horregatik, izurdeak maiz izango dira albiste eta landareak, berriz, pinudiei buruzko urteko txostena agertzen denean baino ez. Landareek ez dute batere mugimendurik eskaintzen, beraz, ez zaizkigu interesatzen!

Normala da, hala ere, telebistak irudiei aparteko garrantzia ematea. Hori ongi daki Greenpeace erakunde ekologistak. Haren ekintzak ikusgarriak izatea ez da debalde. Hori zen telebistan agertzeko biderik zuzenena eta ezin esan maila horretan asmatu ez dutenik. Hala ere, ekintza horien bidez ekologistek salatu dutena ikusleari benetan heldu zaion ala ez zalantzan dago.

Azkenik, azterketan iraun duen sei hilabeteetan, Prestige petrolio-ontzia hondoratu egin zen. Harrezkero, albistegietan ez zen ingurumenari buruzko bestelako gairik landu albistegietan. Egia da, sortutako kalteak ikaragarriak izan zirela, baina une berean sor zitezkeen ingurumenari buruzko gai guztien itzala ere izan zen.

### **3.4. Ingurumena eta kazetaria**

Agentzietatik jasotako berria albiste egingo duena da kazetaria. Kazetariaren esku dago albistea behar bezala ikusleari helaraztea; informazioaren bitartekaria izan behar da. Kazetariarena denboraren poderioz finkatzen den irudia da, eta, albistearen arabera baino gehiago, kazetarien arabera definitzen dira entzuleak.

Albistea helarazteko, kazetariak hainbat puntu hartu behar ditu kontuan. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da ingurumenari buruzko gaiak lantzeko kazetariak oinarrizko jakintza zientifikoa edukitzea eta ingurumenari buruzko arazo nagusien ikuspegi zabala edukitzea. Izan ere, lehen ere esan dugu ingurumenari buruzko gaiak konplexuak eta askotarikoak direla eta, era dibulgatiboan eta ulerterrazean azaltzeko, ezinbestekoa da lan-taldean jende espezializatu egotea.

Izan ere, kazetariak albistea zergatik den albistegi ez badaki, hau da, agentzietatik iritsi den notiziaren gakoa zein den ez badaki, ezin izango du albistea bere testuinguruan kokatu eta behar bezala transmititu. Nazioarteko gaiak, kirolak, politika eta abar lantzeko kazetari espezializatuak dauden bezala ingurumenak ere horretara prestatutako kazetariak eskatzen ditu.

Are gehiago, kazetari horiek, ingurumenak ez ezik, politikoei aurkezten dituzten programek ere behar dituztela esango nuke. Gaur egun, ingurumenari buruzko berri gehienak agentzietatik heltzen direnak dira. Horregatik, katastrofe eta berri txarren artean, hezkuntza-ikuspegia duten oso berri gutxi agertzen dira eta, horrela, ikusleari kostatu egiten zaio horren aurrean zerbait egin dezakeela pentsatzea.

Bestalde, kazetariak albistea emateko orduan erabiltzen duen tonua eta hitzak neurtu egin behar ditu. Ana Urrutiak *Blue Planet* megaprodukzioaren lehen bideoari sarrera egiteko Prestigen istripua izan zuen aipagai. Bideo horretan behin eta berriz entzuten dira “al borde de la muerte”, “catástrofe ecológico” eta antzeko terminoak. Horrek, egoera penagarria izan arren, irudiek esaten dutena baino ez du azpimarratzen. Ikusleak jakin badaki arazoa larria dela, eta informazio osagarria ematea dela kazetariaren egin beharra.

Horretarako biderik zuzenetako elkarrizketa da. Elkarrizketatua zientzialaria bada, elkarrizketa ahalik arinena egiten ahalegindu behar da zientzialaria ez delako, nahitaez, dibulgatzaile ona. Kasurik okerreanean, ikusleari esandako urrun gera ez dakion, kazetariak hartu beharko du zientzialariaren tokia.

Dena dela, elkarrizketak kontrasterako biderik egokiena ere badirenez, ez da sekula bertako jendea, politikoak, adituak, ekologistak, elkarretako ordezkariak eta abar baztertu behar. Bakoitzak bere ikuspegia emango du eta hori da munduaren berri zabala emateko biderik egokienetakoa.

Ingurumena tratatzen duen kazetariaren lana benetan izan daiteke garrantzitsua. Izan ere, telebistak iragarki bidez ez ezik, kazetariaren lanari esker ere, zeregin handia joka dezake gizartea sensibilizatu eta guztion parte-hartzea bultzatzeko. Eta bistan da norberaren esku dauden ekintzak, etxeko hondakinak birziklatzea edo garraio publikoa erabiltzea kasu, askoz errazago egiten direla baldin eta gure ekin-tza-kanpaina edo indar kolektibo baten baitan sartzen baditugu.





# **Zornotza Bizirik: Ez Gure Etxe Globalaren Baratze Lokalean<sup>1</sup>**

Josu Larrinaga, *Soziologoa eta kazetaria*

## **1. ZORNOTZA BIZIRIK: EUSKAL EKOLOGISMOAREN MUGAK GAINDITU DITUEN FENOMENOA**

*Zornotza Bizirik* (oraindik aurrera ZB) Amorebieta-Etxano (Bizkaia)<sup>2</sup> udalerrian Boroa auzoko poligono industrialean, eraiki nahi den ziklo konbinatuko zentral termikoaren proiektuaren kontra eratu den herri-plataforma dugu. 2000ko martxoan eratu zen (600 pertsona egon ziren aurkezpenean) eta bi urte eskaseko jardunean sekulako mobilizazio soziala lortu zuen herri horretan, ESB enpresa irlandarrak jarri nahi duen zentral termikoaren kontra.

Amorebieta-Etxano udalerriak 15.818 biztanle dauka (1991ko erroldaren arabera) eta ZBek 15.500 sinadura lortu du proiektuaren kontra (horietarik 13.500 inguru dira udalerriko biztanleena, besteak inguruko herrietan jaso ditu); 800 auzokidek alegazio formalak aurkeztu zituzten eta milaka pertsona batzera ailegatu diren manifestazioak deitu ditu Durangaldeko herri horretan. Ikerketa egiten genbiltzalarik, ZBek, inolako babes instituzional barik, gai honi buruzko erreferendum bat antolatu zuen eta 5.445 pertsonak botoa eman zuten kontsulta horretan, Amorebieta-Etxanoko erroldaren %43a, hain zuzen ere.

Gasa erretzen energia elektrikoa sortzeko eraiki nahi den zentral termikoaren bultzatzaileek (beste batzuen parte-hartze txikiarekin, ESB irlandar enpresa

---

1. Ikerketa hau 2.002eko lehenengo seihilabetekoan taxutu zen Patxi Juaristi irakaslearen tutoretzapean. Iñaki Barcenak ere zeregin honetan asko lagundu zigun. Bioi mila esker, demasakoak eta hanka-sartzeak gureak eta ez haienak direla argi gera dadila.

2. Badago arazorik, eta ez nolabaitekoa, toponimia eta izendegia erabiltzerakoan. Ikergai dudan herriko jende askok Zornotza deritzo bere herriari eta zornotzartzat dauka bere burua. Izen ofiziala, berriz, Amorebieta-Etxano dugu. Badirudi Zornotza haranean hainbat gune daudela eta historian zehar ezkondu eta banandu egin direla, nahitara: Etxano, Ibarruri eta Gorozika (bi hauek, gaur egun, Muxikako udalerrian), Dueda, Euba, Boroa, Berna, Larrea. Goazen harira: Nik neuk Amorebieta-Etxano erabiliko dut udalerriaz ari garenean eta Zornotza leku fisikoa aipatzen baldin badugu. Eta Amorebieta soila erabiliko dut Amorebieta-Etxanoko herrigune garrantzitsuenaz, hiriguneaz, aritzen naizenean. Barkatu endredoak.

bazkide nagusia duen Bizkaia Energia enpresak) proiektuaren arlo garrantzitsu bat (hozte-sistema) aldatu zuten, esan zuten ez zutela herriaren borondatearen kontra planta eraikiko (gero enpresaren jarrera aldatu zen); Amorebieta-Etxanoko Udalak (EAEko Jauriaritzan bazkide nagusia eta politika industrialak gidatzen duen EAJ alderdiak zaukan gehiengoa eta alkatetza) proiektuaren kontra azaldu zuten bere burua (hori ere gorabehera handiekin); Jauriaritzako Industria Sailburu Josu Jon Imazek esan zuten proiektuak beste kokatze bat beharko zuela (hori ere aldatu da gero); EAJ barruan oso tirabira larriak egon dira nazio-zuzendaritzak proiektuaren alde eta Zornotzako Batzarrak kontra jarri eta gero... (ikus Kronologia, prozesu horren guztiaren ikuspegi sintetikoa lortzeko)

Hau guztia lortu du herri-plataforma batek, honako erakundetze forma haue-tan ohikoak diren baliabideekin: informazioa zabaldu herritarren artean, liburuxka xumeak argitaratu, afixak jarri hormetan, elkarretaratzeak egin, prentsa lokalari komunikatuak bidali, udalbatzetan kartelak erakutsi eta parte hartu galdera-eskarieta-rako txandan, auto-karabanak, manifestazioak, sinadura-bilketak, batzar irekiak... Bere salaketaren funtsa zentral termiko horrek ingurumenean eta zornotzarren bizi-kalitatean eragingo lituzkeen kalteak larregizkoak liratekeelakoan datza.

ZBek lortu duen arrakasta oso kontuan hartzekoa izan da Euskal Mugimendu Ekologistak (EME) bere historian zehar lortu dituen emaitzekin alderatuz gero, bai eta historia horretako mugarririk kontuan hartzen baditugu (Lemoiz, Leitxaran, Itoiz, Abiadura Handiko Trenaren kontrako dinamika), baita maila lokalen eman diren dinamikei begiratuta ere (inguru hurbilean gaur egun badaude beste zentral termikoen proiektuak (batzuk jadanik eraikitzen edota funtzionatzen) Bilbon, Mus-kizen, Santurtzin eta Zierbenan eta aurkaritza-prozesuak, baina hauek lortzen ari diren emaitzak askoz ere apalagoak dira).

Horregatik uste dugu Zornotzako haranean gertatzen ari dena interes handi-koa dela, bai ikuspegi akademiko batetik (Gizarte Mugimendu Berrien fenomenoaz aztertzekotan, Ekintza Kolektiboaren Teoria ikertzerakoan, etab.) baita EMEn ikuspegitik ere, Boroako zentral termikoaren kontra eraturako mugimendua beste borroka batzuetarako eredu izan daitekeelakoan. Baina, batez ere, garrantzitsua deritzogu azpiegiturak kokatzeko politika publikoak gidatzen dituztenei (Lurralde Antolakuntza, politika industrialak, garraioa, etab.) eman dakiekeen informazioari.

Izan ere, uste dugu gure ikerketaren muinak aldarrikapen ekologisten forma berri bat erakutsiko duela. NIMBY fenomenoak (Not In My Back Yard, Ez Gure Etxeko Baratzean) oso aztertua izan da mundu akademikoan —herri anglosaxoie-tan, batik bat—, baina uste dugu Euskal Herrian nahiko berria dela eta ez dela az-tertu geroan izan dezakeen indarra eta presentzia, eta horrek, azpiegituren politika publikoetan (eta enpresen egitasmo pribatuetan) edukiko duen eragin ezinbeste-koan.

Hala ere, esan behar dugu lehenbailehen kritiko agertuko garela NIMBYen ikerketaz egin diren hainbat erabilpen interesatuz, hain zuzen ere uste dugulako gure gizartearen eboluzioaren globalizazio-fase honetan fenomeno horiek aldatzen ari direlako. Azken honetarako Manuel Castellsen teorien irakurketa kritikoa egiten saiatuko gara.

ZB fenomenoak Mugimenduen Euskal Gizartean —horrela definitu da gure testuingurua Gizarte Mugimenduen ikerketak egiten dituztenen aldetik— kokatzen da, baina era berean Amorebieta-Etxano herrian agertzen den adierazpen lokal bat da, bertako biztanleen osasun eta bizi-kalitaterako arriskugarritzat jotzen den proiektu zehatz baten kontra jaioa. Parametro horiek aztertuko ditugu gure ikerketan eta saiatuko gara erakusten nola euskal gizartean bizi-kalitatearen inguruan hedatzen ari den irakurketa berri batek eragin handia daukan gizartearen mobilizazio eta aldarrikapenetan.

Mobilizazio forma berri hauek —eta uste dugu ZB horren paradigma izan daitekeela— EMERen diskurtsoa, gai-bilduma, esanahien markoa eta mobilizazio-klabeak erabiltzen dituzte, gizarte-mugimendu honek gure gizartearen memoria historikoari emandako baliabideak mobilizatzen dituzte; baina testuinguru berri batean, nolabait, hau da mundu globalizatuan kokatzen den oso errealitate lokal batean.

Ikerketa honen helburua, beraz, Amorebieta-Etxano udalerrian, Boroa auzoan ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeak lekartzakeen arazo ekologikoen inguruan, ZB herri-plataformak bertako jendearen mobilizazioan arrakasta bereziaren arrazoiak topatzea zen, Mugimenduen Euskal Gizartean eta, bereziki Euskal Mugimendu Ekologistaren ibileran garrantzitsua izan daitekeen mobilizazio-forma berezitua topatu dugulakoan gaude.

Mobilizazioaren arrakasta gure kezken erdigunean dagoelarik, nahitaez oratu behar diogu politologoek Aukera Politikoen Egitura deitzen dutenari. Hau da, aztertuko dugu ze nolako harremanak izan dituen ZBek afera honetan inplikaturiko administrazioekin (Amorebieta-Etxanoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza eta Espainiako Gobernuak) eta nola hauen jarrerak eragina izan duten ZBen mobilizazio-ahalmenetan. Atal honetan, garrantzi berezia eman beharko diogu 2002ko apirilaren 14an egin zen (izaera legalik gabeko) erreferendumari eta herri-konsulta honek aurretik izan duen istorio gorabeheratsuari.

Azpimarratzekoa da ere, —nola ez?— komunikabideen eragina eta kasu honetan bereziki lokal mailan ekoitzi eta banatzen diren aldizkari entzutetsuak. Horrekin lotuta, lider lokalak eta teknikoaren eragina ikusiko dugu. Amorebieta-Etxanon aurretik izaniko beste mobilizazio-esperientzia batzuk, berauek sorturiko giro soziala eta ZBek egin duen denboraren kudeaketa aproposa eta giza baliabideen bilaketa arrakastatsua ikusiko ditugu ere bai.

Azken finean, ondorio gisa, tokian tokiko bizi-kalitatearen mailaren defentsan sortzen den gizarte-mobilizazio era berri honek (edota baldintza sozial berrietan ematen den honek) hurrengo urteotako politika publikoetan izan dezakeen eraginaz jardungo dugu, ezinbestean.

Ikerketarako erabili ditugun teknikak kualitatiboak izan dira gehienbat, bere gordinean planteatzen zitzaigun arazoa funtsean kualitatiboa delako eta diskurtsoa, semantika, esanguraren eremu labankorreetan kokatzen delako. Jakin bagenekien Amorebieta-Etxanoko jende asko (herriko gehiengo zabal bat) Boroako zentral termikoaren proiektuaren aurka dagoela, baina jakin nahi dugu zergatik era inprobisatuan sortu den herri-plataforma batek auzokideak konbentzitzen hainbeste arrakasta izan duen, (informazioaren) gizarte europar (post)modernoan kokatzen den herri batean.

Hala ere, metodologia kuantitatiboak erabili ditugu ere bai eta, gainera, iker-tzaile sozialei gutxitan suertatzen zaien pagotxa eduki dugu. Ikerketa egiten genuen bitartean, ZB plataforma berak herri-kontsulta bat, erreferendum bat, egin zuen (ez zuen lortu, eskatu arren, Amorebieta-Etxanoko Udalaren babes) eta horren inguruan Berme Batzorde bat osatu, non, hainbat eragile sozialen artean, zenbait politologo eta soziologo ezagunek parte hartu zuten. Datuok esanguratsuak dira eta landu ditugu, zertxobait, gure aldetik, datozen lekutik eta era zein den jakinik. Azken finean, baliagarriak izan zaizkigu Amorebieta-Etxano udalerrian gai honen inguruan dauden joera nagusiak egiaztatzeko.

Beraz, erabili ditugun teknikak hauek izan dira:

- a. Edukiaren azterketa: ZBk sorturiko dokumentuen (komunikatuak, prentsa-agiriak, liburuxkak, afixak...) edukien azterketa egin dugu, Berelsonen esanetan “komunikazioaren ageriko edukien azaltze objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa egiteko” baliagarria delakoan (López-Aranguren, 1998). Metodologia zehatzari dagokionez, gure dorpetasunez, Krippendorffek proposatzen dituen zenbait prozedurei (Krippendorf, 1980) jarraitu diegu, metodo honek aurkeztzen dituen abantailak bultzaturik: informazio biltzean eta aztertzean ez dago inolako eraginik ikertuen aldetik (horrela zenbait kutsadura saihesten dugula); informazio ez-egituratua maneiatu behar dugu; ikertuak eta gizartearen arteko komunikazioa zuzenean aztertzen dugu; testuingurua ezagutzen dugun neurrian, esanahi sinbolikoak (beste teknika batzuekin, inkesta kasu, alboratuta geratzen direnak) integratzen ditugu eta —gure ikerketan ezinbestekoa zena— iragana aztertzeke beta ematen digu (Juaristi, 1997). Zehazki ZB plataformak argitaraturiko 18 komunikatu (Amorebieta-Etxanon banatutakoak), 3 gutun eta bi prentsa-agerraldi (ZBeko eledunarekiko entrebista bat eta iritzi-artikulu bat) erabili dugu. Plataforma sortzen eta garatzen den fasean argitaraturikoak hartu ditugu, gure ikerketarako une hori baita interesgarriena. Azken batean, esan behar dugu

—teknika honen bultzatzailek aldeztu zuten moduan (Krippendorf, 1980)— emaitzen balioa beste modu batez lortutako datuek edukien azterketan egindako inferentziak berrestean datzala, eta baldintza hori betetzen dela gure kasuan.

- b. Elkarrizketa sasiegituratuak: Sakoneko elkarrizketa pertsonalak (galdeki-zun sasiegituratuarekin) ZBeko zenbait partaideekin euren “diskurtso motibazionala (konstzientea eta inkonstzientea)” topatzeko asmoz (Ortí, 1998) baita ZBen historia, antolakuntza-formen azalpena eta abar ere. Elkarrizketa hauen beste xede garrantzitsu bat ea ZBekoen artean talde berezituak aurki daitezkeen zehaztea izan da, elkarte horren bizitza eta erakundetzea, kultura organizatiboa, etab. Boroako zentral termikoaren proiektuaren kontrako mobilizazio sozialaren lidergo kolektiboaren diskurtso zabal eta bat-batekoak; baina baita azal-azpikoak ere aztertu nahi baditugu, motibazio sakonak, jarrerak, sinesmenak, balioak, desioak, gogorapenak, zergatiak eta abar, elkarrizketa lehenengo mailako teknika moduan agertzen zaigu gaur egungo Gizarte Zientzien metodologian (Ortí, 1998; Ruiz Olabuénaga, 1996) (Horiek agertzen dira identifikatuta E hitzaz eta zenbaki batez agertzen diren aipuetan). Honetaz aparte “funtsezko informatzaile” izan zitezkeen bi pertsonekin elkarrizketa ez-egituratuak egin genituen (IK1 eta IK2).
- c. Eztabaida-taldea: Eztabaida-taldea “ideologia sozialen espresatzeko bidea” delakoan (Ortí, 1998) eta nolabait gure ikerketan aurrerapauso bat ematearren, Boroako zentral termikoaren proiektuaren kontra egon baina ZBen antolaturik ez dauden zornotzarrek osaturiko eztabaida-taldea antolatzea deliberatu genuen. Gure helburua “agerkari sozial” bat marraztea zen, Zornotzako herritarren artean dagoen sentsibilitate nagusiari espresatzeko bide bat emanaz. Teknika honen erabilerak auresuposatzen du mikrotalde horretan jaurtiko diren argudio, ideia, sinesmen eta sentimenduak presente daudela makrotaldean, gizartean, edo talde horren ezaugarri sozialak dituen gizarte-sektorean (Mauleon, 1998, Alonsori erreferentzia eginez). Taldean esanahiak eta informazioak elkar trukatzeko dute partaideek eta ikertzailearentzat oso baliagarriak diren datuak ekoizten dituzte (Ibañez, 1998). Beraz, eztabaida-taldean parte hartzeko irizpidea Boroako zentral termikoaren proiektuaren kontra egotea (adibidez, ZBek antolaturiko manifestazioetan parte hartu izana edota herri-kontsultan bozkatu izana) izan zen (Aipuetan ET eta zenbakiaz identifikatzen dira).

## 2. ZORNOTZA BIZIRIK-EN MOBILIZAZIOAREN INGURUKO KRONOLOGIA

- **1999ko urria:** ESB International enpresak zentralaren aurreproiektua eta Ingurumen Eraginaren Azterketa aurkeztu zuen. Aurkezpen Publikoko hilabeteko

epean, 800 alegazio aurkeztu zituzten Amorebieta-Etxanoko biztanleek, eta beste 300 bat aurkeztu ziren epetik kanpo.

- **2000ko martxoaren 15a:** Asanblada egin zen Zornotza Aretoan eta 600 pertsona inguru batzartu ziren. *Zornotza Bizirik* sortu zuen.
- **2000ko apirilaren 8a:** Manifestazioa egin zuen ZBek Amorebietako herri-gunean zehar. Udaltzaingoaren arabera 7.000 pertsona zeuden.
- **2000ko apirilaren 25a:** Udalbatzaren bilera Amorebieta-Etxanon. ZBen lehenengo mozioa atzera bota zuten EAJk eta PPK. Maiatzaren 30ean, beste udalbatza batean, EH, EB eta EA zentral termikoaren kontra jarri ziren, EAJ eta PP ZBen mozioaren kontra eta PSE-PSOE abstenitu.
- **2000ko maiatzaren 10a:** Udalbatzan EAJ, PSE eta PPK bat egin zuten EH, EA eta EBk aurkezturiko mozioarekin, non esan baitzen zentral termikoaren proiektuak ez duela betetzen Industria Erabilpenerako Esparruen Plan Partzialak eskatzen duenarekin (tximiniek 10 metro baino gehiagoko altuera dutelako).
- **2000ko ekaina:** ZBek 15.500 sinadura, zentral termikoaren kontra, aurkeztu zituen Amorebieta-Etxanoko Udalean, Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundian, Arartekoaren aurrean eta Espainiako Gobernuaren Industria Ordezkaritzan.
- **2000ko ekaina:** Josu Jon Imazek, Jaurlaritzako Industria Sailburuak, esan zuen ESB International konpainiak beste leku bat bilatu beharko lukeela.
- **2000ko azaroa:** Jaurlaritza hasi zen zentral termikoaren proiektua tramitatzen. ZBek kontra egin zuen, tramite legal guztiekin egingo duen bezala.
- **2000ko abendutik 2001eko otsaila arte:** Mobilizazio ugari eta enpresaren mugimenduak. ZBen bigarren manifestazio handia (8/10.000 partaide antolatzaileren arabera) otsailaren 10ean. Urtarrileko udalbatzan, PSE-PSOEk onartu zuen ZBen mozioa.
- **2001eko urtarrilaren 10a:** Udalak Boroako proiektuak baimenik ez duela gogorarazi eta Begoña Azarloza alkateak Udala “orain arte bezala proiektuaren kontrakoa dela” esan eta azpimarratu zuen Udalari dagokiola ezinbesteko baimenak ematea.
- **2001eko otsailaren 15a:** *El Correo* egunkariaren arabera, Madrilen bulegoa duen nazioarteko aholkularitza-enpresa garrantzitsu batek aholkatu zion europar finantza-erakunde inportante bati Boroako proiekturako beharrezkoak diren 60.000 miloi pezetan finantziazioan parterik ez hartzea, horren kontra dagoen auzotarren mugimendua oso indartsu dagoelako.
- **2001eko otsailaren 27a:** Eztabaida Bizkaiko Batzar Nagusietan. Zentralaren alde agertu ziren EAJ, PP, EA eta PSE-PSOE. Baina azken bi horiek kontra

agertu ziren Amorebieta-Etxanon apirilaren 24an egin zen udalbatzan, eta PP abstenitu egin zen.

- **2001eko martxoaren 20a:** ZBek salatu zuen ESB enpresako zuzendariak plataforma horretako partaide bat (Amorebieta-Etxano mailako aldizkari baten zuzendaria, aldi berean) larriki mehatxatu zutela.
- **2001eko apirilaren 25a:** Udalbatzak ez zuen proiektua arbuiatu (ZBek eskatu zuen bezala) alkatearen kalitatezko botoari (boto-berdinketa kasuetan erabili ahal duena) esker.
- **2001eko ekaina:** Amorebieta-Etxanoko EAJren Batzarrak ezetz esan zion proiektuari (72 afiliatu egon ziren asanbladan eta soilik 24k eman zuten aldeko botoa), nahiz eta bertara azaldu Xabier Arzallus (alderdiko lehendakaria), Iñigo Urkulu (Bizkaiko Exekutiboaren lehendakaria) eta Jose Luis Bilba (Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza foru-diputatua) proiektuaren onurak azaltzeko eta baiezko botoa eskatzeko.
- **2001eko ekainaren 16a:** ZBen hirugarren manifestazioa. 8.000 pertsona. EH, EB, EA eta PSEko zinegotziek hartu zuten parte.
- **2001eko irailaren 13a:** Begoña Azarlovak, Amorebieta-Etxanoko alkateak, Boroako zentralaren inguruan erreferenduma egingo zuela esan zuen. Hurrengo egunean EAJren (alkatearen alderdia) Bizkaiko Exekutiboa neurri horren kontra agertu zen.
- **2001eko urriaren 20a:** Beste manifestazio jendetsu bat: 7.000 pertsona inguru, antolatzaileen arabera.
- **2001eko azaroaren 28a:** Udalbatzan EAJren udal taldeak erreferendumaren deialdia berretsi zuen, baina azken hitza Aldundiak edukiko duela ohartu zuen, kompetentzia urbanistikoen arabera.
- **2001eko azaroaren 29a:** Aldundiak esan zuen Boroako ahalmen urbanistikoak ez zituela aldatuko eta EAJren BBBk (Bizkaiko Exekutiboak) zigor-espedita eskatu zien alderdi barruko epaitegiei Amorebieta-Etxanoko alkate eta zinegotzi jeltkideentzat.
- **2001eko abenduaren 7a:** ZBek iragarri zuen hasiko zela erreferendumean ezezko botoa eskatzen.
- **2001eko abenduaren 18a:** Alkateak erreferenduma iritzi-inkesta izango dela esan zuen eta galdera aldatu eta aldrebestu egiten du: “Boroako auzoan ziklo konbinatuko zentral termikoa jartzearekin ados al zaude?” izan behar zuenak (alkateak iragarri bezala) “Boroako industrigunearen erabilerak aldatu eta indar elektrikoa sortzeko instalazioak erabilerara ez-onartuen barruan jasotzearekin ados

zaude?” bihurtu zen; horrela, proiektuaren kontra zeudenak baiezko botoa eman behar zuten. Alkateak aldaketak legalitatera egokitzeko zirela esan zuen.

- **2001eko abenduaren 28a:** ZBek iragartzen du ez zuela parte hartuko erreferendumean, egungo baldintzetan herriari egindako trufa zelako. Arrazoiak gora-behera, antzeko jarrera hartuko dute hurrengo egunotan EAJ ez besteko udal alderdi guztiek.
- **2002ko urtarrilaren 17a:** Alkateak bertan behera utzi zuen iritzi-inkestaren deialdia, inolako babesik ez zuelako topatu. Hurrengo egunean, EAJk iragarri zuen alkate eta zinegotzi jeltkideei zabalduetako zigor-espeditatea bertan behera utzi zuela.
- **2002ko urtarrilaren 26a:** ZBek beste manifestazio handi bat egin zuen eta erreferendum bat egingo zuela iragarri zuen, apirilaren 14rako, alkateak lehenengo unean aurreikusitako galderarekin.
- **2002ko apirilaren 9a:** ESBk esan ez zuela erreferendumaren emaitza aintzat hartuko.
- **2002ko apirilaren 11:** Jaurlaritzak propaganda-liburuxka bat banatu zuen Bizkaian zabaltzen diren egunkari guztietan, zentral termikoen onurak gorai patuz.
- **2002ko apirilaren 14a:** Erreferenduma egin zen. 5.342 herritarrek bozkatu zuten. Jaurlaritzak berretsi zuen proiektua babesten zuela eta deskalifikatu egin zuen herri-kontsulta.
- **2003ko ekaina** (artikulu honen azken bertsioa taxutzerakoan): Obrak hasi barik zeuden, nahiz eta ESBk aspaldian esan finantziarioa lortu eta laster hasiko zirela. ZBek manifestazio handia egin zuen apirilean, erreferendumaren urteurrenean.

## **2. ZORNOTZA BIZIRIK: JENDEA MOBILIZATU MUGIMENDUEN GIZARTEAN**

### **2.1. Amorebieta-Etxano, Mugimenduen Gizartean**

Euskal gizartea Mugimenduen Gizartea da (Casquete, 2001) mendebaldeko herri gehienetan gertatzen den moduan. Politikak —zentzu hertsian: alderdien arteko joko demokratikoa, ordezkaritza, erakundeen jarduera, hiru botereak...— bere mugak erakutsi ditu jadanik eta jendeak beste adierazpide batzuk bilatzen ditu bere arazoak konpontzeko. Logika elektoralak (alderdiena) eta “bulegoen logikak” (lobby edo presio-taldeena) funtzionatzen dute, baina jendeak “kopuruen edota kaileen logika” (Casquete, 2000) erabiltzen du arazotzat jotzen dituen hainbat egoeraren aurrean bere argudioak, beste logika horien aurrean, inposatzearen. Horrela



sortzen dira Gizarte Mugimendu Berriak deiturikoak: ekologismoa, feminismoa, antimilitarismoa...

Mugimenduen Gizarte eredu hori 70eko hamarkadako protesta-zikloaren ondoren hedatzen joan zen mendebaldeko gizarteetan (Casquete, 2000) eta heldu zen Hego Euskal Herrira Espainiar Estatuan aldaketa politiko sakona (frankismotik gaur egungo monarkia parlamentarira) ematen zen unean eta marko horretan kokatu zen hurrengo urteetan. Eboluzio horren adierazlea izan daiteke guri ikerketa honetan bereziki interesatzen zaigun mugimendua, ekologismoa alegia (Bárcena, 1995).

Gizarte Mugimenduak, eta zehazki ekologismoa, aktibatzeke arrazoiaren artean mendebaldeko herrietan kapitalismo aurreratuak eragiten dituen aldaketa sozialak daude: norbanakoen bizitza, osasuna, arriskuan egon daiteke printzipioz norberak kontrolatu ezin dituen erabakien arabera (Beck, 1998); gero eta ezagutza gehiago daukagu gure inguruaz eta etengabe hausnartzen ari gara horri buruz; baina, aldi berean, hausnarketa horrek etengabe bultzatzen gaitu gauzak hobetzera eta finkatuta dagoena zalantzan jartzera (Giddens, 1993); teknologiak gero eta autonomia handiagoa hartzen du gizarte-eredua finkatzeko (Munford, 1998) eta aldaketa sakonak eragiten ditu denbora laburrean (Castells, 1997).

Eta horrek guztiak eragin berezitua dauka gaur egungo euskal gizartearen formazio sozialean. Azken urteotan izandako bilakaeran, hainbat faktoreren bat-egiteak mobilizazio-ahalmen berezi bat sortzen du euskal gizartearen: egoera sozio-politikoaren definizio intersubjektiboa egiteko saio desberdin eta askotan paraleloak, sare eta talde informal ugari eraketa sozialaren oinarrian, eta hauexetan, askotan, ematen den orden sozialaren irakurketa kritikoa (Martinez, 1998).

Baina —buelta gaitzen harira— Mugimenduen euskal Gizartearen kokatuta, zer gertatzen da Zornotzan? Amorebieta-Etxanoko udalerrria Euskal Autonomia Erkidegoko erdigunean dago, Durangaldean, eta Mugimenduen Gizartearen ereduari erantzuten dio beste edozein herri bezala:

- Egitura politikoari dagokionez, bere inguruko herrien moduan dabil: abertzaletasun moderatuaren hegemonia, ezker abertzalearen presentzia nabarmena, ezker estatualista, eskuma estatualistaren gainetik baina baten posizioak ahultzen diren heinean bestearna indartzen, eta Ezker Batuaren agerpena (EUSTAT, 2002)
- Gizarte-mugimenduen aldetik (ZB agertu baino lehen), bazegoen ekologismoaren presentzia minimo bat (batez ere Eguzki taldeko aktibista pare baten inguruan); gazteen asanblada bat (gaztetxea, lokal moduan, galdu eta gero ahuldu samarra) eta, batik bat, ETako presoekiko elkartasuna adierazteko mugimendu indartsua, gainera oso ezaugarri lokal berezituak dauzkana: Atoan plataforman Nazio Askapenerako Euskal Mugimenduko (NAEM)

partaideez gain beste sentsibilitateko aktibistek hartzen dute parte eta beren jarduera preso historikoen eskubide legalak aldeztu eta gero, irtetean, haien onarpen sozialarentzat nolabaiteko *koltxoia* eraikitzen bideratzen da.

- Langileen mugimenduaren presentzia ohikoa, errealitate ekonomikoan industriak oraindik oso garrantzi handia daukela kontuan hartzen badugu. Horrez gain, gogoratu behar da 70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadaren hasieran lanaren inguruko gatazka-maila altua izan zela herri honetan eta horrek nolabaiteko zantzia utzi duela zornotzarren memoria kolektiboan, IK2k esaten digun moduan.
- Kirol- eta kultura-elkarteak, jai-batzordeak, euskara eta hezkuntzaren inguruko elkarteak eta abar badaude Amorebieta-Etxanon.

Baina horretaz gain, Amorebieta-Etxanon azken urteotako historian zehar beste fenomeno bat ikusi da: auzotarrek plataformak sortu dituzte beren arazoak konpontzekotan. Urte luzeetan —60ko hamarkadako garapenarekin hasi eta oraindik bukatu ez den urbanizazio eta populazioaren hazte-prozesuaren barruan— zornotzarrek arazo urbanistiko handiak pairatu dituzte, batez ere Amorebietako herrigune erditik pasatzen zen trafikoko multzo itzelengatik (Amorebietako plaza, funtsean, bidarte konplexu bat izan da urteetan, semaforo eta langa urbano askorekin) eta bere garaian auzotarren plataforma bat sortu zen trafikoa herrigunetik atera zedin eskatzeko. Amorebieta-Etxanotik pasatzen den A-8 autobideari bidesaria kentzea zen haien aldarrikapena. Azkenean bariante bat eraikitzea erabaki zenean egon zen beste plataforma bat trazaketaren inguruan. Ikusten dugunez, auzo-mugimendua eta mugimendu ekologistaren arteko mugak oso malguak dira (askotan Weberren tipo idealen moduan eraikitzen ditugu honako kategoria hauek) gure kasuan, beste hainbat kasutan eta historian zehar, bai Euskal Herrian (Urrutia, 1987/Barcena, 1995), bai munduan zehar (Castells, 1997), azpimarratu den bezala.

1999. urtean, Boroako auzoan ziklo konbinatuko zentral termiko bat eraikitzeke lehenengo mugimendua hasi zirenean, proiektu horren kontra paratzen hasi ziren zornotzarrek gizarte-humusa topatu zuten beren herrian. Coleman eta Putnam ikerlariak, esaterako, “kapital soziala” deitzen diote merkatu-gizarteak eta demokrazia liberalak funtzionatzeko behar duen osagai zehatz bati: konfiantzaren bermea segurtatzen duen solidaritate eta elkarren arteko leialtasun sare informala, giro sozial bat, zeinak norbanakoa hainbat trebetasunez hornitzen baitu, gizarte horretan mugitzeko, ekiteko (Herreros eta De Francisco, 2001). Neurketa enpirikorik egin ezin badugu ere, zantzu guztien arabera, Zornotzan *kapital sozial* delako horren maila altua dago, gorago azaldukoak —eta ZB izateak berak— adierazten digun bezala.

“Kontzientzia apurtxo bat badaukazu, baina ez bazaizu etxe ondoan tokatzen...”. (E5)

“Se informó bien sin tergiversar y sin que empezasen las instituciones o la empresa(..) La gente tiene la experiencia de que siempre se reconoce tarde lo que dice el movimiento ecologista y se dio cuenta de que había que hacer algo. Bueno, parece que estoy hablando por todo el pueblo, esa es mi percepción...”. (E6)

ZBeko aktibistek kapital sozial horren mekanismo batzuk jarriko dituzte mar-txan, Mugimenduen Gizartean ohikoa den kapitala, alegia: mobilizatzeko ohitura, plataforma pluralak eta gai bakarrekoak (monotematikoak) antolatzeke erraztasu-na, adskripzio politikoaren gaitetik (edo azpitik) antolatzeke joera, herrian bizi dire-nak auzotar legez errekonozitzeko gaitasuna eta nor bere geroaren aldeko lanari ekiteko gogoa.

“Cuando se creó la plataforma se dejó claro que era apolítica, plural, abierta y que iba a luchar de un modo pacífico y festivo contra la central. La plataforma nunca ha tenido objetivos políticos y se ha procurado trabajar y buscar el apoyo de todos”. (E3)

“En los pueblos es más fácil que en la ciudad. Hay más cercanía y contacto y es más fácil porque la gente se conoce y están menos encerrados en sus casas. (E2, zeinak Amorebieta-Etxanon bizi baino lehen Bilboko auzo baten Auzotarren Elkarteko partaidea izan baitzen)”

“Yo participé en las movilizaciones contra la central nuclear de Lemoiz. Era mi momento de auge. Luego, cuando me enteré de esto, con hijos que padecen de asma...”. (ET6)

Eta, aldi berean, ikusiko dugun legez, Bizkaia Energiak enpresak daukan proiektu energetikoak eta beroni babesa ematen dioten erakundeek Amorebieta-Etxanoko giro sozial horri astindu ederra eman diote, hain zuzen ere, konfiantza eta (elkar)bizitza ona definitzen duen parametro bati eraso eginez.

## **2.2. *Gizartea mobilizatuz***

1999. urte bukaeran eta 2000. urtearen hasieran, behin Boroako proiektuak errealitate zantzuak hartuak zituela, zenbait pertsona hasi ziren zentral termikoaren kontrako iritzia eta ekintzak lantzen.

Alde batetik, Eguzki talde ekologistako aktibistek kontaktu batzuk bilatu zituzten Boroa auzoan eta inplikatzeke prest ikusi zuten udal teknikari batekin. Txosten batekin eta herrian argitaratzen den aldizkariarekin hasi ziren bertako biztanleak albistearen berri izaten. Herriko beste pertsona batzuk beren kabuz hasi ziren alegazioak prestatzen edota kontaktu informalak lantzen eta informazioa bilatzen. EH talde politikoak ere triptiko bat banatu zuen, proiektuaren arriskuaz ohartarazten.

“Inicialmente, cuando me enteré del proyecto de central en Boroa promoví en la empresa en que trabajo una alegación conjunta apoyada por personas que trabajan en esta empresa. Lo anterior trajo consigo el contacto con otras personas y grupos que se oponían al proyecto y que plantearon la necesidad de crear una plataforma que aglutinara fuerzas y trabajara contra el proyecto de central en Boroa”. (E3)

“Fue fundamental que empezamos muy pronto y dimos mucha información”. (E6)

Lehenengo batzarra Boroako San Pedro basilizian egin zen eta batez ere bertako biztanleak bildu ziren. Baina oso denbora-tarte laburrean metatu ziren ekintzak eta 2000ko martxoan 600 pertsona bildu zituen batzarra egin zen Zornotza Aretoan eta *Zornotza Bizirik* sortu zen (ikus Kronologia). Manifestazio masiboa deitu zuten apirilera. Lehenengo urrats horietan egon zirenak bat etorri ziren jendearen erantzunak haien aurreikuspenak zeharo gainditu zituela esatean. Lehenengo urrats horietan, mobilizazio ekologistetan normala den legez, zalaparta eta eskandalua egin zen, diskurtso bat eraiki zen mobilizazioa eragiteko (gero ikusiko dugu zertan datzan hori) eta pronostikoa, garaipena, helburuak lortzearen itxaropena, bultzatu zen (Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1996). Tillyk azaltzen duen moduan ekintza-errepertoriotik —ikasitako produktu kulturalak, aurreko protestatan forma hartutakoa— hartu zuten dute zornotzarrek protesta hau antolatzeko irakaspenak eta daukaten “azpiegitura sozialaz” (Zald eta McCarthy-ren zentzuan: gizartea edota beronen segmento baten eskura dauden baliabide material, rol eta harreman pertsonalak) baliatzen dira ekintza eta aldarrikapenen bidean abiatzeko (Casquete, 1998).

Hasierako hilabetetan, ekologismo eta ezkerren militante talde txiki batek —epe luzera begirako interes globalekin, naturarekiko begirune- eta babes-jarrerara eta nortasun biozentrikoarekin, Ekologia Politikoaren balio eta argudioek beren identitatea marrazten zutelarik— Amorebieta-Etxanoko jende xehearen mobilizazioa eragin zuten: langileak, emakumeak, baserritarrak eta klase ertain baxua mobilizatu egin ziren erkidegoaren defentsan, haien herriari kalte egiten dion proiektu zehatz baten kontra, orain interes lokal eta bat-batekoekin, superbizitzaren orientazioarekin eta naturaren defentsan baino norberaren defentsan oinarrituriko identitate batekin (Vos, Coleman eta Kamieniecki, 1995).

“...han bizi naizelako, han dauzkat nire susterrak eta pentsatuz nire seme-alabak jarraitzea...”. (E5)

Nor mugitzen dira? Eta zer modutan? Zer nolako ideia eta balioen markoan kokatzen dute euren mobilizazioa? Zer baliabide daukate mobilizazio bigarren maila batetan —manifestazioak, erreferendumean parte-hartzea— geratzen direnak aktibatzen? Ikus dezagun hori guztia, atalez atal:

### 2.3. ZBeko giza baliabideak

*Zornotza Bizirik* plataformako asteroko bileretan 20 pertsona inguruko taldea mugitzen da, baina noizean behin eta gaiaren arabera beste pertsona batzuk agertzen da. Mobilizazioaren erdigune honetan badaude ekologismoaren aktibista klasiko batzuk, ezkerreko alderdien zinegotzien ordezkariak (Batasuna eta Ezker Batua, eta Eusko Alkartasuna apur bat urrunago), baina badaude batez ere mobilizazio zehatz honen karira bildutako pertsonak. Askotan, aurretik zeuden lotura pertsonalak direla eta taldera heltzen direnak. Azken fenomeno hori ere askotan aipatzen da Gizarte Mugimendu Berrien ikerketetan (Casquete, 1998: 194).

Baina ikus ditzagun aktibistak nolakoak diren:

- **Bizilekuari dagokionez:** Boroa auzoko biztanle asko: baserritarrak; baserriko seme-alabak, batzuetan kaletik baserrirako bueltan edo lotura afektibo handiarekin; bertara joandako kaletarrak baserri baten bizitza “naturalago” bat egin nahi dutenak,... Boroan ere eraiki dira txalet asko baina honako etxebizitza hauetan bizi den jendeak ez du hainbeste atxikimendurik erakutsi. Hala ere, Amorebieta herriguneko biztanleak dira gehienak ZB plataforman.
- **Statusari dagokionez:** Amorebieta-Etxano klase ertain baxuko jendea, (horrek zertxobait esan nahi badu behintzat): zerbitzuetako langileak, profesionalak, enpresa txikietako zuzendaritza-kideak, administrazioako enplegatuak, dendariak, enpresari txikiak, industriako langileak, ikasleak...
- **Adinari dagokionez:** Adin ertaineko jendea (30-50 urte bitartekoak) gorako joerarekin (badaude ere jubilatzeke tenorean daudenak) eta gazteen presentzia urriarekin. Mobilizazioetan (manifestazioetan, erreferendumean) ere bai, batez ere jadanik seme-alabak dituztenak (hau da 30 urtetik gorakoak) nabarmentzen dira gazteen gainetik.
- **Generoari dagokionez:** Gizonezkoak eta emakumezkoak erdibana daude plataforman gizonen presentzia publiko (bozeramailea, prentsurrekoak...) handiagoarekin, baina oso orekatua beste dinamiketan. Kasu honetan, honako mobilizazio hauetan emakumeek jokatzen duten rol garrantzitsua egiaztatzen da (Vos, Kamieniecki eta , Coleman, 1995; Taylor, 1995).
- **Mobilizazio esperientziari dagokionez:** Efektiboak ere erdibanatzen dira kasu honetan: batzuek beste esperientzia batzuetatik datoz —hemen garrantzi berezia daukate auzo-mugimendutik etortzen direnek, jadanik aipatu den jarraikortasun bat konfirmatuz (Urrutia, 1987/Barcena, 1995/Castells, 1997)— eta jende askok orain bizi du bere lehenengo esperientzia mobilizazio sozial batean. Aipatzekoa da berritasun hori ematen dela ez soilik aktibista gazteen kasuan, jadanik adinean sartuta daudenen artean baizik.

Azken hauen artean badaude esperientzia hauetan zeharo berriak direnak eta beste maila urrunago batean mobilizatu direnak, euskararen aldeko ekin-tzetan adibidez. Aipatzekoa da ere adineko jendearen artean beste esperien-tziak gogoratzean Lemoizko zentral nuklearraren aurkako mobilizazioak asko aipatzen direla, horrek memoria kolektiboan utzitako arrastoaren seinale (Ibarra, 1995).

- **Kokapen ideologikoari dagokionez:** Euskal mapa politikoa marrazten duten bi ardatzei —zentralismo/independentismo eta ezker/eskuma (Llera, 1994)— erreparatuz gero, argi dago ZB osatzen dutenen artean gehienek ezkerreara eta independentismora jotzen dutela. Gainera, askorentzat natura-rekiko harremana eta abertzaletasuna lotuta daude. Hori ez da berria Euskal Mugimendu Ekologistaren ikertzean (Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1995) edo orokorrean euskal Gizarte Mugimenduak aztertzean (Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1996/Casquete, 2000). Baina, hala ere, badaude pertsona batzuk klabe ideologikoetan azaltzen ez direnak. Gainera, multzo handi batek badauka ikurtzat plataformaren pluraltasuna eta pentsatzen du —eus-kal panorama politiko gatazkatsuan— hobe daukatela ZB edozein marka politikotik at mantentzea, beren helburuak (Boroako zentral termikoa ez gauzatzea) lortze aldera, eta beste konfliktoetan mugimenduak oztopatzeko erakundeen aldetik erabili diren argudioak (Barcena, 1995) desaktibatzeko. Azpimarratu behar da ere ZBeko partaide askok ez daukatela beren burua ekologizatzen.

#### **2.4. ZBen baliabide ideazionalak. Mobilizazioaren markoa**

Zer nolako gai-bilduma erabiltzen du ZBek Zornotzako jendea mobilizatzeko? Nondik ateratzen ditu gai horiek? Zer nolako marko zehatzean kokatzen ditu dauzkan baliabide diskurtsiboak, bere mezua Zornotzako jendearengana heltzeko? Gizarte-mugimendu bat ikertzen denean, erantzun behar zaie honako galdera horiei (McAdam, McCarthy eta Zald, 1999). Gizarte-mugimendu batek giza baliabideak topatzeko erreferentzia-markoak planteatu behar ditu, hau da, aldatu nahi duen errealitatearen diagnostikoa eta egiten duen pronostikoa, interpretatze-eskemak, sortu behar ditu eta gero arazo zehatza eskema horietan enmarkatu (Casquete, 1998).

Printzipioz, ZBek erabiltzen duen gai-bilduma (“errepertorioa”) Euskal Mugi-mendu Ekologistaren (EME) ondaretik ateratzen du. Praktikan EMERen historian mugimendu honek erabili dituen argudio guztiak (Zubiaga, 1995) aktibatzen ditu bere komunikazio-jardueran. Guk bost kategoria edo ardatzetan sailkatu ditugu EMERen errepertorioko gaiak eta egiaztatu dugu ZBen komunikazioetan denak agertzen direla, baina proportzio eta dosi zehatz batzuetan:

- **Biosferaren ardatza:** Naturarekiko begirunea, arriskua, osasuna, kutsadu-  
ra, berotegi-efektua, Kiotoko ituna, basoak eta ibaiak zaindu eta mantendu

beharra, herriko erdigunetik hurbilegi egotea, naturarekiko *umila* izatearen beharra. Hona kategoria honetan agertzen diren gai nagusiak, era zehatzean ingurumenaren defentsarekin bat datozenak. ZBen gai-bildumako %23,59a betetzen du ardatz honek.

- **Identitatearen ardatza:** Nortasuna, identitatea, bizimodua, borrokatzeko adorea, engainatua ez izatea, Ama Lurrarekiko engaiamendua, euskalduna eta zornotzarra izatea,.. Mugimendu Ekologistak, eta areago EMEk, beti mantendu du konexio bat identitate lokalekin eta herriaren jakinduria babestu du. ZBen gai-bilduman agerpenen %19,21a honi dagokio.
- **Ardatz sozio-politikoak:** Antikapitalismoa, multinazionalen kontra, independentzia energetikoaren problematizazioa, subentzio publikoen desbideraketa, politikarien negozio eta interes pertsonalak eta abar. ZBen komunikazioetan agertzen diren gaien %10,91a ardatz honetan kokatzen da.
- **Praktikotasunaren ardatza:** Baliabideen alferrikaltzea, lanpostu galduak, lanpostu gutxi sortu, trafiko-istripuak (zentralak botako lukeen baporeak sortutako ganduek eraginda), zarata, elektrizitatearen prezioa eta abar. ZBen gai-bildumaren %11,79a da.
- **Demokrazia, parte-hartzea, legalitatearen ardatza:** herriaren ahotsa entzun beharra, erreferenduma, txosten legalen parametro guztiak ez betetzea eta abar. Gai-bildumaren %34,50a da.

[Atentzioa ematen du, zalantzarik gabe, demokrazia eta parte-hartzearen gaiak zer nolako garrantzi handia duen. Hori ez da berria EMEn historian, Leitzarango autobidearen aferatik aurrera (Zubiaga, 1995), eta zeharo logikoa da gure kasuan honenbeste garrantzia edukitzea: gero ikusiko dugunez, ZBekoek lehenengo unetik oso argi eduki dute (horrela ikusi dute eta ikuspegi horren arabera jardun dute) Amorebieta-Etxanoko biztanleriaren babes osoa zeukatela eta, auzotarrei iritzia eskatuz gero, zentral termikoak erabateko ezetza jasoko zuela. Gai hori, gainera, garrantzia hartuz doa gatazka aurreratzen den heinean. Hau da, behin jendea konbentzitu —edo konbentzitu dutela pentsatu— eta gero “herriari entzun” bilakatzen da gero eta mezu errepikatuen.]

Mantentzen al dira osagai horiek komunikazio-idatzietatik ZBeko aktibisten eta ZBek aktibatuen diskurtsoen mailara goazenean? Bai, baina ez. Bai mantentzen da bozeramaile eta aktibista batzuen diskurtsoetan: batez ere, mugimendu ekologistatik datozen pertsonen kasutan edota hausnarketa ideologiko sakonagoa daukaten gazteenetan. Mobilizazio-esperientzietan eta ideologizazio-prozesuetan aberats diren multzotik urruntzen garen heinean —eta jadanik oso argi ikusten da bakarrik mobilizazio puntualen (manifestazioak, erreferendumean parte hartu, etab.) esparruan mugitzen direnengana heltzen garenean— argudio bat, indar-idea bat gailentzen da errepertorio osoaren gainetik: osasuna eta bizimodua.

## 2.5. Osasuna, osasuna eta osasuna. Bizimodu Onaren irakurketa zornotzarra

Osasun pertsonalaren defentsa —eta batez ere umeena— da zornotzarren mobilizazioa eragiten duen faktorerik indartsuena, behin eta berriro beren diskurtsoan gailentzen dena. ZBek ondo jakin du ikuspegi hori lantzen —nahiz eta, esan bezala, mezu orokorrakoak bidali— eta Boroako zentral termikoak eragingo litzkeen kalte sanitarioak asko azpimarratu dira; gainera eskualdeko mediku eta osasun-profesional multzo handi batek publikoki baieztatu ditu informazio horiek.

Izan ere, Boroan Bizkaia Energia enpresak jarri nahi duen ziklo konbinatuko zentral termikoak planteatzen dituen arriskuak oso argi agertzen dira: Amorebieta-ko herrigunetik hurbilegi dago (2 kilometro eskasera, Tantorta eta Laminor etxebizitza-gunetatik kilometro batera), areago 900 haur eta gazte biltzen duen Larreako etxebizitza eta eskolagunetik kilometro batera; anhidrido karbonikoak, ozonoak, nitrogeno oxidoak airearen kalitatea larriki eskastuko lukete; prekauzio-irizpidea urratuko litzateke, kokatzeko alternatibak ez dira aurreikusi (Barraqueta, 2001).

Boroako zentral termikoak 800 MW potentzia edukiko luke. Enpresa sustatzaile Bizkaia Energia Elkarte Mugatuan gehiengoa duen ESB multinazionalak Irlandako Corbyn daukan lantegia (askotan gonbidatu dituzte zornotzarrak hara joaten eta zenbait agintarik bisita egin zuen) 400 MW potentzia dauka eta landa-eremuan dago. “Urrunago balego” edota “txikiago balitz”, zornotzarren artean behin eta berriz errepikatzen diren leloak dira.

“Guk ez dugu esaten ‘ziklo konbinatuko zentralik ez’, esaten dugu ‘makro-zentralik ez’” (E1)

“Arazoa izan da oso hurbil dagoela eta osasunari kalte egingo diola” (E4)

Berriro erreparatzen baldin badiegu ZBen komunikazio-idatzietan agertzen ziren gaiak ikusiko dugu Biosferaren ardatza deitu dugunak (naturarekiko begirunea, arriskua, osasuna, kutsadura, herriko erdigunetik hurbilegi egotea, naturarekiko *umila* izatearen beharra) gai-bilduma osoaren %23,59a betetzen duela eta bakarrik Demokrazia eta Parte Hartzearen ardatzak okupatzen duela espazio komunikatibo gehiago (jadanik azaldu dugu zergatik gertatzen den hori). Baina, beste urrats bat emanez, ikertzen badugu zer-nolako espazioa betetzen duten pertsonen osasunak eta bizimoduak biosferaren ardatza horretan ikusiko dugu mezu horien %59,26a, hain zuzen ere, jendearen osasun-arriskuei eta bizimoduan jasango dituzten kalteei dagokiela. Gai horrek, horrela bakartua, ZBen gai-bilduma osoaren %13,97 esanguratsu bat betetzen du.

Ekologismoaren inguruan eraikitzen diren mobilizazioak funtsean antropozentrikoak dira, behintzat gehiengo zabal baten motibazioei dagokienez: interes pertsonalak, umeak, familiak, erkidegoak superbizitzea, interes lokalak (interes komertzialen gainera),... badaude mugimenduen atzean (Taylor, 1995) eta patroik hori errepikatzen da Zornotzarren kasuan.



“Tengo claro que económicamente es bueno para el pueblo. Yo no descarto ese apartado, pero priorizo la salud. ‘¿Qué me dice usted de la salud?’ ‘No, es que económicamente es muy bueno’. ‘No le pregunto eso’. ‘Económicamente es muy bueno’. ‘Vale, ya me ha respondido’. No entran al debate de si es bueno o malo para la salud. Por algo será...”. (ET7)

Eta gaude, Zornotzan mobilizazio honek hartu duen ezohiko indarrak zerikusi zuzena daukala bertan egiten den Bizimodu Onaren irakurketa propio batekin. Ez da Amorebieta-Etxanon espezifikoki ematen den *constructo* sozial bat; baina bai azken urteotan gure inguruko herri askotan sortzen ari den definizio sozial komun bat, eta Amorebieta-Etxano horren adierazle paradigmaticoa izan daiteke.

“Cuando se pierde la salud, no hay nivel de vida alto que valga”. (E7)

Amorebietan ez da ia geratzen iraganaren arrastorik. Badaude beste gune batzuk, herriaren historia hobeto islatzen dutenak: Etxano, Boroa bera eta abar, baina herrigunean 60ko hamarkadatik aurrera Bizkaian ematen den urbanizazio prozesuak zeharo aldatu du funtsean lehen Ibaizabalen magalean atsedengune bat (jauregi sakabanatu batzuk baino ez zeudelarik), bilbotarrak urak hartzeko lekua, zena. Gero urbanizazio prozesu horretan —Euskal Herriak bizi izan zuen gizarte tradizionalarekiko apurketa eta modernizazio-prozesuaren bigarren faseari dagokiona (Gurrutxaga, Pérez-Agote eta Unceta, 1990)— eraiki zen gaur egun herrigunea dena, oraindik azken urteotan etxebizitza asko eraiki direlarik. Inmigrazioaren urteak dira (Amorebieta-Etxanora jende asko heldu zen 60-70 urteetan, batez ere Andaluziako iparretik), eta industrializazioarenak.

“Han maltratado este pueblo y siempre en aras de los intereses económicos, en contra de la calidad de vida de la población (en cuestiones medioambientales, de seguridad, de estética, de ruido, tráfico, destrucción del medio etc.” (E3)

Horrela sortu diren herrien egoera latza izan da epe luze batetan: kaleen-urbanizazio amaitu gabeak, ekipamendu eta zerbitzurik eza, gero industriaren birmoldaketaren ajea etorri zen. Amorebieta-Etxanon jadanik aipatu dugu herrigunearen erdian trafikoarekin bizi izandako arazo gogorra. Ibaizabal zeharo kutsaturik egon da Durangon eta Amorebieta-Etxanon bertan zeuden paper-fabrikekin. Oraindik begi-bistakoa da bertan zenbait ekipamendu, kulturaren aldetik, adibidez, falta direla.

“Amorebieta es una chapuza, es un cruce, es una rotonda. No hay centro del pueblo. Y encima dicen que viene el Tren de Alta Velocidad...” (ET2)

Yo soy optimista. Admito todo eso, pero también es que estamos en el centro de Euskadi, somos el eje para todo y hay calidad de vida. Se ha puesto muy bonito el pueblo”. (ET7)

“Sales y a diez minutos está todo precioso” (ET5)

Baina esan daiteke egoera hori izugarri hobetu dela azken urteotan: industria-eredu berriak (fabrika txiki edota ertainak, kooperatiba asko) ez du hain nabarmenki kutsatzen, trafikoa herritik at bidali da<sup>3</sup>, asko urbanizatu da hirigunea, ibaia garbiago dago. Gainera, herrigunetik oso hurbil, oso inguru natural ondo zaindua dago: Aramotz mendikatea, Bizkargi, Etxanoko partea eta abar “Herritik hamar minutura basoa daukagu”, oso esaldi errepikatua da zornotzarren ahotan, haien bizitza-kalitatea azpimarratu nahi dutenean.

“Kutsadura handia, baina bueno apurtxo bat herrigunetik irteten bazara, ba bueno, gutxiago da. Ingurumena gutxienezkoa mantentzen da, ezta? Sentipena da ez dagoela hain kutsatuta”. (E1)

“Yo, Amorebieta, como vecino, lo veo muy bien. Del casco urbano a zonas de prados y montes se llega en diez minutos: montes, ríos, zonas forestales,...una maravilla de pueblo”. (E7)

Azken urteotan lan-egoera ere ongi doa Zornotzan. “Enplegu Osoaren Gizartetik hurbil gaude”, hori dio IK2k eta datu apurrek ez gaituzte asko urruntzen uste horretatik. 1997an, 10.600 pertsona zuten lanerako adina Amorebieta-Etxanon eta %50,3ak lan egiten zuen, Durangaldea eta Bizkaiko mediatik gora (Lurra, 2001). Baina Nazioarteko Lanaren Erakundearen klasifikazioaren arabera, 1996an 5.319 ziren okupatuak eta 1.308 langabetuak, 6.627 pertsonak osaturiko Aktiboen multzoan. Datu berriago baten arabera 2001ean 448 langabetu zeuden INEMko zerrendetan apuntaturik (EUSTAT, 2002).

Funtsean ondo bizi da Amorebieta-Etxanon, edo horrela ikusten dute auzotarrak, behinik behin. Baina aldi berean, paradoxikoa izan badaiteke ere, herri *kolpatuta* (trafikoa, kutsadura, ekipamendu falta) izatearen kontzientzia dago zornotzarren artean. Eta kontra-eredua daukate alboko herrian, Lemoan, bi harrobi handi eta porlan-fabriken lanen eraginagatik inguru zeharo kutsatua eta hondatua baitute.

“Trafikoa asko sufritu du Zornotzako herriak” (E1)

Hain zuzen ere, zornotzarrek beren hiri-habitatarekin daukaten erlazio paradoxiko horretan —*hemen bizimodu ona daukagu baina asko kostata, eta oso matxakatuta egon ondoren*— errotzen da Boroako zentral termikoaren kontra hedatu den gizarte-mugimendu indartsua. *Norberaren osasunarentzat eta batez ere umeentzat* (etxebizitza asko eraiki da asken urteotan Amorebieta-Etxanon, ongizate horren karira, bikote gazte asko bizitzera geratu edota bertaratu delako) *kaltegarria izan daitekeen “munstroa” egin nahi dute, noiz eta orain, hainbeste usteko ahaleginaren ondoren bizitza-maila ona lortu dugunean.*

---

3. Nahiz eta azken urteotan berriro nabaritzen ari den Debaldea eta Lea-Artibai eskualdetako industrietatik Barazar mendaterantz doan trafiko astuna.

“¿Motivaciones? Unos tendrán de índole ecológica, otros por la salud de sus hijos, o porque su caserío está muy cerca, o porque tiene un piso y lo quiere vender...no sé qué motivaciones puede haber. Al final, se hipoteca el futuro de este pueblo. Donde se instala una industria de estas características ha quedado marcado. Hay ejemplos: Lemoa, etc.”. (E6)

“Yo ya soy mayor. Trabajo más por las hijas y por el pueblo que por mí”. (E7)

Paradoxikoa da ere autonomia, foru eta udal erakundeek lorturiko emaitza: bai EAEn, bai Bizkaian, azken hogeitun urtean boterearen erdigunea okupatu duen EAJ da alderdi hegemonikoa Amorebieta-Etxanon. Ez dago kritika latzik bere kudeaketari buruz. Baina horregatik, hain zuzen ere, ulergaitzagoa egiten zaie zornotzarrei orain *munstro* bezala ikusten duten zentral termikoaren eraikitzean alderdi horrek tematu izana. Eta alderdiak berak arazoak izan ditu bere aginte lokalak integratzeko.

“Boroa edozein zentral ipintzeko lekurik desagokiena da: eskolak gertu, herria ere bai,... Ez da bilatu ‘alternativas de ubicación’, leku ezberdinak maneiatu...” (E1)

“Yo hasta ahora no tenía ninguna disconformidad con la administración del pueblo, ni he protestado. Pero esto clama al cielo”. (E7)

Badago azken xehetasun bat: Boroan proiektatuta dago Bizkaiko industrialderik handiena izan beharko zukeena, miloi bat metro koadroko “Bizkaiko zoru industrialaren erreserba estrategiko nagusia”, “Koroaren harribitxia” Bizkaiko Foru Aldundiaren arduradunen esanetan (Lurra, 2001). Baina poligono horrek oso bizitza gorabeheratsua izan du eta oso presente dago hori guztia zornotzarren memorian.

Historia laburbilduz: poligonoa Aldundiak osatu zuen hainbat lur-erosketa eginez (eta balizko espekulazioaren inguruko salaketa publikoak egon ziren) eta hainbat proiektu maneiatu eta gero (tartean, Erakustazoka bertara eroatearena) López de Arriortua ingeniari eta automobil-industria multinazionalaren zuzendaritza-giroetan murgildu zornotzar famatuak automobil-fabrika erraldoi bat egiteko zeukan egitasmoa egitetik oso gertu egon zen, baina azken unean (pertsonek horrek lehenengo espioitza industrialak egiteaz akusatua egon eta gero istripu larria sufritu ondoren) dena zapuztu zen.

Kontua da gaur egun milioi bat metro koadro horiek hutsik daudela — badaude, hala ere, Amorebieta-Etxanon beste poligono txikiago batzuk, zeharo betetzeke daudenak (Lurra, 2001)— eta bertan kokatzeko dagoen egitasmo bakarra zentral termikoarena dela, horretarako urbanizazio-lanak egin dira. Zornotzar askok, proiektu hori arriskugarritzat jotzen dute, haien kontura egindako trufa larritzat daukate hainbeste buelta eta gero Boroan egitasmo hori bakarrik egotea.

“Todo para un proyecto privado, que se enmarca dentro de los intereses privados derivados de la nueva ley de liberalización del sector eléctrico. Era una barbaridad, que se detectaba con simple sentido común y la gente normal lo tiene”. (E3)

“No se genera empleo con la central”. (ET5)

Boroa auzoa autobideak Amorebietako herrigunetik bakanduta dago eta errepede zaharkitu batetik heltzen da San Pedro basilizara. Beheko partean poligonorako izango diren lur-sailak daude, baserri bertan behera botatakoak edota itxita eta orokorrean lagatze-irudi bat. Baina gorako bidean hasten dira konpontzeko bidean dauden baserriak eta txalet berriak. Basilizaren bueltan elkarte gastronomikoa eta txaleten landatar estetika berriaren hipostasia den luxuzko jatetxea. Boroan, baserriez gain, meatzaritzan oinarritutako ekonomia egon zen (bertako harrobietan labe garaietarako oso aproposa zen adreilu-mota bat lortzen zen) eta orain basogintzak eta zerragintzak ere presentzia daukate.

Euskal Herrian baserriaren kulturaz asko eztabaidatu da, eta gaur egungo gizartean horrek daukan indarrak. Euskal kultura tradizionalan ondasunekin eta batez ere baserriari lotutako baliabideekin erlazionatzeko era berezitua dagoela ukaezina dirudi (Juaristi, 2001) eta, gure helbururako, gutxi du inporta ea Euskal Herriko historian zehar eraikitako forma sozial hori klase-gatazketan irabazleen zerbitzuan (Azurmendi, 1993; Martínez Gorriaran, 1993; Martínez Gorriaran eta Agirre, 1995) izan den ala ez. Guri interesatzen zaiguna da ea horrek ZBen mobilizazio-ahalmenean garrantzi berezirik eduki duen hala ez. Kontutan hartu behar dugu Zornotza Ezkerraldea (beste zentral termiko batzuk jartzeko proiektuak daude) baino landatarragoa dela —hobe geneukake hain urbanoa ez dela esatea— eta Boroa bera baserri-ingurua dela.

“Algunos no pensaron en el deterioro del entorno cuando vendieron los terrenos a buen precio”. (ET8)

Gaur egun landatartasuna/hiritartasuna binomioa praktikan *continuum* bat da eta ezin dugu kontzeptu horiek edonola maneiatu (Garayo, 1996), —areago, inoiz baliagarriak eta ez ideologikoak izan ote diren ezbaian dago, egun (Williams, 2001)— baina gure kasuan ez gara hain ur sakonetan sartu beharko. Gure ikerketaren hasieran geure buruari egiten genion galdera hau: “Ba al da baserriaren kultura horren eragina ZBen kasuan, errazago da mobilizazioaren sua piztea lurrarekin oraindik lotura hurbilagoa daukan gizarte batean?”.

“En Boroa los de los chalets son los que menos se implican. La mayoría son caseríos rurales, viven de ello o complementan”. (E2)

“Larreko txaletekoak ez dira gurengana hurbildu, Boroako baserritarrak bai”. (E4)

Ez dirudi halakorik funtzionatzen duenik, ez gutxienez maila objektibo batean. ZBeko aktibista batzuek azpimarratu digute euren artean gehienek badaukatela lotura hurbila baserriarekin; baina, gure ustez, lotura horrek soilik funtzionatu du

aurretik horren inguruan —lurra, nekazaritzaren garrantzia gizarte eusgarriaren bidean, baserria eta euskal kultura...— diskurtso ideologiko sendoa zeukatenean artean. Edota, bestela, oso maila subjektibo sakonean.

“Herritar bezala, Boroako auzotar bezala,...Gure bizimodu gehiena hemen eman dugu. Boroa ezagutzen dugu. Boroa eta Euskal Herria maite ditugu”. (E1)

Badaude aktibistak Boroako poligono industrialaren kontra leudekeenak —baserri inguru natural bat hondatzea ekarriko lukeelako—, baina Amorebieta-Etxanon industria normalak (ez hain kutsadura-maila handikoak) jarriko balira, ez legoke inolaz ere hain oposizio zabala eta eraginkorra, nahiz eta une honetan, normalean gertatzen den legez (Taylor, 1995), aktibista horiek protagonismo esanguratsua eta lidergo-kuota handia eduki. Kasu honetan, Boroako zentral termikoaren egitasmoaren demasia da, hain zuzen ere, proiektu beraren etsai nagusia: *hain hurbil ez balego, hain handia ez balitz...*

“Siendo una industria normal, le daría mucha riqueza al pueblo. Yo estoy en contra de la central”. (E7)

“Hubiese sido menos contaminante”. (ET6, automobil-fabrikaz ari dela)

Eta abertzaletasuna/ekologismoa binomioak (Barcena, 1995) funtzionatu al du? Amorebieta-Etxanon abertzaletasuna —bertsio moderatuan, batez ere— oso indartsua da (EUSTAT, 2002) eta zentzu horretan esan daiteke ZBeko aktibista gehienek nolabaiteko lotura daukatela euskal abertzaletasunarekin, nahiz eta, esan bezala, ez duten gai horiek jorratzen beren erakunde-bizitzan. Harreman horrek funtzionatzen du eta batzuek beren ekologiarekiko lotura zentzu abertzale batean definitzen dute. Askotan ikerturiko lotura konfirmatzen dela esan dezakegu, baina ez besterik.

“Zornotza Bizirik plataformakoak abertzaleak gara, neurri baten edo bestean” (E1)

Zenbait sektore nazionalistetatik, EAJtik zehazki, independentzia energetikoa beharrezkoa dela aldarrikatu da Boroako zentral termikoa justifikatzeko. Baina, aurrerago ikusiko dugunez, energiaren inguruko eztabaida —zenbat ekoitzi behar den, zer modutan etab.— gori-gorian dago eta zornotzarrek asko dakite afera hori buruz. Beraz, esan daiteke gai hori eztabaida global horretan kokatzen dutela eta ez dutela onartzen balizko independentzia energetiko horren inguruan botatako argudioak.

“Cuando corten el gas de Argelia..., menuda independencia energética (..) no tenemos recursos naturales, no tenemos nada y nunca se va a conseguir esa independencia energética si no es con otros métodos de producción de energía, a pequeña escala, etc.”. (E6)

“Nunca seremos independientes si tenemos que comprar el gas. Es un argumento sin base. Para algunos vale todo”. (E7)

Osasunaren defentsa dugu, beraz, ZBen mobilizazioaren motor nagusia. Horretaz gain, mobilizazio horren arrakasta ulertzeko plataforma beraren eguneroko funtzionamenduari eta topatu duen Aukera Politikoen Egiturari erreparatu behar diogu.

#### **4. ZORNOTZA: POLITIKO ITXIAK BAINO ZALANTZATIAK, INFORMATZAILE ARGIAK ETA AKTIBISTA ZINTZOAK**

Gizarte Mugimenduen arrakasta azaltzen saiatzen garenean Aukera Politikoen Egiturari erreparatu behar diogu ezinbestean. Hau da, mugimenduak botere publikoa kudeatzen dutenengana iristeko ahalmena, horien barne-dibisioa, aliatu eraginkorrak etab. (Tarrow, 1994; Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1996), baita sistema politikoa zabaltzat ala itxizat har daitekeen (Casquete, 1998), hau da, mugimenduaren ekinbiderako espazioa dagoen ala ez (input zabala edo itxia) eta haien erabakiak inposatzeko erakundeek daukaten ahalmena: output indartsua ala ahula (Zubiaga, 1995). Atal honetan azalduko duguna bere testuinguruan kokatzeko Kronologiari erreparatzea gomendatzen dugu.

Boroako zentral termikoaren egitasmoaren kasuan erakundeek erabilitako output hori oso erabakigarria izan da. Ezin dugu esan ahula izan denik, baina, aldi berean, ez da indartsua izan ere, ez behintzat eraginkorra izateko baldintzetan. Adjektibo bat erabiltzekotan, esan beharko genuke erakundeek jokatu duten rola zalantzatia izan dela, askotan ez arre, ez iso jarreretan mantendu dena, eta horregatik lortu du ZBek arrakasta garrantzitsua bere mobilizazioetan. Hain zuzen ere, zornotzarrek borroka horretan irabazterik bazeukatela ikusi zutelako. Klandermarsek horri deitzen dio “protestaren eraikipen soziala” eta planteatzen du nolabait protesta-ekintzak hasi baino lehen ematen den ebaluazio-prozesu bat dela (Casquete, 1998: 97).

Gure kasuan, EAJren jarrera da erabakigarria. Gehiengoa ez erabatekoa dauka Amorebieta-Etxanoko udalean eta gobernatzen du Bizkaiko Foru Aldundian (EArekin batera) eta Eusko Jaurlaritzan (EArekin eta prozesuaren azken partean EBrekin ere bai). Aldundiak dauka Boroako lur-sailen jabegoa eta Jaurlaritzak Industria politikoa gidatzen du eta hainbat tramite legal onartu behar du. Espainiar gobernuak espainiarrak ere eman ditu hainbat baimen, baina ZBen protestak, ekintzak eta aldarrikapenak Jaurlaritza, Aldundia eta Udalari begira egin izan dira. Udalean EH (gero Batasuna), EB eta EA proiektuaren kontra jarri ziren lehenengo unetik eta PSE eta PP nolabait arazotik kanpo mantendu dira jarrera kontraesankorrak edota anbiguoak aldeztuz.

Baina EAJk sekulako kontraesanak eduki ditu prozesuan zehar. Udalean aldeko jarrera epelak mantendu dituzte, askotan “herriaren hitza” entzungo zutela esanez, baina betiere anbiguotasunean. Gauza bera egin zuen Industria sailburu Josu Jon Imazek, zeinak une batean esan zuen ESB enpresak beste kokapen bat

topatu beharko zuela, zornotzarren jarrera ikusita. Izan ere, proiektu energetiko asko daude egunotan EAEn eta nahiko argi dago denak ez direla taxutuko (Allende, 2001). Aldundia, bere aldetik, beti egon da Boroako poligonoa, bere “koroaren bitxia” beteko duen edozeren alde, baina hainbat proiektu erabili du.

Bestalde, prozesuaren une batean Udalak txosten bat eskatu zion Amorebieta-Etxanon bertan funtzionatzen duen Inguramen Aholkularitza enpresa ezagun bati. Enpresak egiten duen txostenak argi eta garbi esan zuen Boroa ez dela leku egokia halako azpiegitura kokatzeko.

Prozesuaren azken fasean —ziur aski proiektua sustatzen duen Bizkaia Energia enpresaren akziodunen osaeran aldaketak daude—, EAJk askoz jarrera argiagoa hartu du Boroako zentral termikoaren alde, baina ordurako Amorebieta-Etxanoko alderdi barneko egitura aldatu behar izan du (batzar lokalean, alderdiko presidente Xabier Arzallus, Industri sailburu Josu Jon Imaz eta Bizkaiko exekutiboaren lehendakari Iñigo Urkuluren aldeko argudioak entzun eta gero, proiektuaren kontrako botoak gailendu eta gero) eta kanporaketa-espeditentea zabaldu alkateari eta zinegotzietan erreferendum bat egin nahi izategatik.

“La alcaldesa debe respetar la voluntad del pueblo, aunque esté equivocado, y aquí está claro que no estamos equivocados”. (E7)

“Los burukides locales del PNV han admitido que esto es negativo para el pueblo. Luego han tenido presiones....Su partido les ha engañado”. (ET7)

Erreferendumean jendea etortzen zen mahaira esanez ‘ni PNVkoa naiz baina zentralik ez dut gura’”. (E5)

Beste elementu garrantzitsu bat: komunikabideen jarrera. Amorebieta-Etxanon badago aldizkari lokal bat, *Hilero*, bere izenak markatzen duen epean argitaratzen dena. Dohainik banatzen da etxez etxe eta oso irakurria izaten da. Informatzaile batzuek diote Zornotzako iritzi publikoaren egilea izatearen rola dela *Hilero* aldizkaria.

“Me enteré leyendo el ‘Hilero’ y me asusté”. (E7)

Argitalpen horretako zuzendaria EITBko kazetari ezaguna da eta lehenengo unetik ZBeko aktibista izan zen. ZB osatu zen batzarrean (Zornotza Aretoan egin zena) berak eduki zuen protagonismo berezia, eta geroztik ESB enpresaren aldetik jasotako presioak eta mehatxuak salatu zituen publikoki. Bestalde, Bizkaian gehien irakurtzen den egunkariak —normalean horrelako arazoetan erakundearen alde jartzem dena, afera ekologistetan “ahots instituzionalaren bozeramailea” deitu dutena (Ibarra, 1995)— oso jarrera positiboa azaldu zuen bere orrialde lokaletan ZBen diskurtsoarekiko. Gero, aldatu zen jarrera hori. Kontuan hartu behar dugu egunkari horren jabe goan oso ondo kokatuta dagoela energiaren negozioan EAEn leku zentrala daukan finantza-talde batek.

“Informazioa, ez dago beste sekretutik” (E1)

Baina, hasieran behintzat, Boroako proiektua sustatzen zuen Bizkaia Energia enpresa Irlandako ESB enpresa elektriko publikoaren ekimena da, bere zabalpen multinazionalean planteatzen duena. Euskal sistema ekonomiko eta politikoan *outsider* izate horrek ere markatu du afera honen etorrera. *Aktore instituzionalaren* —Ibarrek ematen dion zentzuan (Ibarra, 1995)— barnean, arlo politiko zein komunikatiboan, ikusten diren zalantzek edota eszeptizismoak zerikusi zuzena daukate kanpotar izate honekin eta eragin positiboa edukiko dute ZBek hasieran lortzen duen mobilizazio-ahalmenean. Lehenengo unean ESBk esan zuen Amorebieta-Etxanoko herriak proiektua ez baduela gura, beste leku batera alde egingo dutela.

“La empresa ha hecho algo mal. Pensaron que nos iban a engañar pero para cuando se dieron cuenta ya estaba la gente encima”. (ET2)

Azken batean, *Hilero* aldizkariko zuzendariarekin gertatu bezala ZBen hasieran Zornotzako hainbat lider sozial sartu ziren dinamika horretan. Publikoki proiektuaren arriskuen inguruan sortu ziren lehenengo salaketak udal teknikari batek —gero ZBen bozeramaile izango dena— eginak izan ziren eta horrek, nahiz eta pertsona hori politikoki markatuta egon, ere sinesgarritasuna eman zion protestari. Orokorrean ZBek bere sorrera-bileran —Zornotza Aretoan, 600 bat pertsona batu zirela— pluraltasun eta dedikazio monografikoaren (soilik Boroako zentral termikoaren aurka) irudia ematen jakin zuen eta akordio horretara mugatu da bere zereginen, horretan ere bere arrakastaren beste klabe bat topatzen dugu-larik.

“Esto arranca y sigue porque hay un compendio de gente diferente, con mucha dedicación”. (...) En la plataforma, salvo algunos, nadie —yo, por lo menos, no— nos hemos puesto el carnet, no hemos dicho a qué pertenecemos”. (E2)

Azpimarratzekoa da, partaide batzuen kasuan ia obsesiboa delako, dedikazio monografiko hori, beste inongo gaietan sartu barik horrela Amorebieta-Etxanoko biztanleen aurrean sinesgarritasuna gordetzeko. Nolabait ZBeko aktibista batzuk autozentsura moduko bat edota automugapen bat egiten dute. Ez dute bertan pentsatzen duten guztia adierazten, beren ideologia pertsonala ez dute bertan hustu, plataformaren izaera mantentzearren.

“Yo no trato de imponer. Lo que diga la mayoría. Siempre puedo estar equivocado. Pero he cuidado con esmero cualquier palabra o hecho que levante suspicacias. Tenemos que coger a todos, incluso votantes del PP. En esto me voy de la política...”. (E2)

“Plataforma plurala da. Moderatzaileak daude batzarretan eta E2 bat da. Horrek ez du uzten politika sartzen”. (E5)



Eta zeregin horretan egin duen ibilerak, betiere jendeari atxikirik eta herri ertain batean oraindik bideragarriak diren komunikatzeko kanal hurbilak (talde informalak, bilera zabalak, kontaktu pertsonalak) mantenduz, horrek guztiak eman dio ere indarra ZBen mobilizazio ahalmenari. Erabakiak aho batez hartu dira, eta, posible izan ez denean, bozketaren bidez; denek gehiengoaren erabakia onartu dute.

“Pasé, personalmente, de ser una persona poco conocida a ser muy conocida. Me paraban en la calle, sobre todo mujeres con niños pequeños”. (E7)

“La plataforma ha hecho un trabajo muy bueno”. (ET7)

“Han hecho un currelo muy grande. Desde fuera lo veo así”. (ET3)

Aktibisten esperientziari dagokionez, lehen esan bezala, oso maila desberdina daude ZBen. Badaude ekologismo edota auzotarren mugimendutan saiatutakoa, edota politika lokalean, baina badago ere jende asko zeinaren lehenengo esperientzia militantea ZBen izaten ari den. Eta bagaude esperientzia eza horrek kemen berezia eta zintzotasun eta gardentasun-maila handia eman dizkiela beste auzotarrekiko kontaktu bizi eta etengabea mantentzeko.

“Informazioa, lana, ondo konpondu gure artean eta zabaldu”. (E1)

Esperientzia eza horrek nolabaiteko xalotasuna eragin du ere ZBen funtzionamenduan, bere indarrekiko konfiantza larregizkoa, euren mobilizazio ahalmenarekiko fede eztaba daezina. Gizarte-mugimenduetan edota politika lokalean ibilitako batzuek akats hori ikusten diote ZBi; baina, hala ere, bat datoz emaitza onak izan direla aipatzean. Berehala aipagai izango dugun erreferendumaren emaitza lekuko.

Aurretik azken ohar bi ZBen eguneroko ibilerari buruz. Aktibista askok aipatzen du adin ertaineko jendea izateak —eta hau ez da ohikoa euskal Gizarte Mugimenduen panoraman— sendotasun berezia eman diola plataformaren funtzionamenduari.

“Nagusiak bezala dira. Eramaten dituzte gauzak, diferente. Gazteok egiten ditugu gauzak azkarrago, eurek txukunago”. (E4)

Bestalde, ukitu behar dugu emakumeen zeregin berezitua. Haiek esan bezala emakumeen parte-hartzeak ere eman die dentsitate berezia plataforma barnean gauzatu diren giza harremani eta askotan andre horiek —haietariko batek esan bezala, jadanik ama izaniko emakumeak— jakin dute egunerokotasunean sortzen diren tirabirak leuntzen eta txarto ulertuak konpontzen. Batzuetan, erabakiak bozketaren bidez hartu izan dituztenean, andreek ere rol berezia jokatu dute halako prozesutan azaleratzen diren minberatasunak zainduz.

“Oso ondo funtzionatu dugu, igual andreok gaudelako. Ama legez jokatzen dugu gazteekin. Gizonek ez dute hori egiten (...) Andreok lortu dugu,.. amok egiten duguna egin dugu, batu, batu beti”. (E5)

“Donde hay mujeres funciona todo mejor” (E6)

Azken batean, Aukera Politikoaren Egiturarekiko harremana daukaten gaiei heltzen gaudela, 2002ko apirilaren 14an ZBK referendum bat egin zuen —eskatu zion arren, Amorebieta-Etxanoko Udalaren babesik gabe—udalerrri horretako biztanleek Boroako zentral termikoaren proiektuari buruz daukaten iritzia eman zezaten. (Erreferendumaren inguruan gertatutakoak zehazkiago ezagutzeko, Kronologiara jotzeko gomendatzen dugu berriro ere.)

“Ha supuesto mucho trabajo, mucho esfuerzo. Incluso gente que venía menos se ha reintegrado. No hemos llegado a todo”. (E2)

Botoa emateko eskubidea daukan populazioaren %43ak hartu zuen parte erreferendumean (16-18 urte bitartekoek botoa emateko eskubidea izan zuten, baina aparte zenbatu ziren bozka horiek) eta gehien-gehienek ezetz esan zioten proiektuari: Jasotako 5.445 botoetatik, 5.352 ezezoak izan ziren, 53 baiezkoak eta 21 boto baliogabe eta 19 zuri egon ziren. Abokatuak, alkateak eta zinegotziak, unibertsitateko irakasleak, sindikalistak, parlamentariak eta abar osatutako Berme Batzorde batek abalatu zuen prozesu osoa kasu hauetan beharrezkoak diren arau guztiak betetzen egin zela.

Zer esan parte-hartzeari buruz? Espainiar Estatuaren ibilbide demokratikoan oso erreferendum gutxi egin dira (frankismotik trantsizioa bideratu zuen Erreforma Politikoarena 1976an; Konstituzioa onartzekoa 1978an; OTANen segitzekoa 1986an) eta denak oso egoera berezietan, honekin alderatze aldera, behintzat. Gauza bera esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Autonomia Estatua onartzeko egin zen erreferendumaz (1979an). Hala ere azpimarratzekoa da parte-hartze elektoralak ikertzerakoan ikusten dugula OTANen inguruko erreferendumak (kontsulta tematiko bat, erabaki zehatz bat eskatzen duena) ehuneko ia baxuena duela (%59,42) 1976-1991 bitarteko serie elektoralean, 1989ko europar hauteskundeek soilik parte-hartze baxuagoa eduki zuten (Astorki Hualde, 1994). Bai Espainian, bai EAEn, jarduera politiko eta elektoralen inguruan dauden erreferentziazko ikerketetan ez dago datu nahikorik (kontsultak gertatu ez direlako) erreferendumean ematen den parte-hartzeari buruz mintzatzeko (Castillo, 1994; Llera, 1994).

ZBekoek azpimarratzen dutenez, badira Europar Batasunean (EB) zilegitasun osoa eta parte-hartze baxuagoa eduki duten erreferendumeak. Haietako bi kasu aipatzen dute, biak Irlandakoak (gogoratu bertako enpresa publikoa dela Boroako proiektuaren sustatzaile nagusia den ESB multinazionala): 2001eko ekainaren 7an Nizako Ituna berresteko egin zena, %34,79ko parte-hartzearekin, eta 2002ko martxoaren 7an abortuari buruzkoa, %42ko parte-hartzearekin.

“Yo creo que con una participación mayor la proporción SI/NO hubiese sido similar”. (ET3)

“En el pueblo no hay nadie, ningún sector, a favor. No te da ningún beneficio”. (ET9).

ZBek egindako erreferendumaren indar sinbolikoa apaltzeko esan egin da ere emaitza horretan agertzen direla proiektuaren kontra dauden guztiak. Hori espekulazio hutsa da eta politika-fikzioa egitea, jarduera eta jarrera elektoralak zer korapilatsuak diren kontuan hartuta. Baina zenbakiak beste aukera batzuk eskaintzen dituzte: Apirilaren 14an Boroako zentral termikoari ezetz esan zioten 5.352 botoak gailentzeko, 5.353 boto behar dira, logikoa denez. Beraz, pentsa dezagun botoa eman ez zuten guztiak alde daudela eta erreferendum ofizial batean parte hartzen dutela. Horrek suposatuko luke %84,54ko parte-hartze bat, ZBek bere erreferendumean erabili zuen errolda eguneratuaren arabera. Amorebieta-Etxanon egin diren azken hauteskundetan parte-hartzea %71,57koa —1999 udal hauteskundetan— eta %83,44koa —EAE osoan parte-hartze *record* eduki zuten 2001eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundetan— izan da (EUSTAT, 2002).

“Si no aceptan lo que dice el pueblo, ¿qué podemos hacer?” (ET3)

“Es inadmisibile. Te hablan de que somos la democracia más vieja de Europa, el árbol de Gernika,... y luego se te queda cara de gilipollas”. (ET7)

## 5. ZORNOTZA BIZIRIK-EN DIMENTSIO KULTURALAZ BERBA BI

Orain arte ZBen dimentsioak aztertzean, batez ere debate akademikoan oso indartsua den Baliabideen Mobilizazioaren Teoriari begiratu diogu. Baina gizarte-mugimenduak ikertzerakoan badago beste eskola bat Gizarte Mugimendu Berriena, hain zuzen ere. Lehenengo batez ere Ameriketako Estatu Batuetako ikerlariak gidatua, oro har, mundu anglosaxoitik dator, eta bigarrena European dago errotua eta Melucci, Touraine edo Offe pentsalariei zor diegu, besteak beste (Casquete, 1998).

Horiek askoz garrantzi handiagoa ematen diote gizarte-mugimenduen dimentsio kulturalari, ikuspegi estruktural batetik begiratuta eta Gizarte Mugimendu Berriek eragin dezaketen gizarte-aldaketa planteatuz.

Instalatu edota sortu al da talde-kultura berezitu bat ZBen taldekideen artean? Oso neurri txikian eta bakarrik aktibista batzuen pertzepzioan. Kontuan hartu behar dugu oso talde instrumentala dela, helburu bakar baten zerbitzuan —Boroako zentral termikoaren proiektuaren desagertzea— eta, lehen esan bezala, nolabaiteko autozentsura praktikatzen dutela partaideek.

“Respecto al contacto con la gente que allí he encontrado, en general, puedo decir que es enriquecedor desde el punto de vista humano sobre todo”. (E3)

Gizarte Mugimendu Berrien ikuspuntutik honako mugimendu hauek definitzeko planteatzen diren ezaugarriak betetzen dira ZBen kasuan (Riechmann eta Fernández Buey, 1994) baina, zinez, uste dugu paradigma hau *gogorregia* dela gure kasuan aplikatzeko. Hau da, talde-kontzientzia hori, kultura politika berria eraikitzen egotearen jabe izatea, ez da ematen gaur egun Amorebieta-Etxanon dagoen mobilizazio sozialean. Bai dago presente ZBeko zenbait aktibisten ikuspuntuan, baina ezin dugu esan orokorra denik.

Paradigma honek —uste dugu guk— balio digu Mugimenduak, maiuskulaz, azaltzeko, hau da ekologismoa, feminismoa, antimilitarismoa eta abar, edota beste modu batez esanda, mugimenduen industriak, McCarthy eta Zalden terminologian (Casquete, 1998: 70) edota mugimenduen familiak, Melucci beraren terminoetan (Casquete, 1998: 100). Baina gure kasuan hauxe topatzen dugu: fenomeno horiek Mugimenduen Gizartearen produktuak diren neurrian Amorebieta-Etxanoko mikro-gizartearen kapital sozialaren parte dira eta beren erreperitorioak —ideazionala eta mobilizazio formei dagokiena— hartzen dira protesta zehatz honen zerbitzura jartzeko.

“Este movimiento ciudadano va a darnos la confianza en que todavía es posible organizarse, porque yo no lo creía ya... Yo venía de allí, me tocaron los últimos años en Santutxu y veía muy poca gente a mi lado,.. la gente se está europeizando, ..pero vamos a ver que, por encima de partidos políticos, se pueden tomar decisiones...”. (E2)

“Igual ezin izango dugu hau gelditu, baina erreferendumarekin demostratu dugu beste batek ere halakorik egin ahal izango duela”. (E5)

Gakoa Casquetek topatu du Gizarte Mugimendu Berrien eta Baliabideen Mobilizazioaren teoriak uztartu nahian. James B. Ruleri jarraituz, planteatzen du gizabanakoek ekintza kolektiboetan kalte eta onuren kalkuluak egiten dituztela; baina ez soilik norberaren interesei dagokien alorrean, baita interes kolektiboen alorrean ere. *Arrazionaltasun kolektibo* honek (Casquete, 1998: 178), zornotza-rren arrazionaltasun kolektiboak, esaten die aukera asko daukatela beren osasunera-ko, bizi-kalitatearako eta ondorengo bizimodurako zeharo kaltegarria den proiektu bat atzera botatzeko eta horretan dihardute, NIMBY ziztrin batzuk baino ez izatearen estigma jasaten dute... Horretaz jardutean bueltatuko gara identitatearen gai korapilatsura, orain Informazioaren Gizarte berria aurkezten digun Manuel Castellsen eskutik.

## 6. NIMBYRI AURRE, EDOTA GURE ETXEKO BARATZAREN IZAERA GLOBALAZ

*Not In My Back Yard*, Ez Gure Etxeko Baratzean<sup>4</sup>. Horrela definitzen dituzte, batez ere AEBetako eskolatik, beren bizimodua arriskuan ikustean sortzen diren mugimendu erreaktiboak, motibazio berekoien arabera mugitzen direnak (Casquete, 1998: 106).

Baina izendapenak fortuna ona eduki du eta zaletu asko topatu du. Ibilbide horretan, baina, kutsu peioratibo handia eman zaio izendapenari, berekoien ekologismoa omen da NIMBYena. Horren kontra, jadanik Barry Commoner, Ekologismo Politikoaren sortzailetariko bat altxatu zen, handiari uko eginez: “errauskailuen industriaren Harreman Publikoetarako adituei berba ederra otu zaie (NIMBY) gu konbentzitzeko errauskailuen kontrako jarrera sinpleki barne-jarrera antzua eta arlotea dela, auzoan agertzen den edozein gauza berriaren kontra, gure baratzetik kanpo edozein gauza desatsegin mantentzeko guraria (...) Errauskailuen kontrako jarreran, Iritzi Publikoa motibatzen duena gizarte osoarekin partekatzen duen ingurumenarekiko kezka da, eta ez honenbeste norberaren baratzearen ukieztasuna. Kezka hori ez da soilik pertsonala, soziala baizik” (Commoner, 1992: 118. Gaztelaniazko bertsiotik egokitu dugu testua euskarara).

“NIMBY and Proud!”, “NIMBY naiz eta harro nago”. Ipar Amerikako Gizarte Mugimenduetan gainditu dute NIMBYaren estigma eta harrotasuna erakusten dute LULUen (“Locally Unwanted Land Use”, Hemen Nahi/Onartzen ez ditugun Lurraldearen Erabilpenak) kontra aritzeko. Haien argudioa erraza da: “Denok gara NIMBY eta inork ez du LULU bat gura, baina batzuk “isileko NIMBYak” dira eta botere-baliabideak dituzte LULUak euren baratzetik urrun kokatzeko. Horrela, LULUak jartzen dira erkidegoak horren kontra era arrakastatsuan jarduteko baliabide gutxien daukan lekuetan” (Morris, 1994: 13-18).

Gainera, Saul Alinskyren ibilbidea aldarrikatzen dute NIMBYek. Alinsky Chicagoko unibertsitatean ikasitako soziologoa izan zen. Joan den mendeko 30eko eta 70eko hamarkadak bitartean, lehenengo langile-mugimenduarekin eta gero batez ere auzotarren mugimenduarekin, lan egin zuen. Antolatzaile bat izan zen, batik bat, eta hiriz hiri ibili zen (askotan bertako elizek deitua) auzotarrei hirigintzaren inguruko aldarrikapenak lortzeko protesta-ekintzak antolatzen laguntzeko. Berak sortutako mugimendu ugari eta beste modu batez sortutakoek itzelezko gatazka urbanoak eragin zituzten 60ko hamarkadako gizarte iparamerikarrean. Daniel Bellek eta Virginia Heldek “erkidegoaren, komunitatearen iraultza” deitu zioten horri eta, beranduago Harry Boyte “backyard revolution” (Castells, 1986: 87 eta 101).

---

4. Edota Ez Nire Etxe Atzeko Baratzean? Ez da itzulpen erreza, batez ere hizkuntzaren alde etikoa edota suposatzen duen mundu-ikusmena kontutan hartzen badugu (Juaristi, 2.001a), Europako urbanizazio-ereduarekin ere ez da ondo ezkontzen izen hori.

Hemen ditugu, bada, hainbat elementu, ondo nahasirik: bizimodu lokalen defentsa, harrotasuna, kanpotik datozen erasoak, identitatea eta abar. Bai, azken batean Manuel Castellsek Informazioaren Gizartea definitzerakoan Identitatearen Boterea deitzen duena topatu dugu. Ikerle horrek garrantzi berezia ematen die ekologismoaren aldarrikapenei gizarte globalean identitate lokal berri horien egituratze-prozesuan. Berak dioenez azken hamarkadetan tokian tokiko erkidegoek eta beren erakundeek —lehen auzotarren mugimenduan espresatzen zirenek- Ingurumenaren Defentsarako mugimendu indartsua gorpuztu dute. Castellsek egiten dituen tipologietan agertzen dira ere NIMBYak, espazio propioaren defentsan aritzen direnak, helburu moduan osasuna eta bizi-kalitatearen mantentzea daukatenak eta identitatea erkidego lokalean topatzen dutenak. Abisatzen du idazle honek “nolabaiteko maltzurkeriaz” NIMBY deitu dietela mugimendu horiei, zeinek errealitatean aktibitate kaltegarrien kokapena —toki pobreenetan— eta espazioaren erabileraren inguruko benetako eztabaida sozialaren falta kritikatzan duten. (Castells, 1998).

“No es tanto el que te afecte tan directamente, como tus sentimientos”. (E2)

Los industriales ganarán el dinero más fácil y la salud del pueblo de Amorebieta no les importa”. (E7)

Izan ere, ZBekoek, eta oro har Amorebieta-Etxanoko biztanleek, horretaz dihardute bere borrokan. Planteatzen dute ez dutela zentral termikorik Boroan eta ez diotela inori opa haiek jasan gura ez dutena. Gainera, behar energetikoak asetzeko konponbideak diseinatzerakoan —eta, hori baino lehen, behar horiek kalkulatzearan— debate tekniko eta ekonomiko, funtsean politiko eta sozial, zabal eta sakona dago, bai Euskal Herrian, bai mundu osoan zehar (Allende, 2001; Martínez, 2002; Bermejo, 2001, Fernández Duran, 1992, Riechmann, 1998; Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 2000).

“El debate es necesidades, hasta donde llegan y consensuar: cantidades, ubicación y distribución. Igual merece la pena hacer (centrales) más pequeñas y perder menos. Los técnicos lo dicen...”. (E2)

ZBeko aktibistek ezagutzen dute eztabaida hori eta planteatzen dute behintzat EAEn eztabaida soziala egon behar dela energia beharrak nola ase erabakitzeke; baina energia berriztagarriak aldeztu dituzte ezin dela hori laga merkatu kapitalistaren eskuetan, eta egiaztatzen dute bide horretan ez dela ahalegin nahikorik egiten (López, 2002). Hori gertatzen ez den bitartean, eroso daude ezezko jarreraren eta berdin eroso daude Amorebieta-Etxanoko biztanleak, agian eztabaidan honen beste sakondu ez dutenek, baina antzeko jarrerak mantentzen dituztenak. Eta giro horretan, eta bizi diren gizartea ezagututa, nolabaiteko autozentsura praktikatzan dute eta ZBen izaera monotematikoa beste edozeinen gainetik kokatzen dute.

“Osasuna sakrifikatu energia esportatzeko? Ez gaude prest. Oreka topatzen dugu guk. Gu ez gaude prest osasuna jokoan jartzera energia esportatzeko, multinazionalak aberasteko eta poltroneko askoren interes partikularrak betetzeko, alderdi askoren finantziario irregularrak eman dadin” (E1)

“Lo importante es el ‘porque’. Luego ya si lo ponen en Amorebieta es secundario (..) Tenemos derecho a decir que no lo queremos aquí”. (ET9)

Gainera badago beste arrazoi bat lokalismoa baztertzeko: Boroako kasuan, zentral termikoaren proiektua bultzatzen duen enpresa kanpoko enpresa bat da, ESB enpresa publiko irlandarra —nahiz eta Bizkaia Energia enpresaren kapitalean beste partaide minoritarioak egon daitezkeen—, zabalpen multinazional bati ekin diona; beste kasu batzuetan, adibidez Ezkerraldean jarri nahi dituzten zentral termikoenetan, enpresak bertakoak dira baina akziodun indartsuenak —akzio gehien daukatenak, ez erreferentziako akziodunak— AEBetako pentsio-funtsak dira. Orokorrean enpresa kapitalistek oso joera handia daukate nazioarteko hedapenerako, aldi berean finantza-sare korapilatsuetan sartzeko eta jabegoa kontzentratzeko. Funtsean hori da globalizazioa deitutako fenomeno (Etxezarreta, 2001).

Aktibistak, beraz, antzoki global horretan mugitzen dira, gizarte globalean, horren pertzepzioan behintzat, baina tokian tokiko ekintzak bultzatzen dituzte, interes tekniko edota ekonomikoen lehentasun abstraktuen gainetik, jendeak espazioaren erabilera errealez daukan esperientzia errealak hautatzen dituztelako, oinarrizko tokian tokiko demokraziaren aldarrikapena eginez. Globaltasun horretan eguneroko espazioa erkidegoak ustiatu behar duela planteatzen dute. Espazioaren aldarrikapen horren alboan, denbora glazialaren defentsa dago, natura eta gizakien arteko harremana epe oso luzeetan epaitu behar delako (Castells, 1998: 149-151).

“Hau ez da lorategi bat. Hau bizitzeko gune bat da. Kutsatuta dago eta gutxieneko baldintzak mantentzen ari gara” (E1)

“La verdad es que no sé exactamente lo que es ser ecologista. Si considero que si todos los habitantes del planeta tienen como objetivo el estilo de vida del mundo occidental, el planeta no lo aguantará. Lo que ocurre es que los occidentales nos permitimos este modo de vida (consumismo) a costa de los países del tercer mundo. Considero que como objetivo deberíamos tener el siguiente: dejar el planeta (desde un punto de vista medioambiental, riqueza ecológica respeto a la naturaleza) a los que nos proceden en condiciones al menos similares a las que nos dejaron los que nos precedieron”. (E3)

“Gastamos mucha energía. Somos consumistas. Pero esta es una zona muy poblada, y se niegan a entrar al tema de la salud”. (ET7)

Eta, agindu bezala, Castellesekin batera identitatearen kontura heltzen gara berriz ere. Horrek dioskunez, “bakarrrik azalean kontraesankorra den honetan ekologistak lokalistak eta globalistak dira, biak batera: globalistak denboraren ustiaketan, lokalistak espazioaren defentsan” (Castells, 1998: 152). Era paradoxiko

horretan, mugimendu ekologistak global/lokal dikotomia gainditzen du. Maila lokalean mobilizatzen da, eta interes lokalak —pertsonalak eta erkidego txikiak— dira mobilizazio horren motorra; baina etxe globala —batik bat bere geroa, epe luzera begira— dute buruan.

“Zenbat eta adin gehiago eduki, ez diozu zentzurik topatzen bizitzeko eta produzitzeko eredu honi”. (E1)

“Esango dute progresuaren aurka gaudela, euren progresuaren aurka”. (E5)

Ezin topatu ZBen errealitateari hobekien egokitzen zaion definizioirik. Horregatik uste dugu EMERen agerpen berri eta berezitua topatu dugula Amorebieta-Etxanon, Euskal Herri globalean ugaritu daitekeen forma, alegia. Azken finean, hori oso logikoa da identitatearen bueltan hainbeste neke jasaten duen gizarte batean, eta oso espero zen halakorik gertatzea (Juaristi, 2001b: 90).

“Euskal Herri osoa maite dut, Boroa aipatu dizut hemengoa naizelako baina ez dut zentral termikorik nahi, ez hemen, ez inon. Ezkerraldean gauza bera esaten dute”. (E1)

“Guk nahi ez duguna ez dugu beste inon nahi”. (E5)

Erresistentzia-identitate horiek oso garrantzitsuak izango dira gizarte globalean *identitate-proiektu* direlakoak sortuko dituztelako. Eta ingurumen-defentsarako mugimenduek oso garrantzi handia izango dute prozesu horretan kode kultural berriak sortu eta zabalduko dituztelako (Castells, 1998: 396). Zibilizazio berri bat eskatzen duten heinean, kultura berri hori sortzeari ekin behar diote arazo globalak planteatuz baina koordenada lokaletan kokatuz, jendeak parametro honetan jarraituko baitu bere esperientzia ebaluatzen (Castells, in Susser, 2001)

“Zornotza Bizirik-en egonda, nik nire burua globalizazioaren kontrako mugimenduaren partaidetzat daukat, baina plataforman mundu guztiak ez du hori ikusten. Zu mugitzen bazara ulertuko dituzu arazo globalak, baina zure inguruan daudenaz paso egiten baduzu, nola ikusiko dituzu besteak?”. (E4)

Azken finean ZB “Amorebieta-Etxano berria” definitzen ari da bere diskurtsoan —bere hitz eta ekintzetan—, leku bat non aspaldiko arazoak gaindituta Bizitza Ona egin daitekeen, hori bai Osasuna, Bizimodua eta Geroari kalte egin eta arriskuan jarriko lukeen zentral termikoaren mamua historian ahaztu eta gero.

## **7. LABURBILDUZ: ZBEN ARRAKASTAREN ARRAZOIEN XERKA**

Bukatzeko, saia gaitezen *Zornotza Bizirik*ek eragin duen gizarte mobilizazio deigarriaren arazoak edota klabe batzuk era sintetikoan marrazten:

- Amorebieta-Etxano euskal Mugimenduen Gizartean dago, eta bertako jendeak badauka metatutako esperientzia, kapital soziala, haien interesen alde, ekintza kolektiboak sustatu, bultzatu eta beronetan integratzeko.



- Mehatxua azaltzen denean (ziklo konbinatuko zentral termiko erraldoia: 800 MW), ekologismo politikoaren aktibista gutxi batzuek, ezkerreko alderdietako zenbait kidek eta hainbat auzotarrek (beren burua zehazki kaltetuta ikusten dutenak), zalapartaka, eskandalua, alarma-deia egiten dute eta herri ertain batean mantentzen diren sare konektiboak —harreman pertsonalak, erreferentziazko pertsonak, gai horretan mobilizatzeko prestasun altua eduki dezaketenak— aktibatzen hasten dira.
- Zenbait komunikabidek (lokalak, batez ere) gaiari heltzen diote ikuspegi kritiko batez (printzipioz zentral termikoaren balizko kalteekin kezkatutik) eta zalaparta eta harridura, eskandalua, handitzen dute.
- Botere politikoa zalantzati agertzen da —batez ere hemen leku zentrala betetzen duen EAJ— bai eta enpresa sustatzailea ere, eta horrek eragiten du Amorebieta-Etxanoko biztanle askok egiten duten pronostikoa proiektua geldiarazi ahal izango dutela izatea. Lehenengo hilabetetan zentralaren kontra daudenen mezua plazaratzen da bakarrik.
- Lehenengo aktibistek eta gero ZB plataformak komunikatzen duen gai-bildumatik (funtsean mobilizazioa eragiteko Euskal Mugimendu Ekologistak historikoki erabili dituen gai guztiak, era berezi batez modulatuak) zentral termikoak osasunean eta bizimoduan eragingo dituen arrisku larriek —batez ere geroa suposatzen duten umeengana— pizten dute zornotzarren kezka eta eragiten dute jende asko mobilizatzea.
- Planteatzen diren osasunarentzako balizko kalte horiek zornotzarren Bizimodu Onaren definizio soziala kolokan jartzen dute, noiz eta herri horretan arazo historiko pisutsuak (Hirigintzari, Lanari, Ingurumenari eta abarri dagokienez) ahal den neurrian gaindituta ikusten zirenean. Boroako poligonoaren inguruan urteetan egindako propagandarako erabilpena eta, gero, oso kaltegarritzat jotzen den proiektua bertan paratzeko dagoen bakarra izateak areagotzen du zornotzarren haserrea.
- Giro horretan sortu zen *Zornotza Bizirik* eta sektore askotariko jendea bildu zen bertara lan egitera. Horrek sinesgarritasuna eman zion Amorebieta-Etxanoko biztanleriaren aurrean. Hurrengo hilabeteetan bere funtzionamenduan elkarren topo egiten duten kultura politikoez (esperientzia handiko aktibistek, militante politikoez, esperientziarik gabeko jendeak, pertsona nagusi eta andreen protagonismoak,...) eragin altuko sintesia sortu zuten eta plataformak konexio-maila handia mantentzen du bertako biztanleekin bere mobilizazio-ahalmena sustatze aldera. Batzuentzako larregizkoa izan daitekeen baikortasunak kemena eman zien gizarte-mobilizazio maila altuari luzean eusteko, 2002ko apirilko erreferenduma arte.

## 8. ZB-ENGANDIK IKASTEN: GERORA BEGIRA

Informazioaren Gizartean bizi gara, gaur egungoa gizarte postindustrial da. Industriaren Gizartearen sorrerak energia sortzeko ere berriek eduki zuten protagonismo berezia industrian, garraioan eta oro har gizartearen antolaketan aldaketa iraultzailerak eragin zituztelako; orain, berriz, ezagutza gorde, mugitu eta trukatzeko era berriak eragiten ari dira aldaketa iraultzaileok eta honi erreparatu behar diogu gizarte berria azaltzeko (Castells, 1997). Ados, baina energiak —gehienbat elektrikoak, zenbait moduren bidez sortua— jarraitzen du gizartea mugitzen eta Informazioaren tresneria guztia energia horren beharrean dago, funtzionatu behar badu. Energia, beraz, funtsezkoa da, baina era berean urria da. Erregai fosilen bidez ekoizten da gaur egun neurri handi batean eta horien erreserbak agortzen ari dira. Hurrengo 50 urteetan agortze-prozesu hori larriki bizkortuko da (Fernández Duran, 1992: 100-108). Arazo larriak aurreikusten dira energiari eta berau sortzeko moduei dagokienez.

Gure mendebaleko gizarte honetan, Bizimodu Onaren gizarteetan, Amorebieta-Etxanon ikusten den paradoxa ikusiko dugu maiz: mobilizatzen dakien mikro-gizarte bat, bere bizi-mailan erasorik onartzen ez duen jendea, proiektuak “urrunago eta txikiago” nahi dituen giza taldea. Ekologismoak —Ekologismo Politikoak edota *Deep Ecology* (Castells, 1998: 143-146)— egiten dituen diskurtsoetik (diskurtso kultural eta identitarioa izanik, gizartearen paradigman aldaketa sakonak, erradikalak, planteatzen dituenak) jasoko dituzte baliabide ideazionalak, mobilizatzeko gai diren ideia indartsuak, indar-ideiak.

Eta gizakiek beren ahotsa entzun dadin aldarrikatzen segituko dute eta horrek guztiak hausturak eragingo ditu gizartean eta, batez ere, *politikaren porrota* (Zubiaga, 2002) ekar lezake, gobernagarritasun arazo handiak, *governance* delakoak konponduko ez dituenak (Vidal-Beneyto, 2002). Badirudi ezinbestekoa dela zuzeneko demokrazian sakontzea eta gizartearen parte-hartzea bermatzea —beste gai-zerrenda batekin beste agenda baten aginduetara eta beste termino politiko batzuetan jokatzeko diren lau urterik behingo hauteskudeez gain— eztabaida publiko gardena eta aukeren arteko berdintasuna ziurtatuz. Zentzu horretan, ZBek apirilean deitu zuen erreferenduma, bere ahuldade guztiekin, bada gehiago ase barik dagoen behar baten agerpen puntuala, bere mobilizazioaren propaganda-urratsa baino. Geroan, prozesu kontsultiboak (ez, halabarrez, erreferendum bat, edota ez kasu guztietan) ugaltzea eta ofizialtasun bat edukitzea zeharo txalogarria dela dirudi. Bestela garraio-azpiegitura erraldoiak, zenbait ekipamendu (hondakin toxikoen biltegiak, kasu) eta energia sortzekoak (batez ere azken horiek gizakion osasunean arazoak sortzen dituztelako, Amorebieta-Etxanoko kasuak erakusten digun legez) gatazkatsuak izango dira hurrengo urteotan. Garrantzitsua izango da adostasunak lantzea, eta ez sartzea *heroi* eta *maltzurren* peskiza hutsalean (Martínez, 1998).

ZB bezalako mugimenduak berragertzen ari dira indar handiz azkenotan eta nahiko era naturalean kokatzen ari dira globalizazioaren aurkako mugimendu-sistema berrituan. Horrek subjektu politiko berria, aldi berean erresistentzia-subjektua eta subjektu eratzaila, borroka egilea eta sortzaila, mundu berria diseinatzen ari dena (Hardt eta Negri, 2002: 372-373) dagoela suposatzen duen ala ez, geroak esango du. Argi dago, ostera, hurrengo urteotan *aurrerabide* eta *garapen* kontzeptuak, besteak beste, kolokan jarriko direla mugimendu horien eraginez (Fernández Duran, 2001).

## **BIBLIOGRAFIA**

- Allende, J. (2001): “Debate energético aún pendiente” eta “¿Amorebieta (ESB) o Abanto (Petronor)?”. [Iritzi-artikuluak prentsan, bi zatitan, argitaratua] *Gara*, 2001-10-9/10.
- Astorkia Hualde, J. M. (1994): “Evolución de la abstención electoral en España: 1976-1991”, in del Castillo, P. (arg.), “*Comportamiento Político y Electoral*”, CIS. Madril, 3-18.
- Azurmendi, M (1993): *Nombrar, embrujar*, Alberdania, Irun.
- Barcena, I (1995): “La evolución del movimiento ecologista vasco a través del espejo nacionalista”, in I. Barcena, P. Ibarra eta M. Zubiaga, *Nacionalismo y Ecología*, Los libros de la catarata, Madril, 13-66.
- Barcena, I; Ibarra, P eta Zubiaga, M. (1996): “Movimientos sociales y democracia en Euskadi”, *Mientras tanto* **64**, 91-124.
- , ———, ———, (2000): *Desarrollo sostenible: un concepto polémico*, EHU/UPV, Bilbo.
- Barraqueta, P. (2001): *Informe sobre la Declaración de Impacto Ambiental de la Central Térmica de ciclo combinado de Boroa en Amorebieta-Etxano*, EKOS, Amorebieta-Etxano, [Mimeografía].
- Beck, U. (1998): *La sociedad del riesgo*, Paidós, Bartzelona.
- Bermejo, R. (2001): “Interés Nacional Eléctrico”, *El Correo*, 2001-11-20.
- Bordieu, P. (2001): *Contrafuegos 2. Por un movimiento social europeo*, Anagrama, Bartzelona.
- Casquete, J. (1998): *Política, cultura y movimientos sociales*, Bakeaz, Bilbo.
- , (2000): “La sociedad vasco-navarra de movimientos”, in J. Beriain eta R. Fernández Urbieto (koor.), *La cuestión vasca: Claves de un conflicto cultural y político*, Proyecto A Ediciones, Bartzelona, 257-264.
- , (2001): *Acción colectiva y Sociedad de Movimientos*, Eusko Jaurlaritza-Lehendakaritza (Soziologiazko euskal koadernoak), Gasteiz.
- Castells, M. (1986): *La ciudad y las masas*, Alianza, Madril.
- , (1997): *La era de la información. La sociedad red*, Alianza, Madril.
- , (1998): *La era de la información. El poder de la identidad*, Alianza, Madril.

- , (2001): “La sociología urbana en el siglo XXI”, in I. Susser (arg.), *La Sociología Urbana de Manuel Castells*, Alianza, Madril, 499-509.
- Commoner, B. (1992): *En paz con el planeta*, Crítica, Bartzelona.
- Etxezarreta, M. (2001): “Algunos rasgos de la globalización”, in R. Fernández Durán, M. Etxezarreta eta M. Sáez, *Globalización capitalista. Luchas y resistencias*, Virus, Bartzelona.
- EUSTAT (2002): *Udal-adierazlea*, <www.eustat.es>.
- Fernández Durán, R. (1992): *La explosión del desorden*, Fundamentos, Madril.
- , (2001): “Capitalismo global, resistencias sociales y estrategias del poder”, in R. Fernández Durán, M. Etxezarreta eta M. Sáez, *Globalización capitalista. Luchas y resistencias*, Virus, Bartzelona.
- Garayo, J.M. (1996): “La sociedad rural en el final del siglo”, *Inguruak* **16**, 61-79.
- Giddens, A. (1993): *Consecuencias de la modernidad*, Alianza, Madril.
- Grau, E. eta Ibarra, P. (koor.) (2000): *Una mirada sobre la red. Anuario de Movimientos Sociales*, Icaria eta Gakoa. Bartzelona eta Donostia.
- Gurrutxaga, A; Pérez-Agote, A. eta Unceta, A. (1990): *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, EHU, Bilbo.
- Hardt, M. eta Negri, A (2002): *Imperio*, Paidós, Bartzelona.
- Herreros, F. eta de Francisco, A. (2001): “Introducción: el capital social como programa de investigación”, *Zona Abierta* **94-95**, 1-46.
- Ibáñez, J. (1998): “Cómo se realiza una investigación mediante grupos de discusión” in M. García Ferrando, J. Ibáñez eta F. Alvira (bil.): *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*, Alianza, Madril.
- Ibarra, P. (1995): “El discurso medioambiental”, in I. Barcena, P. Ibarra eta M. Zubiaga, *Nacionalismo y Ecología*, Los libros de la catarata, Madril. 13-66.
- Juaristi, P. (2001a): *Euskaldunak eta ondasunak*, Pamiela Etxea, Iruñea.
- , (2001b): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, Euskaltzaindia/BBK Fundazioa, Bilbo.
- , (1997): “Eduki Azterketa Metodoaz”, *Inguruak* **18**, 183-202.
- Krippendorff, K (1980): *Metodología de Análisis de Contenido. Teoría y Práctica*, Paidós, Bartzelona.
- López-Aranguren, E. (1998): “El análisis de contenido”, in M. García Ferrando, J. Ibáñez eta F. Alvira (bil.): *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*, Alianza, Madril.
- López, L. M. (2002): “El poder verde del sol, el agua y el fuego”, *El País*, 2002-6-1.
- LURRA mugimendua (2001): *Zornotza, una visión ecológica*, [Fotokopiatan argitaratutako fanzinea] Amorebieta-Etxano.
- Llera, F. (1994): *Los vascos y la política*, EHUren Argitarapen Zerbitzua, Bilbo
- Martínez Gorriaran, C. (1993): *Casa, Provincia, Rey*, Alberdania, Irun.
- , eta Agirre, I. (1995): *Estética de la diferencia*, Alberdania, Irun.
- Martínez, L. (2002): “El nuevo sector eléctrico”, *El Ecologista*, 2002ko udaberria, 26-29.

- Martinez, Z. (1998): Participación en formas de acción colectiva y potencial de movilización colectiva en el País Vasco”, *Inguruak* **21**, 147-175.
- Mauleón, J. R. (1998): *Estrategias Familiares y Cambios Productivos del Caserío Vasco*, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza Saila, Gasteiz.
- McAdam, D., McCarthy, J.D. eta Zald, M.N. (1999): *Movimientos sociales: Perspectivas comparadas*, Istmo, Madril.
- Morris, J.A. (1994): *Not In My Back Yard. The Handbook*, Silvercats Publications, San Diego (Kalefornia).
- Munford, L (1998): *Técnica y Civilización*, Alianza, Madril.
- Ortí, A. (1998): “La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo”, in M. García Ferrando, J. Ibáñez eta F. Alvira (bil.): *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*, Alianza. Madril.
- Riechmann, J. (1991): *¿Problemas con los frenos de emergencia?*, Editorial Revolución, Madril.
- , (koor) (1998): *Necesitar, desear, vivir*, Los libros de la catarata, Madril.
- , eta Fernández Buey, F. (1994): *Redes que dan libertad*, Paidós, Bartzelona.
- Ruiz Olabuenaga, J.I. (1996): *Metodología de la investigación cualitativa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Tarrow, S. (1997): *El poder en movimiento*, Alianza, Madril.
- Taylor, B.R. (1995): “Popular Ecological Resistance and Radical Environmentalism”, in B.R. Taylor, B (arg.): *Ecological Resistance Movements*, State University of New York Press, Albany.
- Vidal-Beneyto, J. (2002): “Gobernabilidad y gobernanza”, *El País*, 2002-4-12.
- Vos, R.O., Kamieniecki, S. eta Coleman, S.D. (1995): “The Effectiveness of Radical Environmentalists”, in B.R. TAYLOR (arg.): *Ecological Resistance Movements*, State University of New York Press, Albania.
- Williams, R. (2001): *El campo y la ciudad*, Paidós, Bartzelona.
- Zuberogiotia, A (2000): *Globalizazioaren adarrak*, Alberdania, Irun.
- Zubiaga, M (1995): “Euskal Herriko mugimendu ekologistaren ingurune politiko”, in I. Barcena, P. Ibarra eta M. Zubiaga, *Nacionalismo y Ecología*, Los libros de la catarata, Madril.
- , (2002): “Politikaren porrota”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-1-23.



# **Energia, merkatua, jasangarritasuna: ardura globalei bertoko erantzunak**

Iñaki Barcena, *EHU-Zientzia Politikoa*

El espacio *natural* de relación de los seres humanos no es el mercado y tampoco las sociedades y las personas se relacionan mediante los precios. Las transnacionales que operan a escala planetaria dominan cada vez más la economía y son los gobiernos los que se ponen a su servicio.

¿Quién está decidiendo por toda la humanidad?

**Chusa Lamarca Lapuente. “El globalitarismo de las multinacionales”**

**El Ecologista, 25. 2001**

## ***1. ERRONKA GLOBALAREN DIMENTSIOA NEURTZEN***


Hiztegiak dio energia dela sistema batek lana egiteko duen ahalmena, eta horrela izanik, ezagutzen dugun zibilizazio-sistema honek inoiz baino lan gehiago egiteko ahalmena du, duda barik. Beraz, energiaren beharrak ere gero eta handiagoak dira. Naturaren beste espezieek, animaliek zein landareek, egiten ez dutena guk gizakiok egiten dugu, hots, elikadura moduan behar ditugun iturri energetikotik xurgatzeaz gain (e. endosomatikoa) bestelako energia-gastuak egiten ditugu gure beharrizan zibilizatoriak, garraioa, zerbitzuak, aisialdia eta abar asetzeko.

Degradatzen dugun energia, dena den, eguzki-sisteman bizi garelarik, eguzkitik jasotzen dugu, animaliek eta landareek egiten duten antzera. Baliabide energetikoen eta beste baliabide materialen erabilerak ere hondakinen emaitzak dakar, ekosistemak birziklatu behar dituen.


Kontua da, eguzki-sistemaren funtzionamenduaren arauak ezin ditugula aldatu eta nahiz eta historikoki baliabide naturalak eta energetikoak oso handiak izan, gure jarduera ekonomiko produktibo hazkorrak sistemaren mugak ezagutarazi egin dizkigula.

Beraz, energia eta ekologiaren arteko loturak oso estuak dira eta zientzialari askok (Commoner, Ehrlich bikotea, Schumacher, Daly, Goodland...) edota Erromako Kluba berak ere, besteak beste, nazioarteko erakundeei gure eredu ekonomikoaren hazkundearen muga naturalaz ohartu diete. Horien aburuz, energia-iturrien mugaz, errekurtsoen birziklapenez eta hondakinen metaketaz ez badira neurri egokiak hartzen biosferaren ekosistemak kale egingo du.

**1. irudia. Ekosistema global mugatua eta azpistema ekonomiko hazkorraren arteko harremanak. (Goodland & Daly, 1990).**



**MUNDU EKOSISTEMA MUGATUA**





Planteamendu zientifiko hauen aurrean erantzun desberdinak entzun ditugu azken hiru hamarkadetan. Bata jauzi teknologikoaren esperantza da. Beste bat, honi loturiko merkatu “librearen” prezioen erantzun orekatzailea. Ezkorragoek ere badaude eta horiek kaosa eta gure zibilizazioaren amaiera baino ez dute iragartzen.

Arazo energetikoak betidanik egon dira gure planetan eta hortxe ditugu historiaren adibideak. Egurretik hidrogenora, ikatza, gas naturala eta petrolioaz igaroz, soluziobide teknologikoak aurkitu egin ditugu gure beharrianak ahalik hoberena estaltzeko (horretan sinesten dute). Gure ustez, aldiz, arazoa ez da teknologikoa soilik. Azpisistema ekonomikoaren “hazkunde iraunkorren” dago gakoa. Egia bada azken hamarkadatan energia-iturri garbiagoak erabiltzen ari garela, ezin dugu ukatu gero eta kutsadura gehiago sortzen dugula, atsedetik gabe eta gero eta iturri energetiko gehiago behar baitugu gure hazkundeari eusteko. Onartzen baldin badugu hazkunde ekonomikoak azken 50 urtean ez duela aberastu eta txirotuen arteko desberdintasunen gutxipenik ekarri, baizik eta alde jasangaitz hazkorrago bat, eredu energetiko-ekonomiko bera da, agian, kolokan jarri behar dena.

Eredu kontrajarriak agertu dira behin eta berriz energiaren eztabaida eta proposamenaren inguruan. Energia nuklearraren erabilpen baketsuarekin, kapitalismoak eta sozialismoa burokratikoak energiaren iturri ia agortezina topatu egin zutela pentsatu zuten, baina istripuen aurreko segurtasun ezak alde batetik eta hondakinen arazo larriak bestalde, energia-mota horren ametsak zapuztu eta jokoz kanpo utzi egin dituzte. Mundu osoko mugimendu antinuklear eta ekologistaren presioaz iritzi publikoak ez du energia modu horren *hazkundera* ondo ikusten. Nork nahi du zentral nuklear bat bere etxe ondoan? Arrisku hori, ezta ehun kilometrora ere ez!! Ongi dakigu Euskal Herrian zer ekarri zuen azken frankismoak gurean jarri nahi zituen 6 errektore nuklearren plana. Eztabaida energetikoa gure artean ez da, beraz, oso berria.

Gure inguruan ere, eztabaida energetikoaren proposamen kontrajarriak ikusi ditugu. Adibidez, 1992. urteko udaberrian Madrilen Energiaren XV. Mundu Kongresuaren ondoan Konferentzia Alternatibo bat<sup>1</sup> antolatu zenean. Lehengoak 3.000 mila gobernu eta enpresa adituak bildu zituen eta haien ikuspuntutik planetaren populazio ugalkorrari segurtasunez hornitu behar zitzaioela zioen ildo garrantzitsuena. Alegia, eskari energetiko hazkorri erantzun behar zaio, hori bai, ingurumen naturalari ahalik kalte gutxiena eginez. Horri *garapen jasangarria* diote edo hazkunde sostengatua; askori berdin zaio.

---

1. Aedenat-ek Konferentzia alternatibo horren islaz liburu bat argitaratu zuen, *Energía para el mañana. Conferencia sobre “energía y equidad para un mundo sostenible”* izenburukoa.

Madrilgo hitzaldi ofizialean, hornikuntza bermatuta zegoela hurrengo 30 urterako baieztatu zuten eta aldaketa klimatikoari ere erreparatu zioten “damuketa minimoaren” estrategia batekin<sup>2</sup>.

AEDENATEk argitaratutako liburuan (1993:14), mendebaldeko gobernu eta enpresa nagusien analisiak horrela laburbildu zituen:

- a. Arazo energetikoa zerbitzuen eskaria eta eskaintzaren arteko aldean datza.
- b. Gaur egun energia-iturri errentagarriak, garbiak eta egokienak dira berriztagarriak ez direnak.
- c. Energia nuklearra merkeena, garbia eta segurua da. Istripuen arriskuak gainditzen ari dira eta hondakinen dema etorkizunean konponduko da. Oraingoz, Hegoaldeko herrialdeetara esportatzen dira.
- d. Energiaren kontsumoa eta ongizatea batera doaz, herrialdeen garapenaren arabera. Energia gastu gehiago, bizimodu hobea.
- e. Herrialde *ez-garatuek* gure eredua jarraitu beharrean daude, haien populazioa hazkundera geldiaraziz eta merkatu libreari ateak zabalduz, horrela gure aurrerapen teknologikoak ailegatuko zaizkie eta *ikustesinezko eskuaren* eraginez munduko desorekak bertan behera joango dira.
- f. Arazo ekologiko globalei (baliabideen eskasia, deforestazioa, aldaketa klimatikoa...) erantzuna, berriztatze teknologikotik eta eraginkortasunetik datozkie.
- g. Fusio nuklearra geroaren energia *agortezina* dugu. Energia berriztagarriak osagarri moduan ulertu behar dira.

Hamarkada bat geroago diskurtso ofiziala ez da ezertan aldatu. Aldiz, eredu energetiko alternatibo baten bila dabilzanentzat merkatuaren ikuspegi konbenzionala eta hazkunde ekonomikoa ez dira bidea, eta aurrerapen teknologikoak ez du erronka hori konponduko. Lehengoz, ez delako energia gehiago behar, baizik eta zerbitzu energetiko egokiagoak. Horretarako “eskariaren” ikuspegia edo kudeaketa funtsezkoa iruditzen zaie. Bigarrenez, eta merkatuaren dinamikak eta garapen ekonomikoaren leloak kolokan jarri gabe, eraginkortasun energetikoa politika publikoetatik etorriko dela baieztatzen dutelako, ez ekimen pribatutik.

Energia bera beste era batean pentsatu beharra dago, ikuspegi ekonomizistatik hara materialen erabilera, bizimoduen eraginak eta lurralde-antolaketa edo denborarena kontuan hartuz. Zenbat energia dugu nahikoa? Energia, zertarako? Lehen munduan daukagun energiaren zarrastelkeriak ez du adibidez osasunean, aisialdian,

---

2. Juan Carlos Rodríguez Murilloren (1993: 136) berbetan, estrategia hau hiru hankan oinarritzen zen, zenbait neurri prebentibotan, ikerketa gehiagotan eta aldaketa klimatikoari egokitzeke neurrien ikerkuntzan.

hezkuntzan edo komunikazioetan ditugun beharrizanak konpondu. Kritikoen arabera, bi dira eredu konbentzionalak agertzen dituen zalantzak; lehenengoa, ea eredu hau mundu osora zabal daitekenik eta bigarrena, ea eramangarria izan daitekeen epe luzera. Oraingo sistema energetikoan Iparrak Hegoa behar du, handik lehengaiak eskuratzeko eta zaborrak bueltatzeko ere bai. Eta gainera, mundu desorekatu honek bere muga materialak ditu eta kontsumoaren hazkundera eragin-kortasuna baino azkarrago doa.

1992. urtean ere, Rio de Janeiroko Goi-bileran Aldaketa Klimatikoaren konbentzioa erreferentzia argia izan zen. Hantxe, munduko herrialde ekonomikoki potenteenak beren produkzio- eta kontsumo-ereduari mugak jartzeko adostasuna bilatu zen, batez ere energiaren kontsumoari dagokionez. Berotegi-efektuagatik eta gas kutsakorren isurketa hazkorragatik, International Panel of Climate Change (IPCC) taldean biltzen diren milaka zientzialarien kalkuluak arabera, 1980-1990 hamarkada izan da bi mendeen berotsuena eta horrek ekosistemetan, itsasoen egoeran, osasun-arazoetan edo nekazaritzan ondorio eta kalte larriak ekar ditzake. Horregatik Aldaketa Klimatikoari buruzko Tratatu bat lortu zuten, bost urte geroago Kiotoko Protokoloan kopuru zehatzetan baieztatu zena. Diplomazia energetikoaren atzetik interes ekonomiko asko egon dira eta gutxi aurreratu da Rio de Janeiroko bileratik ona.

2002an Johannesburgoko Goi-bileran ere (horregatik Rio+10 deiturikoa), be-rriz, energiaren politikak lehengo mailan kokatzen ziren, baina koiuntura politikoa ez zen 1990. hamakadaren hasierakoa. Lehen munduan zeuden bi superpotentzietatik geratzen den bakarrak etsai berriak bilatu ditu pribilegioak edo *american way of life* delakoa mantendu ahal izateko. Brasilen, 1992. urtean, George Bush aitak sinatu ez zuena, bere semeak, Clintonen jokamoldeak ezeztatuz, ez zuen Johannesburgon sinatu.

Johannesburgoko Goi-bileran argi ikusi genuenez, Nazio Batuen barneko dinamiketan helmuga zehatzak markatu nahi ziren; baina, eta hori da gaurko egoeraren sintoma argia, munduko botere politiko eta ekonomiko nagusiek ez zuten inongo nazioarteko konpromiso multilateral eta mugatzailerik nahi haien jarduera produktibo edo finantzieroentzat. Nahiz eta ziriborroetan idatzita egon, ez zen adostu 2010. urterako energiaren %15a iturri berriztagarriekin lortzea, eta Ekintza Programan proposatu ziren neurri aurrerakoak (sistema energetikoen dezentralizazioa, teknologia berri eta garbien bultzada, zerbitzu eta baliabide energetiko sostengarriak, fidagarriak, eskuragarriak, eramangarriak eta sozialki onartuak...) ez dute ez eperik ezta finantziabiderik, beraz aholku moduan ulertu behar ziren. Horregaitik Rio de Janeiroko bileraren ostean, Johannesburgokoa engainua bezala interpretatu zen, Nazio Batuen egitura osoa guztiz desakreditaturik geratuz.

Aldaketa Klimatikoaren alorrean eman zen mespretxurik handiena. Bertan, Kiotoko Protokoloa sinatzeko Australia, Kanada, Japonia, Txina eta Errusia bere adostasuna aginduz gero, AEBek emandako ezetzak ez du beste interpretaziorik.

## **2. EUOPAR BATASUNAREN ERANTZUNA: ENERGIA MERKATUAREN LIBERALIZAZIOA, JASANGARRITASUNAREN KALTETAN**

Johannesburgoko Goi-bileran, EBk ahalegin handiak egin zituen bere jarrera diplomatiko aurrerakoia agertzeko. Energiaren atalean konkretuki presioak egin zituzten eguzki-energiaren parametroak hobetzeko; baina enpresa energetikoen eta petrolioaren herrialde esportatzaileen presioa izugarri handia izan zen gauzak doazen bidetik jarraitzeko. Izan ere, zaila da adibide onak erakutsi ezean, besteak beste gauzak aldatzeko konbenzitzea etxean praktikatzen duzuna desberdina denean. Konpromisoak oso eskasak ziren Hegoafrikako goi-bileran.

Hara hor, EBko datu energetiko batzuk, bere errealitate energetiko batzuez jabetzeko. Nahiz eta energiaren prezioak jaitsiera nabarmen bat izan, beste arrazoi batzuek artean EBn 40.000 MW energia sortzeko ahalmen soberakina instalaturik dagoelako, 1985tik 1995rako epean EBko energiaren hornikuntzak %11a egin zuen gora, eta BPGk %24a. Horrek esan nahi du EBko Komisioak markatutako %20aren energiaren intentsitatearen gutxipena erdibidean geratu zela. Halaber, epe berean garraio gintzak energiaren kontsumoan %40a igo zen eta petrolio dugu bere oinarria. Horrek esan nahi du garraioak energiaren ia heren bat dela (%29.6) beste heren bat industriarako (%30,6) doa eta pitin bat gehiago zerbitzu eta etxebizitzarako (%39.8) 1996ko datuen arabera (IEA, Capros, 1997, New Cronos, Eurostat).

Energia berriztagarriei dagokionez 1985etik 1996ra gauzak ez dira asko aldatu eta %5-6an bitartean jarraitzen dute. Hori da EBk nahi zuena Johannesburgon akordatu beren herrialdeetan lortzear daukaten helmuga bera, alegia, datorren 2010. urterako energia berriztagarrien zatia bikoiztu nahi dute helburu moduan (98/352 EC Erabakia) eta horrela kasurik onenean %12ra helduko ziren. Gaurko kalkuluen (Europako Ingurumen Agentzia) arabera, 2010an %8ra baino ez da helduko. Energia nuklearra ez da areagotuko baina energiaren kontsumoa aurrera joko du, geldiunerik gabe.

Gauzak horrela, berotegi-gasen isurketak ez dira %8an jaitsiko 1990koak kontuan hartuz eta espero dena da 2010rako isurketak %6aren inguruan gehitzea (E. I. A., 1999). Beraz ez dira espero EBean ikatza edo CO<sub>2</sub> gaineko zergak eta itxaropenak jarrita daude Kiotoko Protokoloan onartzen diren merkatal mekanismoetan (isurketen salerosketak, proiektu komunak eta garapen garbiko itunak).

Europar Batasuna proiektu ekonomiko bat da batez ere eta ikuspegi horretatik energia merkatuaren liberalizazioa izan da erdiko helburua. Horrek teorian aukerak emango dizkio europar bezeroei, prezioak, bestelako zerbitzu osoagarriak edo baldintza ekologikoen arabera, bere hornitzaile energetiko aukeratzeko. Horregatik EBk Energia Berriztagarrien Iturrien zertifikazio bat martxan jartzea aurreikusten du. Kontua da, zergatik ez diren zertifikatzen Europa osoan energia modu guztiak, jakiteko zehatz-mehatz bakoitzak nola ekoizten duen.

Zein dira liberalizazio energetikoaren helburuak? Alde batetik monopolio energetikoak merkatutik desagerraraztea; bestalde, hornikuntzaren segurtasuna eta eraginkortasuna/lehiakortasuna, eta, hirugarrenik, garapen jasangarria. Egia bada eraginkortasuna eta lehiakortasuna piztu direla, ezin da esan energiaren politikak, eta batez ere ekintzak, jasangarritasunaren bidetik doazela (Mathes&Timpe, 2000).

Energiaren europar dilema nazioarteko konpromisoen bete nahiaren eta datozen urtetarako kontsumoaren goradakaren arteko kontraesanetan datza. Europar Batasunaren Energy Outlook ikerketaren arabera, 2020. urtera arte energiaren kontsumoa %40 igoko da. Alemanian eta Suedian soilik %25 baina Grezia, Irlanda, Portugal eta Espainian %60 eta gehiago. Nork eta nondik ipiniko dio zintzarrira katuari?

Energiaren eskuduntzak oraindik Estaduen eskuetan daude, nahiz eta Komisioak kideek hartutako neurri legal eta ekonomikoen kontrola eduki, merkatuaren liberalizazioa aurrera joan dadin. Baina liberalizazioaren dinamikak konplexuak dira eta behin eta berriz markatutako epeak atzeratzen dira. Hasteko, 15 estatu-kideen partetik hasierako egoera energetikoak oso desberdinak dira.

**1. taula. Barne Energia Merkatuaren Arteztarauaren implementazioa.  
COM (2000) 297 azkena.**

HERRIALDEAK	Merkatu irekiera	Geroko planak
AUSTRIA	% 30	%100 2002an
BELGIKA	%30	%49 2003an
DANIMARKA	%90	%100 2003an
FINLANDIA	%100	
FRANTZIA	% 30	%33 2003an
ALEMANIA	%100	
GREZIA	% 30	%33 2003an
IRLANDA	% 30	%33 2003an
ITALIA	% 30	%40 2002an
LUXEMBURGO	% 40	%75 2005ean
HOLANDA	% 33	%100 2007an
PORTUGAL	% 30	%33 2003an
ESPAINIA	% 45	%100 2007an
SUEDIA	%100	
BRITAINIA HANDIA	%100	

Taulan ikus daitekenez, Eskandinavian eta Britainia Handia liberalizazio-prozesua hasita zegoen Europako direktiba edo arzetaraua martxan jarri baino lehen. Hiru estatuk baino ez dute banatuta banaketa sarearen jabegoa merkataritza eta produkzio-interesetatik, eta beste zortzik banaketa-legala aukeratu dute. Horrek esan nahi du liberalizazio-prozesua mantso doala eta zailtasun serioekin jarraitzen duela, hasierako abiapuntua monopolioz beterikoa baitzen.

Non daude liberalizazioaren arriskuak? Ikuspuntu kapitalista batetik arrisku nagusiak daude energia-hornitzaileen inbertsioetan. Monopolioarekin, inbertsio handiek segurtatzen zuten epe luzerako amortizazioak eta etekinak, zentral nuklearrak adibidez; oraingo egoera berrian, aldiz, kapital inbertsio txikiko proiektuek abantaila dute, merkatu aldakor batean. Horrek esan nahi du liberalizazioak lagun lezakeela ikatza eta nuklearraren dependentziaren aurka; baina proiektu energetiko garbiagoak martxan jartzea suposatzen du energia konbentzionalekin merkatu librean norgehiagoa ibiltzea eta desabantaila ekonomikoak mantentzen dira. Agian horregatik EBk ziklo konbinatuko (elektrizitatea eta beroa) instala-kuntzen aldeko apustua egin du.

Liberalizazioak ekarri duena, monopolioak desagertu direnean, prezioen jaiotsiera izan da, eta energiaren gaineko politika fiskal berririk gabe, prezio txikiagoekin zaila da eraginkortasuna eta energia berriztagarrien bultzada lortzea.

Liberalizazioak ere aukera berriak ekarri ditu enpresa energetiko indartsuetarako haien negozioak zabaltzeko, eta batuketa-prozesuen bidez oligopolioen egoerara hurbiltzen gara. Horrela ulertzen dugu liberalizazioa eta globalizazio neoliberala gauza bera direla, eta bata eta besteak ondorio zuzenak izan ditzaketela bai enpleguan eta baita ekonomia lokaletan ere.

Globalizazioak aurkako ondorioak dakartza, alde batetik prezio txikiagoak, eta beste aldetik, deslokalizazioak eta langabezia, eta enpresa erraldoiek soilik ondo mugitzeko baldintza berriak. Gainera estatuak oraindik ematen dituzten dirulaguntzak eta babesak oso handiak dira enpresa-talde batzuentzat, hots, oso liberalizazio partzial batean ari gara, erraldoi gutxi batzuen mesederako.

Ingurumen-ikuspuntu batetik, jakin beharko genuke noizko sartuko diren energiaren kontabilitatean produkzioan, banaketan eta erabileran sortutako kalteak, *externalidadeak* deritzanak. 80ko hamarkadatik hona eta estatu talde txiki eta minoritario baten presioaz (Espainiar Estatua izan da Alderdi Popularraren gobernupean ekotasaren aurkako kide bakarra Europar Batasunaren barnean) oraindik ez dira lortu EBean adostutako zerga energetiko orokorrak, nahiz eta energiaren produkzioan sortutako kalteen internalizazioa helmuga orokorra izan aspaldidanik. Gure ustez, erregulazio fiskal berri batekin eta prezioak igotzen badira eskariaren gutxipenarekin kontsumoak ere gutxituko dira eta eraginak ere bai.

Horrek dudarik gabe energia berriztagarri eta garbien zabalkundeari lagunduko zion, noski, gaur egungo enpresa nuklear eta beste erregai fosiletan jardutenean aurka. Modu berean EBk argi utzi behar zuen ez dela onargarria EBtik kanpoko herrialdetan ekoiztiko energia “zikinak” erostea, horrek barneko merkatuaren desorekaz gain ingurumen eta bestelako ondorio sozial eta ekonomiko latzak ekarriko zituen.

Europar Batasunaren energia politikaren hiru ildo nagusiak badira kompetibitatea, hornikuntzaren segurtasuna eta ingurumenaren babesa, eta azken hori da dudarik gabe, lortzeko urrunena. Jasangarritasuna lotuta dabil adibidez, aldaketa klimatikoa eta arrisku nuklearrari eta bata eta bestearari emandako erantzunak ez dira egokiak.

## 2. taula. Europar Batasunaren berotegi-gasen isurketen tendentziak eta konpromisoak.EEA.

HERRIALDEAK	Helburua 1990rekiko	% gehi/gutxipenetan
AUSTRIA	% 87	%3
BELGIKA	%92,5	%5
DANIMARKA	%79	%4
FINLANDIA	%100	%2
FRANTZIA	% 100	%4
ALEMANIA	<b>%79</b>	<b>-%70</b>
GREZIA	% 125	%8
IRLANDA	%113	%6
ITALIA	% 93,5	%15
LUXEMBURGO	% 72	<b>-%3</b>
HOLANDA	% 94	%10
PORTUGAL	% 127	%6
ESPAINIA	%11	<b>%36</b>
SUEDIA	%104	%1
BRITAINIA HANDIA	%87,5	<b>-%27</b>

Argi ikusten dugu aldaketa klimatikoaren alorrean konpromisoak eta helburuak oso modu desberdinetan hartu direla eta badirudi Kioto Protokolotik harago, herrialde askotan isurketen gutxipena baino interesatzen zaiela eguratsa kutsatzeko eskubiden banaketa eta elkartruketa, horrek ekarriko lukeen airearen pribatizazio mehatxurekin (L. Lohmann, 2001).

2005. urtetik aurrera eta isurketen merkataritzaren ondorioz EBean ezarritako muga legeetatik harago isurtzen duen instalakuntzak bere mugatik behera dagoen enpresa bati eros diezaioke alde hori eta modu horretantxe isurketak merkantzia bihurtuko dira. Enpresen partetik aldakuntza teknologikoak egingo dira soilik merkaturuan egongo diren *kutsatzeko kuotak* garestiagoak ateratzen direnean. Noizko hartuko dute kontuan Europako gobernariak Kiotoko Protokoloan agertzen diren murrizketak (%5,2 orokorrean, %8 EBean 2008-2012rako) hasierako urrats bat baino ez direla, eta berotegi-gasak askoz gehiago jaitsi beharko ditugula?

EBeko zabalkundearekin isurketen merkaturuan eragin nabariak izango dira. Herrialde horien krisi industrialagatik gasen jarioak %34,7 jaitsi ziren 2000 eta 1990 urte bitartean, eta horrek esan nahi du herrialde hauek EBean integratzen direnean 335 milioi CO<sub>2</sub> TN ekarriko dituztela euroengatik trukatzeko (Cristina Roiz, 2003).

Azken arazo bi horiek salatu izan dira nazioarteko foroetan kritika ekologistaren aldetik, eta EBaren erantzuna izan da, geroxeago eutsiko diela. Lehena merkatuaren beharrak dira eta gero...

### 3. taula. Energia Nuklearra E. Batasunean. International Atomic Energy Agency.

HERRIALDEAK	kop	MW	Energiaren %	HondakinenTN./urt*
BELGIKA	7	5.712	%58	2.970
FINLANDIA	6	2.656	%33	1.447
FRANTZIA	59	63.103	%75	20.367
ALEMANIA	19	21.122	%31	11.144
HOLANDA	1	449	% 4	364
ESPAINIA	9	7.470	%30	3.163
SUEDIA	11	9.432	%47	5.015
BRITANIA H.	33	12.968	%26	6.250
EB (15)	145	122.912	+/-%20	50.720

\* Erradiazio Altuak.

Energia nuklearrari dagokionez ere, egoera oso ugaria da. EBeko zortzi estatutan 145 erreaktore nuklear daude 123.000 MWen potentziarekin, hau da, generazio-ahalmenaren bostekoa (%20a). Gaur egun, ez dago inongo proiekturik eraikuntza-prozesuan eta badirudi ez dela egongo. Austria, Danimarka, Grezia, Luxemburgo eta Portugal konprometitu daude energia nuklearra ez erabiltzeko, Italiak 1986 bukatu zuen energia nuklearrarekin eta Alemania, Suedia eta Belgika ixteko planak eztabaidatzen dituzte. Gauzak horrela, ezin dugu itxaron epe luze baten



zentral nuklearren desagerpena etorri arte bi arrazoi nagusiengatik: Lehenengoa, istripu nuklear batek hondamendi soziala eta ekonomikoa ekar lezakeelako bes-teetan ikusi dugun bezala, eta bigarrena oraindik ere konponbiderik gabe daukagu-lako hondakin erradiaktiboen auzia, horregatik ezin dugu hondakin gehiago onartu.

Are gehiago, arrisku hauek handitzen dira Europar Batasunaren hedatzearekin non 27 erreaktore gehiago kontuan hartu behar diren, 8 jadanik oso arriskutsuak direnak (Bulgarian 4, Lituaniako Ignalina 1 eta 2 eta Eslovakiako beste 2). Horrek eskatzen du begirune berezi bat Europako Ekialdeko eta Hegoaldeko herrialdekiko eta mendebaldeko enpresa energetikoen negozioaren aukera berrien gainetik, se-gurtasuna eta ingurumen-neurriak ezartzeko politika sendo bat ezinbestekoa dugu.

Dena den, Europar Batasunaren Hitzarmenak ez du inongo atalik energia-rako. Badaude noski arauak merkatal kompetentziarako eta estatuen dirulagun-tzetarako eta ingurumen-babeserako ere bai; baina gure ustez askoz hobeto izango zen arautegi energetiko bat herrialde guztientzat eta ez orain dagoen moduan herrialde bakoitzak bere eskuduntza energetikoak izatea, horrek suposatzen baitu interes energetikoak gehienetan beste politiken gainetik inposatzen direla eta hori ez da garrantzia bat jasangarritasun sozial eta ekologikorako.

### **3. EUSKAL HERRIKO EREDU ENERGETIKOA: IBERDROLAREN MENPEAN**

Esan dugun legez, EBeko estatuak gordetzen dituzte energia politikaren eskudun-tzak. Horrela izanik ere, egoera energetiko desberdinak topatzen ditugu Euskal Herriko hiru atal administratiboetan. Iparraldean energia elektrikoaren alorrean produkzioan, garraioan, banaketan eta salmentan egoera kuasimonopolistikoa daukagu *Electricité de France* (EDF) enpresa estatalak merkaturia osoa ia menpe duelako. Gainera enpresa honek hornitzen duen energia gehien Ipar Euskal Herrian jatorri nuklearrekoa da.

Espainiar Estatuan, gauzak bestelakoak dira. Ladislao Martinezek dioenez, gerra zibilaren ostean instalakuntza energetikoak saltoka etorri dira. Hasteko, Francok egin zituen urtegiak eta salto hidrolektrikoak, 60ko hamarraldian fuel-oileko termikak eta 70ean eta 80an zentral nuklearrak. Geroxeago mende bien bitartean ziklo konbinatuko zentralak dira txanda hartu dutenak. Antza denez, azken horiek izango dira Espainiar Estatuako energiaren eskaria eta eskaintzaren arteko desorekak konpontzera, zeren 1996tik 2001era kilowatio/orduko produkzioa %25 igo zen eta epe berean bere prezioak %30eko jaitsiera ezagutu zuen (L. Martínez, 2001).

Egoera aldakor honetan, Espainiako Gobernuak Europar Batasunetik zetozen merkataritza librerako eskakizunak betearazteko barneko merkaturian aldaketa nabarmenak egin behar izan dituzte. 1994an, PSOEek energia elektrikoa birrarau-

tzeko lege bat jarri zuen (40/94) non negozioaren lau atalak sailkatzen ziren (produkzioa, garraioa, banaketa eta komertzializazioa) bere kontabilitate eta prezio-politika desberdinekin.

PPren lehengo gobernuak ados jarri zen konpainia elektriko nagusiekin eta 97tik aurrera bere politika *libertad de establecimiento de nueva potencia y elección del combustible* leloan oinarritu zen, non estatuaren planifikazio-energetikoa bigarren maila batera pasatu zen. Estatuak ez du erabakitzen ez non eta ez zerez ekoizten den, eta bere zeregin berria da prezioen eskalak kontrolatzea. Horrekin batera, energia enpresa estatalen pribatizazioa (Repsol, Endesa,...) etorri zen. Izan ere, negozioaren printzipioa da *Sector Eléctrico* eta *Hidrocarburos* legeek dariena. Energia on bat da eta, antza, merkatuak badaki nola administratu behar den modu egokienean. Horrela izanik, ingurumen-mugak ez dira ezta aipatu ere egiten, eta lege horiek ostean arrisku ekologikoak gehitu egin dira, ez bakarrik gero eta instalakuntza energetiko (46 proiektu z.konbinatuan) eta produkzio gehiago aurreikusten direlako, baizik eta zentral nuklearren segurtasuna gutxitu delako, aire librean egindako mehatzeak, zentral termoelektrikoen isurketa azidoak ere eta noski uraren erabilpenaren inguruko lehiak gehitzen direlako (L. Martínez, 2001:181).

Liberalizazio-prozesuak aldaketa handiak ekarri ditu, eta arrisku berriak ere bai. Espainako administrazioak libre konpetentzian utzi badu energiaren produkzioa, banaketarekin ezin du gauza bera egin eta operadore guztien aportazioen harrera segurtatu behar ditu, gasan zein elektrizitatean. Kontsumoa eta eskaintza gora doazen heinean, sare elektriko eta gaseodukto berriak behar dira eta hori da Estatuak duen dema nagusia, horretarako inbertsio handiak aurreikusten baitira.

Energia sortzeko modu guztiak ez dira berdin ateratzen egoera liberalizatuan. Hidroelektrikak eta nuklear zaharrak (Zorita, Garoña...) kostu aldakor txikiak dituztenez alde ederra hartzen diete adibidez lur azpiko ikatza erretzen dituztenei. Eta gauza bera esan daiteke inbertsioen aldetik instalakuntza berrietan, non ziklo konbinatuko zentralak adibidez merkeago ateratzen diren haize-errota eolikoekin parean, 50-70 milioi pzt/MW lehengoetan eta 120-150 milioi/MW azkenengoetan.

Bestalde kontsumitzaileen artean prezioen politika ez da berdina izango industria kontsumitzaile handientzat (siderurgia, termikak...) eta txikiak; lehengoek, gainera, hornitzailea aukeratzeko askatasuna edukiko duten bitartean txikiak oso zaila edukiko dute. Beraz liberalizazio-mota honek beti pozisio indartsu eta mesedegarrian daudenen abantailak dakartza. Gainera PPrene gobernuak enpresa energetiko erraldoiekin "lehiaketarako tranzisio-kosteak" ere negoziatu zituen (2 bilioi pezeta) aurrekontu publikotik, hau da, gure faktura energetikoarekin ordainduko direnak hurrengo hamar urtetan. Europar Batasunak ez zuen onartu PPko gobernuak enpresa nagusiei (Endesa, Iberdrola, Gas Natural, Repsol...) diru hori guztia aurreratu nahi izatea eta kantitatea gutxitu behar izan zuten. Argi dago

eskumako espainiar gobernuak hobesten duela energiaren kudeaketa enpresariala arrazoi politikoaren gainean eta horregatik liberalizazio eta pribatizazioaren erroak azkartu zituen .

Horixe bera esan daiteke Euskadiko eta Nafarroako Autonomia Erkidegoetako gobernuen jokabideaz. Eusko Jaurlaritzak 1996an 3E-2005 Plan Energetikoa idatzi zuen, non beste gauzen artean hauxe aipatu zen: “1995an hemen gastatutako elektrizitatearen %20 ekoitzi zen bertan, eta helburua da 2005ean gastatukoaren %82a ekoiztea”. Aldiz, aurrera eramaten badira iragarrita diren ziklo konbinatuko proiektuak (Bahia Bizkaia, Santurtzi, Boroa, IGCC Petronor, Zabalgardi eta Pasaia) 2005. urterako hiru probintzietan gastatzen denaren hiru bider gehiago ekoitziko da, beraz, elektrizitatearen esportatzaile bihurtuko gara.

Nafarroan gauzak askoz aurrerakoiak izan ziren asmoetan eta praktikan. 1996ko Plan Energetikoaren arabera, 2010. urterako bertan erabilitako elektrizitatearen %100 iturri berriztagarrien (eolikoa nagusiki %45; baina mikrohidraulikoa, biomasa eta eguzki-energia ere) hornituko zen Nafarroan. Eta hori ia lortuta zegoen 8 urte aurretik, 2002. urtean, baina UPNren gobernuak plangintza osoa, mundu erdiaren enbidia zena, zapuztu egin zuen Castejonean 2 ziklo kobinatuko zentral termikoak onartzerakoan. Zergatik horrelako aldaketak? Batez ere, energia alorreko liberalizazioarekin eta Espainako Lege berriekin negozio aukera ederrak ikusi dituztelako bertoko eta kanpoko enpresa transnazioalal.

#### 4. taula. Euskal Herriko proiektu energetiko berriak.

PROIEKTUA	ERAGILEAK	POTENTZIA	CO <sub>2</sub> ISURKETAK
Petronor IGCC	Petronor	800 MW	6.000.000.Tn/urte
Bahia Bizkaia	Iberdola, Repsol, BP-Amoco, EVE	800 MW	2.600.000.Tn/urte
Santurtzi Z.K.	Iberdola	375 MW	1.150.000.Tn/urte
Zabalgardi	Vivendi, EVE,	90 MW	675.000.Tn/urte
Boroa	ESB- Irlanda	800 MW	2.600.000.Tn/urte
Castejon	Iberdola	800 MW	2.600.000.Tn/urte
Castejon	Hidrocantábrico	400 MW	1.300.000.Tn/urte

Iturria: Greenpeace, 2001.

Energia-planak errealitatean jokoan kanpo geratu dira energia-enpresek, liberalizazioaren marko berrian ikusi duten negozio-aukeragatik. Eta diru pribatuari ongi etorria eman diote bertoko instituzioek, inongo errezelarik gabe. Udal bat edo beste, Amorebieta-Etxano kasu, proiektu energetikoei eragozpen legalak jarri dizkiete; baina hortik gora dena izan da baimena eta esker ona inbertsioak eta lanpostuak ekartzearren. Aurreikusitako planak bertan behera geratu, baina badirudi hori inori ez zaiola axola administrazioan, merkatuak azken baten gehiago eta

hobeto dakielako nondik, zertan eta nola planifikatu behar den alor energetikoan. Eta gure galdera da: Non daude mugak?

Enpresen interesak garaile ateratzen badira, Bizkaiko herrialdea 2005. urtera-ko bihur daiteke Europako bigarren gune energetikorik potenteena. Lehengoaren *pribilejioa* Cadizeko probintziak izan lezakeen, han 11 proiektu energetiko iragarrita baitaude. Zergatik horrelako proiektuen zaparrada? Bada, beste arrazoiren artean, bertan oraindik bere jaiotza eta egoitza dituen enpresa energetiko transnazionalak, Iberdrolak hain zuzen ere, aukera industrial hori egin duelako. Argi dago enpresa honek ez duela galdu nahi euskal bezeroen kontratazioa liberalizazio-garaian eta badirudi Hego Eskal Herriko merkatua bere kontrolpean jarraituko duela neurri handi baten. Iparraldean EDFrenak jarraituko duen moduan.

Bitxia da ere Euskal Herrian erantzun eta protesta sozial gehien izan duen proiektuak, Boroakoak hain zuzen (Zornotza-Amorebieta-Etxano) oraingoz, ez duela izan Iberdrolaren parte-hartzerik. Hori bai, segur aski termikaren jabeak bere bezeroak izango dira, ESBk erreko duen gasa Abrako portuan erosiko baitu, antza denez. Iberdrolak lehentasuna markatu du enpresen arteko norgehiagokan eta bere proiektu guztiak jadanik martxan daude. Are gehiago, Pasaiako ikatz termika kutsakor eta deseraginkorra ziklo konbinatuko batekin ordezkatu nahi dutela ere plazaratu dute, azken baten Iberdrola “Euskal Herriaren bazkide energetikoa baita, historia, akziodun eta bezeroengatik” (Sanchez Galan, lehedakariordea, Euskaldunon Egunkaria 2002-VII-23).

Iberdrolaren atzetik datoz beste enpresa guztiak eta badakigu behin merkatua megawatioak beteta egonez gero, nahiz eta eragozpen legalik izan ez, proiektu energetikoaren bideragarritasuna kolokan egon daitekela. Hori gerta dakioke, kasu, Petronorrei proiektu energetiko berria, IGCC delakoa, atzeratuena baita.

Nafarroako kasuan ere Iberdrolaren presentzia nabarmena da eta horrek esan nahi du, gobernuaz gain enpresa hau dela erantzule nagusia plan energetiko aurrerakoia ezerezean uzteko. Iberdrola proiektu termiko bakar batekin, Castejonen kasu honetan metano edo gas naturala erretzen, EHN nafar enpresa erdipublikoa alboratuz, nafar askoren asmoak eta erronka ekologikoak suntsitu egin ditu. Eta ezer gutxi inporta zaie Iberdrola eta UPNko gobernuari 2000. urtean Greenpeace eta Ekologistak Martxan proiektu horren kontra lortutako 40.000 sinadura. Megawatioak sare elektrikoan paratzeko aukera ederra ikusi dutenean lehendik markatutako irizpide ekologiko eta aurrerakoiak ezerezean geratu dira. Nafarroako plangintza eredugarria desegin dute Iberdrolak eta Hidrocantábricok, Iruñeko gobernuak bertan behera jarri dituelako hartutako konpromisoak. Konplizitateak eta haien arteko akordioak, mundu osoan ezagutzen zen esperientzia eredugarria zapuztu egin du.

Etxean daukagu bada, enpresa energetiko erraldoi bat, orain arte merkatu elektrikoaren sasimonopolioa eduki duena eta liberalizazioaren aroan kanpoko eta bertoko bazkideak topatu behar dituela merkatuaren kontrola izaten jarraitzeko. Gasteizko zein Iruñeko gobernuen laguntzarekin, horixe lortu egin du. Gas eta elektrizitatearen hornitzaile nagusia izango da datozen urteetan baina horrekin batera Euskal Herriak energiaren gainproduktzioa eta kontsumoaren gorakada izango ditu eta modu honetan EAE eta Nafarroako planetan markatzen ziren helmugak, aurrezkitze eta eraginkortasunean, berotegi-efektuaren inguruan, autohorniketaren eta produktioaren, merkatuaren eragilean *planengatik* gaudituta izango dira eta horrek ondorio ekosozial latzak ekarriko ditu datozen urteetan. Beraz, gure kasuan merkataritzaren globalizazioaren eta liberalizazioaren garaian, politika energetikoaren eragile nagusiak ez datoz *atzerritik*, askok pentsa lezakeen legez, gure etxean ditugu, bertan jaio zirelako. Egia bada beste enpresa transnazionalekin lehiari egon direla, ESB esaterako, kasu gehienetan partzuergoak lortu ditu, esaterako Texaco, BP-Amoco edo Repsol-IPFrekin beren negozioak partekatuz. Beraz, egoera monopolistiko batetik merkatuaren banaketara joango gara, baina pastel energetikoaren zati handiena %60 ekoizti nahi du (El País, 2002-VI-7) ahaztu gabe produktio energetikoa biderkatuko dela eta kontsumoaren %20tik EAEn, %300era pasako garela proiektu guztiak aurrera badoaz.

#### **4. ZIKLO KONBINATUKO PROIEKTU TERMIKOAK INDEPENDENTZIA ENERGETIKORAKO?**

1996an, Nafarroan eta EAeko gobernuak beren plan energetikoak diseinatu zuteanean, oso helburu desberdinekin ari ziren. Nafarroaren kasuan, eta bere ingurumen-baldintza bereziak kontuan harturik, nafar gobernariaren asmoak oso aurrerakoiak ziren. Nafarroa garaia herrialde zabala dugu, Euskal Herriaren erdia gutxi gorabehera (10.421 km<sup>2</sup>), milioi erdi inguru pertsonen populazioarekin eta euren agintariak plan energetikoa aurrera ateratzeko orduan energia berriztagarrien aldeko apustua egin zuten, Europako plangintza erregional aurreratua diseinatuz, dudarik gabe. Are gehiago 21 parke eoliko (900 MW) eta 75 instalakuntza minihidrauliko (130 MW), Erriberako zentral fotovoltaiko bat (1,2 MW) eta biomasa (lastoa) erretzeko instalakuntza batekin (25 MW), hots, energia-iturri berriztagarriekin soilik, bere biztanleriaren kontsumo elektrikoa asetzeko plangintza burutsua eta ausarta martxan jarri zuen EHN enpresa publikoak, nafar sektore politiko eta sozial gehien adostasunarekin.

Euskadin planak bestelakoak ziren eta helburuak ez ziren Nafarroan bezain *iraultzaileak*, egoera demografikoa eta eskari energetikoa kontuan harturik, Eusko Jaurlaritzaren adituek asmo *errealistekin* eskari elektrikoaren %85a asetu nahi zuten hemengo generazioarekin, gas naturalari lehentasuna emanez. Horretarako

ziklo konbinatuko zentral termiko batekin (800 MW) helmuga hori bermatuta zegoen; baina arestian azaldu dugunez, errealitateak oso alboratuta utzi du EAEko plan energetikoa.

Agintari energetikoen aburuz, gakoa da hazkunde ekonomiko ez *aurreikusiarekin* batera, eskari elektrikoa 3E-2005 planean 16.360 GW-koa aurrikusten bazen orain 3E-2010 egitasmo berrian 19.000 GW espero dira 2005rako, zeren 2000. urtean 17.000 GW kontsumitu baitziren jadanik. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Iberdrolaren ikuspuntuarekin bat, datu interesgarriena da industriaren kontsumoa jaisten den heinean garraioak, zerbitzuak eta etxebizitzak gero eta gastu elektriko handiagoa dutela eta horrek hazkunde ekonomikoa da haientzat eta negozioaren aukera azkenarentzat.

**5. taula. Energia elektrikoaren kontsumoa eta produkzioa 1998an. \*Nafarroako datuak 1999koak dira.**

HERRIALDEAK	PRODUKZIO ELEKTRIKOA	KONTSUMO ELEKTRIKOA
ARABA	383.352 MW/o	2.196.020 MW/o
BIZKAIA	1.468.941 MW/o	6.889.455 MW/o
GIPUZKOA	934.245 MW/o	5.511.190 MW/o
EAE OSOTARA	2.786.538 MW/o	14.596.665 MW/o
NAFARROA*	1.367.000 MW/o	3.018.000 MW/o

Idatzitako helburuak desberdinak ziren oso Euskadiko eta Nafarroko planetan agertzen zirenak. Lehengoak “merkatuak baimentzen duen edozein motatako ekimenak sustatu eta garatuz”, ekimen pribatuei laguntza osoa ematen zien eta erakusleho ideologiko moduan, independentzia energetikoaren aldeko apustua egiten zuen. Bigarrenak aldiz, luma ekologista batekin idatzita balitz bezala, aurrezkitze eta eraginkortasun energetikoa bilatzen zuen eta autohorniketara bilatzen bazuen ere ingurumen-baldintza egokiek eta energia berriztagarriak bultzatuz.

Nafarroako kasuan, energia elektrikoaren hornikuntza guztia iturri berriztagarriekin egin nahi bazen hasierako egitasmoan, EAEko kasuan energia berriztagarriak ez dira printzipalak, energia osoaren % 10a iristea zen lehengo apustua eta planaren berrikusketan (3E-2010) %6,3ra heldu nahi da 2005. urterako, hau EBk markatzen duen helmugaren erdira. Horretarako bi dira egitasmoak, parke eolikoak eta zaramaren errauskailuak (Unesco Etxea, 2002) .

Azkenean, nahiz eta abiapuntu eta helburu kontrajarriak izan, ondorio antzerakoak izan ditugu EAEn eta Nafarroan, merkaturen presioaz eta liberalizazioaren lelopean. Gainproduktzioa izango dugu ondorio nagusia, gas eta elektrizitatearen esportazioa eta gas naturalaren inportazioan oinarriturik, noski. Modu horretan, ziklo konbinatuko proiektuekin martxan, 1996an egindako apustu energetiko guztiak ezerezean geratu ziren.

Gobernari autonomiko batzuek eta beste batzuek egoera aldrebestu honen aurrean *independentzia* energetikoaz hitz egiten dute, “guk ekoitziko dugu gure energia eta sobera duguna kanpoko merkatutara esportatuko dugu” dioskue. Horretarako, ziklo konbinatuko proiektuak eta Bilboko birgasifikazio-planta “proiektu estrategiko finkatuak” dira, baina orain dela gutxira arte ez zen haien buruetan sartzen.

Eta askoz dependente lotuagoak izango gara Ipar Europa eta Argeliako hodietatik datorren gasetik edo Bilbora itsasontziz Karibetik, Nigeria edo Ariabiatik ekartzen duten metanotik. Zenbait iturri edango dugu, baina *gurea* edari bat bera ere ez. Dependentsia inoiz baino handiagoa izango da, eta kutsadura eta arriskuak ere bai; energia berriztagarrien bidetik hasitako bidaia eten eginda berriz ere. Diotenaren arabera, gas naturaletik ateratako energia *garbia* da, eta badakigu ikatza eta fuel-olioa baino garbiagoa dela; baina ez da berriztagarria eta gainera gurean geneukana, Kantauri itsasoan, Gaviota eta Albatros putzuetatik atera eta agortu egin genuen urte gutxitan. Beraz autonomia eta independentziarik ez!!

Gobernuek diote ziklo konbinatuko termikak oso ekologikoak direla, zergatik ez dute ekologistek instalakuntza hauek ere ez babesten? Ikatza edo fuela baino eraginkorragoak dira, duda-izpirik gabe, eta aprobetxamendu termoelektrikoa %55koa izaten da. Eta askoz CO<sub>2</sub> gutxiago isurtzen dute, beste erregaien aldean (gas naturalak 345 gr/Kw/o eta ikatzak 885 gr./KW/o). Esaten ez dutena da, nahiz eta ikas eta fuel-olioko zentral batzuk ordezkatu, ziklo konbinatuko zentralen ugaltzen neurrigabeak eskariaren hazkundera ekarriko duela eta isurketak ez direla gutxituko, ikusten ari garen moduan. 7 edo 8 zentral berriekin Euskal Herrian datozen urteotan, nork pentsaten du isurketak gutxituko direnik?

Kutsadura atmosferikoan ez direka SO<sub>2</sub> edo dioxinak izango esaten dute, baina onartu behar dute ozono troposferikoa arazo bat izan daitekeela, nitrogenoaren oxidoak edo uraren erabilpen ugaria (0,15-0,7 m<sup>3</sup>/s) instalakuntza hotzitzeko. Uraren arazoa ekiditzeko, Zornotzako kasuan adibidez, airea erabiliko dute erre-figeraziorako; baina esaten ez dutena da modu hori ez dela inoiz probatu inon eta inguruko nekazaritza-produkzioetan eta ekosisteman gerta daitezken eragozpenak ez direla neurtu.

Baina bertan ikusi dugunez klase politikoa, bertokoa eta Espainia zein Europakoak ziklo konbinatuaren aldeko apustua egin dute eta proiektu hauen kontra egon diren kritikak eta mobilizazioak ez dira nahiko izan oraingoz proiektu bat edo beste geldiarazteko.

2002ko apirilaren 11n, ostegunarekin, eta *Zornotza Bizirik!* plataformak deitutako herri-kontsulta hiru egun aurretik, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak egunkarietan gehigarri bat sartu zuten “Ziklo konbinatua. Etorkizuna energia garbiago batez” non Josu Bergara, Josu Jon Imaz, Gabriel M<sup>a</sup> Inclan eta Sabin Intxaurrearen argazkien parean, autohorniketa eta enplegua, hazkundera

ekonomikoa eta ingurumenaren babesa, garapen jasangarri osasuntsua eta Kiotoko protokoloa aipatzen ziren. Bi instituzio hauen gobernariak prest egon ziren *kanpaina* egitera Zornotzan, nahiz eta gero erreferendumaren emaitzak onartu ez.

Urte berean, bi aste geroago Iruñean Europar Batasunaren energia-ministroen batzarra bildu zenean Espainiako presidentziaren urte erdian, bertoko Foro Sozial batek deiturik 10.000 lagun inguru bildu ziren *bestelako* europar energia politika eta nafarra eskatuz. Komunikabide gehienetan igandean Loyola de Palacio komisarioak energia nuklearraren aldeko adierazpenak irakurtzen ziren baina manifestazioa eta mobilizazioak ez ziren ia inon agertzen.

## **5. ZENBAIT IRAKASPEN ENERGETIKOAK GLOBALIZAZIOAREN GARAIAN**

Lehenago irakaspén garantzitsu bat dugu, hasieratik ikusi dugun legez, dinamika globalak eta lokalak baturik doazela. Hots, merkatu energetikoak globalizatzen baldin badira edo esaten den moduan, energia liberalizazen bada, horrek ondorio zuzenak ditu mundu osoan, EBaren barnean eta kanpoan. Eta eragina merkatu lokaletara heltzen da, euskal kasua paradigmaticoa izanik. Eta ondorioak ez dira soilik ekonomikoak. Hazkunde ekonomikoaren dinamikak energiaren kontsumoa areagotu egiten du eta nahiz eta aurrerapen teknologikoak izan, ondorio sozio-ekologiko larriak ari gara ikusten, nagusia aldaketa klimatikoak izanik. Dena den, Prestige itsasontziak Kantauri aldean utzitako gerizpe usaintsu beltza arazo berdina du.

Aspaldian konturatu gara arazo ekologikoetan pentsatu eta ekin behar dela nazioartean eta tokian tokiko errealitateetan, baina alor energetikoan ikusten duguna, maila globalean eta gure kasuan ere maila lokalean ez da zuzena. Erantzun desegokiak ikusi ditugu Johannesburgoko Goi-bileran edo EBeko politikan zein Euskal Herriko proiektu berrietan. Eta horrek argi erakusten du arazoak ez direla zerutik jaisten, naiz eta herrialde txikia izan gure erantzunkizun energetikoa handia da, eta, ez badugu gure norabidea aldatzen, arazoa txarrerako eraman egingo dugu. Iraganetik eta orainalditik ikasiz eta oraingo ildo energetikoari balaztak jarritz, gure ale garrantzitsua jarri beharko dugu maila globalean. Nafarroan hasitako bidean, bide egokia zen, beraz jakin badakigu norabide okerretik nola ateratzen den.

Azken urteotan, Euskal Herrian alor energetikoan egon diren eztabaida, mobilizazioak eta kanpainak gizarte zibilaren partetik ez dira Lemoizko garaikoak bezalakoak. Zornotzan dago erresistentzia gradu altuena, baina zornotzarren ereduak ez da zoritxarrez Castejon, Santurtzi edo Muzkizera zabaldu. EAEko parke eolikoaren aurka egon dira protesta ugari ere, baina administrazioa eta enpresen arteko loturak oso indartsuak suertatu dira eta nahiz eta ahaleginak egin platatorma antermikoak, errauskailuen aurkakoak eta parke eolikoaren kritikoak batera joateko, oso zaila izan da ekintza-programa bateratu baten atzetik biltzea. Hor datza euskal ekologismoaren gabezia potoloa.



Euskal Herrian egonik, nori eskatu behar zaio erantzunkizuna, Parisi edo Madrili? Energiaren inguruko politikek argi uzten dute hazkunde ekonomikoaren defentsan ez dagoela fisura edo artekarik. Gobernu estatal edo erregionaletatik udaletxetara, Foru Aldundietaik igaroz, klase politikoaren erantzuna da berdina. Hor askotan ez dago ezkerre eta eskuinaren arteko desberdintasunik. Ezker Abertzalea normalean eta Ezker Batua batzuetan dira ahots diskordante bakarrak Euskal Herriko arku parlamentario zabalean, eta horrek adierazten du norabide politikoa aldatzeko zailtasun handiak daudela. Gure politikarientzako merkatuaren indarrak eta interesak onartu ezean, segurtasuna eta egokortasuna akabo. Eta gure galdera da: Nork planifikatzen du, administrazioak ala enpresek? Edo beste modu baten esanda: Planak zertarako dira, interes publikoak babesteko ala interes eta negozio pribatuen aurrean bertan behera jaisteko?

Globalizazioaz gain, batzuek globalizazioaz hitz egiten dute. Nahiz eta dermio hibrido horrek esanahi ugari izan guri burura ekartzen digu behin eta berriz hemengo indar globalizatzaileen jokabideak. Ezin dugu ahaztu non bizi garen eta nola. Gure enpresa energetikoak, kasu honetan, munduko indartsuenetarikoa dira eta globalizazioaren eta liberalizazioaren garaian bertan eta atzerrian ari dira haien etekinak ahalik gorenera eramaten. Gure erantzunkizuna da Euskal Herriko hiritar moduan bertoko eta atzerriko politikariei jokabide ekonomiko eta negozioen aukera berrien aurrean gizakien eskubide sozial, sindikal edo osasunezkoak errespetatu ditzaten eskatzea. Aldiz, eta arestian ikusi dugun legez, EAEan eta Nafarroan indar politiko gobernariak bat egiten dute enpresen jokamoldeekin eta hortik bi ondorio ateratu ditzakegu: lehenengoa, politikarien esperantzak ere merkatuaren dinamika hazkorrean daudela lehengoz eta gero hiritarren eskubideen begirunean eta bigarrena, gaurko klase politikoa eta enpresarien arteko oso adostasun gradu handia dela eta autonomia gutxi dagoela potere politikoaren partetik. Azken batean, hori da globalizazio neoliberalaren funtsa, instituzio politikoaren subiranotasuna kenduz, enpresa transnazionalen lehentasuna ezarri.

Enpresa energetiko handia da Iberdrola, Iberduero eta Hidrolaren arteko batuketara. Azken hori Espainiar Estatuko lehengo enpresa elektrikoa burtsa kapitalean eta hirugarrena Europan. 2002an 9.594,3 milioi euro irabazi zituen eta 9.422 langile zituen kontrataturik, 9.685 2001ean. Liberalizazioaren europar arauak direla medio eta kompetentzia librea errespetatzearen Espainiako gobernuak ezin zuen onartu ENDESAn egin zion eskaintza fusiorako. Euskal Administrazio eta sindikatuen aldetik, oso txarto ikusi zen jokabide hori eta bertoko interes ekonomiko eta sindikalen aurkako erasotzat interpretatu zen. Ez dugu aldiz, inongo kritikarik entzun Iberdrolak Mexikon edo Brasilen dituen negozio globalizatzaileengatik, handik ekartzen dituen etekinak salatuz.

Badaude zeinek politikoki zuzena errebindikatzerakoan *liberalizazio* hitza errafusatzen duten kontzeptuaren endekatze bat ikusten dutelako eta ez zaie arrazioa falta. Egia bada orain dela gutxira arte energiaren produkzioan eta hornikuntzan

monopolio estatalak eta pribatuak egon direla Europa osoan, mendebalde zein ekialdean, liberalizazio dermioa erabiltzearekin ez da islatzen ongi gure aurrean dugun panoramika berria, hau da, enpresa erraldoien handitze-prozesuak, konpainia txikien xurgatzea eta produktugile txikientzako alde txarrak eta eragozpenak. Halaxe gertatzen ari da ziklo konbinatuaren proiektuetan non gure artean Iberdrolak bere proiektuak ziurtatuz gero lekua ixten die beste batzuei baina ez lehenago, administrazioaren konnibentziaz. Lehengo egoera monopolio baten eta besteen konkurrentzia eragotzita bazegoen, oraingoan oligopolioak etorri dira ordezkari moduan; baina ez merkatu libre bat eta enpresa ertain eta txikien askatasuna oso murrizta dugu energiaren europar *merkatu librean*. Iberdrolak oraindik badu milio bat bezero EAEn eta ez dirudi bezero arruntek aukera izango dugunik beste hornitzaile bat aukeratzeko aurrerantzean.

Enpresari eta aditu ekonomikoek dioten arabera, koiuntura berri honetan dagoena da kapitala biltzeko aukera bat, *negoziorako aukera* berri bat non talde enpresarien arteko lehia eta lasterketa nabaria izan den. Inola ez, eskaria eta eskaintzaren arteko desfaseak asetzeko saioa, baizik eta merkatu berrietan eta batez ere esportazioan beren helburu nagusiak paratzeko interes komertziala. Aspalditik Euskal Herriko klase enpresariaren ikusmira negozioak egiteko kanpora, atzerrira begira egon da eta horrek Hego Euskal Herrian behintzat kultura industrialia eta goi-mailako bizimodua ekarri ditu, antza. Energia alorrean datozen urteetan gas naturalaren inportazioak energia nuklearra edo fuel-olioarena ordezkatzera datoz. Beraz, izan zitezkeen berri onak, baina gogo esportatzailea ez da itzali eta Nafarroan eta EAEn kontusmitzen dugun elektrizitatearen bikoitza ekoitziko da eta hori kanpoan saldu beharko da.

Indar-metatzea ez da eremu lokaletik zabaldu esparru eta diskurtso orokorra-goetara edo hobeto esanda egon diren saioak puntualak izan dira, jarraipenik gabe. Hori dela eta, jende asko eta ekologista batzuk ere esan dute mobilizazio hauek NIMBY (No in My Back Yard- Ez Nire Etxeko Baratzean) kutsua izan dutela. Ez gatoz kritika horrekin bat, baina bai lokalismoak ez duela onartu indar-metatze zabalago bat, non aterki baten antzera, aktore gehiago eta diskurtso energetiko integratuago batekin proiektuen zaparradari eustea posizio gogorragoekin. Tokian tokiko dinamikak ezinbestekoak dira baina interlokuzio eta eztabaida potere politiko eta ekonomikoen ardura izateko gorago jo behar da, eta ardura horretan talde ekologista nazionalek beren erantzukizuna dute.

Amaitzeko, gogora ekarri behar ditugu energia-politika eramangarri baterako Euskal Herrian egin diren proposamenak. Besteen artean azpiegitura energetikoen moratoria eta prezioen politika fiskal berri bat (ekotasa finalista) eskaria mugatzeko, non kontsumoaren gutxitzea sarituko zen eta aurrezkitze eta eraginkortasuna bultzatuko ziren. Bide batez, eguzki-energiaren erabilpenari lagundu beharko zitzaion, bere ezarpeneko dauden zailtasunak ezabatuz.

Euskal Herria txikia baina ugaria, eta alor energetikoan enpresa erraldoien parean permititu eta sustatu behar dira enpresa energetiko lokalak eta komarkalak. Horrekin ikusiko zen posiblea dela aurrezkitze eta eraginkortasun energetikoa eta bide batez gaur egungo teknologia berriekin eta publikoaren konpromisoarekin nazioarteko konpromisoak betetzeko aurrerapauso sendoak eman.

Erabaki horiek hartzeko unean, ezinbestekoa ikusten dugu parte-hartze publiko demokratikoa; baina Zornotzako kasuan ikusi denez, hori oraindik gainditu gabeko gaia da guretzat.

## **BIBLIOGRAFIA**

- AEDENAT (1993): *Energía para el mañana. Conferencia sobre “Energía y equidad para un mundo sostenible”*, Libros de la Catarata, Madril.
- Componer, ÇB. (1978): *Energias Alternativas. Energía para un mundo nuevo*, Gedisa, Bartzelona.
- European Environmental Agency (1999): *Environment in the European Union at the turno f the Century*, EEA, Kopenhage.
- EVE (1997): *3E-2005 Plangintza Euskadi 2005eko Energi Estrategia*, Eusko Jaurlaritzza.
- EVE (2000): *Euskal Herriko Energi Xehetasunak- 1999*. Bilbo.
- Flavio Ch. (1992): “Energia eramangarriko zubi baten eraikuntza”, in *Munduaren egoera 1992*. Woldwatch Institute. Bakeaz-Libros de la Catarata, Bilbo.
- Goodland, R. & Daly, H. (1990): “The Missing Tools (for Sustainability)”, in C.Mungall & D.J. McLaren (arg.) *Planet under stress: The Challenge of global change*, Oxford U. P., Toronto.
- Lohmann, L. (2001): “¿Democracia o carbonocracia? Corrupción intelectual y el futuro del debate sobre el clima”, *Inguruak*, **31**, Bilbo.
- Martinez, L. (2001): “Nueva Política Energética: Cortes, Leyes y Proyectos”, *Inguruak*, **31**, Bilbo.
- Matthes, F. & Timpe Ch. (2000): *Sustainability and the Future of European Electricity Policy*, Heinrich Böll Foundation, Berlin.
- Rodríguez Murillo, J.C. (1995): “Energía y equidad para un mundo sostenible”, in *De la economía a la ecología*, Trotta, Madril.
- Rois, C. (2003): “El comercio de emisiones de la UE”, *El Ecologista*, **37**, Madril.
- Unesco Etxea (2002): “Energia, gizartea eta ingurumena-Energía, sociedad y medio ambiente”, Garapen Jasangarriari buruzko Urdaibaiko VII. Jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzza.



## **Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk**

*Neoliberalismoa*

Alberto de Abajo Gonzalez (arg.)  
1999an argitaratua  
ISBN: 84-8438-003-3

*Arriskuaren gizartea. Modernitatearen krisia, teoria,  
gizartea eta politika Euskadin*

Andoni Eizagirre Eizagirre  
2002an argitaratua  
ISBN: 84-8438-033-5

## **Soziologia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikulak**

J. Habermas: komunikazioaren aldeko proposamena  
Amezaga, Josu, *Uztaro* **16**, 145-156.

Jenero kontzeptuaren inguruko hausnarketak  
Amurrio, Mila, *Uztaro* **14**, 89-98.

Komunitatea eta genero-harremanak J.J. Rousseau-ren pentsamenduan  
Amurrio, Mila, *Uztaro* **30**, 113-118.

Gaurko gazteriaren dibertimenduak irudi bizien metodoaz  
Apalategi, Jokin, *Uztaro* **1**, 139-163.

Euskarazko kulturaren geroa Europa Berriaren tenorean  
Apalategi, Jokin, *Uztaro* **4**, 155-162.

Langabezia: langabetuen psikosoziologia  
Apalategi, Jokin, *Uztaro* **8**, 133-163.

Bakea eta gerra euskal haurren gogoetan  
Apalategi, Jokin, *Uztaro* **33**, 99-120.

J. Piaget eta Soziologia  
Apalategi, Jokin, *Uztaro* **44**, 87-98.

Identitate kolektiboak: berauen analisirako zenbait ohar  
Arriaga, Mikel, *Uztaro* **12**, 135-142.

Gazte-taldearen errepresentazio soziala  
Arrospide, Juanjo, *Uztaro* **7**, 155-179.

Gorri-berde... askatasunerako koloreak. Ekosindikalgintzaren arazoaz.  
Barcena, Iñaki, *Uztaro* **8**, 119-132.

Venezuela: ekonomia, gizartea eta bideragarritasun demokratikoa  
Belaustegi, Luis; Unzueta, Iñaki; Urruela, Victor, *Uztaro* **13**, 129-140.

Gizarte-erakundearen erronka berriak Euskal Herrian  
Casquete, Jesús, *Uztaro* **30**, 105-110.

Energiak eta erregaiak  
Grenon, Michel (Itzul.: Ander Etxebarria Otadui), *Uztaro* **41**, 101-114. Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa.

Mugimendu sozialak eta demokrazia Euskal Herrian: intsumisioa eta ekologismoa  
Ibarra, Pedro; Zubiaga, Mario; Barcena, Iñaki, *Uztaro* **14**, 99-125.

Komunikabideen eraginari buruzko ikerketa: ikuspegi historiko bat  
Iturrioz, Ander, *Uztaro* **3**, 109-122.

Euskal nazionalismoaren berreraikuntzaz  
Iturrioz, Ander, *Uztaro* **10**, 95-121.

Boterea Niccolo Machiavelli baitan  
Iztueta, Paulo, *Uztaro* **5**, 151-177.

Nazio-arazoaren pedagogia: Irlandatik Euskal Herrira  
Iztueta, Paulo, *Uztaro* **27**, 83-105.

Masa hedabideen eragina arlo ointelektualean: figura intelektual berrien sorrera dela eta Larrinaga, Ane, *Uztaro 38*, 59-81.

Trantsizioaldiari buruz  
López, Emilio, *Uztaro 4*, 127-154.

Nazionalismoaren edukin etikoa atzemangarria da?  
López, Emilio, *Uztaro 11*, 105-133.

Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritzza: globalizazioaren inguruko diskurtso soziodeologikoak  
Martinez, Zesar, *Uztaro 41*, 65-100.

HIESa fenomeno sozial gisa: irudikapen sozialen dinamikari buruzko ikerketa bat  
Peña, Oihane; Orella, Leire; Saiz, Alnhoa; Olaizola, Ainhoa; Salaverria, Ana Jesus, Agirrezabal, Arrate; Valencia, Jose Francisco, *Uztaro 45*, 101-116.

Nazioaren Europa, ala Europako nazioa  
Smith, Anthony D., (Itzul.: Joseba Osa), *Uztaro 17*, 159-167. Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa.

Arrazakeria gaur egun  
Touraine, Alain, (Itzul.: Joseba Osa), *Uztaro 22*, 81-96. Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa.

Gizarte modernoaren diagnostiko bat (hurbilketa Habermas-en krisi kontzeptura)  
Unzueta, Iñaki, *Uztaro 18*, 61-81.

Komunikabideak, nazioa eta boterea  
Urrutia, Santi, *Uztaro 12*, 143-153.

Mobilizazioaren teoria soziologiko berri baten zirriborroa  
Urteaga, Eguzki, *Uztaro 15*, 109-140.

Estatu frantsesa eta Iparraldeko mugimendu antimilitarista: harremana eta bere eraginak mugimenduaren ibilbidean  
Urteaga, Eguzki, *Uztaro 21*, 113-118.

Ikasle militanteen esperientzia  
Urteaga, Eguzki, *Uztaro 26*, 65-79.

Kazetariak eta formakuntza profesional iraunkorra  
Urteaga, Eguzki, *Uztaro 36*, 53-71.

## **Soziologia-Historia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak**

«Navarrismo» euskaltzalea  
Arraiz, Iosu; Iriarte, Iñaki, *Uztaro 32*, 81-90.

Demokrazioa eta naziotasuna  
Lopez Adan, Emilio, *Uztaro 32*, 91-102.

Nazionalismo erradikal berria (1959-1974): Galizia, Katalunia eta Euskadiko kasuen ikerketa konparatzailea  
Rubiralta Casas, Fermi, *Uztaro 32*, 103-116.

## **Zientzia politikoa Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak**

Erljioa eta herri-nortasuna Euskal Herrian eta Quebec-en  
Itzaina, Xabier, *Uztaro* **31**, 129-150.